

SANTA TERESA

Egoitzak



JESUS'EN TERESA DEUNA

Eliz-Irakaslea

Egoitzak
edo
Barne-Gaztelua

Euskeratzailea:

Aita Onaindia

Azaletako marrazkiak:

M. T. Agirregoikoa Aristondo

AITA KARMELDARRAK

LARREA

1981

Bear diran baimenakin
© Aita Onaindia, Larrea 1981
Depósito legal: NA.: 937-1981
ISBN 84-85458-03-6

OARRA

Oraindik oraintsu Oñati'k Barandiaran eta Lekuona'ri egin zioten omenaldi egunean —ni ere an nintzan—, gizaseme urtetsu, ille-zuri, ortzargi bat aurretatu zitzaidan elizkizun ostean, nerekin itz-egin nai zuela esanik. Joakin Errekarte zan, zumarragatarra.

Santa Teresa'ren «Egoitzak» euskeraz jarten omen ziarduan. Aspaldi zebillen, aitortu zidanez, «bere espirituarentzat janari goxo bat gertatzen»; baiña ortarako, «itzal aundiko nortzu batek esan zionez» karmeldar lekaiame argiaren liburu au osorik euskeratzea zuen lanik ederrena. Zati bat egiña zuen orduko.

Nik erantzun nion: neroni ere ortan ari nintzala, urte onen lenengotik gutxienez. Segi zezala, ala ere, ark bere bidetik, eta nik neretik ekingo niola. Eta orrelaxe osotua dugu bakoitzak bere lana egiñez.

Emen, baiña, nere itzulpena dijoa. Nere itzulkidea, gaiñera, aren semeak oraintsu iragarri zidanez, liburu au argitara orduko eramán digu Jainkoak bere betiko zorientegira. Bego emen, orraitio, gizaseme jator aren oroipen goxoa.

Bi urte barru (1962) ospatuko dugu, J.1., Teresa deunaren lareungarren eriotz-urtea. Origatik, datorren urtean etorriko zaigu Aita Santua, Juan Pablo bera ere Avila'ra ta inguruetara diotenez.

Gertakariok dirala-ta, batez ere, argitaratzen dugu liburu bikain au.

Larrea, 1980-12- 28'an.

AITA ONAINDIA

SARRERA

Literaturan jakintsu diranak idazle azkartzat jo izan dute Teresa ama. Askoren artean bat aipatzeko, eta zorrotza bera, Leon'go Luis Aitak sarri goratu zitun, irakurriz ta aztertuz zuritu ta etsi izan ondoren, aren idaz-lanak; atsegin zitzaizkion karmeldar lekaime argiaren letrak, beurotan agertzen digun leuntasuna, zorroz-tasuna, sakontasuna ta egitasunagatik batez ere. Esku artean darabilzkin gaiak jaikiak izanik ere, beste idazle trebe jakintsu batzuk baiño, mistika arazoetan nunbait, ulerkoi ta zeatzago azaldu ta adierazten dizkigu, egia esan; eder ta eskertsu zerion erakusten zuena atz-artean zerabillen luma puntatik, itz egoki ta sotillez apainduta ziuurki; «ez dut uste —dio Fray Luisek— gure izkuntzan beste idatzirik dagoanik arenarekin berdindu deza-kegunik».

Ixil-ostuka ibilli gabe aitor dezagun erabat eta gar-biki: izkera lau ta jainkozko onek atsegin benetakoa erne-azten digu biotz-barrenean, irakurtzerakoan diot. Errian ariz ariz ikasia zuen erritarrak orduan mintza-tzen zuten gaztelera giar txairoa. Teresa amaren idatziak,

geienak beintzat, sukalde kutsuz gardostuak daude; du-darik gabe itz bakoitzak indar berezia du, naizta jarten ditun esaldi, idazkun eta itz-txatalak ez izan, askotan beñik-bein, mugatu errezak.

Illun xamar agertzen ba'zaigu ere iñoizka, berak darabillen izkera biziagatik duzu geien bat. Aren oparotasuna, berriz, izugarria da toki askotan; aske ta lasai doaz aren ideiak, eder ta brastako, labur ta sarkor, ugolde indartsuak bultz-eraginda bezelatsu. Olan, gura ezta ere, prosa bikaiña, leuna, garaikoa, errikoa irteten dio idazkortz-puntatik.

* * *

Asko idatzi zigun Santa Teresak. Eta arrigarria benetan, berandu asi zan idazten, ots, 1560'an; 1515'an jaio bait zan, 45 urte zituelarik. 1582'an il zan; beraz, 22 urtean, beste milla arazoren artean, idatzi zitun aibat gauza eder.

Ona urrenez urrengo sail bikaiña. 1560: *Cuenta de conciencia* (Barne-bizi kontua); 1562: *Libro de la Vida* (Bizitz liburua) asten du, ta *Camino de Perfeccion* (Onbidea); 1563: *Meditaciones sobre los Cantares* (Abestiai buruz Gogarteak); edo *Conceptos de amor de Dios* (Jainko-maitasunezko Burutakizunak), eta udazkenean, *Constituciones* (Oin-legeak); 1572: *Desafio espiritual* (Gogozko Eztabaida); 1573: *Las Fundaciones* (Lekaimetxeak); 1575-76: *Relaciones* (Artu-emanak); 1576: *Visita a las Descalzas* (Karmeldar Lekaimeteei Ikustaldia); 1577: *Vejamen* (Mudur-salda), eta *Las Moradas o Castillo interior* (Egoitzak edo Barne-Gaztelu).

Ba-dauzka oindio beste txikiago batzuk ere: *Poesias* (Olerkiak), *Cartas* (Eskutitzak), *Pensamientos* (Oldozkunak), *Exclamaciones del alma a Dios* (Arimearen Oivak), eta abar.

Egoitzak

Besteak beste gu gagozkion euskeraz jarri dugun *egoitzak* edo barn-gaztelu oni. Emen adierazi zitun gauza asko aurrerago ere, amabost bat urte lenago, nai-ko samar emanak zitun 1562'tik aurrera borobildu zuen here *Bizitz-Liburuan*. Teresa, ala ere, goratuz zijoan mistika gauzetan, beti ere ixil ta ezkutu arrigarriagoak aurkiturik Jainkoagazko artu-eman eta doai-uzta ta arloetan. Onela dio berak: «Barruko gauza aueri buruz itz-egitean, ba'liteke zeaztasunen bat zuzen ez egotea beste leku batzuetan esanda daukadanarekin. Ezta arri-tzekoa, ia amabost urte joanak dira ua idatzi nuenetik, eta arrezkero Jaunak argitasun geiago eman dit gai auek obeki ulertzeko. Ala ere, orain eta orduan uts-egin nezakean, baiña ez gezurrik esan; Jainkoari esker, bada, on baiño leenago milla erio jasango nituzke. Ulertzen dudana diot» (IV *Egoit.*, II Idazp., 7 zebk).

Grazi, doai ta mesede bereziai buruz idatzitako liburu ontan, Teresa deunak, besteetan azaldu ez zituen mistika alorretako gai askotxo irauli ta argitzen ditula esanaz ez dugu gezurrik ez geiegikeririk jalgiten. *Egoitzak* da azkenengo ondu zigun liburua, eta egia esan, aurreragoko liburuak egiterakoan, geroago ikusi ta sakondu zituan otoitzaren samurtasun eta bikaintasunik asko, euren sakontasun osoan ulertu ta jabetzeko zeuzkan. Arimea, izan ere, Jainkoarekin alkartu ta bat-egiñago ta gorago doa maillaz mailla izugarrizko bi-deak zear, Jainko-maitezko zirkillu, kako ta itzul-inguru loratsuetan zear noski. Gogoak ez darabil burutan, ona eldukeran, Jainkoa maitatu ta Aren naia egitea berterik. Biak, Jainkoa ta arimea, alkar arturik daude, txin-gori gor bi ala-ala.

Teresa deunaren irakaspena benetan dugu ezti leguna. Zergatik? Berak diosku au: «Emen ez bait gera gauzetaz ari, Jainkoaz baizik, eta Ian legunagoz ta dis-

tira biziagoz noski». Orduan ez bait zekin zillargilleak ainbeste, urre erabillia ere lege obekoa izan. Arimea, otoitz-aro bikaiñez, oso-osorik Jainkoari emana, Jaunak berak, zillargilleak zidarkia lez, bere eskuz landu, eraberritu ta dotoretzen du emeki emeki. Zeru txikia da arimaren barrua, Jainkoa izanik jaun ta jabe. Otoitz-bizitza gorituan dabilta biak.

Onbidean, onela dirakurgu: «Beraz, eztaukagu iñora urten bearrik Jainkoaz itz egiteko, ez Bera gurtzeko. Geure barruan sartu, besterik eztoгу bear. Atara oituten danak irabazi andiak izango ditu; erreztasun andia lortuko dau otoitz-bizitzarako. Errezetan asi orduko igarriko dau bere zentzun eta almenak, erleak erlategira lez, barrura yatorkozala; apurka apurka, aunditasun andi bat nabaitzen dau; kanpoko gauzak ez dautse zirkiñik eragiten, ikusi be eztitu nai; begiak be berez-berez gelditzen yakoz itxirik, barruko Jaunari adi egoteko. Zori onekoa oitura au lortu dauana! Ama Teresa'k autortzen dau, oitura au artu arte, ez ebala berak jakin otoitz egitearen poza zer zanik».

Otoitz-aldiko gozotasun eta ixil-ezkutuak azaltzen dizkigun barne-gaztelu deitu liburua, erdizka bezela sortu zala esan dezakegu: erdia, ain zuzen ere, Teresa'ren arimak garai artan zeukan egoera bizitik eta beste erdia nausiak agindu ziotelako. Toledo'n asi zan berau idazten eta guztiz egokia zitzaion ango bakartadea: alkartuago, iñoizkorik alkartuen nabaitzen zan Jainkoarekin aren gogoa, baita sentikorrago ere; sarriagoak zitun Jainkoarekiko ar-eman bizi sakonak; artzen zituan doai ta mesedeak, bezuza ta esku-erakutsiak ugarriagoak; mesede auen ondorenak, berriz, gorputzean ere ikusgarri egiten ziranak, aren naiaren indarrak ezin bait zituen ezkutatu.

Gaztelu bat iruditzen du Teresa amak. 1577'ko Iru-tasun deun-deunaren egunean eman zion asiera liburu oni. Bezperan otoitz-aldi gartsu sakona izan zuen: gra-

zian aurkitzen dan animearen edertasuna izan zuen gogarte-gai. Eta Jainkoak berak, gauza guztiak bear orduan eta era onez atontzen dizkigunak, barruan leiaz sentitzen zuena beterik, gaia eman zion, aukerakoa, liburu bikain eta munduan bateko au osatzeko.

Kristalezko borobil eder-ederra asmatu zuen Teresa'k gaztelu antzera, eta gaztelu barruan zazpi egoitz edo bizileku. Azkenengo egoitzaren erdian, gazteluaren erdi-erdikoan alegia, aintzazko Erregea ikusten du diztira bizi-bizia zeriolarik, bazter guztiak, eder zoragarri, jarten zituana, kanpoko itxiturairño. Barrukoak, ordea erdirago ta argi geiagoren jabe ziran. Argi onen errairñuak, alan eta guzti, ez ziran kanpoko ormetatik atera irixten ez zabaltzen; kanpoan, bada, guztia zan illunpea ta loikeria, lau ankakoz, sugez, txantxikuz, ziraunez, muskerrez eta beste pizti nazkagarritz beteta.

Gazteluak zitun zazpi egonlekuok zazpi otoitz-mailla legez asmatu zituen Teresa amak. Otoitzaren bidez geure baitan kiribiltzen gera ta apurka apurka ba-goaz Jainkoagana urbilduz. Izan ere, genre arimearen ondarra jotean, itxas-ontzi batek ur-ondoa bezela, orduantxe eldu gera gaztelu erdira, au da, zazpigarren egoitzera, Errege dizditsua bere edertasunean aurkitzen dan lekura. Emen-txe alkartu oi dira Jainkoa ta arimea, batasun oso-osoan bat egiñik, alkartu ere.

Labur: Teresa deunak jauregi txit eder bezela iruditzen du arimea. Irudikizun au ernai darabil aurrean, eta atsegin zaio. Gaztetan —eta gero ere bai— ikusiak zituen olako torre-etxeak eta jauregiak, an inguruetan. Bai, giza-arimea olako gaztelu aratza dugu. Jainko-graziaz eta doaiez jantzita barrutik eta kanpotik ere loretegi, baratze, oker-bide, iturri ta olakoz inguratua, ^{bizi-egi} askoz betea, batzuk goian, beste batzuk beean eta inguruetan; erdian, esan dugu, Jainko aundiaren aulkia, dizditsu.

Lenengo egoitza. — Jakiña da, lenengo, obenpean dauden arimak ez daukatela onera sartzerik, gaztelu ontan ez daukate lekurik; kanpoko illunpe utsean bizi dira leku goibel errukarrian argirik gabe, zatar ta likits ta loi-lokatz artean. Jainko grazian daudenetatik ere, gaztelu barruko egoitzetara sartu arren, batzuk egoitza aue-tara irixten dira ta beste batzuk aietara, ta oietantxe daude gozatsu bizi guztian; beste batzuk aurrerago dagie, erdian dagoen Jainko-aulkiraiño urbilduz.

Lendabiziko egonlekuetan daudenak, auek dira: pekatu astunetik aske egonda ere, milla arazo lurkoi ta alperreko eginkizunetan murgildurik bizi diranak, eder zaizkie munduko gauzak, atsedean, poztasun eta gozo-atsegiñak; aundiki-zale dira, ondasun askoren jabe, dedu-diztiraz errez lausotzen diranak. Onako arimak, gaitzaren autsez illunduta aurkitu ezta be, ez dute artu oi Jainkoagandiko gozotasun esatekorik; ez dagite Jau-nak esanik eta errez jausten dira pekatu ariñetan, eta ilkorretan jausteko ere arriskuan jarten zaizkigu ez gutxitan.

Arimok otoitzari ekin bear diote, Jainko-zaletu ditezen. «Otoitzik ez duen arimea, izan ere, gorputz elbarritu baten iduriko da; esku-oiñen jabe danarren, ez da gauza euroi eragiteko». Otoitza da, gaztelu ontan sartu ta aurrera egiteko bide bakarra. Zein otoitz, baiño? Ona Teresa amak: «Ez dut esan nai gogozkoaren aide, aozkoaren aide baiño geiago dagonik, otoitza ba'da, gogoz ausnarturik egin bear da-ta» (*I Egoitzak*, I Idap., 7 zenbakian).

Auxe duzu otoitzean aurrena egin bear dana: norbere burua ezagutu, orixe da bai naitaezkoena. Teresa'k onela: «Norbere burua ezagutzea, arimea danik eta goren aurkituta ere, ez da iñoiz baztertu bear, otoizlariak bere zeregiñik beiñena orixe du-ta. Apaltasunak beti daki, erleak erlauntzean legez, bear dan ezta ontzen, au bank guztia alperrik litzateke-ta» (*Ibidem*, 8 zenbakian).

Norbere burua ezagutu. Grazian dagoen arimearen edertasuna... Pekatuan aurkitzen dan arimearen zataratasuna... Onbidean laguntzaille ta akulu ditugun biok, ez ditugu egundo ere saiets utzi bear. Geure indarren mende ba'gaude, zer garean ikusi; eta Jainkoak bere ederrean murgiltzen gaituenean, nola goazen maillaz maila eder-mendira igonez.

Apaltasuna, ordea, geure ezaugeratik sortzen, ura iturritik iduri. Onoimen bikain-bikaiña Teresa deunaren otoitz-irakatsian; apaltasuna ta maitasuna, emakume aundi aren iritziz Jainkoarengana irixteko biderik labur ariñenak. Auxe erakustsi digu arek, beste gai ta zertzelada askoren artean, bere liburu ontako zazpi egoitzetan.

Bigarren egoitza. — Ba-dira arimak, gazteluan sartu diranez gero, aurrera ere erabakitsu doazenak, baita beren biziaren eta atsedenen arriskuz izanda ere. Deabruak zirikatuko ditu, ez bait du olakorik nai, baiña erabaki sendoz ornitua ikusten baldin ba'du arimea, lenngo bizitegira itzuli baiño leen bere bizia ta atsedena eta jarten dioten guztia galtzeko prest dagoela noski, laster utziko du berean» (II *Egoitzak*, 6 zenbakian).

Inpernu guztia irtengo zaio bidera, artu duen asmua utzi dezan; bai, deabruaren aldetik burrukaldi latzak, gordiñak, gogor ta zakarrak izango ditu. Jauna, baiña, deiez dauka barrendik eta ez du atzerarik egingo: arimea, jakiña, asi-berria da-ta, guztia bearrean dago oindio, oso-eza, ta ez da arritzekoa, akatsen batzuk eta utsaldiren batzuk izatea noz edo nozko batean: ez da bear bada zauri gabe burrukatik irtengo. Lagun du Jauna, ta bere gogoz atzeratzen ez ba'da, azpiratuko du ekaitza: bego uste ona Arengan, eta ezer ez norberegan. Auxe noski, burrukatik garaille irtetzeko bide bakarra.

Bigarren egoitza ontan dabiltzan arimak ba-dituzte, ezin lezake inok uka, beren arrisku ta laprast zoriak; munduko zorakeri, marro ta iruzur artean nastauta dabil-

tza oraindik, gaur jausi ta biar jaiki, pekatu ariñen zamapean sarri; baiña, ala ta guztiere, ez diote entzungor egin oi Jainkoaren deiari, kontzientzi barrutik intziri xamur legez jaikitzen zaienari. Bizitza obetzerako deia da, eta, batzutan beintzat, betetzen dute Aren naia, zirikaldi ta eragotzen aundiak aurrean jarten zitzaizkien arren. Leen baiño urbillago aurkitzen dira Jaunagandik; Aren eragiñak edo, darabilzki.

Arimeak ez du egundaiño artu duen bidea, otoitz-bidea utzi bear. Oker aundia litzateke. Ekin otoitzari eror ez zaitezten. Ikus oneri buruz Teresa amak zer dioskun: «Begira ezazue, bir-erortzea jaustea bera baiño okerrago duzue-ta». Izan uste osoa Jainkoaren errukian eta ezer ez norbere baitan, eta «ikusiko duzue Aren Aunditasunak nola daraman arimea egoitza batetik bestera, era nola sartzen duen pizti auek ez ikutu ez gogait-erutzen ekingo) ez dioten lekuan» (II *Egoitzak*, 11 zenbakian).

Irugarren egoitza. — *Ezpirituko* bizitzan, indarketa da-ta, atzera edo aurrera egin bearra dago, atzeratzen ez danak aurrera dagi. Azi ezik txikitzen, zan aspaldi esaera. Ekiñaren frutua da irugarren bizilekuetan sartzea; ekiñez eta iraunez da azkeneraiño irixten bakar-bakarrik. Arima asko daude egontzotan, Jauna iraindu nai ez dutenak, oben txikienik ere egin gura ez luketenak, penitentzi ta ildura egiñik beren baitan kiribilduta bizi diranak, urko lagunaganango maitasun-egintzetan ari diranak. Zerbait, ala ere, palta zaie.

Ebanjelioko gaztea irudi dute. Biotza dute ainbat gauzari erantzi ta josia. Goi-ariñak eta buru-iritziak ditugu, ia beti, arimok; naiz-ta mee ta ixillikan, asko ba'daukate, geiago opa dute, ez datoz bat Jaunaren naiarekin, ez dira oindio apalak, buru-ukapen eta penitentzietan zuur dabilza bada-ezpadan, alkar-maitasunean ere uts aundiak egin oi dituzte. «Ez izan bildur —dio Teresa deunak— auek ez dute beren burua ilko! Beren

errazoa ondo dago bere baitan; beren maitasuna ere ez dago oraindik zentzuna galtzeko bestean beroturik (III *Egoitzak*, 11 zenbakian).

Ez dute, esan dugunez, pekatu ariñenik ere egingo, jakiñaren gaiñean beintzat. Orduak dauzkate barnera bildu ta otoitzean ari izan ditezen; ez dute aldirik alperkerian galduko; urkoekin adeitsu ta ganoraz mintzatzen dira beti; jantzian garbi, ta jaterakoan jan-gartsu. Baiña maite dituzte beren buruak, geiegi kezkaraziz; iñork eses-tea edo-ta iraintzea ezin dute eraman, ezta beren izen ona txikitu naiz zirpildu lezakenik ere, ez dute errez jasango. Jainkoak maiz bialtzen dizkiete idortasunak eta biotz-larriak, eta ezin diete oieri jazar egin, iñolaz ere.

Akats guztiok gorabera, aurrera egingo dute; ta aitor-entzulearen esanera jarten ba'dira, apalak izaten alegintzen ba'dira, otoitz-bidez dabiltzanakin artu-emanik baldin baidute... Jainkoak noizik bein gogo-atsegin eta goxotasunak ere eman oi dizkie. Zintzo ta leial diranakin ementxe asten da Jauna, dirudinez, izatez goitiko grazi ta mesedeak arimai egiten.

Apal maitati diran arimakin eskertsu agertu oi da Jauna. Egoitza ontara eldu ta aurreragotu nairik alegintzen diranen leiak ez omen dira sari gabe gelditen, Teresa deunak dionez. Irakur beraren itzak. «Arima auetan —dio--, Jaunak ez du ordaindu gabe uzten zuzen danez, baita errukitsu ere, beti bait du ematen guk merezi baiño geiago, bizitzeko esku-erakutsiak eta jostaketak eman al dezaizkigutenak baiño poz-atsegin aundiagoak emanaz. Baiña ez dut uste gusto askorik ematen duenik, noizik-bein izan ezik, beste egoitzetan zer gertatzen dan adierazteko bear bada, aietan sartzeko prest egon ditezen, ziur asko» (II *Egoitzak*, 9 zenbakian).

Iruugarren egoitz auetan ere ba-dira, beraz, goietariko zerbaitzuk Jainkoak doai utsez arimeari emanak.

Laugarren egoitza. — Esan dugu: arimea gai da bete alegiñez aurreko iru egoitzetaraño eltzeko, bidean ibilli ta ibilli Jainkoagandiko doai ta mesede berezi batzuk alakoren baten artuz. Oizko graziaren bitartez, Jainkoak iñori ere ukatzen ez dion laguntzaz eldu ere.

Puntu ontatik aurrera ez; emen asten zaizkizu Jainkoaren adiguri, emaitz, esku-ikusi ta mesedeak, eta Jainkoak berak daramazki arimak urrengo egoitzetara. «Berezkoz gaiñeko gauzak datoz emen», diosku Teresa amak. Arimeak eziña du emendik aurrerako doai ta grazi apartekorik beregandu, Jaunak egin ezik. «Emaitzok, Berak banatzen ditu nai duenean, nai dunez eta nai duenari, iñori iraiñik egiteke» (IV *Egoitzak*, I laazp., 2 zenbakian).

Oraiñarte izan ditu arimeak otoitzaldian euki oi ditun atsegin eta pozaldirik asko, baita iñoizka barne-ixurtze ez motelak ere. Aurrerantzean, ostera, ez dira izango gure berezkotik datozenak ere, ezpirituzko atsegin eta gusto bereziak baiño: batzuetatik bestera bada diferentzi ta alderik. Zertan, ordea? Teresak onela: «Nik ikusi dut poz aundi batengandik malkoak ixurtzen, eta neri ere iñoiz gertatu zait ori. Neri, beraz, iruditzen zait pozaldi auek berezkoak dirala... Gozotasunak, gus-toak, Jainkoagandik dute asiera eta gure berezkoak sentitzen ditu».

Bizitoki ontan bestera da. Laugarren ontan asten dira arimak Jainkoaren izatez-goitiko gozotasun berarizkoak sumatzen: otoitz ixuriaren lenengo graziak, alkartasunezko obari ta eskupekoak. Lendabizi emen giza-naimena zelanbait Jainkoarenarekin bildua egon bear du, eta gero aalmenakin. Auek ere, ba, gazteluan sartzen dira osorik. Gogo-barruko edo bilduzko otoitzean, gure zentzunak eta aalmenak, Jaunaren deiari erantzunaz, barnera batu ta jaunarekin itz-egiten ari izatea, bi eratara izan daiteke: geure lanez lortua bata ta Jainkoak emana bestea. Naiz bata naiz bestea eukiteko, geure barman

sartu besterik ez dugu bear, kirikiñoa bete petral ondoan gorde oi dan bezela geure izate barnean kiribildu. Eta ortara oitutzen denak erreztasun itzala du otoitz-bizitzan aurrera egin dezan.

Otoitzean asiaz bat igarriko du arimeak, zentzunak eta aalmenak, erleak erlategira legez, barruraten zaizkiola, oartu gabe, pixkanaka pixkanaka jauntasun aundia artuz; kanpoko gauzak ez die zirkiñik eragiten, begiak berez-berez zaizkio ixten, barruko Jainkoari bakar-bakarrik adi egon ditezen. Teresa amak aitortzen digunez, oitura onekin jabetu arte ez zuen berak jakin otoitz egitearen gozotasuna zer zanik. Otoitz-egilleak lenago ondoan ikusten zuen Jauna, orain osterara bere baitan; au dala naiz beste egia dela, Kristo'ren bizitzako edozein gertaera aurrera ekarteko ez du irudimena nekatu bearrik: barruan du Jauna, iruditu bear gabe, here artean dauko Jainkoa maitasunezko egote zoragarritan. Eta, zertan esanik ere ez, emendik errez-errez datorriko erruz goi-ixuria, Jainkoak berak erioa. Ontan nabaitzen diran poz-atsegiñak ederki azaltzen dizkigu Teresa ama deunak.

Zernaitako onoiman eta birtutetan bizkor doazte aurrera olako arimak, Jainkoak urbillago ta beroago egiten ditu, eta birtuteak aziagotzen zaizkie, fedea, itxaropena, apaltasuna, eroapena ta besteak; lendabizikoa langoa ez dan alaitasun eta atsegin biziz gorituak daude, eta guzti au arimearen erdi-erditik sortua da, Jainkoak emana, gogoaren zentzun eta aalmen guztietara are ixuriaz dijoana. Arimea bere zentzun eta aalmen guztiakin Jaunaren baitan bizi da. Ez du ezeren kezkarik. Aregan du atsedean betea. Atsegin otoitza deritza oni Teresa amak (Ikus *Onbidea*, 35 or.).

Bostgarren Egoitza. — *Maillaz* maila jatsiz irixten dan erdiko barne dizditsu ontaraiño arima autak sartzen dira; auri eman oi dizkie Jaunak alkartasunezko otoitza ta oni dagozkien gozotasunak. Iru alkartu-era adierazten

dizkigu Teresa amak, onenbesteraiñoako maillara eltzerakoan. Au da, iru eratara lotzen gera Jainkoarekin: naimen uts-utsez, Jaunagan eta Jaunagazko gauzetan oso-osorik ari izanez; naimenez eta adimenez, biok Jaunagan ari ta zuzpilduz, bil-bil egin eta txikorturik; eta azkenik, naimenez, adimenez eta beste aalmen guztiakin ari izanez. Arimok Jaunari itsatsiak, Aregan murgilduak eta iratziak legez daude, ta «denak batera Jainkoagan ekiteko trebe dira».

Bai ederki azaltzen digula —beste askotan lez-Teresa amak arimearen jokabidea, irudikizun bikain baten bidez, zeta (seda) mamarroaren sortze ta azitze arrigarria, Jainkoak berak bakarrik asmatu zuena, egoki asko adierazten emanaz nunbait. Irudikizun onen bitartez azaldu digu ederki ere ederki alkartasunezko otoitza, urrengo otoitz-egiteen taju era ta jokabidea. Batasun laila dator aurrena, ezkontzarako itz-ematea bigarren eta gogozko ezkontza azkenik; iru maillotako otoitz-jardunak seda irudiaren bitartez aitzen ematen dizkigu emakume otoizlari bikaiñak.

Bostgarren egoitzetatik aurrera, gaztelu-alegoria bera baiño era geiago aipatzen digu seda-arrarena. Eder zaio, benetan. Aundi ta itsusiak dira seda-arrak, barnean ilten diranak. «Baiña laister irteten du —dio Teresa'k— txotiño ber-bertatik mitxeleta pitin zuri batek, guztiz polit panposa» (V *Egoitzak*, II Idazp., 2 zenbakian). Ar gaixoak, bere lanean, ekiñean, bizia galtzen du, arimeak bezela, baiña here onerako. Eta darrai: «Ementxe ausnar ditzakezue, ederki asko, gure Jaunaren jakituria ta Ark egiñiko gauza miresgarriak... Probetxu aundikoa da gauza arrigarriok gogoan erabiltea, Errege ain jakintsu ta altsuaren emazteak gerala-ta, atsegin artuaz» (*Onbidea*).

Arimea ere orobat, Jainkoaz batu danetik, ar ura iduri, bizia artzen asten da, Espiritu Santuaren berotasunaz obeto baliatu ta Kristok Elizan utzi zizkigun sen-

dagaiak —aitortza, irakurgai onak eta itzaren ots-egitea-aintzat artu ta ekiñaren ekiñez bereganaturik; onetxek ditu, izan ere, sendagairik bikaiñenak eta aukerakoenak, zabarkeri, oben eta arriskuetatik iges egin dezan. Auen bidez asten da biziten, auekin eta gogarte bikaiñez doa aurreratzen, aundi azi artean. Eta sedar au aunditu danean, sedagiñan asten da, eta ilko dan etxea jasoten; etxe au, jakiña, Kristo da. Gure bizia Kristo baita.

Jainkoa bera da gure egoitza. Eta bizileku au ere, dana Jainkoarentzat utzi gabe, alkartze otoitzaren bidez, geuk ere zerbait landu dezakegu. Nola? Geuk geuretik zerbait kendu ta beste zerbait ipiñiaz, seda-artxoak egin oi duten antzera edo. Ontan Jaunak berak laguntzen digu, Berak ipinten digu zatirik beñena ere. «Ea, bada —diosku azkenez Teresa amak— eundu dezagun kapil-kuska au, geure buru-maitakeri ta nai-izate larregiak kendu ta lurreko ezertxori ere itsatsi gabe egonik, penitentzi-egintzak arildu, otoitz, buru-ukapen, menpetasun eta dakizkizuten beste zer guztietan ari izanik» (V *Egoitzal*, II Idazp., 6 zenbakian).

Urko laguna, ordea, ez da egundo aaztu bear, deabruarekin ere kontuz ibillirik.

Seigarren egoitza. — Irakurriz konturatu

ezkutu sakonok alik eta ondoen adierazi nairik. Baita seigarren ado au azaltzerakoan ere. Irudiotatik ez ditu gutxi orduko gizarte oituretatik artuak. Bi pertsona ezkontzera doaztenean, ezkondu aurretik «alkar-ikusteak egin oi dituzte». Aurreko egoitzean aipatzen ditu Teresa amak ikusteak. «Ituna egiña dagoen ezkerio —dio—, eman dezagun arimeak ondo dakiala nolako onak datozkion batasun ontatik, eta gauza guztitan Senar aren naia egiteko gertu ta prest egonik, ortan Berari poztasuna ematen saia bearra du era ta leku guztietan» (V *Egoitzak*, II Idazp., 4 zenbakian).

Ikuste auek daramazkite alkarri eskua ematera ere.

Jaunak ainbat eratara egiten dizkio maite-erakutsiak arimeari, ta au guztiz maite-mindua geratu oi da: alegin guztiak egiten ditu, beraz, jainkozko ezkontza lardaskatu ez dadin. Ementxe, seigarren bizitoki ontan egin bear bait du alkarri itzemote egiazkoa; baiña ez da bertati egi biurtuko, naiz-ta arimea ondo maita-mindua gertatu. Ez, irrika dezala oindio biziago; onik aundiena dan ezkerro leia daitela areago, Jaunak ondo aztertu gura du: doala gertatuz, bizkor daitela Jaun orren aundiarekin batu ta Senartzat artzeko gai bilakatu dadin.

Gertatze-Ian au etzaio erreza izango arimeari. Era askotara probatuko du Jaunak; ainbat garraxi ta deadar etorriko zaizkio gaizkilleengandik, gaixoaldiak ez gutxi, argibide ta barru-proba luzeak, ez dute gutxi oiñazetuko aitor-entzuleak berak ere. Proba auek asko dira ziuurki ziuurren; baiña ez gutxiago gero Jaunak egiten dizkion doai ta mesedeak, millaka egiñak, gozo-atsegin-garriak, eta sarkorrak; ementxe jazoten da errai-zulatzeko bizi-bizia ere. «Naigabe au —dio Teresa deunak erraietaraiño irixten bide zaio, eta zauritu zuenak, gezi-zetna andik ateratzen duenean, egiaz esan dezakegu erraiak ere berarekin daramazkila» (IV *Egoitzak*, II Idazp., 4 zenbakian). Orren barrenkoaia bait da sumatzen duen sentimentua!

Alkarri itz ematea: egoitza ontan gerta oi alkartzea adierazteko, Teresa deunak, irudikizun oberik ez zuela aurkitzen eta, bere egunetan oitura zana dakarkigu esan nai diguna azaltzeko. Ezkontzera dijoazten bi pertsonak alkarrekiko uste onez gaiñezka egon oi dira, eta, jakiña, orduantxe asi ere egiten zaizkigu alkarri egiazko maite-erakusmenak, bezuzak eta doaiak egiten. Berdintsu Jainkoaren eta arimearen artean ere; arimea Jaunari emana dago oso-osorik, eta Jainkoak konta ezin ala ikuskari irudimenezko ta adimenezko eskeintzen dizkio: ainbeste zentzun galtze, il-zori uzten duten gaiñezkaldi oiñazetuak, ezpirituaren egazka izuga-

rriak, otoitz-aldi bitxi alaiak; batzuetan, Jauna bera agertzen zaiola, ikusteko moduan, uste du.

Zer guztiok azaltzen dizkigu Teresa'k luze ta maisuki seigarren egoitzean. Onuragarria bene-benetan!

Zazpigarren egoitza. — *Neke* ta pozaldi artean, Jaunak onezkero ikusi du arimea berea duela, egiazki. Osoan alkartzen dira Jainkoa ta arimea, beste iñor sartu gaberikan bien artean, dio Teresa'k; iñork ez daki an zer gertatzen dan. Dana dala, ainbeste maite-emaitez eta esku-erakutsi eder ondoren, arimea prest dago, otoitzean artu oi dan doairik bikaiñena eskuratzeko. «Gogozko ezkontza» deritza oni Teresa ama deunak. Eta onek —nola ez? — bere zeremoni ta jai-lege bereziak dauzka.

Jaunak, zerutar Senarrak, emaztetzat artu duen arimaz errukitu ta oni ainbat jasan eragin ondoren, bere bizitoki guren bikaiñean artu oi du: Jainkoak zeruan du bere egonleku aukerakoa, baita ariman ere. Bion batasuna, ezkutua seguruzki, «arimearen barren-barren erdian egiten da» (VII *Egoitzak*, II Idazp., 3 zenbakian). Arimearen erdian agertzen da Jauna —ots, Kristoren Gizatasuna—, gozotasun aunditan egertu ere. «Pax vobis» esanez agertu zitzaizen Apostoluei; emen ere berdin, ezertara ezin esandako atsegiñetan arimea utzirik; leendik nabaitu ditun gozotasun eta ikuskizun guztiak baiño bizi samurragoak zaizkio auek. «Arimea —idazten du Teresa'k—, arima onen ezpiritua diot, Jainkoaz bat-egiiiik oso geratzen d» (*Idem*, 4 zenbakian).

Antz edo iruditu bi dakarzkigu Teresa'k txit adierazkorrak, batasun au nolarebait aitzen eman gurarik: ura ta argia. «Ura zerutik erreka edo iturri baten jausi ta dana ur egiñik geratzen zaiguna da, ezingo da onezkero banandu ez zein dan jakin errekakoa ta zein zerutik jausia... Edo-ta, or gizategi bi leio, argi-parrasta aundia bertan ixurtzen dala: zatiturik sartu arren, egia

bat egiten da guztia (*Idem*, 4 zenbakian). Ementxe ilten da gure mitxeleta ere, bere bizia onezkero Kristo bes-terk ez da-ta.

Jainkotasunari erantzia, arimeak, erdi-une orretan, Jainkoaren arnasea ta ao-aizea nabaitzen ditu, eta berdin Aren ikutuaren gozotasuna ere. Oso ta bizi eraberritua ta jainkotua geratzen da olako arimea. Eta oraindik lur-gaiñ ontan ibilli bearra duen ezkerro, Teresa amak diosku, bere arimea, zerutiko eragin oiek sumatzen zitunean, «ordi antzera» zebilela. Barrutik, ala ere, pake narean; mitxeletak, ba, illa danarren, atsedena idoro du. Bere buruaz aaztua dago, aldatua sentitzen da oso-osorik: Jainkoaren aintza du ardura, ez du beste leiarik. Iñoiz esan zion Jaun aaltsuak, alegia, hegira zezala Bere gauzetan, Berak begiratuko zuela-ta arimearenetan; esan zizkion itzok ondorio bikaiñak dakartzkio. Jainkoaren aintza ta ospea zerbaitetan geitu, ez du beste zeregin ez asmorik. Betoz neke lorrak. Uragatik eramango ditu.

* * *

Bizitoki guztiotatik ibillia bezela, esperientziz gainezkatua idatzi zizkigun Avila'ko Santa aundiak pizkat azaldu ditugun egoitzok; argi ta ulerkor, noski, bere adimen zorrotzak aitu ta barrentzen zituan tamaña ta neurrian. Erlantz eta dirdai, barne-bizitzako txingar ixiotu ta gori artean etzaigu itsutu, garbi ta errime aurrera egin baizik. Beretzat ez dago ixilpekorik mistikazko gar artean ere, naiz-ta arima ta ezpirituaren barrunpeko ezkutuenetan murgilduta ibilli. Bere gogozko irakatsia, bi ta irutan esan bear ba'du ere, ondo zeaztua, birrindua utziko digu, bera mobidu zan bidezidor aietatik beste arima asko ere ibilli ditezen.

Bideotatik ibiltzea ez du arimeak, egia aitortzeko, bere maiña indarrez lortuko, Jainkoak doai utsez egin

oi duen mesedea bait duzu. Oi ez lako bideak dira auek. Teresa deunak onela: «Ezta au irudimenaren joko bat, alegiñak alegin guk geurez eskuratu eziña da-ta. Laister ikusi oi da ez dela gure meatz-lana, Jainko-jakituraren urre-lan garbi-garbia baizik» (IV *Egoitzak*, II Idazp., 6 zenbakian). Argi ta garbi mintzazten zaigu otoitzari azkarra, alkartze au atzeman al izateko guk ezin genezakela ezer egin esanaz.

Jainkoak eraman oi du arimea bere ardandegira, Berak sar-erazi ere Berak opa duen upeltegira, baiña Berak «nai duenean eta nai duen bezela (V *Egoitzak*, I Idazp., 12 zenbakian). Auxe dio bein eta berriz, egia-ri berea zor zaionez. Arimeak, orraitio, esker ona erakutsi bear dio Jaunari, xamur eta egiaz erakutsi ere. Mesede eskergak, merezi-ezak artu ditula? Betor esker ona ere, ugari ta etengabe.

Baiña oar ezazue au ere: otoitzean ari diran arima askotxo dira olako esku-erakutsi ta doairik artzen ez dutenak. Zer egin, beraz? Eulitu bear bada? Ez olakorik! Teresa amak ba-du olakoentzat zentzun aundiko beste irakaspen bat. Ez, ezta otoitz-bidea bakarra, mesede ta doai-bidea noski. Jainkoak ba-daki, ondo ere, guk zer bear dugun, eta otoitzari ekitean baitik bat, Aren naimena sendoki betetan ikasi bear dugu; auxe da beiñena. Ona Teresa'ren kontsejua: «Otoitz-bidean sartu danaren ardura guztia (eta ez aaztu au, gora aundikoa duzue-ta) izan bear du neketzeraiño Ian egitea alik eta erabaki sendoena artuz eta barrua obekien gertatuz, bere naia Jainkoarenarekin bat-egin eta egokitzen; zaudete ziur, auxe dozue osoan osotasunik garaienaren oiñarria, gogozko bidean edo santutasunaren gorengo erpiñerako bidean lortu dezakegun maillarik gurenena» (II *Egoitzak*, 8 zenbakian).

Auxe da, bai, ta ez besterik, bide seguru ta ziurra gora igo dezakegun. Onoimenez edertu bear dugu geure barnea: fedea, itxaropena, goi-maitasuna, loretu di-

tezela, ta iru sustraizko birtute auen oiñarri bezela, apaltasuna. Maitasuna ta apaltasuna eskatzen dizkigu Teresa deunak. Osotasuna ez dago atsegiñetan, ezta saria ere, geien maititu ta zuzenaren eta egiaren bidetik obeto dabillarengan baizik (*III Egoitzak, II Idazp., 10 zenbakian*).

Orobat esango digu zazpigarren egoitza bukatzean ere: «Apaltasuna etxe aundi onen oiñarri» (*VII Egoitzak, IV Idazp., 8 zenbakian*).

*Lau au, Gaztelu deritzaiona, Jesus'en
Teresa Amak, Karmen'go Amaren lekai-meeta-
koak, bere aizpa ta alaba karmenldar oiñutsen-
tzat, idatzi zuen.*

Jhs.

1. Menpetasunak agindu dizkidan gauzetatik gu-
txi egin zaizkit, orain otoitzari buruz idaztea bezin
zail eta neketsu; aide betetik, uste dudanez, Jaunak
ez dit on egiteko gogorik ematen, ezta kemenik ere;
bestetik, zarata aunditan daukat burua iru illabete di-
rala, eta guztiz makal; esku arteko lanei erantzuteko
idazten dut, baiña neke aundiz on ere. Alan eta guzti,
menpetasunaren indarrak eziñak diruditen gauzak ere
zelaitzen ditula jakiñik, lanari lotzen nakio gogo onez,
naiz-ta gorputzarentzat naiko nekegarri izan. Jaunak,
izan ere, ez dit eman, nere bizitza mintsu ta era asko-
tako lanen erdian, gorputzaren eztenkadak gaintzeko
indarrrik. Lagun bekit Berak, Aren errukian uste on
bait dut, eta nire onerako lendik ere au baiño gauza
zaillagoak egiñak bait ditu.

2. Uste dut, lendik ere idazteko agindu zizkidaten
gauzetatik gutxi baiño ezingo dudala gaiñeratu: beldur
naiz, ba, len esanak bir-esango ote ditudan, berdin
samar esan ere; abesten edo izketan erakusten dioten
txoriak ez dakite entzuten edo erakusten diotena bes-

terik, eta auxe esaten dute bein eta berriz: auxe berau esango dute nigatik ere. Jaunak nai baldin badu nere bidez zerbait berri adierazi, Aren Aunditasunak emango du, edo-ta Berak ekarriko dit oroimenera beste aldi batzuetan esan nuena. Asko litzakit au; oroimen txarrekoa naizen ezkerro, zoriontsu nintzake lengo gauza batzuk, ziotenez ongi esanda zeudenak, berriz esatea iritxiko ba'nu, lenak galduak ba'lirake batez ere. Baiña Jaunak esker au ere eman nai ezpalit, menpekotasunarren neure gorputza nekarazi ta buruko miña geitua, irabazle irtengo naiz ni, esango nukenetik ezer onik atera ezta ere.

3. Gaur, bada, 1577'gneko Irutasun Deun-deunaren egunean, asi naiz, nere gairdik daudenak eman didaten agindua betetzen, emen, aldi onetan bizi naizen Toledo'ko Josef doatsuaren Karmen'go Lekaimetxean. Zernai dala, idazteko agindu didatenean iritziaren jarritzen naiz osotoro, auek jakituriz jantziak bait dira. Eliz-Ama Katoliku Erromatarrak onartzen ez duen zerbait esango ba'nu, nere ez-jakiñez litzateke, ez nere erruz, ez gaiztoz iñolaz ere. Ar au egizat; egon naiz, ba, nago eta egongo naiz, Jainkoaren errukiz, noiznai aren menpeko. Bedi bedeinkatua beti, eta aintzatua! Amen.

4. Au idazteko agindu zidanak adierazi zidan Karmen'go gure Amaren Lekaimetxe autako lekaimeok otoitzari buruzko duda-muda batzuk azalduko zizkieten norbaiten bearrean aurkitzen zirala; eta emakumeak obeki ulertzen duten ezkerro beren izkuntza, ark uste zuen, neri didaten begirunea ere gogotan izanik, nik esango niena obeto artuko zutela; izango zuen, beraz, garrantzirik nik esango nienak. Orregatik berai zuzendua da emen idatziko dutena; zorakeri litzateke, bada, beste batzui ere onurakor litzakiela, uste izatea. Esker aundiz sarituko ninduke gure Jaunak, mon-

jatxo auetatik bateren batek nik esan auen bitartez Jauna apur bat geiago goretsiko ba'lu. Ondo daki Aren Aunditasunak nik ez dudala beste ezer nai; eta onela argi ere argi dago, zerbait egoki jarria ba'da, laster ulertuko lukete on ez dala nere eskutikoa, ez bait dago ortarako gairik; Jaunak bere erruki aundian lagundu ezik, ni olako gauzetarako gai-eza bezin beurok ulertzeko buru laburrekoa baldin bada beintzat.

LENENGO EGOITZAK

Bi Idazpuru dauzkate

LENENGO IDAZPURU

Gure arimak bai ederrak eta duiñak. — Iru-dikizun bat, au obeto ulertzeko. — Norbere burua ezagutu ta Jainkoak egiñiko graziak onartzetik datozkigun irabaziak. — Otoitza da Gaztelu onen atea.

1. Gaur Jaunari erreguka nengoala, nere ordez Bera mintza zedilla eskatzen, nik ez bait nekian zer esan, ezta nundik asi ere eman zidaten agindu oni buru emateko, orain esango dudan au etorri zitzaidan gogorra, eta berau izango zait oiñarri sendo neure arloari asiera emateko: gure arima gogo eman dezakegu diamante edo leiar dizditsu bat bezela; egongela asko daude bertan, zerua bizitoki askoz jantzia aurkitzen dan legez.¹ Ondo begiratu ezker, aizpak, zintzoaren arima ez da besterik paradisu bat baiño, eta ementxe dio Jaunak dauzkala bere atsegiñak 2 Eta, nolakoa derizkiozue izango dala Errege ain aaltsu, ain jakitun eta aratzaren egoitza, on guztien sorburu atsegingarri dana? Nik ez dut ezer aurkitzen arima baten edertasun aundi ta beronen artze neurrigez berdiñean ezarri dezakegunik. Eta, egi-egiaz, gure adimena, naizta zorrotza izan, ez da iritxiko iñoiz on ulertzera, Jainkoa ere

¹ Jn., XIV, 2.

² Esak., VIII, 31.

ulertzea eziña zaion bezela, gu bada, Berberak dionez, bere antz eta irudira sortuak izan giñan.' Eta au egia bada, egia dan bezela, ez daukagu zertan genre buru-muiñak erre, gaztelu onen edertasuna ulertu naiez; ala ere, arimearen duintasuna ta edertasuna nolabait ulertu al izateko aski zaigu, Jainkoak dionez, bere antz-irudiko egiña dala, ta gaztelu ta Jainkoaren artean, beti izango dala Sortzaille ta sorkariaren arteko diferentzia; arimea, bada, azken baten ere sortua izan zan.

2. Tamal ematekoa da, ta lotsagarri, geure erruz, geure buruak ez ezagutzea, eta nor geran ere ez jaktea! Ez-jakin aundia ez ote litzateke, ene aizpak, nor edo nori nor dan galdetu ta bera nor dan ez ba'leki; bere aita, bera ama nortzuk izan ziran, edo nungoa dan ez ba'leki? Eta au ergelkeri aundia ba'litzake, askoz aundiago gure baitan legokena, geure gorputzetan geraturik noski, zer gauza geren jakiten alegintzen ez geranean. Arima bat daukagula dakigu, olaxe naasi xamar, entzun dugulako eta fedea esaten digulako. Baiña nolako ondasunak aurkitzen diran anima onetan, edo nor dagoen bere barruan, edo zer altxor bikaiñaren jabe dan, auek gutxitan kontuan artzen ditugu; eta ortik dator bere edertasuna iraun-azteari orren ardura gutxi eskeintzea. Dena doakigu azaleko kokan sartze zirtzilletan, edo-ta gaztelu onen arresietan: geure gorputz auetan.

3. Dagigun, beraz, gaztelu onek, esan dudanez, ainitz bizitoki dauzkala, batzuk goian, beste batzuk beean, eta beste batzuk alboetan. Erdian, guztion erdi-erdian, dauka egoitza nagusia; eta emen erabakitzen dira Jainkoaren eta arimearen arteko gauzarik ixillenak. Iduri ta alderatze au egoki zaizue gogotan artzea. Bear bada Jainkoak ala nai izango du, nik iduri onen bidez zuoi erakustea, zerbait beintzat, Ark arimei egin oi

³ As., I, 26.

dien esker-ugaritasuna, eta euren artean batetik bestera dagoen aide aundia. Eta au, jakiña, nik izan daitekela uste dudan giñoan, denak ba, asko dira-ta, iñork ere ezingo ditu aitu; eta are gutxiago ni bezin ulermen txikikoa danak! Ala ere, txit atsegingarri izango zaizue, Jaunak olako mesedeak egin nai lizuekenean, daitekena dala jakitea; eta olakorik artzen ez duenak Aren ontasun muga-gabeari goratarre egin dezaion. Iñungo aldetik etzaigu kaltegarri zerutar gauzez oroitzea, ezta zoriontsuak an duten zori onaz alaitzea ere, aldiz irrikatzen gera aiek duten atsegiña guk ere iritxi nairik; erabat etzaigu kaltegarri izango, Jainkoa erbeste ontan gu bezelako ar nazkagarri batzuekin ar-emanen ikustea; onek geiago eramango bait gaitu ontasun ain onata erruki ain neurri gabea maite izatera. Dena dela, egi aunditzat daukat, gauza auek, Jainkoak erbeste ontan egin litzakela buruan artzea nor edo nori kaltegarri ba'litzakio, dalako on apaltasunean eta lagun urkoarekiko maitasunean urri ere urri dabillega. Orrela ezpalitza, nolaz gu gera gindezke alaitu gabe Jainkoak bere mesedeak gure anai bati egiten dizkiola ikustean, au ezpaita oztopo guri ere gauza bera egiteko, eta aren Aunditasunak bere grazi-ederrak nai en duenari ulerterazi gogo ba'dizkio? Batzuetan, alaxe, orixegatik egingo du soilki, begietako argia eman Zion itsuaz esan zuen bezela, Apostoluak galdetu ziotenean, zeinena zan errua itsua ala egoteko, bere obenak gatik ala bere gurasoenak gatik.⁴ Eta orrelaxe gertatu oi da; Jaunak berak nai duenari egiten dizkio graziok, ez gero egiten dizkiona egiten ez diona baiño santuago dalako, olakoarengan bere aunditasuna agertazi dadin baizik, Paul deunagan eta Madalena'gan dakusagunez, eta guk goretzazi dezagun bere sorkarietan.

4. Esan daiteke bear bada gauzok gerta eziñak dirala eta egoki dala adimen aulekoak jauspiderik ez

⁴ Jn., IX, 2

izatea. Gutxiago galtzen da auek ez siñisteaz, Jainkoak bide ontatik daramatenak ortaz baliatu gabe geratzeaz baiño; auek, izan ere, poz-atsegiñetan murgildu ez-ezik, erneago jarriko dira, ain altsu ta gurena izanik, ainbeste ta alako errukitasunak egiten dizkiguna maiteago izatera. Beste aldetik, ba-dakit onelako arriskurik ez duten arimekin mintzo naizela, ezagutu ta siñisten bait dute Jainkoak oraindik ere maite-erakutsi aundiagoak egin oi ditula. Nik ba-dakit au siñisten ez duenak ez duela olakorik experientziz ikusiko, Jainkoak ez bait du bere egiteri muga jarterik gura. Orregatik, aizpak, ez bezaizue beiñere on gerta! Jaunak bide ontatik ez daramazkitenei diotset an.

5. Genre gaztelu eder atsedengarrira biurtuaz, bada, ikus dezagun nola bertan sartuko garen. Itz auekin ez-esatekoren bat jaulki-erazten ari naizela dirudi; gaztelu au arima bera da, argi dago ez dagoela bertan zertan sarturik, berbera da-ta; ergelkeria izango litzateke, baita, aurretik barruan dagoenari gela baten sartzeko esatea. Egotetik egotera, baiña, aide aundia dagoela jakin bear duzee; arima asko daude gaztelu zaiñak gaztelu-inguruan, eta ez dute gaztelu barrena sartzeko ardurarik artzen, eta ez dakite, nola jakin?, zer dagoen toki eder aretan, ez barruan nor aurkitzen dan, ezta zenbat eta nolako zatitan banandua dagoen ere. Irakurriko zenuten ziurki otoitz-libururen batean, nola arimari otsegiten dioten bere barruan sar dadin: auxe berau da nik asmotan dudana ere.

6. Gizaseme jakintsu batek oraintsu esaten zidan, otoitzik ez daukaten arimak, gorputz auldu edo elbarritu baten iduriko dirala; esku-oiñen jabe dalarik ere, ez da euroi agintzeko gauza. Orrelaxe dira: ba-dira arimak, gaixotuak alegia, kanpoko gauzetan ibiltzeko jaiokoak, sendabide gabekoak, itxuraz beintzat beren barruan sartzeko gai ez diranak; ain egiñak bait daude oituraz, gaztelu inguruan dauden sugelindara ta piztiekin beti

ar-emanak edukirik, onezkero ia-ia aien antzeko dirudite; arima auek berez aberats-aberatsak izanik ere, eta Jainko berarekin solas-aldiak edukitzeko gai izan, ez daukate zentzatzerik. Eta arima auek, beren burua ezagutu ta beren egoera larriaz konturatzen ez ba'dira, gatzeko iduri egiñak geratuko dira, beren buruak berenganantz itzuli-ezagatik, Lot'en emaztea itzuli zuelako geratu zan bezela. 5

7. Nik ulertu dezakedanez, gaztelu ontan sartzeko atea otoitza da, ta gogo-ausnartzea; ez dut esan nai gogozkoaren aide aozkoarenaren aide baiño geiago nagonik, otoitza ba'da, gogoz ausnarturik egin bear da-ta. Izan ere, norekin izketan ari dan, eta zer eskatzen duen, eta nor dan eskatzen duena, eta nori eskatzen dion ez baldin ba'daki, olakoarenari nik ez diot, naiz-ta ezpaiñak asko erabili, otoitz-izenik ematen. Batzuetan au ere izan daiteke otoitz ona, ardura au eraman ez arren, baiña beste batzuetan arduraz euki zalako da. Alan eta guzti ere, bere zerbitzariak mintzatuko ba'litz bezela, Jainkoaren aunditasunaz itz-egiteko oitura duela-ta, ondo naiz gaizki, aora datorkiona ta aurrez ikasia, beste batzuetan egiña duelako edo, olakoarena ez dut nik otoitz ontzat artzen, eta ez beza Jainkoak kristau aoan olako otoitzik jarri. Zuen artean, aizpak, ez dut uste olako otoizlaririk danik; barne-gauzak sarri geure artean aztertzeke oitura bait dugu, au giñoko zozokerian ez jausteko aski on dana.

8. Ez gaitezen, beraz, mintza erima elbarritu aue-taz; ogei ta amar (zortzi) urtez beintzat urtegi ertzean egon zanari bezela, Jauna bera ezpa-letorkie jaiki direzela agintzera, naiko zoritxar leukakete, ta arrisku izugarria. Auekin barik, azkenez ere, gazteluan sartu diranekin mintza gera. Arima auek ondo murgilduta daude munduko gauzetan, baiña gurari onez beterik daude,

⁵ As., XIX, 26.

ta noizean bein, banaketan, gure Jaunagan babesten dira, ta, astiroegi ezpada ere, nor diran gogora dakarte. Ille barruan nozik bein, zabar xamar alegia, otoitz egin oi dute, gogoa nunbait dutela, munduko gauzetan geien bat dutela noski, oieri lotuak bait daude, ta «zure ondasuna dagoen tokian, zure biotza ere ara dioa; ⁶ noizik beinka, alere, lokarri oietatik askatzeko asmoa artu dute, ta gauza aundia da oso norbere burua eza-gutzea, baita daramaten bidea ez dala egokiena kontu-ratzea ere, gazteluko atera irixteko nunbait. Azkenik sartzen dira beebeko egoitzetan; baiña, baita sartzen dira eurekin batera ainbat eta ainbat sugelindara, eta auek gazteluko edertasuna ikusten laga ez-ezik, pakean ere ez diete uzten. Aski egin dute arima oiek barne sartzarekin.

9. Usteko duzue, aizpak, esan dudan guzti au ergelkeri dala; zuek, bada, etzerate, Jaunari esker, emen aipatu ditudan oietakoak. Izan ezazue eramanpena, bes-tera ez dut ba jakingo, olaxe ezik otoitzari buruzko barne-gauza batzuk neuk ulertzen ditudan bezela zuei aitzen ematen; alere, egin bezait Jaunak zerbait onik esatea, gai oso zailla da-ta, experientzik ez ba'lego, zuei adieraztea nai nukena; baiña zuok ba'daukazute, laster ezagutuko duzue naitaez ikutu bearra dagoela gauza batzuk, Jaunak, bere erruki aundiz, gerta-erazi oi ditunak.

⁶ Mat., VI, 21.

*Bai itsusia pekatu ilkorrean dagoen anima!
Jainkoak nola adierazi zion onako zerbaít, per-
sona bati. — Norbere burua ezagutu bearrari
buruz oldozketa batzuk. — Garrantzizko
‡ puntu jakingarri batzuk bertan bait da-
toz. — Nola ulertu bear diran egoitza auek.*

1. Aurrera jo baiño leen, eskatu nai dizuet, go-
gora dezazutela zer izango dan gaztelu zoragarri argi-
tsu au, sortaldeko arri-bitxi au, Jainkoak berak bizi-
tzako ur bizietan landaturiko bizi-zugatz au, pekatu
astun bat egiten danean. Ez dago illunperik beltz-illu-
nagorik, ezta gauzarik ere orren itzal-goibela gainduko
duanik, askotaz gero. Ez zaitezte leia geiágo nairik:
ainbesteko eder-ditzira ematen dion Eguzkia bera nun-
bait, barne-muiñean eukita ere, ez ba'leuka lez da, ari-
mak ez bait du aren argitik ezer artzen; au orraitio
beti da gai Jainkoaz gozatzeko, leiarra ere eguzkiaren
ditzirak jasotzeko gauza dan bezela. Ez dio ezerk onik
egingo; oben astunean dagoela egiñiko egintza on guz-
tiak ez diote fruturik ekarriko, zeru-aintzarako bein-
tzat; sorburu artatik ez datoz, ba, au da Jainkoagandik,
gure indarra indar dan Arengandik, eta gu Arengan-
dik aldendu ezkeró, ezin daitezke eder izan Aren be

ren asmoa ez da Aren gogoa egitea, deabruaren naia
egitea baiño, eta au illunpea bera dugun ezkeró, arima
errukarria ere illunpe berbera egiña geratzen zaigu.

2. Nik ba-dut norbaiten berri,' pekatu astuna
egiten duen arimeá nola geratzen zan gure Jaunak ikus-

⁷ Bere buruaz ari da.

-erazi ziona. Norbait ark dio, here iritziz, pekatua zer dan jakin ezkerro, eziña izango litzakela iñork pekatu egitea, arriskuetatik iges egiteko asma litezken oiñaze aundienak eraman bear ba'litu ere. Ortik etorri zitzaion leia bizi bat guztiak uler zezaioten. Eta olaxe zuoi ere eman bezaizue, aizpak, gogo bizi bat, Jainkoa benetan otoizteko egoera ontan daudenen aide, eurak eta beren egintzak ilunpe egiñik oro. Iturri garbitik errekatxo garbiak baiño sortzen ez diranez, grazian dagoen arima batetik ere, egite onak irten bear, Jainkoaren eta gizonen begietan zoragarri diranak noski. Olako egintzak biziaren iturria beta dan ontatik datoz, eta arimea bertan dago zugatz bat legez landatua, eta andik ez ba'letorkio indarrik, ez luke ekarriko ez berdetasunik, ez fruturik, andikako urak irauna ematen bait dio, legortu ez dedin eta frutu ona ekarri dezan. Baiña arimea, bere erruz, iturri ontatik aldendu ta ur loi-loi atsitan sartuko ba'litza, andik letorken guztia ere ez litzateke loi nazkagarria bera besterik izango.

3. Konturako ar-bearra dugu emen, esandako iturria, edo obeto, arimearen erdian dagoen Eguzki dizditsu ark ez ditula origatik galtzen bere distira ta edertasuna; egonez dirau beti ariman, eta ez dago ezer aren ederra lausotu lezakenik. Baiña egizue, eguzkitan dagoen leiar baten gaiñean zapi oso beltza jarten dututela; eguzkiak emango du oialean, baiña argi dago, aren erraiñuak ez dutela ezer egingo leiar gaiñean.

4. Jesukristoren odolaz erositako arimak!, ideki zeuon begiak eta izan erruki zeuon buruetaz! Nola liteke egia onez jabetu ostean, leiar gaiñean daukazuten pike on kentzen zuok ez saiatzea? Gogora zaitezte, bizitza bukatzen ba'zaizue, ez zeratela egundaiño geiago argi ortaz gozatzerantz iritxiko! O Jesus!, ikaragarria bai dala arima bat argi on gabe ikustea! Nola geratzen diran gazteluko bizitoki gaixoak! Naastuak dabilta zentzunak, gazteluko biztanleak noski! Eta arimearen

aalmenak, au da, gazteluko jagoleak, ondasun-zaiñak eta mai-zaiñak, bai dabiltzala itsu ta ganora barik! Izan ere, zugatza deabruaren lur ber-berean landaturik dagoen ezkerro, ze frutu ekar dezake?

5. Gizon jainko-zale bati entzun nion bein, bera etzala arritzen oben astunean egoan arimak egin oi duenarekin, egin oi ez duenarekin baizik. Jainkoak bere errukiz gorde gaitzala gaitz orren auditik; bizi geran bitartean, ez dago gaitzik, auxe ezik, gaitz izena eramatea merezi duenik, onexek bait dakazkigu beti-betiereko gaitzak. Ontan, ene alabak, beti arduraz ibilli bearra daukagu, Jainkoari orixe eskatuz geure otoitzetan; uria Berak zaintzen ez ba'du, ba, guk, ezereza bera geranok, alperrik Ian egingo dugu.⁸ Pertsona arek zioan gaiñera Jainkoak egin zion mesedetik ondorio bi lagun-garri izan zitula: bata, Jainkoa naigabetzeko bildur aundia, eta bere buruari ortik letorzki on kalte izugarriak ikusirik, beti omen zebillen ez zezaiola erortzen utzi eska eta eska; eta bigarren, apaltasunerako izpillu bat, bertan ikusirik guk osatu genetzakean on guztiak ez dutela guregan beren oiñarria, gure arimen zugatza landatua dagoen iturri ontatik eta gure egintzak bero-azten dituen Eguzki ontatik baiño. Egia au, gaiñeratzen du ark, txit argiro gertarazi omen zitzaion, eta egite onen bat egiterakoan, edo-ta egiten ikusterakoan, orren sorburua dan Arengana zuzentzen omen zan, onako laguntzarik gabe ezin genezakela ezer onik burutu gogora ekarriaz. Eta emendik zetorkion gero Jainkoa gores-tera bertatik jotea, eta, eskuarki to geien baten, osatzen zituen egintza onetan bere buruaz ez oartzea.

6. Ez litzateke, aizpak, denbora galdua izango zuek au irakurten eta nik berau idazten emango gen-dukena, jakintsuak eta eskolatuak ongi dakizkien bi gauza auekin geratuko ba'giña; baiña guk emakumeok,

⁸ Sal., CXXVI, 1.

geure ez-jakiñean, guztia dugu bearrezko, eta bear bada Jaunak naiko du etor ditezela gure gogora olako irudikizunak. Jainkoari nai dakiola, olako doaia guri ematea!

7. Barne-gauza auek illunak bait dira ulertzeko, ni bezelako ez-jakin batek, naitaez, artez doan bat esateko, gauza alperreko ta ez-ordukoak ere bai, askotxo esan bearco ditu. Beuka, beraz, egonarria irakurten duenak, nik ere ba-dut-eta ez dakidana idazteko. Batzuetan, ain zuzen ere, papera artu oi dut eskuetan iñozo batek bezela, ez zer esan ez nola asi ez dakidala. Baiña ba-dakit garrantzi aundikoa dala barruko gauza batzuk, a1 dudan bezela, zuoi adieraztea; beti entzun izan dugu, ba, zein bikaiña dan otoitza, eta legez daukagu ainbat orduz edukitea, eta ortik ere guk al duguna baiño etzaigu azaltzen; eta Jaunak ariman dagizkian izatez goitiko gauzei buruz, gutxi baiño ez da azaldu ta adierazten. Era askotara esanaz eta aitzen emanaz, pozgarri zaigu oso zerutar etxe barrukoi au ausartzea, bertotik asko dabiltzan arren, ilkorrok ain gutxi ulertu ta konprenitzen duguna noski. Eta nik idatzi ditudan gauza askotan Jaunak eman duen arren zerbait ulertzea, gauza batzuk leen ez nitula ulertu uste dut gero emen ulertzen ditudan neurrian, batez ere ulergaitz-ulergaitz ziranak. Okerra da, ala ere, oiek adieraztera eltzeko; esan dudanez, gauza oso jakiñak esan bearco dira, nirea lako ulermen ikasi-gabeaz ezin bait daiteke beste eratan jokatu.

8. Gatozen, bada, orain egoitza asko dituen geure gaztelura. Ez dituzue iruditu bear egoitza auek bata-bestearen ondoren, egonleku sai1 bat bezela. Zuzendu zeuen begiak erdira, ara Erregearen bizitoki edo jauregia aurkitzen dan lekura. Eta gogo eman palmatxo 9 bat bezela; onek, jateko dan mamiñera eltzeko, azal

⁹ Palma motako landara, orriz betea; Andaluzia'n aurkitzen da batez ere.

asko dauzka muiña estaltzen dutenak, osorik. Orrelaxe emen ere, egonleku onen ingurumari beste asko daude, eta gaiñean berdin, erdiko Eguzkiaren dirdiratz txit argituak. Arimearen gauzak beti ere betetasunez, zabaltasunez eta aunditasunez begiratu bear ditugu, ezeren bildur gabe noski, arimearen artu-neurria guk iruditu alakoa baiño askotaz geiago da-ta. Edozein arima otoitzlarirentzat garrantzi aundikoa dala derizkiot au; dala lako maillan dala, gorago naiz beerago, daukana ez dezala baztertu, ezta estutu ere; dabillela azke egoitza auetan, gora ta beera ta alboetara; Jainkoak aundi egin bait zuen, ez dezagun beartu bizitoki baten bertan luzaroan egotera, nork bere burua ezagutzeko izan ezik. Norbere burua ezagutzea, izan ere —aitu eidazue au—, bear-bearrezko da-ta. Jaunak Bera dagoen tokian dauzkan arimak berak, danik-eta goren aurkitu arren, ez du inoiz baztertu bear; ezta naiko ere, bere egiteko berezia bait du. Apaltasunak beti daki, erleak erlauntzean lez, bear dan eztia ontzen, au barik guztia galdua da-ta. Gogora dakarkigun erlea ez dala gelditzen lore-autsa xurgatzera irten gabe; orrelaxe —siñest neribere buruaz eskolatzen ari dan arimeak ere: bebil egazka aldian bein bere Jainkoaren aunditasun eta gurentasunean murgildua. Emen aurkituko du bere ezereza bere baitan baiño obeki, ta lenengo geletan sartu oi diran sugelindaretatik libreago idoroko da, emen bait du bakoitzak here burua ezagutzen; naiz-ta, diñodan bezela, ontan jardutea beti da Jainkoaren erruki aundiari esker: alere, esan oi danez, uts-egin dezakegu geiegiz eta gutxiegi. Eta, siñistazue, Jainkoaren arnasari atxikita lan ohea burutuko dugula, geure ezerezari loturik baiño.

9. Ez dakit ondo adierazia geratzen dan au; garrantzi aundikoa da, ba, norbere burua ezagutzea, emen ez nuke nai, zeru-goietara igonik ba'zaude ere, iñolaz zuen artean lasaikeririk; lur ontan geran bitartean, izan ere, apaltasuna baiño ongarriago zaigunik ez dago. Eta

onela berriz ere esatera noa, txit ona, guztiz ona dala, beste egoitzetara egaz egin aurretik, norbere burua ezagutzen dan egoitzean sartzen alegintzea, besteetara eltzeko bidea auxe da-ta. Beraz, lur lau ta seguruz ibilli al izan ezkeru, zertako nai izan bear ditugu egoak egaz egiteko? Leia gaitezen, bestera, gero ta geiago geure burua ezagutzen; nire ustez, orraitio, iñoiz ere ez dugu geure burua ondo ezagutuko, Jainkoa ezagutzen alegintzen ez ba'gera aldi berean. Aren aunditasunari begira, jo dezagun geure ezerezera, ta Aren garbi-aratza begiz jorik, geure loi-zikiña dakuskegu; Aren apaltasuna gogoratuaz, gu zein urrun gauden apalak izatetik ikusiko dugu.

10. Bi irabazpide dauzkagu emen: lenen, gauza zuri bat beltzaren ondoan ipiñi ezkeru, ezin uka, askoz ere zuriago agertzen zaigu, eta alderantziz, beltza zuriaren aldamenen jarri ezketiño; eta bigarren, gure ulermen ta naimena, Jainkoaz ar-emanen jardunik, bikaiñago egiten bait dira, ta on guztirako gaiago; eta geure ezerezaren loi artetik egundo irteten ez ba'gera, okerrik asko sortuko zaizkigu ortik. Ala nola, pekatu astunean dauden arimeri buruz esaten genuen bezela, zein beltz eta kiratsu diran beren ur-tirak, era berean emen ere, naiz-ta —Jainkoak begira gaitza!— ez berdintsu, au adibide bat besterik ez baita. Beti sartuak lureko gauzetan, gure ur-tira ez da sekula bildur, uzkur-izate ta oillokeri loi-artetik irtengo, edo-ta onako gogapenetatik: «begira ote dauzkat, ez ote dauzkat; bide ontatik ibilliz, gaitzik ez ote dut? Arrokeriz ote da egintza ura asten ausartzen ba'naiz? Ona ote da, pertsona ain zirtzilak otoitza lako gauza garaietan ari izatea? Enparauen bide-bidetik ez ba'noa, obetzat eukiko ote naute bear bada? Ertzak eta geiegikeriak ez dira onak, birtute-gauzetan izanda ere; naizen bezin pekatari izanik, goragotik erortzea gertatuko litzakit; ez dut agian aurrera egingo, eta onentzat erorpide gerta naiteke; ez, ni bezelako batek ez du bear berezitasunik».

11. Lagun bekit Jauna, ene aizpak!, zenbat arima galdu-azi ote ditu deabruak bide onetan zear! Olakoak uste dute au danau apaltasuna dala, baita esango nituzkean beste gauza asko ere, ta guzti au dator geure buruak ondo ez ezagutzetik; egundo irtetzen ez ba'gera geure ontatik, ni ez naiz batere arritzen au eta gaitz aundiagoak gain bai gatozkigu ere. Orregatik diot, alabak, josi ditzagula geure begiak osasuna dugun Kristogan eta bere Santuengan eta ortxe ikasiko dugu egiazko apaltasuna. Orduan, esan dudanez, bikaindu egingo da gure adimena, eta norbere buruaren ezaguera ere ez da orren zital koldarra izango. Egoitza au, lenengoa izan arren, oso aberatsa da, ta balio aundikoa; eta arimeak bertan diran sugelindaretatik here burua askatzen ba'daki, ez da geratuko aurrera egin gabe. Izugarriak dira deabruaren maltzurkeri ta atrikuluak arimak beren barneak ezagutu ez ditzaten eta dabilzan bidean gal daitezen.

12. Lenbiziko egon-leku auetaz dudan experientziz, eman ditzaket nik orri buruzko zantzu ta ezau-garri egokiak. Orregatik diñot, ez dala uste izan bear bizitegi gutxi batzuk baiño ez diranik, milloika baizik; eta arimak emen era askotara sartu oi zaizkizu, eta danak asmo onarekin. Baiña deabrua beti da-ta asmo txarrekoa, egonleku bakoitzean txerren-talde asko eduki bear ditu agian, toki batetik bestera igaro ez daitez arimak, eta amarru auen berririk ez duen arima gaixoa milla lokarriz inguratuta aurkitzen da. Erregearen jauregitik urbillago daudenekin, orraitio, ezin du olakorik egin. Leen-egoitzetan dauden arimak, izan ere, oraindio munduan dute birlora, beren atsegin-gaietan murgil eta beren dedu ta asmoetan lauso, eta beren morroiak, ots, zentzunak eta aalmenak, ez dute indarrik, Jainkoak emanik, eta arima auek azpiratuak dira errezki, naiz-ta Jainkoa ez naigabetzeko asmo sendoz ibilli ta bitartean egintza onak burutu. Egoera ontan aurkitzen diranak, al duten lasterren, eta geienetan,

Jainkoagana jo bearra dute, Aren Ama donea ta Santuak bitarteko arturik, beurok burrukatu ditezen beren aide, auen morroiak indar gutxi dute-ta beren buruak gerizatzeke. Egoera guztitan, egia esan, Jainkoagandiko laguntasuna beti dugu bearrezko. Eman bezagu Aren Aunditasunak bere erruki aundiz! Olantxe.

13. Bizitzaldi au bai dala doakabe!... Beste toki batean, ene alabak, luze adierazi nuenez ¹⁰ apaltasunari ta norbere buruaren ezagutzari buruzko au ondo ez ulertzetik datozkigun kalteak, emen ez dizuet, naiz-ta gureztat garrantzitsua izan, geiago ezer esango. Eta, Jainkoari ai liotsa, zuen onerako litzaken zerbait nik esana izatea!

14. Erregea bizi dan jauregitik irtendako argiari begira, jakin bearra duzue, ia ezer ere ez dala irixten lenengo egoitza auetara; arimea pekatu astunean dagoanean legez, argi gabe ta beltz ez dauden arren, zelanbait illundua dago, bertan dagoanak diñot, ikusi ez dezaken; au ez da gelaren erruz —ez bait dakit nola adierazi—, arimea gazteluratzean, ainbat gauza txar, suge, ziraun ta pozoingarri, berarekin batera barnerratuak, argia ikustea galerazten diotelako baizik. Eman dezagun, eguzkiak bete-beteen ematen duen tokian sartzen dala norbait, begiak iriki ere ezin ditula lurrez beterik daramazkila. Argi dago aretoa, baiña ark ez du gozatten argi ori berak daukan oztopoagatik, edo-ta, geureari begira, pizti ta basa-abereak eurak izan ezik ezer ikustetik begiak itsutu egiten dizkiotelako. Neri iruditzen zaidanez, au da arimearen egoera; au, bada, egoera txarrean egon ezta ere, munduko gauzetan txit murgildua dabil, begiak bere etxeko gauzetan dauzka jarriak, bere izen on eta artu-emonetan, esanda daukanez; egiazki, bere ederra ikusi ta ortaz gozatu naiko

¹⁰ *Bizitza XII* atzal. — *Onbidea*, XII ta XIII atzal. ta besie toki batzuetan.

luke, baiña ez diote uzten, ezin du here burua askatu onenbeste oztoporen erdian, antza danez. Eta ala ere, oso leiagarri da, bigarren egoitzetan sartu al izateko, bakoitzak here bizibidearen arauera, bearrezko ez diran ardura ta ar-eman guztiai agur egitea. Aurreneko egoitzera irixteko txit garrantzitsua dugu au, ta arimeak egiten asi ezik, ez du **he**i ere lortuko, nik uste, eta, gazteluan sartuta egon arren, dagoen lekuan arrisku barik irautea **ere** etzaio errez izango: ainbeste pizti pozoidun artean eziña da noiz edo bein kauskadaren bat ez artea.

15. Baiña zer litzateke, ene alabak, gu bezela, onezkero oztopo auetatik libre, gazteluan beste gela gorde-gorde batzutan guztiz barru sartuta gaudenok, geure erruz itzuliko ba'giña barriz ere munduko txorakerietara? Geure pekatuengatik, asko dira agian, Jainkoak mesede asko egindakoak, eta beren erruz zorrigaitz ontara jaurtiak. Gu emen kanpo aldetik aske (libre) gagoz ortatik; barru aldetik **ere**, Jaunak nai beza, gu orrela gaitezen: Ark atera gaitzala gaitzetik. Ez zaitetzte sar, ene alabak, iñoren kontuetan. Begira, gaztelu ontako bizitegi gutxi dituzue deabruarekin burrukatu bearko ez duzuenik. Egia da, esan dudala uste dudanez, egonleku batzuetan aalmenak, gazteluko zaiñak, ba-dute indarrrik gogor egiteko; baiña bear-bearrezko dugu zalantza gabe jokatzea, beren maltzurkerietatik garaille irtetzeko; ez, ez gaitzala, argi-aingeru egiñik, lilluratu, kalte egin zezaiguke, ba, era askotan emekiro barneratzen zaigula, ta egin arte ez gera konturatzan ekarri digun kalteaz.

16. Beste bein esan nizuen, "karraska sorxka bateg bezela lanean ari zala, eta lenengotik ezagutu bearra genukela, baiña zerbait geiago esan nai dizuet obeto ulertu dezazuten gauza. Aizpa bategan sortzen du

barne-indar aundia, penitentzik egitera bultz-egiten diona, eta uste du, oiñazetzean ezik, ez duela atsedetik. Elburu au ez da txarra; lekaime-buruak, ala ere, baimenik gabe penitentzirik ez egiteko agindu ba'du, eta alako aizpari gauza ain bikaiñean askatasun pizkat ar dezakela ba'derizkio, eta ixilka osasuna galtzeraiño bere gorputza zigortzen baldun ba'du, ta bere Araudiak agintzen diona bete eziñik geratzen ba'da, ikus nora joan diran alakoaren penitentzi guztiak! Beste bati onbidean gorenengo maillak irixteko egarri bizia jarriko dio. Au ere berez oso ona da. Baiña berau izan diteke aitzaki aizpen utsegiterik kaskarrenak beretzat aundi izateko, eta zer-nolan gauzak egiten dituzten begira jartzeko, eta lekaime-buruari salatzeke ere bai. Eta iñoiz gerta liteke lekaime-bizitzari dion lei-ardura aundiagatik, nork berak here utsak ez ikustea. Beste aizpak, onen barrena ez-baiña ardura ikusten dutenak, litekena da ain ontzat ez artzea.

17. Deabruak emen nai duena ez da gutxi; lekai-me-aizpen goi-maitasuna otzepel-azi nai luke, alkarrekin duten on-iritzia ito, guztiz makurra litzakena noski. Ikas dezagun, ene aizpak, Jainkoa ta urko-laguna maitatzea dela onbiderik bikaiñena: zenbat zuzenago gorde bi agindu auek, oso-beteagoak gerala orduan. Bide baiño ez dira gure Araudi ta Oin-legeak bi agindu auek obeki gordetzeko. Utz ditzagun aldebat ain kaltegarri zaizkigun axolak, eta guretatik bakoitzak hegira bezaio berea duenari. Onetzaz beste toki batean esan bait dizuet naiko,¹² ez nakizue geiago luzatuko.

18. Inportantzi aundikoa da elkarren artean duzuen maitasuna, ez nuke beraz zuek au aaztutzerik egundo gura; gure saietsekoetan, izan ere, uskeri batzui begira egote ori, norberak barne-pakea galdu ta ingurukoeri gogait eragitea litzateke: akats eta uskeri oiek

¹² *Bizitzia*, XIII atzal.

ez dira sarri ezer izango, baiña guk gutxi dakigulako, txarrenera joko dugu onenean. Ikus emendik, zein garestia litzaken on-izatea! Deabruak baita piztu-azi leike tentaldi au Ama nausiaren biotzean, eta orduan galbide aundiagoa sor diteke. Zentzun aundia bear da ontarako; Araudiaren eta Oin-legeen aurkako gauzetan ba'litz, bada, ez legoke beti aide onera botatzerik, berari dei-egin eta esatea baizik, eta zentzatuko ez ba'litz, go-tzaiari adierazi. Eta au egiazko maitasuna duzue. Berdintsu joka inguruan bizi diran aizpekin ere, gauza astunik balitza; tentaldia izan daitekela-ta, bertan-beera uztea, tentaldia bera litzakizu. Baiña kontuz ibilli bear da, deabruak ziririk sar ez dezaigun; onako gairik ez erabil alkarrekin, deabruak bada irabazpide aundia dezake emendik, mormoxerako oitura sartuz. Gai oieri buruz, esanda dudan legez, osabidea jarteko aiña diranekin jardun bakar-bakarrik. Emen, Jainkoari esker, ez daukagu orrenbeste arrisku, gure ixiltasuna ia jarraikoa da-ta. Ona da, ala ere, jakiñaren gaiñ eta zur egotea!...

BIGARREN EGOITZAK

Idazpuru bat bakarrean

IDAZPURU BAKARRA

Iraupena bear dala naitaez azkenengo egoitzetara irixteko. — Deabruak, suak artuta, erasotzen dau arimea. — Egoki dala bene-benetan bidea artzean uts ez egitea, aurrera jarraitzeko. — Ortan asko ere asko lagundu zion bide eragikor bat.

1. Esan dezagun orain zeintzuk diran bigarren egoitzetan sartzen diran arimak, eta auek zer dagien bertan. Labur esan nai nizukeke, beste leku batzutan esana bait dut naiko luze; ¹ baiña, esan nuenetik ezer gogora ez datorkidan ezkerro, naitaez berriz esan bearko dut esanik asko. Beste era batera beiñik-bein adierazi al ba'nituz, ondo dakit, zuok ez zintzateke aserratuko, gai oneri buruz diarduten liburuak, naiz-ta asko izan, ez bait gaituzte sekula gogo beteten.

2. Emen diardut, ba, otoitza edukitzen asi diran arimekin, eta lenengo egoitzetan geratzea ez zaiela egoki aditu dutenekin, auetan egotea izteko erabagi sendorik sarri artuta euki ez arren oindio: jauspide ta arriskuak ez dira uzten, eta au gaitz larria da. Alan ere, Jainko-erruki aundiz, noizik-beinka alegintzen dira suge ta gauza pozointsuetatik aide egiten, baita konturutzen dira eurok uztea ere ona dala. Auek, aide bate-

Bizitzia, XI-XII atzalb., eta *On-bidea*, XX-XXIX atzalb.

tik, ainbeste arrisku eduki ezta ere, lenengo egoitzetan daudenak baiño geiago jasan oi dute, ba-dirudi bada ezagun dituztela arriskuak, eta onek egiten die barrurago sartuko diralako itzaropena. Geiago jasaten dutela diot, lenengoak bait dira, gorra be ba-diralako, entzuten ez duten mutuak bezela, eta orrela obeki daramate itzik ez egiteak ematen dien nekea; au gorriagoa, askozaz ere, izango litzateke, entzun bai eta mintza-eziña leukakentzat. Ori dala-ta, orraitio, ez da opagarriago entzuten ez dutenen zoria, azken batean ere eder baita esaten digutena aditzea. Onela auek ulerzen dituzte Jaunak egin oi dizkien deiak. Aren Aunditasuna dagoen lekutik urrago sartuz dijoazten ezkerero, Ark deituak sentitzen dira ta errukiz ta ontasunez bete dan auzokide txit txeratsuaeren ondoan. Gu geure puskilamusmila, arazo, poz eta munduko iruzurretan buru-belarri sartuta egon arren, pekatuetan jausi ta jeiki ibillita ere (inguratzen gaituzten pizti auek dira-ta pozointsuak eta zaratatsuak, eta beuron lagunartea oso erorkor, arrigarri litzakigu beretan topo egin ta ez jaustea), au eta guzti, gure Jaun onek ain biziki du opa guk bera maitatzea ta here laguntza irixten gu alegintzea, bein eta berriz dei egiten digu Beragan urbil gaitezen. Eta abots au ain gozoa baita, arima gaixoa, esana bertatik ezin egiñik, ainatu egin oi da. Auxegatik, berriz diot, neketsuago da entzutea ez entzutea baiño.

3. Ez dut esan nai onekin abots eta dei auek gero aipatuko ditudanak lakoak diranik; entzunak dira pertsona on batzuei, itzaldietan, liburu onak irakurriaz edo-ta ari ta oni adituak, auen bitartez Jainkoak senti-erazten digu bere deia; baita gaixoaldi, neke-lan edo-ta otoitzean gauden aldietan erakutsi oi digun egi baten bitartez ere: gogo aundi gabe izanik ere, otoitzean diot, Jainkoak aintzat artzen dizkigu. Lenengo esker au, nuok aizpok, etzazue gutxi-eritzian artu, ezta ez naigabe zeuen buruak berealako baten Jaunari eran-

tzuna eman ez ba'diozue ere: Jaunak ba-daki itxoiten egunak eta urteak, arimaren iraupena ta naikuntza be-roak ikusterakoan batez ere. Gogo au da emen bearezkoena, onekin baita beti ere askotxo irabaziko. Ikaragarria da deabruak emen jaiki-azten duten ekaitza, era askotan jaiki-azi ere, aurreko egoitzetan baiño arimearentzat neketsuago dana noski; an mutu ta sorgor zegoen arimea, edo beintzat oso gutxi entzuten, eta gutxiago gogor egin ere, irabazteko itxarokizuna erdi galdurik daukanaren antzera. Emen, ordea, biziago da adimena, eta aalmenak, trebeago; etsaiaren zartako ta dunba-otsak zakarragoak dira-ta, arimeak ezin ditzake entzun gaberik utzi. Emen saiatu oi dira deabruak munduko gauzen sugetzar auek aurrera ekarri ta bertako poz-atsegiiiak ia betikor egiten, bertan daukan izen ona, adiskide ta senitartekoak, penitentzi-gauzai buruzko osasuna (beti asten da egoitza onetan sartzen dan arimea zertxobait egin gura-ta), eta beste milla eratako oztipoak jarten.

4. O Jesus!, zer da deabruak emen jarten duten naspilla! Arima gaixuak ez daki, txit naigabetua, aurrera egin ala lenengo bizitokira biurtu! Errazoiak, beste aldetik, begi aurrean jarten dio zelako iruzurra dan zai dagoanaren aldean onek ez diola ezer balio uste izatea. Fedeak erakusten dio oberena zaiona; oroime-nak gogorazten dio azkenez nun geratzen diran munduko gauza guztiok, eriotzeak begi aurrean jarriz onakoetan ugari ere ugari gozatu zutenen azkena: batzuk bat-batean eraman zitun erioak, eta danak zein azkar aaztuak izan diran. Auetan berak ikusi ditun asko, ugartitasunean ikusi ere, orain zapalduak dira lur-pean; are geiago, aren illobi ondotik sarri igaro da bera, baita gorpu aretan arrik asko daudela irakiten gogora ekarri ere, eta beste ainbat gauza aurrera letozkionak. Konta ezin ala gauza ta maite-ezaugarri erakutsi-azo dizkiona maitatzera makurtu oi da naimena, eta olakoren bat gura luke nolabait ordaindu; begi aurrean

jarten zaio baitik bat, nola bere ondotik kentzen ez dan maitale egiazko au, bed lagunduz eta bizi-izatea emanaz. Gero ulermenak aitzen ematen dio ez duela adiskide oberik idoroko, urte askotan bizi-ta ere; mundua gezur-ontzi dala, eta deabruak aurkezten dizkion poz-atsegiñak, neke, kezka ta ezbearrez josirik daudela; gatzelu ontatik landa ez dagoela segurantzarik ez pakerik diotsa, ez dedilla etxerik etxe ibilli berri-billa, atsegiñak nai ba'du here etxea ondasunez beterik daukala-ta; nor dagoen bear duen guztia bere etxean berelatsu aurkituko duenik, ondasun guztien jaun eta jabe egingo duen alako etxe-laguna edukirik batez ere, berak nai ez ba'du, seme zarrastelaren pareko, galdua ibilli, txerri-ekurrez alikatzen.

5. Errazoi auek aski dira deabruak azpiratzeko. Baiña, o ene Jaun eta Jainko!, utsalkerira zuzen joteko oiturak, eta mundu guztiak orixe besterik ez duela egiten ikusteak, dana galazi ta biurritu oi digu! Illa dago gure siñismena eta naiago dugu ikusten duguna ark dioskuna baiño; eta, egi-egiaz, ez dugu zoritxarra besterik ikusten ikusgarri diran gauza auen atzetik dijoaztenetan. Eta ori egin dute azaltzen ari geran gauza pozoidun auek, norbait sugeak sistatua ba'da, olakoaren soin guztia pozoitu ta azi egin oi danez, emen ere, kontuz ez ba'gabiltza, orixe berori jazo oi da-ta. Garbi dakusagu emen, sendatu nai ba'dugu, osaketa askoren bearrez gaudela, eta naiko mesede dagigu Jainkoak ortik iltzen ez baldin bagera. Zigur, estuasun latzak igaro oi ditu arimeak emen, batez ere deabruak susmo artzen ba'du olakoak ganora duela ta oitura oso aurrera joteko: orduan inpernu osoa batuko da arimea gaztelutik kanpora irten-azteko.

6. A, ene Jaun! Emen bear-bearrezko zure laguntza, ori barik ezin dezakegu ezertxo ere egin. Zeurre erruki aundiz, egizu, Jauna, arima onek ez dezala zapuztu bein artu duen bidea. Emaiozu argia, bete on guztia onetantxe dagoela ikus dezan, eta lagun gaiztoen-

gandik aldendu dedin. Gauza eder-ederra da gai auek darabilzkitenekin artu-emana izatea; urbil-azi ez bakarrik bere egoitzean daudenekin, urbillagoetan sartu dirala uste dutnekin ere bai; laguntza aundia izango du au, eta bear bada ezarian, ezarian, beren ar-eman eta izketarekin, berek dauden egoitzera bertara sartzea gerta liteke. Bego zur beti, ala ere, deabruak azpiratzen ez izteko. Deabruak, ain zuzen, erabaki sendoz ornitua ikusten ba'du arimea, lenengo bizitegira itzuli baiño len bere bizia ta atsedena ta aurrean jarten dioten guztia galtzeko prest dagoela noski, laster utziko du berean. Gizonki joka beza, eta ez burrukara zijoaztela —ez dakit noren aurka—² ura errekatxoan auspez edaten zuten aiek bezela; ar beza, bai, erabaki sendoa, deabru guztiakin gudakatzera bait doa, ta ontarako ez dago gurutzearena baiño tresna oberik.

7. Au, beste batzuetan ere esana dudan arren,³ inportantzi aundikos da-ta, beste bein diot emen. Arimeak ez beza pentsatu asten duen arazo ontan erregali ta esku-erakutsiak aurkituko ditunik, asteko era oso zirtzilla litzake, ba, etxe orren eder aundia eraikitzen asterakoan ori gogotan iraultzea; eta ondar-gaiñean asi ezkeru, beera joango zaie oso-osorik; beraz, goiz ta arrats ibilliko dira mutur eta kezkatu. Auek ez dira ba mana jausten dan egoitzak; oietakoak aurre-rago daude ta oietan aurkitzen du arimeak nai duen guztia, Jainkoak opa duena besterik ez du nai-ta. Gauza bitxia da, ziñez, zeinbat arazoz eta akatsez beterik oindio gagozala ta on-egiteak oindio ibilten asi-berri, ozt-oztan ernetzen asi —Jainkoari eder bekio ori ere—, eta alere ez ote dugu lotsarik barri-idortasunez kexatzeko ta otoiitz-aldian gozotasunak nai izateko? Ez bekizue, aizpak, olakorik gerta egundaiño; besarka eza-zue zuen Senarrak here gaiñ eraman zuen gurutzea,

² Jedeon, *Ebazleak*, VII, 5 atzalb.

³ *Bizitza*, XI atzalb.

zuen atsegiña auxe izan bear duela jakifizaz; geien jasan al lukenak, jasan bei geiago Aregatik, eta zorientuena izango da. Beste zerai buruz, ar beza gaiñeratiko bezela; Jaunak emango ba'lizkizue, eman Berari eskerrak ugari.

8. Ageri zaizuenez, Jainkoak barru-pozez asetzen ba'zaituzte, gertu zaudete kanpoko neke-miñak jasatzeko. Aren Aunditasunak guk baiño obeto daki ondoen zer datorkigun, ez dago gure aolkuen bearrean zer zai-gun egokien jakiteko, bestela Berak esan dezakegu ez dakigula zer eskatzen dugun. Otoitz-bidean sartu danaren ardura guztia (eta ez aaztu au, gora aundikoa duzue-ta), izan bear du lan egitea nekatzeraiño, alik eta erabaki sendoena artuz eta barrua obekien gertatuz, bere naia Jainkoarenarekin bat egin eta egokitzeko. Eta, gero esango dudan bezela, zaudete ziur, auxe duzute osoan osotasunik garaienaren oiñarria, gogozko bidean lortu dezakegun maillarik gorengoena. Naime-nen alkartze osoagoa ta Jaunaren grazi-arte ugariagoa, eta aundiagoa beraz bide ontan aurrera egitea ere. Etzazue uste izan emen naspil geiago dagoenik, ez gauza ezjakiñik ez ondo ulertu gaberik: ontan bait datza gure ondasun guztia. Asieran bertan uts ba'dagigu, bada, Jaunak bertatik geure naia egin dezala gura izanik, eta Berak eraman gaitzala geuk opa dugun lekutik, nolako sandotasuna euki dezake etxe onek? Leia gaitezen geuregan dagoena egiten, eta sugelindara pozoinu auetatik geure buruak zaintzen; sarritan Jaunak gura du, bada, gogapen txarrak gu eraso ta nekaraztea, geure-gandik bota ezin aiñean eraso ere, eta idortasunik asko; geiago dana, batzutan Berak uzten du gu ozkatuak izan gaitezen ere, gero beuretatik gordetzen obeto jakin dezagun, eta gaiñera Bera iraindu dugunaren damu bizia dugun ala ez, azter nai gaitulako.

9. Orregatik, iñoizkoren baten jausita ere, ez zai-

¹ Mt. XX, 22.

tezte okildu, aurrera joteko gogo barik; zuen eror-aldi ortatik ere Jainkoak ona aterako du: triaka edo pozoiaren aurkako sendagaia saltzen duenak ere, saldu aurretik edan oi du ona dan jakiteko. Besterik ezean ere, geure auleria ikusiko ez ba'genu, eta ara-ona ibilteak dakarkigun kalte izugarria, berriz norbere baitara biltzeko igaro bear dugun naspil-ekaitzean diot, naikoa litzakigu. Gerta ote diteke geure etxean ez aurkitzea baiño oker aundiagorik? Zer itxaropen eduki al dezakegu beste etxe batzutan pakea aurkitzeko, geuretan aurkitu ezin ba'dugu? Burruka dagigu, itxura danez, adiskide aundi ta senitarteko miñak ditugunekin ere, eta nai-ala-ez beti alkarrekin bizi bear dugunekin, ots, geure aalmenakin; burruka auek dakarkigute antza gure griñak berai egin dietenagatik biozkatuta. Pake, pake, ene aizpak! Jaunaren itza dugu au, Berak ainbat aldiz ikasle Apostoluei esana. Siñist eidazue, ba, geuk ez ba'daukagu ta geure etxean ipinten alegintzen ez ba'gera, ez dugu auzokoetan pakerik aurkituko. Kristok gure aide ixuritako odolagatik, buka bedi bein burruka au! Beren baitan sartzen oindiño asi ez diranei eskatzen diet, eta jadanik sartzen asi diranei eskatzen diet burruka-itxura ez dakioela naiko izan atzera biurtzeko. Begira ezazue, bir-erortzea okerrago dala jaustea bera baiño; argi dakusazue or zeuen ondamendia, eta izan uste on Jainkoaren errukian eta zeuengan ezer ere ez, eta ikusiko duzue Aren Aunditasunak nola daraman arimea egoitz batetik bestera, ta nola sartzen duen pizti auek ez ikutu ez gogait-erazten ekingo ez dioten lekuan; geiago oraindik, berak orori azpiratu ta farra egingo die, bizitza ontan ere, diot, opa lezaken baiño ondasun-pillo askoz aundiagoz gozaturik.

10. Baiña, asieran esan nuen bezela, mintzatu nintzakizuen beste bein, nola jokatu bear duzuen deabruak emen jarri oi dizkigun kezka ta naste-borraste-

⁵ Jn., XX, 21.

tan, ⁶ eta nola biltzen asteko ta bilduta irautean ez dala ibilli bear beso-indarka, emeki-emeki baizik, ortan luzaroago jardun dezakezuen noski, ez dizuet emen geituko auxe ezik: nere iritziz, on aundia egiten du gai ontan experientzi edo bizi-ozarrez ikasiak diranekin artu-eman edukiteak, barnera biltzearen kaltez doala uste izan ez dezazuten bearbearrezko lanen bitartean burutzen duzutena. Otoitza uzten ez baldin bada, Jaunak dana eramango du geure onetan, norik erakutsi guk aurkitu ez-ta ere. Baiña oker au —otoitza uzteba'dagigu, ez dago beste biderik berriz astera itzultzea baiño; orrela ezik, pixkaka pixkaka arimea egunez egun geiago galduz joango litzake: ala ta guzti, Jainkoak nai beza ulertu dezan!

11. Bat-edo-batek uste izan leike, gaitz ain aundia ba'da atzera biurtzea, obe litzakigula barruan sartzen iñoiz asi barik gaztelutik kanpo egotea. Esan nizuen asieran eta Jaunak berak ere ba-dio, arriskuan ibilli oi dana bertan ondatzen dala, eta otoitza dala gaztelu ontan sartzeko atea. Ortik, bada, zeruan sartu bear dugula pentsatu ta geure ezereza ezagutuaz eta Jainkoari zor dioguna gogotan ekarri ta Berari sarri errukia eskatuaz geure baitan ez sartzea, zentzunik eza litzateke. Jaunak berberak dio au: *Aitagana ez doa iñor bidez izan ezik.* ⁸ (Ez dakit orrela, esaten duen; baietz uste dut). Au ere dio: *Ni ikusi naunak Aita ikusi du.* ⁹ Beraz, iñoiz begiratzen ez ba'diogu eta gogorazten ez badugu zenbat zor diogun, ezta guregatik jasan zuen eriotza ere, ez dakit nola ezagutu genezaken, ezta nola egintza onik burutu ere Aren zerbitzuan. Fedeak egintzarik gabe ez du baliorik, ezta egintzak ere Jesukristo, gure Jaun onaren irabazien balioan erro-

⁶ *Bizitza, XI ta XIX atzalb.*

⁷ *Eccl., III, 27.*

⁸ *Jo., XIV, 6.*

⁹ *Jo., XIV, 5.*

tuta egon ezik. Eta orduan nork esnatuko gaitu Jaun au maite izateko? Jainkoari ba'ietsa gugatik jasan dituen nekeak guri ulert-eraztea, eta nola ez dan morroia ugazaba baiño geiago; ¹⁰ eta Aren aintza iritxi nai ba'dugu, nola gauden beartuak egintza onak egitera, eta ontarako naitaezkoa dugula otoitzean irautea, beti zirikal-dian sartuta ibil ez gaitezen."

¹⁰ Mt., X, 24.

¹¹ Mt., XXVI, 41.

IRUGARREN EGOITZAK

Bi Idazpuru dauzka

I IDAZPURU

Erbeste ontan bizi geran bitartean segurantzaz gutxi dugu, egoera goratuan aurkitu arren, eta naitaezko zaigu beti bildurrez ibiltela. — Puntu egoki batzuk daude bertan.

1. Jainko-erruki aundiz eraso-aldi auek azpiratu eta, iraupenean sendo, irugarren egoitzetara sartu dirane, zer esango diegu, *Zoriuntsu Jaunaren bildur dana* (Salm. III) baizik? Ni gai auetarako lotua bait naiz, ez da gutxi izan Jaunak orain niregan egin duena, nik une onetan uler dezadala bertso-zati soil onek zer esan edo adierazi nai duen. Seguraz ere, errazoiz dei egingo diogu *zoriontsu*; atzera biurtzen ez baldin ba'da, guk ulert dezakegunez, salbamen-bidetik dijoa ziurki. Emen-dik atera, ene aizpak, nolako axola duen aurreko barru-kaldietan irabazle irteteak; eta nik ziurtzat daukat Jaunak ez duela inoiz ere uzten barru-segurantzaz gabe, ta au on aundia dala derizkiot. Ala ere, ez dut ondo esan, bizitza ontan ez bait dago barru-segurantzaz osorik; ori xegatik izan beti gogotan diodana: artu duen bidea uzten ez ba'du, ain zuzen ere.

2. Tamal aundia da noski atariko atean etsaiak dauzkenak bezala bizitza ontan beti bizi bearra, ez lo

ez jan arm^y barik egiteke; beti estu ta larri, etsaiak gaztelu au nundik oskatuko ote duten. Ene Jaun eta On guztia! Nola nai duzu bizitza orren doakabea opa izatea, berau ez irrikatu ta bertatik atera gaitzazula eskatzea, eziña baita? Au ez litzateke, ziur asko, Zeure maitasunarren galtzeko itxaropenarekin, edo-ta zeure zerbitzuan osorik urtutzekotan izan ezik, eta batez ere gu bizi izatea zeure naia dala jakin izanaz. Orrela ba'da, ene Jainko, il gaitezen Zurekin. Tomas Deunak esan zuenez,² Zu gabe bizi izatea ta Zu betikoz galdu-bearrez ibiltea, ez da besterik milla bider iltzea baiño. Auxegatik dirautzuet, eskatu bear dugun zorientasuna zeruko zorionekoeekin oraintxetik ziurtasunean bat-egiñik egotea dala; eta, onako bildur artean, ze poz-atsegin euki dezake Jainkoa poz-eraztea beste atsegiñik ez due-flak? Eta gogora ezazue, egoera au, eta aundiagoa oraíndik, zutela gero pekatu larrian jausi ziran santu batzuk. Eta gu ez gaude ziur Jainkoak eskua luzatuko digula oietatik irtezeko —laguntasun berarizkoz diot—, eta oiei *zor* zaien penitentzi egiteko.

3. Egi-egiaz, ene aizpak, bildur aunditan nabil gauza auk idazten, eta ez dakit nola idazten ditudan ere. Eta gogorapen au buruan jarten zaidanean —sari xamar izan oi da—, ez dakit nola bizi al naiteken ere. Eska, ene alabak, Jaunari bizi dadilla beti neregán; orrela ez ba'litza, izan ere, zer itxaropide euki lezake nerea bezelako bizitza orren alperrik galduak? Au one-Ia dala jakiñagatik, ez zaitezte naigabetu, batzuetan au esan dizuedanean zuengan ikusi dudanez, eta au ni santa aundia izan nadilla gura duzuelako da: ondo zaudete ontan, neronek ere nai nuke-ta. Baiña, zer egingo dut, nere erruz soil-soilki gal ba'nuen! Jainkoari ezin dezaioke errurik ezarri, zuen naiak betetzeko aski laguntza eman bait zidan: ezin dezaket au malko-jario

² Jn., XI, 16

ka ezik esan, eta nere lotsa aundiz, neri erakus lezaidaketenai nik onela idazterakoan. Esana egin-bear latza, bene-benetan! Eder bekio Jaunari, Bere aintzaz dagigun ezker, zerbait irabazteko izan dakizuela; eta eska ezaiozue, otoi, barka dezaiola ausarti ezerez oni. Ondo daki Aren Aunditasunak bere errukian aizatu nindekela bakar-bakarrik, eta izan naizena izatea utzi dudan ezker, ez dut beste biderik Jainko-errukian murgiltzea baizik, eta bere Semearen eta Ama Birjiña Aren irabazietan uste ona jartzea baizik, gai izan ezta ere, Ama orren jantzia bait dakart eta zuek ere bait dakartzute. Aintza ezazue bera, ene alabak, Andre onen alabak bene-benetan zerate-ta; origatik ez daukazue zertan lotsatu ni orren ezereza izanarekin. Ama ain ona daukazuen ezker, jarrai berari; izan bere antzekoak eta gogora Andre onen aunditasuna eta zein ederra dan bera zaindaritzat eukitea; ez dira naiko izan nere obenak, ezta naizena izatea ere, gure Alkarte (Ordena) sagaratu onen ditzira ezertan beztu ta lauso-azteko.

4. Gauza bat, orraitio, aditzera eman nai dizuet: zeratenak zeratelako ta olako ama daukazuelako, ez zaitez tuela seguru egon; Dabid on-ona izan zan, eta ala ere ba-dakizue Salomon zer izan zan. Zagozen itxiturari ta dagizuen penitenzi-bizikerari ez gora geiegi eman, ezta Jainkoarekin otoitzean etengabe daukazuten artu-emanari ere; ezta oraindik munduko gauzetatik ain saiestuak bizitzea, ta zeuen ustez mundu ori oinpera tua eukiteak, ez bekizue uste larregirako aitzakia izan. Au gurti au ona da, baiña, esan dudanez, ez da naikoa bildur gabe bizi izateko; sarri ber-esan, ba, bertso au, leiatsuki gogoan irauliaz: *Beatus vir qui timet Dominum* (Zoriontsu Jaunaren bildur dan gizona).³

5. Oraingoz ez dakit zer esaten nuen, zear-mearka jarduna bait naiz luzetxo; nere auleriaz ari naizenean, egoak austen zaizkit gauza onik esateko, eta orrela

³ *Salm*, CXI, 1.

utzi nai dut gaurkoz. Gatozen, beraz, irugarren egoi tzetan sartuta dauden arimai buruz esaten asi nintza nera: Jaunaren aldetik ez dute mesede txikia artu, aundia baizik, lenengo ortopoak gainditu izanaz. One tariko arimak, Jaunaren onberaz, asko dira munduan, nik uste: Aren Aunditasuna ez iraintzeko asmo sendoz beterik, oben ariñetatik ere beren burua zaintzen dutela; penitentzi-zale dira, beren orduak diturte otoi-tzean biltzeko, ondo darabilte denbora, lagun urkoekin maitatsu ari dira, neurtuak dituzu mintzoan eta janzkeran, eta beren etxeak zuzentzen, dauzkatenak jakiña, egoki ta maratzak. Izan ere, jarrera opagarria, eta ez dago, dirudienez, zertan uka azken egoitzetaraiñoko sarrera, eta Jaunak berak ere ez die ukatuko, berak nai ba'dute beintzat; gertaera bikaiña baita au Jaunaren eskutik edozein mesede artzeko.

6. O Jesus!, eta nor legoke zuon artean, aizpak, ondasun orren aundiaren aurrean ez duela esango luke-nik, batez ere nekerik geienekoa igaro ondoren? Ez, bat ere ez. Guztiak diotsagu nai dugula; baiñan arimea oso-oso Jaunarena izateko geiago bear dan ezkerro, ez da naiko esanaz, naiko izan etzitziaion bezela oso-betea izan nai ote zuen Jaunak galdetu zion gazteari.⁴ Egoitza taz mintzatzen asi nintzanetik, begien aurrean dakart au; gu ere, ba, bete-beteaz gazte orren kide gera, eta geienetan emendik sortu oi dira gure barru-idortasunak otoitzaldian, naiz beste sorburu batzuk ere auen artean egon. Ez ditut emen aipatzen arima on askok dauzkaten barne-neke jasan-eziñak, beren ecru gabe diturtenak, eta eurotatik Jaunak beti ere onuraz ateratzen ditunak; ezta ez ditut aipatzen larri, biotz-il naiz beste edozein gaixoz daudenak ere, azken batean ere ba oro utzi bearra dugu Jainkoaren erabakian. Nik neuk gauza ziurtzat dut, geienez beintzat, esan dudana dala

⁴ Mt., XIX, 16-22.

idortasunaren sorburu. Arima auek ba-dakite munduko ezergatik ere ez luketela pekaturik egingo, pekaturin bat ere ez jakiñez, eta beren bizimodua ta ondasunak artez daramazkitela, ezin dute gogo onez eraman gure Erregea —onen mirabetzat bait dauzkate beren buruak, eta dira— dagoen lekura sartzeko atea berentzat itxita eukiterik. Ez dira konturatzen, iduri danez; lurreko erregeak zerbitzari asko eduki arren, danak ez dirala sartzen aren egon-lekuraiño. Sar zaiteze, sat, ene alabak, barrena; jo zeuen onbidezko egiteko txikiak baiño aurrerago, kristauak zeranez ori gurti ori ta geiago egin bearrez zagoze-ta; Jainkoaren mirabe izatea naiko duzue, eta ez izan geiagoren gutizirik, ezer gabe geratu ez zaitezten. Begira ezazue Errege onen gelara sartu ziren santuak, eta ikusiko duzue nolako alde dagoen aietatik gugana. Ez eska merezita ez daukazunik. Izan ere, Jainkoa iraindu dugunok, gogora ere ez genuke ekarri bear, asko zerbidu arren, ezeren eskubiderik daukagunik.

7. 0 apaltasun, apaltasun! Ez dakit zer zentzal dik zirikatzen nauen une onetan, ezin dut bada siñestu, barne-idortasunaz ainbeste arduratzen dan orren gaitz sorburua, pizkat beintzat apaltasunik ezagatik ez danik. Berriz diot, ez naiz mintzo leen esandako barne-neke-min aundietaz, auek jaierrarik eza baiño geiago bait dira. Azter ditzagun geure buruak, ene aizpak! Edo-ta obeto, azter gaitzala Jaunak, ori egiten ondo daki-ta, guk sarri nai ezta ere! ... Eta orain gatozen arima ondo eratu auetara, ikus dezagun zer dagien Jainkoagatik, eta bertatik ulertuko dugu ez daukagula errazoirik Aren Aunditasunaren aurka, ezertan ere, aika ari izateko. Izan ere, osoak izateko zer egin bear dugun dioskunean, sorbaldak eman eta, Ebanjelioko gaztearen antzera, tristerik goazenean, zer nai duzue Jaunak egitea, diogun maitasunaren araura saria eman bear digunak? Eta maitasun onek, alabak, ez du izan bear gure irudimenak sortua, egitez erakutsia baizik. Ez uste, alaere, Ark

gure egitekorik bear duenik; geure naiaren erabakia da eskatzen diguna.

8. Guk uste dugu, geure gogoz artutako lekaimen-jantzia daramagun ezkerro, eta munduan geneuzkan gauza guztiak Beragatik utzi izan (besterik ezpada ere Pedro doatsuaren arrantzari-sareak, geiago ez duenak asko iritziko dio), onekin guztia egiña daukagula. Erabide egokia da berau, ortan iraun ezkerro, eta, gogapenez ere, lenengo egoitzetako sugelindarekin artu-eman izatera itzuli ezik; ez, ez dago dudarik, billostasun or' tan eta gauza guztien axola-gabetasunean arimeak iraun' ba'legi, iritxiko du opa duena. Baiña tankera ontakoa bear du izan —eta begira zer diotzuedan ontaz—, Paul deunak edo Kristok dion bezela, ⁵ *mirabe gauzaeztzat* norbere burua eukitekotan, eta barruan siñest dezala bere egintzaz ez duela gure Jauna beartu mesede oien gai izatera; are geiago, barariaz artu duena zor geiagotan gertatu oi da-ta. Zer egin dezakegu guk Jainko orren emaillearentzat, gugatik il, gu sor-azi ta izatea damakigunaren aide, geure burua zorionekotzat joaz, eta guri egin digun gurtiaren truk, zor diogunetik zerbait itzuli baiño? Gogo txarrez jalki dut itz au, baiña egi uts-utsa da: ona besterik ez bait zuan egin munduan bizi izan zan artean, ez dago mesede ta esku-erakutsi geiago eskatu bearrik.

9. Begira itzazue ondo, alabak, emen idatzia doazen gauza batzuk, naiz-ta naspilduak joan, obeto azaltzeko ez bait naiz gauza. Jaunak emango dizue argia idortasunetik apaltasuna atera dezazuten, eta ez kezka ta artegatasuna deabruak nai luketen bezela, eta siñestazue apaltasuna nausi dan lekuan, Jainkoak esku-erakutsirik iñoiz egin ezta ere, pake ta etsipen ugaria ixuriko du olakoaren baitan, eta orrela, beste batzuk esku-erakutsiz beteta baiño pozago ibilliko da. Jaunak, sarri-

⁵ Lk., XVII, 10.

tan, irakurri duzueenez, aulei eman oi dizkie olako poz-gozotasunak; eta gurutzearenak baiño barru-gozotasunen zaleago geralako, auek ez lukete, nik uste, ezertan ere aldatuko idortasun-bidetik dabiltzan arimen sendotasuna. Azter gaitzazu zuk, Jauna, gauza oro dazaguzun Orrek, guk geure buruak ezagutu ditzagun.

II IDAZPURU

Gai ber-berari darraikio — Otoitzaldian izan

i

tziz, gerta litekenari buruz. — Egoki da aztertuak izatea. — Jaunak nola aztertu oí dituen egoitza auetan aurkitzen diran arimak.

1. Ezagutu ditut nik arima batzuk, eta ugari ere uste dut esan dezakedala, egoera ontara eldu diranak, eta soin ta gogo zuzentasun eta egokitasun ontan, guk neur-azi dezakegunez beintzat, irauak; eta alaere, olako bizitz ondoren munduaren jabe izan bear zutela esan zitekenean, edo beñik-bein berarekin erabat aspertuak, naiko zan gure Jaunak azterketa edo proba baten jartea, eta ez gauza astunetan, eta or ikusten ziran kezka beteak eta biotz-artega; ni erdi-ergel nenkarren onek, eta baita bildur ez gutxi ere. Alperrikakoa derizkiot olakoeri aolku ematea; ez dago zuzentzerik, aspaldi dala bait dute onerako bidea urraturik, eta onekin uste dute ba-dirala besteai erakusteko beste; baita legezko derizkie berak alako gauzak nabaitzea ere.

2. Itz batez, nik ez dut aurkitu, ezta orain ere, osabiderik olako arima gaxoak portarazteko bakar-bakarrik, beren samiñaren sentimentu bizia erakutsi, eta izan

ere erruki aundia ematen dute gaitz-zulo ortan ikusiaz, eta gaiñera ez joan egundo beren iritzien aurka; beren barne-errazoiketaz lilluraturik, bada, uste dute guztia Jainkoaren aintzarako nabaitzen dutela, eta emendik dator —beste iruzaku bat arima orren aurreratuentzat-beren utsegitez ez jabetzea; sentitzen dutena ez da arritzekoa, naiz-ta, ene iritziz, laster igaro bear luke olako gauzetako sentipena. Jainkoak sarri, here aukeratuak beren ezereza eskuz iku dezatela nai izanik, baztertu egin oi du pizkat bere laguntza, ez bait dago geiagoren bearrik, geran lez geure buruak laster ezagutu al izateko. Eta bertatik ulertzen da probaketa au, arimak argi ere argi ikusten bait dute beren utsegitea; eta batzutan, atsekabe aundia nabaitzen dute beren baitan, berak egiñalak egin arren, lurreko gauzeri lotuak aurkitzen dirala ikusiaz, naiz-ta auek pixu aundikoak ez izan, baiña bai penagarri. Au neretzat Jainkoaren kupira aundia da, eta, makurra dalarik ere, irabazitsua oso apaltasunarentzat.

3. Aipatzen ditudan nortzuetan (pertsonetan) ez da orrela. Oiek, berriz diot, beren adimenean sagaritzen diturte gauza auek, eta naiko lukete besteak ere orrela egingo ba'lute. Olakoren bat zeaztu nai nuke, alkar aditu ta, Jainkoak azter gaitzan baiño leen, geure buruak aztertu ditzagun. Gauza bikaiña litzake, izan ere, geu leenik konturatu ta elkar ulerturik egotea.

4. Pertsona aberats batek, semerik ez duenak eta ez here ondasunak nori utzirik ere, diru-galtzea izan du; baiña ba-du alaz ere oraindik beretzat eta bere teillapean bizi diranentzat, eta naiko eduki ere. Au, bada, kezkatu ta barru-pakea galdurik ba'lebil, ogi-apur bat aora eramateko ez duenaren antzera noski, nola eskatuko dio gure Jaunak daukan guztia utz dezala Berarentzat? Emen sartzen da sentitzen duena, txiroentzat nai du daukana-ta. Baiña nik uste dut Jainkoak ori. baiño ere gurago duela Bere Aunditasunak nai duenarekin gogokide izatea ta ontan leiatzea, barrua paketan eukirik. Eta olakarik egin ez ba'dagi, ainbesteko osotasunera

Jaunak jaso ez duelako, bedi ortan; baiña etsita bego ez duela ezpirituzko askatasun au, eskatu ta eskatu, gertatu egingo dala Jaunak eman dezaion. Nor batek ba-du zer-jana, ugari izan ere; badatorkio ondasun geiago eskuratzeko abagunea; emana ba'datorkio, tira, doala; baiña orren atzetik ibilli ta, euki ta gero, gutiziak eraginda geiago ta geiagoren billa ibilitez, nai duen bezin asmo onak eduki (arima auek otoizlari ta jaiera aundikoak dira-ta, naitaez eduki bear asmo onak), ez dira elduko, Erregeandik urbilxe dauden egoitzetara ez dira igoko.

5. Onelaxe izan oi da, berak gutxi-esteko naiz izen ona pizkat beeratzeko zerbait gertatzen zaienean. Jainkoak sarri esker aundia egin oi die ondo jasan dezaten (Jainkoa, izan ere, ageriko birtutearen laguna da, ta ez du nai daukaten izen on ori galtzerik; eta ba leiteke oindio —gore On au beti dugu ona-ta—, egin dioten zerbitzua ordaintzeko izatea). Arima auen barruan, ala eta gurti, alako kezka latza, ain errez ezeztatzen ez Jana geratzen da. Jaungoiko on! Ez dira auek Jaunak nola jasan zuen ausnartzen dutenetarikoak, nekeak eramatea ona dala dakitenak, eta berak eramateko ere irrikatzen daudenak? Guztiak nai litzuzke beren gisakoak, bizikera eratsukoak! Eta are geiago: eder bekio Jainkoari, barnean nabaitzen duten miña urkoaren erruengatik dela ez pentsatzea, beren baitan sari-merezidun egiñik.

6. Asmoz kanpotik nabillela irudituko zaizue, ene aizpak, eta iñolaz ere ez zuekin, emen ez bait dago olako gauzarik, ez ondasunik, ez eukiterik nai ere, ez billatu ere, ez gaitu iñork iraiñez betetzen. Orixegatik, alderakizunok ez dira emen geratzen danarekin; baiña euretatik errez atera ditezte jazo litezken beste gauza asko, auek, ordea, izentatzea ez litzateke egoki, eta ez dago zertan izentaturik ere. Auetatik ikusiko duzue utzi zenuten gurtitik ondo erantziak zaudeten, ala ez; gauza txikiak aurkezten dira, bada, ain edu ontakoak izan ez arren, zeuen buruak beretan ondo aztertu zin-

tzazketenak, baita ikusi ere polito zeuron griñen etxeko-
-andre zeraten. Eta siñets ezaidazue, emen ez dagoela
zerik lekaime-jantzia eraman edo ez eramatean, data
magun bizierak eskatzen duen maillan birtuteak lan
tzean baizik; geure naia Jainkoaren naipean oso-oso
ipiñi ta gure bizia iragan dedilla Aren Aunditasunak
nai duen bidetik; ez, ez dezagun opa iñoiz geure naia,
Aren baizik. ⁶ Eta mailla ontaraiño eldu ez geran ez-
kero, esan dudanez, apaltasuna da gure zauriak senda-
tuko dituna; benetako apaltasunik ba'dugu, izan ere,
naiz beranduxeago, etorriko da ebaketaria, ots, ^{Jain}
koa, gu sendatzera.

7. Arima auk egin oi diturten penitentziak be-
ren bizitza bezin neurrituak dira. Maite dute beren bizia
beronekin gure Jauna, urte askoz, otseindu al izateko;
gurti au ez da txarra, ta orregatik neurritz egiñak dira
beren penitentziak, osasuna gal ez dezaten. Ez izan
bildur, ez dute beren burua ilko! Beren errazoa ondo
dago beren baitan; beren maitasuna ere ez dago orain-
dik zentzuna galtzeko bestean beroturik. Baiña, ai orre-
la bageneuka! Jauna zerbitzeko daukagun baiño gar
apur bat geiago nunbait; onela beti, geldi-geldika, ez
dugu egundo bide au ibiltzea bukatuko. Eta, gure
iritziz, beti gabiltzala nekatzen geran ezkero (siñets
eidazue, bide neketsua da-ta), aski zorion dukegu
galtzen ez ba'gera. Lurralde batetik bestera joakeran,
zortzi egun naikoa izanik, ondo egiña iruditzen zaizue,
alabak, urte betean ostatueta, edurtzetan, euritan eta
bide txarretan ibilliz egitea? Ez litzake obe izango bein-
goan egitea, batez ere gurti orrez gaiñ suge-arriskuak
ere ba-dira-to?... O! aztarna onak eman nitzake nik
oni buruz! Nai beza Jainkoak, ni oraindik emen ez
nadin aurki, sarri uste dudane bezela.

8. Zentzu bete ta zuur bait gabiltza, edozer gau

⁶ Lk., XXII, 42.

zak minberatzen gaitu, eta bildurtzen; eta orrela ez gera ausartzen aurrera joten, guk geurez, besteai geure orde z bidea egiten utzirik, egoitza auetara irixteko beste ba'gñaake bezela! Baiña, au eziña dan ezker, saia gaitezen, ene aizpak, Jaunari zor diogun maitasunaren; utz ditzagun Aren eskuetan geure errazoa eta bidurra; utz ditzagun gogotik denbora luzeak gal-azita berezko auleri au zalantzan jarririk, asko ere asko naigabetzen gaiturten mamu oiek. Beukate nausiak gure gorputzaren ardurea; alkar bitez aiek; guri dago-kiguna auxe da bakar-bakarrik, azkar ibilli, Jaun au ikusteko. Etxe onetan daukazuten guritasuna gutxi edo ezerez dan arren, ala ere osasunaren axolak ziria sar lezaiguke. Zenbat geiago, origatik, ba-dakit nik, ez da osasun geiago izango-ta; baita ere ba-dakit gure artu-emana ez dagoela gorputzaren aldetik, au gutxien baita; nik adierazi nai dudan bidea apaltasun aundi bat da, eta, izan ere, ulert ba'duzue, ementxe dago, nere ustez, aurreratzen ez diranen akatsa; siñest dezagun pauso gutxi eman dugula on-bidean, bai, au siñest dezagun bene-benetan, eta aldi berean siñest dezagun gure aizpak ematen diturtenak dirala gurtiz azkarrak; eta geure buruari buruz, ona izan dezagun ez apalak izatea bakarrik, baita gure aizpak gurtietatik doillorren tzat euki gaitzaten alegin alegiñak egin etc.

9. Orrela egiñik, bikain-bikaiña dugu egoera au; bestela bizi gurtian or egongo gera bide erdian, naigabe ta doillorkeriz beteak egon ere. Geure izateari ba uko egin ez diogun ezker, geure mixeri guztien urrez za maturik bide dagigu, ta bidaldia olan aspergarri ta astuna egiten zaigu; besteak, ordea, ez dabilta olan eta errez igotzen dira azkenengo egoitzetara ere. Arima auetan Jaunak ez du ordaindu gabe uzten zuzen danez, baita errukitsu ere, beti bait du ematen guk merezi baiño geiago, bizitzako esku-erakutsiak eta jostaketak eman al dezaizkiguketenak baiño poz-atsegin aundia goak emanaz. Baiña ez dut uste gusto askorik ematen

duenik, noizik-bein izan ezik, beste egoitzetan zer gertatzen dan adierazteko bear bada, aietan sartzeko prest egon ditezen, ziur asko.

10. Pozak eta atsegiñak (gustoak) dana bat dala-koan egongo zerate, ta zertarako egiten dudan izenen bereizte au. Aide aundia dago, nire iritziz, bi itzon artean: ba'liteke baiña ni zuzenean ez egotea. Auen ostean datozen laugarren egoitzetan esango dut gai oni buruz dazaudana. An, Jaunak oi ditun atsegiñak azaldu bearke diran ezkerro, egokiago datorke. Eta ortaz ekitea alperrekoa iruditu arren, izan daike ala ere protxurik, gauza bakoitza zer dan ezaguturik, obere-na danari jarraitzen alegindu zaitezzen; poz-bide ederra da au Jainkoak araiño daramatzen arimentzat, eta lotsaizuna oro daukatela uste dutenentzat; eta apalak baldin ba'dira, eskerrak ematen saiatuko dira. Apaltasunean okerren bat ba'lego, ordea, Jainkoak berak emango die olako barne-naiez gozakaitz bat, errazoi gabea noski; osotasuna ez dago, ba, atseginetan, ezta saria ere, geien maitatu ta zuzenaren eta egiaren bidetik obeki dabillenarengan baizik.

11. Au egia ba'da, alaxen dan bezela, esango didazue zertarako dan barne-mesedeok aizatu ta eurok zer diran azaltzen jardutea. Neronek ere ez dakit, galde ezaiozue niri idazteko agintzen didanari. Niri ez dago-kit, ez litzateke egoki-ta, nausiekin eztabaidan sartzea, aiek esana egitea baiño. Alarik ere, ona nik egi-egiaz esan dezazuketena. Mesede auek artu aurretik, ni ez euki ez experientziz jakin bakarrik, nere bizitza guztian jakin ere ez nuela jakingo uste nuenean (eta errazoi-z au, aski pozbide bait litzakit jakitea, edo zelan-edo-ala-beintzat Jainkoari zerbaiten atsegin natzaiola uler-tzea), Jaunak zerbitzari ditun arimei egiten dizkien mesede ta pozkario auetaz liburuetan irakurterakoan, gozotasun bizi-bizia somatzen nuen nere baitan, eta nire arimea Jainkoa asko ta asko goresteko gai egin oi zan. Nire arimeak, bada, ain doillor dalarik, au egiten

ba'zuen, onak eta apalak diranak askozaz ere geiago goratuko dute, ta bein bakarrik Jauna goersten duen arimagatik esatea, nik uste, ederki dago, ta uler dezagula geure erruz galtzen ditugun pozak eta atsegiñak. Are geiago, mesede auek Jainkoagandikoak ba'dira, maitasunez eta sendotasunez gaiñezka datoz eta lan gutxiagorekin jarrai dezakegu, birute-egiteetan azi ta beteago gertatuz. Ez uste izan gora gutxikoa danik, geure erruz geratzea! Au jazoten ez danean, bada, Jaunak, zuzena da-ta,' beste bide batzuetatik emango dizue emendik kentzen dizuena. Arek ba-daki zergatik, bere erabakiak ezkutuak bait dira; beiñik-bein, guretzat onena dana izango da beti, iñondikan ere.

12. Jaunaren errukiari esker, egoera ontan (mesede ez txikia, esan dudanez, gorago igotzeko zorian aurkituz) dauden arimak, iruditzen zait, guztiz onurakor izango lukete menpekotasunean prest egoten ikastea; lekaide-lekaimeak izan ezta ere, gauza ederra izango litzateke, pertsona askok egin oi dutenez, zuzendari bat alboan euki, geurea barik aren naia egiteko, geure naia egiteak bait dakarkigu kalterik geiena; eta ez billatu geure tankerako, diotenez, beste bat, zer guztietan kontu aundiz dijoana, munduko gauzetaz eskolatua eta atzipetua legoken norbait bereganatzen alegindu baizik. Gurtiz ona da, geure buruak ezagutzeko ere, olakoekin artu-eman izatea; izan ere, gauza batzuk, eziñak derizkiegunak, beste batzuk egiten dituz tela ta emeki-emeki aurrera daramazkietela ikustearekin, onek azkartu egin oi du gure barrua, eta aien egazgu ere ausartzen bide gera egaz egiteko, txori-kumak egin oi duten bezela egarazten ikastea, naiz-ta asieran egaldi aundia ez eman, jardunaren jardunez, beren aita-amak aiñako egiten dira. Eta au —nik ba-dakit-- onu garri da oso. Onako pertsonak, Jauna ez iraintzeko erabaki sendoa artuta eukirik ere, beti da ona iraintzeko

arriskueta ez sartzea; lenengo egoitzetatik ur aurkitzen diralako, bada, errez itzuli litezke aietara. Aien sendotasuna ez dago oraindik arkaitz gaiñean errotua, asko eramaten ikasiak daudenen antzera, nunbait; auek ezagutzen diturte munduko ekaitzak, eta ez lute oien bildurrik, ezta munduak ematen ditun pozaldien irrisik ere. Litekena da tentaldi biurri batean aietara itzultzea, deabruak ba-daki-ta olakoak eiotzen guri gaitz egiteko; au bear bada asmo onez egingo lukete, baiña tartean, iñoren pekatuak kendu nai izanik, ba'liteke berak ezin jasan izatea onek dakarkion ondorioa.

13. Begira ditzagun geure utsegiteak, urkoerena-kin kezkarazi gabe. Onako pertsona zuurrena da, izan ere, edozertaz zur ta lur geldditza! Eta, bear bada, arri-aitzaki zaigunagandik guk ikasi dezakegu, ta ez gu txi! Azaleko erabide ta egikeran aiek baiño geiago gera; baiña au, ona izanik ere, ez da garrantzitsuena. Ez daukagu zertan gura izanik gure inguruko guztiak gu gabiltzan bidetik joan ditezten, ezta iñori bere naiaren aurka bear bada ezpirituzko gauzak erakusten zertan ari izan; asmo onez erakutsi nai duguna ark ez du ulertzun, eta arimen onari buruz Jainkoak, ene aizpak, ematen dizkigun gogo biziakin oker askotan jausi gindezke. Orixegatik, onena izango zaigu gure Araudiak dionari egotea: *Ixillean eta pakean bizi izaten Baia beti.* ⁸

gu Aren Aunditasunari eskatzen zabar ez ba'gabiltza, onik asko burutuko dugu Aren laguntzaz. Bedeinkatua bedi betieren betierez.

⁸ *Isai., XXX, 15.*

LAUGARREN EGOITZAK

Iru Idazpuru dauzka

I IDAZPURU

Otoitzean euki oi diran pozak eta biotz-ixurpenak, eta ze aide dagoan auetatik atsegiñetara. — Gogorakizuna ta adimena gauza ez-berdiñak dirala ulertzeak eman zion poza azaltzen du. — Onuragarria duzu au, otoitz bitartean zabar eta xorraldiz gaiñezka egon oi diramentzat.

1. Laugarren egoitzez mintzatzen asteko bearrezko nuen egin dudana, au da, Espiritu Santuari gorain *tzzi* nere burua eta emendik aurrera berak itz-egin dezala nere ordezkatu, geratzen diranei buruz zuek ulertzeko moduan, zerbait esateko noski. Emen, bada, berezkoz-gaiñeko gauzak datoz, eta eurok adieraztea oso zail egiten da, Aren Aunditasunak lagundu ezik, leendik ere nik idatzitako beste leen batean lagundu zidanez: an, amalau bat urte dirala, idatzi nuen gai ontaz ulertzen nuena.' Arrezkero, Jaunak arima batzuei egiten dizkien mesede auetaz argi pizkat geiago daukadala derizkiodan arren, beurak azaltzen jakitea ez da berdin: egin beza Jainko algurtidunak, onik ba'letor ortik; bestelan, ez.

2. Egoitza auek dagoneko Erregea aurkitzen daren ingurura urbiltzen diran ezker, aundia da beren edertasuna, eta ikusteko ta ulertzeko gauza ain beratz-samurrak dauden ezker, adimena ez da gai zuzen eta egoki letorken zerbait beintzat adierazi al izateko, bear

liraken itz aukerakoak moldatzeko, eta eziña da, experientzirik ez daukenentzako beintzat, gauzok naiko illun ez geratzea. Baiña au daukatenak ondo ulertuko didate, askokoak ba'dira batez ere. Usteko duzue egonleku auetara irixteko besteetan luzaro egon bear dala; eta eskuarki egia da oraintsu aipatu dugunean egon bearra dagoela, baiña ez da lege ziurra, sarritan entzun duzue-nez. Jaunaren emaitzak dira-ta, Berak banatzen ditu nai duenean, nai duenez eta nai duenari, iñori iraiñik egiteke.

3. Egontoki auetan gutxi sartu oi dira gauza pozoitsuak, eta iñoiz sat ba'lira ere, kalterik gutxi egingo lukete; aldez beste, irabazia uzten dute. Nik obetzat dut beintzat, otoitz-era ontan barneratu ta gerra ematen dutenean; tantaldirik ez ba'lego, ba, deabrua sar liteke Jainkoagandik datozken atsegiñetan eta daudenean baiño askoz kalte geiago egin. Olako arimak, egitan, oso gutxi irabaziko lukete, gaiztoak irabazpide guztiak kenduko lizkieke-ta, azken gabeko xortasun be-tean lagarik. Eztia].di au, beti mail batekoa danean, ez dut uste segurua danik, eta gaiñera siñest-gaitz egiten zait, erbeste ontan bizi geran bitartean, Jaunaren espirituak beti era berdiñean guregan irautea.

4. Mintza gaitezen, beraz, agindu nuenari buruz; au da, esan dezagun emen ze aide edo diferentzi dagoen otoitzean artu oi ditugun pozaldien eta gogozko atsegiñen artean. Pozaldi itzarekin, nik uste dut, aitu genitzakela guk geuk, geure gogarketaz eta geure Jaunari eskatuz, eskuratzen ditugunak; geure gerezko jatorr-indarretikoak diranean, jakiña, beti bear dute ^{Jain} koaren laguntasuna; eta onela aitu bear da esango dudan edozer, Ark lagundu ezik ezin bait dugu ezertxo egin. Poz-gozotasunak burutu oi ditugun egite onetatik datozkigu; izan ere, geure lanaren frutu bat ikusirik, geuk irabazita, poza ematen digu, eta arrazoiz, gisa ortan ari izanak. Poz-aldiak berak ausnartzen ba'ditugu, orraitio, lurrean gerta lekizkigukene beste gauza as-

kotan ere eukiko ditugu. Adibidez: usterik gabe norbaiti datorkion etxaguntza; maite-maite dugun pertsona bat, supituan ikustea; garrantzi aundiko arako baten ondoren ona, edo-ta beste edozein gauza iizaltsu ta ardurazko, geienen on-irizizkoa: emakume bati esan diote bere senarra illa dala, edo bere anaia edo-ta semea, *eta* or nun dakusan bizirik etxerutzen. Nik ikusi dut poz aundi batengatik malkoak ixurtzen, eta neri ere iñoiz gertatu zait ori. Neri, beraz, iruditzen zait pozaldi auek berezkoak diran bezela, berdin Jainkoaren gauzetatik datortenen ere; lenbizikoak txarrak ez ba'ziran ere, bigarrenak etorri bikaiñagokoak dituzu, geugandik irten arren Jainkoarengan dutelako bukaera. Gozotasunak, ordea, Jainkoagandik dute asiera ta gure berezkoak sentitzen ditu, eta oiek eman oi dute aipatu ditudan pozak aiña atsegin, eta askoz geiago. O Jesus, nola nai nukean gai au obeki adierazten jakin! Nere begitako, ba-dakit bion artean aide ezagun-ezaguna dagoela, baiña nire jakitea ez da irixten nere barrua bear lea adieraztera. Egin beza Jaunak!

5. Orain gogoratzen zait Prima deritzan goiz-otoitzean esan oi dugun azken salmuak amaitzean, bertsoaren bukaeran, onela dioela: *Cum dilatasti cor meum* — Nere biotza zabaltzen didazunean. ² Ondo oitua dagoenarentzat, naikoa da emengo alde ikusteko, batetik bestera dagoena noski; experientzirik ez daukanak, ala ere, azalpen geiago bear du. Gorago aipaturiko pozak biotza zabal-azi ez-ezik, geienetan estutu egiten dutela dirudi, zerbait beintzat, naiz-ta guztia Jaunarentzat da gignaren pozarekin izan; baiña naigabezko malko ba tzuk datozkigu, nolerebait griñak eraginda diruditenak. Gauza auetan traketsa naiz-ta, gutxi dakit arimaren griñetaz; ba'neki, adieraziko nuke bear bada geure jatorrizkotik eta geure kupiratik datorrena. Bizi izan

² Salm. CXVIII, 32.

dudana ba-dakit nola adierazi, baiña ez bizi izan ez dudana. Gauza aundia da jakitea, eta letrak guztirako eukitea.

6. Nik egoera ontan nabaitu dudana, gogarte bi-tartean eukitako esku-erakutsi ta pozaldiai buruz diot, auxe izan da: Kristo'ren Nekaldia bururatuz negarrez asten ba'nitzan, edo-ta neure pekatuengatik, ez nekian atertzen burua austen zitzaidan arte: esker aundia egiten zidan gure Jaunak. Nik ez dut orain aztertu gura zein dan ohea, bata ala bestea —pozak ala atsegiñak—; baiña bion arteko diferentzia adierazten jakin nai nuke. Ortik datozen negar-malko ta naikariei dagokienez, gure berezko jatorriak lagunduta dira batzuetan, baita norbere barruko egoerak ere asko dezake. Baiña, esan dudanez, azken batean, andik nai emendik sortuak izan, Jainkoaren baitan murgiltzen dira beti. Ortakotz aintzat artu bear dira osorik, ori ta guzti besteak baiño obeak ez gerala ulertzeko aiña apaltasun baldin ba'daukagu, batez ere. Ezin daiteke, egiaz, jakin alako ondoren guztiak maitasunetik datozen ala ez; maitasunetik ba'letoz, ain zuzen ere, Jainkoak emanak lirake. Geienik, aurreko egonlekuetan dauden arimak dauz-kate onako jaierak, ia jarraian adimen-lanean ari diralako; errazoiketaz diardue otoitzean ekin eta ekin, eta ondo Boaz, azken batean ez zaie geiago eman izan eta. Baiña obe izango litzateke txitean pitean Jainko-goral-penezko ta maitasunezko egintzak burutuko ba'litukete, Aren ontasunean eta dana dalako pozturik, Aren ospe ta aintza nai izanaz: eta au alik eta modurik onenean, naimena asko esnarazi oi duten sentipenei dagokiena da-ta. Zur zaudete Jaunak olako egintzak sort-eraziko lizuetenean, ez utzi bukatu Babe oituraz duzuen gogarte-aldia.

7. Oni buruz lendik ere beste toki batzuetan ³

³ Bizitza, XII atzalb.

luze jarduna naizen ezkeru, ez dut emen geiago esango. Nai dudana da bakar-bakarrik, zuek ernai egon zaitezela; bide ontan gero ta geiago aurreratzeko eta irrikatzen ditugun egoitzetara igoteko, ez da dana asko buruz iraul tzea, asko maite izatea baiño; beraz, naiago izan beti ere maitasuna sort-azten duten gauzetan ari izatea, noski. Bear bada ez dakigu oraindik maitatzea zer dan, eta ez naiz askorik arritzen. Jainkoarekiko maitasuna ez dago barne-gozotasun asko eukitean, baizik-ta Ari gauza orotan poza ematera erabaki-erabakita egotean, Ura ez iraintzeko alegiñ guztiak egitean, Aren Semearen ospe ta aintza ugaritu eta Eliza Katolikua garai-azia izan dadin etangabe eskatzean. Onexek dira maitasunaren ezaugarriak; ez uste izan, ala ere, gauzea beste ezertan ez pentsatzean dagoela, eta naikoa dala arreta-galtze txiki bat dana, dana alperrik galdua izateko.

8. Ni ere ibillia naiz ontan gogorameneren iskanbillarekin, naiko nastatua iñoizka. Baiña lau urte zerbait geiago izango da, ulertzera eldu nintzala, oar-ikasiz, pentsamentua, edo, obeki ulertzeko, irudimena, ez dala gauza berdiña adimenarekin; asko ikasi bati galdetu nion, eta orrela zala erantzun zidan: onek etzidan poz gutxi ekarri. Ez nuen nik ulertzen, ba, adimena arimearen almena izanik, nola egon oi zan aldiz bare-bare; pentsamentuak, ordea, ega egiten du geienetan, eta arin egin ere. Jainkoak bakarrik lotu dezake, eta onela lotzen gaitunean, gorputz ontatik nolabait aske gaudela esan diteke. Aide batetik, iruditzen zaidan ez, ^{ari} mearen almenak Jainkoagan bildurik eta Arekin arazo turik zeudela ikusten nuen, eta bestetik aztoratua zebillen nire pentsamentua: eta onek izutzen nindun.

9. Ar kontuan, o Jauna!, geure ez-jakiñagatik zenbat sufritu bear dugun bide ontan barrena! Gaitza dator, zeu gogoan zelan erabilli jakin ezkeru, besterik ez duaula jakin bear uste izatetik, eta orrela ez dakigu dakienei galdetzen, ezta zer galdetu bear dan ere, eta neke-lan izugarriak eramaten ditugu, alkar ulertzen ez

dugulako; eta uste dugu sarri oben larria dala, ez bakarik txarra dana, baita ona duguna ere. Emendik datoz otoitzean ari diran jende askoren naigabeak, baita geienik beintzat, eskolatua ez dan jendeetan, barruko neke-oiñazei buruz aieneka ibiltzea; ortik datoz gainera tristura ta illunaldiak, osasuna galtzeak, eta bertanbera uzteak ere bai, emen gure baitan barne-mundu bat daramagula gogoan artzen ez dutelako. Abiada osoan dabillen ortziaren ibillia geldi-azi ezin dezakegun legez, ezta geure pentsamentua ere, eta onekin naste sartzan ditugu arimearen beste almenak ere, eta gero galdunik gaudela uste dugu, ta gaizki emana Jainkoaren aurrean igaro oi dugun denpora. Eta au gertatu daiteke, bear bada: arimea oso-osoan dago Jainkoarekin, urbilleko egoitzetan, eta gure pentsamentua gaztelu inguruan, milla abere, pizti ta suge pozoitsukin neketan, eta neke onen bitartez irabazten nunbait. Orixegatik ez gaitezen kezkarazi, ezta otoitz-egiterik laga ere, orixe baita deabruaren elburua. Jakin ezazue, diralako kezkarik eta ^Peke-oiñazerik geienak, geure burua ez eza-gutzetik datoztela.

10. Oraintxe bertan, au idaztean, nere buruan gertatzen zaidana darabilt iraulka: bertan nabaitzen dudan zarata aundiari nagokio; aundia, ziñez, eta asieran esan nuenez, ia ez nuen uste idazteko agindu zidatena burutzeko gauza nintzanik ere. Esan daiteke ibai urtsu asko daudela bertan barruan, baita beste aldetik urok jauzi bikaiñak egiten dituztela, txoritxo asko ta txistu-soiñuak; eta ez gero belarrietan, arimearen gaina dagoela ° dioten buruaren goenean baizik. Ni ontan egona naiz luzaroan, ezpituaren ibillia, aundia noski, gorantza zalakoan nengoan eta. Nai beza Jaunak, emen bait dator egoki, aurreragoko egoitzetan au zergatik dan esateko ni gogoratzea; emen ez bait dator egoki. Ba'leiteke Jaunak niri buruko min au orain ematea,

° S. Thom., *Summa*, I part., q.79, a.9.

berau obeto uler dezadan. Izan ere, nik buruan darabildan naspil guztiagatik, ez dit onek otoitzean aritzea gal-erazten, ezta idazten diardudana esaten ere, arimea osorik daukat ba here atsedenean eta maitasunean, here naikari ta ezaguera argiarekin.

11. Buruaren gain-gaiñean ba'dago, beraz, arimearen zatirik garaiena, nola ez ote du asaldarazten? Ori nik ez dakit, baiña nik ba-dakit egia dala diodan au. Mi n artzen da otoitza xorraldiz ez danean, orduan ez da-ta, igaro ante, ezeren gaitzik nabaitzen; baiña gaitz aundia izango litzake nik ortopo augatik dana utziko ba'nu. Beraz gogapen batzuengatik ez dugu naasturik ibilli bear, ezta aintzakotzat artu ere; deabruarenak baldin ba'dira, onekin utziko dio gu zirikatzeari, eta Adan'ek, beste askorekin, utzitako mixeria baldin ba'da, ar dezagun eramanpena, Jainkoari diogun maitasunarren jasanik; orrelaxe daramagu jan eta lo-egin bearra ere, naitaez egitekoa, onek ere lanik naiko ekarri oi digun arren.

12. Ezagutu dezagun geure ezereza, eta opa dezagun iñork geiago muziñik egingo ez digun lekua 5 Iñoiz gogoratzen naiz Emazteak arako Abestietan dioen au entzuna izanaz, eta bene-benetan ez dut bizitza guztian iñon aurkitzen egi aundiagoz esan dezakegun gauzarik; gure bizitzan izan ditezken destaiña ta lan guztiak, bada, ez deritzat eltzen diranik barruko erasoaldi auen maillara. Geu, geure barruan, esan bezela, pake-tan baldin ba'gaude, errez eraman dezakegu edozein larrialdi naiz liskar: baiña Jainkoak berak erreztu oi digun atsedenera baztertzearren ainbesteko naigabe-moltzotik iges-egin ondoren, oztopak geure baitan aurkitzea, ol, oiñaze izugarria duzu, ia-ia eraman eziñal! Beraz, eraman gaitzazu, Jauna!, mixeriok geiago muziñik, destaiñik egingo ez diguten tokira, bein edo beste

⁵ *Cant., VIII, 1,*

arimaren bizkar ixeka dagitela esan diteke ta! Baiña naigabe ontatik ere, Jainkoak nai baldin ba'du, esango dugunez, Jaunak bizitza ontan erabat askatzen du arimea, azkenengo egoitzera iritxi dadiñean.

13. Zoritar aukerak ez die guztieri neri eman didaten aiña naigabe emango, ezta neri bestean eraso ere; neri urte askotan ekin zidaten nere arlotekeriagatik, eta esan zitekean neuk nai nuela neure buruari berea ordaindu. Eta au neretzat gurtiz mingarri izan bait da, zuentzat ere uste dut neketsu izan ditekeala, ta orixegatik an eta emen aspertzake diardut esaten, zueri berau adierazi nairik, zuek ere iñoizkoren baten uler dezazuten indarrezko gauzea dala; kezkatu ta goibel ibilli ez zaitezten noski, baizik-eta, errota-kalaka orri berean ibiltzen utzirik, eio dezagun geure iriña, naime-nari ta adimenari beren lanean atertzen laga gabe.

14. Geiago ta gutxiago dago eragozketa ontan, osasunaren eta denboraren aldekoa, alegia. Pot-egin beza arima gaixoak, naiz-ta ez euki ontan errurik; beste aldetik, ba, uts asko egingo ditugu eraman ona izan bearrekoak. Gu gutxi eskolatuak geran ezkerro, ezta naikoa pentsamentu auei jaramonik ez egiteko, ez liburuetan irakurri oi duguna, ez artzen ditugun aolkuak, ez dut uste denborea alperrik galtzea danik gai au geiago azaldu ta zuek poztu-azten ematen dudau. Baiña Jaunak bere argia ematen ez digun ante, ez dakar on aundirik. Bear-bearrezko da, clan ere —eta Jaunak nai du—, guk geure buruak ezagutzeko bideak artzea, geure irudimen urduri, berezko ta deabruarena geure arimeari errutzat ezarri ez dezaigun.

Asitako gaiari jotzen.—Zer diran atsegiñak adierazten du, antziduri batekin.—Nola iritxi bear diran, alegiñik egiteke.

1. Non sartu naizen, ene Jainko! Aaztua nuen zer nerabilen esku artean, nere ar-emanak eta osasunak aldi oberako berau utz-azten didate-ta. Orrela, oroime-
nez laburra naizelako ta idatzi dudana irakurtzeko asti gutxi, lan au zirriborro ta nastea besterik ez da izango. Eta bear bada naspil utsa besterik ez da, ez, diodana guztia: Auxe da, beiñik-bein, neri ematen didan zarrazta. Ezpirituzko portasunai dagokienez, uste dut, zer-bait esanda geratu dala, nola batzuetan geure griñakin naste agertzen diran eta sortu oi dituzten zalapartak eta negar-intziriak. Baita oraindik entzun dut pertsona batzuetaz esaten bularra estutzen zaiela, eskuratu ezin dituzten kanpotiko gorputz-zirkiñak ere soma-azirik. Onen indarra aundia da-ta, sudurrak ere odol-jario jartzen dizkie, ta beste onelako gauza nekegarri batzuk eraman-azi. Onetzaz nik ez dakit ezer, niri ez bait zait olakorik gertatu; baiña dauzkatena pozik geratzen di ralakotan nago; diodanez, ba, guztia doa zuzendurik gurari bizi batera, ots, Jainkoari poza emanik Aren Aunditasunez norbera ere pozkariotu.

2. Ala ere, nik Jainkoagandiko atsegiñak (gus toak) deritzatenak eta beste toki batean atsedent-otoitza deituak, beste era batekoak dira, Jainkoaren errukiari esker ori txastatzeko zoria izan duzuenok dakizuenez. Obeki ulertzeko, egin dagigun iturri bi ikusten ditugula, urez betetzen diran bi askarekin; gutxi jakiña ta asmamen urrikoa naizelako, ez dut aurkitzen urarena baiño gauza egokiagorik barruko zer batzuk azaltzeko; eder zait ura, ta beste gaiak baiño ere berezkuntza

txeratsua goz bed begitu izan dut. Jainko aundi ta jakintsuak sortu izakietan guk ona atera genezaken aski ezkutu egon bear dute, eta ulertzen dutenak orrelaxe dagite, onura aundia atera. Nik uste dut, beste aldetik, Jainkoak egiñiko gauza txiki bakoitzean, naiz-ta txiñurri kaskar bat izan, guk ulertu genitzaken baiño gauza arrigarri geiago daudela gorderik.

3. Bi aska auek urez betetzen dira, baiña ez era berdiñean: ur bata urrunetik dator antzez egindako erreten askoren bitartez; bestea sorburuan bertan artua danez, bat ere zarata barik beteaz doa. Eta mintzatzen ari geran au bezela, ur-begia joria baldin ba'da, ur-aska au asetu ondoren, erreka aundia egin oi da bertotik, gau ta egun urez ornitua, antze ta erretenen premiña gabe. Onetan dago alde: erretenez datorren uraren antzekoak dira, nik uste, otoitz-jardunetik ateratzen dirala esan dudan pozaldiak; geronek dakazkigu auek gogapenen bitartez, otoitzean jardunez eta izakien laguntzaz, adimena nekatuz; eta azken batean geure arduraz datorren lez, berriro diot, gure ariman zerbait onik egiteko betetzen danean, zarata egin oi du.

4. Beste aska ontara bere sorburu-sorburutik dator ura, au da, Jainkoagandik; orrela, Aren Aunditasunak nai duenean, izatez goitiko mesede bat egiterakoan, geure barren-barrenetik jalgi oi da ura, pake, atsedean eta gozotasun aunditan; nik ez dakit nola ta nondik irtena dan. Poz-atsegiñok, lenengotan diot emengoen antzera biotzean sentidu ez arren, gero guztia asetu oi dute; ur au zabalduaz doa egoitz eta almen guztietara, gorputzeraiño eldurik; orixegatik esan nuen, Jainkoagandik asi ta geuregan bukatzen dala. Izan ere, gaiñeko gizon osoa, txastatua duenak ondo ikusiko duenez, onako atsegin eta gozotasunez gaiñezka nabaitzen da.

5. Orain, au idaztean, begira nengoan ni, aipatu nuen dalako «*Dilatasti cor meum*» bertsoan, biotza zabal-azi zaiola esaten duela. Ez dut uste, berriz diot,

bere sorburua biotzean duenik, beste nunbaiten barruraino baiño, toki sakonagoan noski. Gero ulertu dudanez, eta azkenerantza esango, arimearen erdi-unean izan bear du. Egi-egiaz, geuron barruan aurkitzen ditut sarrizurturik nakarren ezkutuak. Eta zenbat onako geiago egon bear dute! O ene Jaun eta ene Jainko!, aundiak bai zure aunditasunak! Eta gu, artean, artzaitxo burugabe iduri, emen ari gera Zugandiko zerbait dakigula koan, eta dakiguntxoa ezerez bezela izan bear du, geuregan dagozan ainbat eta ainbat ezkutu aundi ez ditugu ulertzen eta. Ezerez aiña diot, Zuregan dagoen bete-betea ez bait da alderatzekoa ere, eta ez gero zure egintzetatik beretatik jaso al ditzakegun eta ikusgarri zaizkigun aunditasunak aundiak ez diralako.

6. Itz-neurtuaren bertsora biurtuaz orain, onura pizkat atera dezaiokegu emen, nik uste, barne-zabaltze urari gagozkiolarik. Onela dirudi beintzat: diodan sorburu ortatik, au da, geure barren-barrenetik, zerutar ur ura ematen asi besterik ez, eta gure barru osoa edatu ta zabal-aziaz dijoala esan diteke, adierazi ezin ditezken onak ugari emanaz. Arimea bera ere ez da gauza an ematen zaiona ulertzeko. Usai goxo bat nabaitzen du, zelanbait esan, barne-barneko ondar artan urrin gozatsuz orniturik sut-ontzi bat ba'lego bezela. Ez da sunk ikusten, ez dakigu non dagoen, baiña beroak eta ke usaitsuak osorik artzen du arimea; baita, esan dudanez, gorputzak ere ortan esku artzen du maiz xamar. Begira, uler ezaidazue ongi: ez da somatzen ez berorik, ez usairik, gauza auk baiño zer bigun-goxoagoa da-ta. Iru-dikizun auk jartzen ba'dizkitzuet, zuek ulert dezazuen da bakar-bakarrik. Ortik igaro ez diran pertsonak jakin bezate, orrelaxe gertatzen dala, egi-egiaz, eta naikoa ondo ulertzen dala. Arimeak argi-argi ulertzen du, nik orain azaltzean baiño argiago noski. Ezta au irudimenaren joko bat, alegiñak, guk geurez eskuratu eziña da-ta. Laster ikusi oi da ez dala gure meatz-lana, Jainko-jakituriaren urre-lan garbi-garbia baizik.

Almenak emen ez dagoz, nire ustez, alkarturik, zurturik eta aztoratuak ura zer izan litekean begira baiño.

7. Barruko gauza aueri buruz itz-egitean, ba'liteke zeaztasunen bat zuzen ez egotea beste leku batzuetan esanda daukadanarekin. Ezta arritzekoa, ia amabost urte joanak bait dira ura idatzi nuenetik, eta arrezkero Jaunak argitasun geiago eman dit gai auek obeki uler tzeko, Ala ere, orain eta orduan uts-egin nezakean, baiña ez gezurrik esan, Jainkoari esker, bada, ori baiño lenago milla erio jasango nituzke. Ulertzen dudana diot.

8. Irudi zaidanez naimenak alkarturik egon bear du nolabait Jainkoarenarekin; baiña otoitzeko gauzok obeki ezagutu oi dira, ondoren datozen zitu ta egiñetatik: norbere burua aztertzeke, ez dago egon ere sukattillu oberik. Aski mesede aundia du Jaunak egiña, artu duenak berau ezagutu ba'deza, eta aundiagoa oraindik, ezaguturik, atzera biurtu ez ba'dadi. Otoitz auxe bear bada, ene alabak, euki naiko duzue bertatik, eta ba-duzue errazoirik; arimeak, izan ere, esan dut, ez ditu oindio osorik ulertu Jaunak egon-mailla ortan egiten dizkion mesedeak, ezta ez du ulertu Jaunak nola alderatzen duen gero ta geiago Beregana, arimea irrikatzen dago-ta mesede au nola eskuratu jakin nairik. Nik oraintxe esango dizuet gai ontaz atzeman dudana.

9. Utz dezagun Jaunaren eskuetan. Aren Aunditasunak, guk ez merezi ez ezer egin gabe, ez beste ezergatik, egin oi digun mesedea. Ark onela jokatu opa du, ta aski da: guk ez daukagu ortan zergatik sartu. Igarotako egoitzetakoak egiña burutu ezker, apaltasuna bear da ta oraindik ere apaltasuna. Onekin ekar dezakegu Jauna, Beronengandik ardietsi nai dugun guztira; eta apaltasunik daukazuen ala ez jakiteko lenengo ezaugarria duzue onako Jainko-doia ta atsegiñik ez duzuela merezi siñistutzea, eta ez dituzuela zeuron bizitza guztian ere olakorik izango. Baiña esango didazute:

ea onela, alegindu ezik, nola eukiko dituzuten? Oni eran-tzuten diot, ez dagoela biderik esan dizuedana baiño oberik, au da, alegintzen ibilli ezik baiño. Ona erra-zoiak. Lenengoa, onetarako aurrenik bear Jana etekin gabe Jainkoa maite izatea duzue. Bigarrena, apur bat apaltasun gutxikoa dirudi gauza ain aundia geure zer-bitzu zirtzil batzuegatik lortzen dala, uste izatea. Iru-garrena, Jauna iraindu izan dugun ezkeru, gure barne-tankera ez du izan bear beintzat atsegin eta gustoak artzekoa, egi-egiaz jasan eta Kristori antz-artzeakoa bai-zik. Laugarrena, Jainko guzti-alduna ez dagoela grazi oni. guri ematera beartua, bere aginduak betetzen ba'di-tugu zerutar aintza-saria ematera beartuta daukagun be-zela, mesede oiek barik ere salbatu gindezke, eta Berak daki guk baiño obeki zer zaigun egoki ta nork maite duen egiazki. Gauza ziuerra da, ta nik ondo dakit: nik eza-gunak ditudan pertsona batzuk maitasunezko bidean barna doaz, bear dan bezela, au da, euren Kristo gurutz-iltzatuaren zerbitzari izatearren soil-soilki; eta alere, barru-poztasunik eskatu ez-ezik, gura ere ez dute ola-korik, eta Jaunari eskatu oi diote, bizitza ontan dauden artean eman ere ez egiteko: au egi utsa da. Bostgarren errazoia da, dubarik lan egingo dugulako; ur au, aurre-koa lez, erretenez ekarriko ez dan legez, sorburuak jalgi-azi ta eman nai ez ba'du, alperrik diardugu geure buruak nekatzen. Esan nai dizuet, guk etengabeko go-garketa euki arren, eta geure burua geiago ta geiago mastrakaturik, negar-arpulu lodiak ixuri, dalako ura ez dator emendik. Jainkoak berak nai dionari ematen dio bakar-bakarrik, eta arimeak gutxien uste duenean sarri.

10. Ene aizpak, Jaunarenak gera; begi gurekin nai duena, eraman gaitza Berak gogo duen bidetik! Ondo dakit, benetan apaltzen danak, eta munduko gauzetatik erabat billostu (benetan diot, ez bait du izan bear geure gogapenez bakarrik, auek sarri ziria sartzen digute-ta, guzti-guztitik askatuta egon baizik),

artuko du noski Jaunagandik olako mesedea, baita beste asko ere, gure naikunde guztien gaiñetik daudenak ain zuzen. Goretsia ta bedeinkatua izan bedi betiren beti. Olantxe.

III IDAZPURU

Bilduzko otoitza, zer dan, esan-berri duguna baiño leen, geienik, eman oi diguna noski. — Orren ondorenak adierazten ditu, baita aurre koarenak ere, au da, Jainkoak eman oi ditun gusto to atsegiñenak.

1. Askotxo dira otoitz onen ondorio edo atzeak; batzuk esango ditut. Lendabizi, ia beti au baiño lenago⁶ gertatu oi dan otoitz-mota aipatu nai dizuet; baiña onetzaz ere beste toki batzuetan lendik jarduna naizen ezkeru, itz gutxitan esango dut esatekoa: zentzu-biltze bat duzue, izatez-goitikoa dala derizkiodana. Illunean egotea, ez begiak ixtea, ez kanpoto beste ezertan itsastea ez dalarik ere, begiak baitik bat itxi egiten dira eta bakartadea irrikatzen; eta neke aundi barik, esanda geratu dan otoitzerako etxea jasoz doala dirudi. Zentzuak eta beste kanpoko gauzak euren eskubide osoari uko egiten doartzela dirudi, arimeak galduta zeuzkan bereak berriz eskura ditzan.

2. Arimea bere baitaratzen dala esan oi dute, eta beste batzuetan bere gain igotzen dala; baiña nik ez nuke ezertxo ere azalduko izkera onekin. Jardun

⁶ *Bizitza, XVI atzal.; Onbidea, XXVIII ta XXIX atzal. Osuna, Tercer Abecedario, VII atzal.*

txarra dut nik, eta darabildan onekin zuek ulertuko didazuela deritzait, edo-eta bear bada neretzat baiño ez da izango. Egin dezagun, ba, zentzunak eta aalmenak (zerbait adierazi al izateko iruditzat artu dudan gazteluko jendea, esan dudanez, auetxek dira-ta) kanpora irten dirala ta jende arrotzekin dabiltzala, gaztelu onen onik nai ez dutenekin noski, egunetan eta urteetan; eta azken batean, ori euren ondamendirako dala ezaguturik, atzera ere gaztelura urbiltzen dira, baiña, oitura au gauza latza dalako, ez dira barruan sartzen ausartzen; ala ere, biran dabilta ta ez dira etoi, geiago. Gaztelu ontako egonlekuan aurkitzen dan Errege aundiak au ikusirik, eta oien gurari ona, bere erruki aundiz, Berengana itzul-azi nai ditu, eta artzain onak bezela, txistu mee-gozo eurak ere doi-doi ulertzen dutenez, bere abotsa entzun dezatela egiñaz, galduak ibilli Babe beren egoitzera biur ditezela aolka tuz. Eta artzaiaren txistu onek indar aundia bait du, kanpoko gauzak utzirik, leen lilluratuak zekaztenak nunbait, berriz sartu oi dira gazteluan.

3. Une ontan bezela ez dut uste egundo adierazi dudarik au. Jainkoak grazi au egiten digunean, ontan daukagu laguntza berezia geure baitan Bera billatzeko. Izakietan baiño obeki ta geure protxurako berton aurkitzen bait da; Agustin Deunak dioskunez, toki askotan billa ibilli ostean, ortxe aurkitu zuen egiazki 8 Baiña ez ezazue uste izan barne-biltze ori iritzi dezakegula ulermen-indarrez Jainkoa geure barruan daukagula pentsatuz, ezta irudimenarekin orobat egiñaz ere. Ona duzue au ta gogarterako bide bikaiña, Jainkoa geuron barruan dagoelazko egiaren gaiñ oiñarrituta bait dago; baiña au ez da, au guzti au, Jaunaren laguntzarekin, gutariko edozeiñek egin dezakeguna da-ta. Nik diodana, ordea, beste era batekoa duzue: batzutan, Jainkoaz go-

⁸ *Autorkizunak, X idazt., XXVII atzalb.*

goratzen asi orduko, jende au dagoneko gazteluan dago alkarturik; ez dakit nik nundik sartu dan barrura, ezta nola aditu duen ere artzaiaren txistua. Etzan izan ziur asko entzumenez, ez bait da ezer entzuten, baiña bai nabaitzen naiko argi barrurantzako biltze leuna; ortik igaro danak ulertuko dit, nik ezin bait dut argiago adierazi. Nunbait irakurri cludala deritzait triku edo dortoka bat beren barnera kiribiltzen diran bezela gerta oi dala; eta ori idatzi zuenak ondo ulertu bear izan zuen gauzea. Pizti auek, orraitio, beurak biltzen dira nai dute-nean; emen ez dago au geure eskuetan, Jainkoak mesede au egin gura digunean baizik. Zurituta nago, Jainko aundiak au egin oi duenean, munduko gauzei agur egiñaz doazten pertsonai egiten diela. Ez diot egitez danik, bizibide-maillaz daudenak, ezin dute-ta, gurariz baizik, batez ere barrukoa danari zuur egoteko dei egiten bait die. Eta orrela etsita nago, Aren Aunditasunari lekua egin nai ba'diogu, Ark ez diola au bakarrik emango geiagorako dei egiten asi zaionari.

4. Au beregan nabaitzen duenak gores beza Jauna oparo. Doaiagatik eskerrak erakustea, bidezkoa da oso ere oso; artua duenagatik eskertsu agertzeak, izan ere, gauza aundiagoetarako bideak irikiko dizkio. Onak, gainera, lagunduko dio, liburu batzuetan burutara eman oi zaigunez, entzun al izateko, au da, gogoketan ari gabe, Jaunak ia zer egiten duen ariman ikusi nairik, adi ta zur egoteko noski. Jainko aundia asia ez baldin ba'da gu lilluraz xoratzen, nik ezin dut aitu gogamena nola geldi-azi daiteken, onura baiño galtze geiago ez egiteko eran. Gai oneri buruz jende askorekin sartu izan naiz eztabaidan, baiña nik —aitortzen dut nere apaltasun urria— iñoiz ere ez dut idoro aien errazoietan esaten zuenera nere burua makurtzeko aiña indar. Batek bere aide aipatu zidan alako liburu bat, uste dudanez, Alkantara'ko Pedro lekaide santuarena; eta ni gogoz jarriko nintzateke onen esanera, onen berri zuena ba-dakidalako. Eta irakurri genuen, eta nik diodana ber-

dintsu dio ark ere; ez dio itz berdiñekin, baiña dionetik argi ateratzen da maitasunak dagoneko bizkor ta sukartua egon bear duela ⁹ Ba'litete ni oker egotea, baiña ni errazoiotatik noa.

5. Lenengo, ezpirituzko gauzotan, gutxi pentsatu ta gutxi egin nai duenak, egiten du geien; egin bear duguna da, eskatu errege aundi ta aberats oaten aurrean txiro ta beartsuak egin oi duenez, eta gero begiak eratsi ta itxaron apaltasunez. Jainkoak bere bide ezku tuz nunbait entzuten digula uste dugunean, ona da orduan ixillik egotea; Bere ondoan egoten utzi digu, ba, ia ez da txarra izango adimenaren bitartez, al ba'dugu, diot, lanik ez egiten saiatzea. Baiña Errege onek oindio ez digula aditu ez ikusi konturatzen baldin ba'gera, ez dugu egon bear zozotuak bezela, bere pentsamentuak galgatu bear izan dituen arimearen antzera; au, bada, ezertan ez pentsatzen alegintzearren, askozaz ere aidorrigo gelditzen da, eta bear bada irudimena urduri ta kezkatuago. Guk eskatzea nai du Jaunak, bere begien aurrean gaudela gogora ekartea, Berak bada-kiala-ta zer zaigun egoki. Giza-trebetasunei buruz, ni ezin naiz etsi Jainkoak antza danez muga ipiñi dien gauzetan baliorik izan daitekenik, Beretzat aide bateratu nai zituztelako. Olako mugarik ez du jarri, ordea, beste gauza askotan guk ondo burutu genitzakenetan, gure ezereztasunak al lezaken giñoan beintzat, gorputz-ildura, otoitza ta beste egintza on batzuk, adibidez.

6. Bigarren errazoia da barruko egintzak danak dirala leun paketsuak; eta nekez egiña danak, on baiño kalte geiago egin oi du. Neketsua deritzat nik egin gura genukean edozein indarri, neketsua litzaken bezela arnarsi eustea, esate baterako. Arimeak Jainkoaren zaipean jarri bear du, onek nai duena egin dezan bereztaz; piper utzi bear du bere obaria osorik, eta, al duen

⁹ *Tratado de la Oración y Meditación*, zortzigarren Abisuan.

bestean, Jainkoaren naierara makur-azi. Irugarrena da, ezertan ez pentsatzeko jarten dugun arreta bera izan ditekela, bear bada, gogapenari geiago pentsatzera eragingo diona. Laugarrena da, Jainkoarentzat, geure buruaz, geure onura, esku-erakutsi ta atsegiñetaz aazturik, bere dedu ta aintzaz jardutea dala gauzarik onurakor eta atsegingarriena. Nolaz dago, ba, bere buruarekin aaztua, ardura askotan murgil, galgal egiten ausartzen ez dala, ta Jainkoaren aintza betea opa izaten bere adi menari ta gurariai ere uzten ez diela ta dagoeneko daukanez gozatzen ez dala? Jainko Jauna bera danean adimenaren lana ebakitzea nai duena, beste modu batean berau betetzen Baia oi da; guk dan bestean ezagutu ezin dezakegun lakoxe argia ematen dio arimari, au xoratua utzirik, eta orduan, nola ez dakiala, askoz obeto eskolatua geratzen da, bere alegin guztiekin baiño obeto noski, auekin aitzitik ere ardura geiago bear baita. Aalmenak Jainkoak eman zizkigun ezkeru beurekin lan egiteko, *ez* dut ikusten eurak lilluratzeko errazoirik, are geiago egitade bakoitzari bere saria dagokio-ta. Utz dezagun beren egitekoa egin dezaten, Jainkoak beste aundiago oaten jar-azten dituan artean.

7. Ene ustez, Jainkoak egoitza ontan sartu nai izan duen arimaren egitekoa da, esan dudanez, iñungo indarkeri ta zarata gabe, adimenari bere ibillaldietan bide-txiorrak artzea, baiña ez berau ta ez gogapena euron egitekoan atertu barik; alderantziz, ona da, Jainkoaren begi-aurrean dagoen ezkeru, Jainko au nor dan gogora ekartea. Adimenari bere baitan nabaitzen duena naiko ba'litzakio ortaz lilluratzeko, zorionak; ezpei ibil, orraitio, ori zer dan jakin nairik, naimenari bakarrrik egitniko doai bat da-ta. Utz beza gozatzen, **ezertariko kezka** gabe, itz maitekor batzuk izan ezik. Egoera ontan, bestalde, sarri gerta oi da au, ezer pentsatzen ari ezta ere; baiña alere une laburrean q̄so.

8. Beste toki batean ere esanda euki arren, egoi-

¹⁰ *On-Bidea, XXXI atzalb.*

tza onen asieran mintzatu naiz Jainkoagandiko atsegiñai buruzko otoitzaz, gero bilduzkoari ekinik; onetzaz, alere, mintzatu bearra nuen lendabizi, au ura baiño txikiagoa izanda ere, bide baita bertara etortzeko. Bilduzko otoitzean, beraz, ez da utzi bear gogarketa, ezta sorburu ontan adimenak daukan lana ere; bestean oster, erreten zear ez datorrenean, berbera neurritzen da, edo-ta neurrira-azi egiten duela dakus, zer nai duen ez dakiala, ta mutur batetik bestera dabil, ezertan ere egonlekurik aurkitzen ez duen iñozo antzera. Naimena, berriz, bere Jainkoagan murgildua oso rik, eta adimenaren istilluak guztiz zaizkio gogaikarri. Orri ez dio jaramonik egin bear, gozatzen duenetik zati on bat galdu-eraziko dio-ta; utz bezaio pakean, maitasunaren besoetan bere burua lagarik. Jainko Jaunak erakutsiko dio une ontan zer bear duen: ia lanik geiena datza ainbesteko onaren duin ez dala ezagutzean eta esker-enezko egintzetan jardutean.

9. Bildutzeko otoitz-motaz itz-egitean, ez nituen aipatu gure Jainko Jaunak otoitz au eman oi dien ^{ari} mak dauzkaten ondorio edo ezaugarriak. Ara, nola argiro ulertzen dan arimaren zabaltze edo lasaitasuna: iturritik darion urak, esaterako, ez du tirarik, iturria beta bait dago alako gai bereziz landua, beraz ur ixuria geiago ta iturri-mukulua ere aziagotuz dijoala dirudi. Otoitz onetan ere olaxe gertatzen da itxura denez; Jainkoak, arimeari gauza miressgarri asko egiñaz gaiñera, zabalazi oi du berau, bertan edozer gauza artzeko gai izan dadin apurka prestatuz. Onela barne-egitasun eta zabaltze ori ezagutzen da arimeak nabaitzen duen barru-kemenean ere: izan ere, Jainkoaren zerbitzuko gauzetan ez da, leen bezela, loturik aurkitzen, arnas aundiago batez jantzita baizik. Ezta ortaz estutzen infernuaren latz-ikaraz; Jainkoa iraintzekoa da orain duen bildurrik aundiena, baiña ez emen urtu oi dan jopu bildurra, eta bere biotza Jainkoaz gozatuko duen uste on aundiz betea geratzen da. Leen, osasuna gal-

duko zuela-ta, penitentzi egiteko izaten zuen bildurra joana da, ta orain uste du, Jainkoaren laguntzaz, edo-zer gauza egin dezakela; orain ante baiño penitentzi-za leago sentitzen da. Neke-lanai leen zien ikara, orain eztiago egiñez doa, gaur fede biziagoa bait du, ta ba-daki, lan-nekeok Jainkoaren izenean jasan ba'dagiz, Aren Aunditasunak emango diola beurak eramanpenez jasateko grazia ere. Eta batzuetan arimea bera ere irri-katzen dago nekeetan aritzeko, Jainkoagatik zerbait egin dezan gurari bizia ere geratu zaio-ta. Jainkoaren aunditasuna ezagutuago ta bere ezerezaz jabetuago egin oi da arimea, eta Jaunaren atsegiñak txastatu dituen ezkeru, mundukoak satsaren pareko dirala ikusten du; ortik, apurka-apurka urrutiratuz doa lur atsegiñetatik, ori egiteko bere buruaren jabeago biurturik. Ots batez, obeagotua gelditzen da birtute guztietan eta ez du utzi-ko aurrera egiñez, atzera itzultzen ez baldin ba'da Jainkoari iraiñak egiñik; orduan, ba, oro galdu oi da, arima hat gaillurrean goi-goi igorik aurkitu arren. Ezta uste izan bear, orraitio, esandako ondoren guztiok aurkitzen diralako, bat edo bitan bakarrik grazia au artzea naiko danik; arimeak ortan irauun bear du, graziak artzen nunbait; iraupen ontan dago gure on guztia.

10. Mailla ontan aurkitzen dan arimeari oar bat egin nai diot: zai dezala bere burua ta ez dadilla jarri iñoiz ere Jainkoa iraintzeko arriskuan. Emen ez dago azia oraindik arimea: ugatza edaten asten dan aurtxoaren antzekoa da, ta bere amaren bularretik saiestu ezkeru, zer itxaro dezakegu arengandik, eriotza ezik? Ni bildur naiz, Jainkoak esker au egin eta otoitzetik aide egiten duen arimarekin, aurtxo orrekin bezela, gertatuko ez ote dan; abagune larriren baten izan ezik, eta orduan ere azkar otoitzera biurtzen ez baldin ba'da beintzat, txarrez txar joango baita. Nik ba-dakit bildur izatekorik ba-dala gertaera ontan; ezagutzen ditut, ba, pertsona batzuk naiko minberaturik naukatenak, orixe gerta zitzaiclako, bere lagun ain maitekiro izan nai zue-

nagandik eta egiten ere orixe adierazi zienagandik al-
dendu ziralako, gertatu ere. Pena ematen dit onek, eta
orixegatik gomendatzen dut bizi-bizi arriskueta iges
egiteko, deabru maltzurak bada leia geiago artzen du
auetako arima bat galtzen, Jaunak mesede auek egin
oi ez dienekin baiño; maltzur arentzat, izan ere, kalte-
garri gertatu diteke, beste arima batzuk berekin era-
manik, on aundia izan ditekela Jainko-Elizaten alde-
rako; eta beste zerik ez ba'lego ere, Jainko Jaunak
arima auri dien maitasun berezia baiño, naikoa litzake
berau, deabruak auen txarra nairik alegiñak alegin egi-
teko; eta, beraz, olako arimak guztiz erasoak dira, ta
galtzen baldin ba'dira, bestek baiño galduagoak noski.
Zuok, aizpok, aske zaudete galzori auetatik, guk uler
dezakegunez bederen; Jainkoak gorde zaitzela, baiña,
arrokeri ta aundi-ustez ibiltetik! Deabruak itzulatu
ditzake on-egite auek; baiña errez ezagutu dezakegu,
esandako ondorenak ekarri ez-eze, guztiz bestera egin
oi du-ta.

11. Naiz-ta beste leku batean ere aipatua izan,
arrisku batetik gorde nai zaituet: otoitzean ari diran
persona batzuk ikusia naiz ni jausten, eta emakumez-
koak, erortiagoak bait gera, sartzen gera batez ere
esango dudana ontan. Eta auxe da, batzuk, egiten di-
tuen penitentzi, otoitz eta barauengatik, eta auek Babe
ere bai, berez dirala argalak. Esku-erakutsiren bat euki-
takoan, jatorrizkoak eutsiak dira, eta beren baitan ala-
ko gozotasuna nabaitzen dutela, kanpotik erortze ta
soin-auleria sentitzen duten ezker, eta au jazo oi go-
gozko loan sartzen geranean, esan dudana baiño geiago
danean noski, gozotasun ori barruan oartzen duten aki-
duraz nasturik, lilluratzen uzten dira. Eta zenbat eta
geiago utzi, geiago lilluratzen dira; berezkoa geiago bait
da argaltzen, eta beren buru-barruan uste dute gaiñez-
kaldia dala ori. Nik, berriz, ergel-aldia deritzat ola-
koari, ori ez da-ta besterik denbora alperrik galdu ta
osasanari ere kalte egitea baiño.

12. Arako pertsona bat egoera ontan egon oi zan zortzi orduz jarraian; zentzunik galdu gabe nunbait, eta Jainkozko ezer ez ausnart, ez gogoz irauli. Lo ta jan egiñez eta ainbeste penitentzi egiteke, kendu zitzaien oni zeukan sorgortasuna, nork aolkatu izan zuelako; iruzurtua zekarren, ba, bere aitorlea, eta beste pertsona batzuk, eta bere burua ere bai, berak olakorik nai izan ez arren. Deabruak, nik uste, egingo zituen bere alegiñak obariren bat aterateko; eta, izan ere, bereak ateratzen asia zan.

13. Adiz artu bear da, gauza bat egiaz Jainkoagandikoa danean, barru ta kanpo auleziaz egonik ere, arimea ez dala aul aurkitzen, sendo baiño, Jainkoagandik urbil sentitzen dalako sentipen aundiz noski. Egoera au, alere, ezta asko luzatzen, oso gutxi irauten da-ta, arimea berriz ere lilluratzen dan artean. Esan dudanez, berezko auleriz ez danean, otoitz au ez da irixten gorputza irauli ta indar-gabetzen, ezta ez du oraindik kanpotiko goraberarik, sentipenik ere sor-erazten. Orixegatik, oar zaiteze, eta zuetako iñork senti ba'leza olakorik, esan beio nagusiari, gogoa lasaitu ta barreia dezan. Nagusiak, bere aldetik, ez dio olakori ainbat ordu otoitzean egiten utziko, gutxiago baizik; lo ta jan beza ongi, berezko indarra berriz ere bereganatu arte, jan gutxiz eta lo urriz gaixotua baldin ba'da. Berez ain aula ba'da, ta onekin aski ez izan, siñistu bezait Jainkoak ekintza bizitzarako nai duela: daneta-koak bear dira monastegietan. Aritua bedi egiteko ta arazoetan, eta bakartade luzerik izan ez dezan arduraz ibilli beti, bestelan osasuna galduko luke osorik eta. Au mingarri izango zaio berari, baiña Jaunak ementxe aztertu gura du nolako maitasuna dion, urrun-aldi au nola daraman ikusiaz. Aldikada baten ostean, Berak biurtuko dio ausaz kemena; eta olan ez ba'da ere, esana egiñaz eta aozko otoitzaz irabazi besterik ez du egingo, eta emendik irabazi bear zuena irabazi ere, eta bear bada geiago.

14. Gure artean ba-diteke buru-ariñekoak eta iru-
dimen aulekoak egotea *ere*, nik inoiz ezagutu ditudan
bezelakoak, oldorten duten guztia ikusi dagiela uste
dutenak noski; arrisku aundikoak dira auek. Agian,
aurrerago aipatuko ditugu gauzok, eta emen naikoa.
Egoitza ontan asko xamar luzatu naiz, arimarik geien
ementxe sartzen dirala, uste dudalako. Eta emen, gai-
ñera, jatorrizkoa ta jatorriz-gaiñetikoa alkarrekin dabil-
tzan ezkerro, deabruak kalte geiago ekarri lezakegu;
esateko daudenetan Jaunak ez dio ainbeste leku lagatzen.
Bedi Bera betiren goretsial! Olaxe.

BOSTGARREN EGOITZAK

Lau Idazpuru dauzka

I IDAZPURU

Nolaz arimea alkartzen dan Jainkoaz otoitz aldian; zertan ezagutuko dan dio ez dala utseragiña.

1. Ene aizpak!, nolaz adieraziko ote nizuteke nik bostgarren egoitzotan gordetzen diran aberastasun, altxor eta gozotasunak? Obe litzakela deritzait ondoren datozeinei buruz ezer ez esatea, ez dago itzik ba gauza oiek adierazteko, adimenak ere ez daki nola ulertu, alderamenak ere ez dute indarrrik argi apur bat egiteko; lurreko gauzak, bada, zirtzilegiak dira elburu au betetzeko. Zuk, ene Jaun orrek, zure mirabe auetatik batzuk, sarri xamar, onako gauzen gozotasunez ikustea gogoko zaizun ezker, bial ezaidazu argia zerutik, nik pizkat eman dezaiekedan, deabruak atzipetu ez ditzan, argi-aingeru antza arturik. Auek, o Jauna!, ez bait dute besterik nai zuri poza ematea baizik.

2. Eta, batzuk esan dudan arren, gutxi baiño ez dira orain esango dudan egoitza ontan sartzen ez diranak. Beraz, geiago ta gutxiago dago, ta orixegatik diot geienak bertan sartzen dirala, naiz-ta geratzen diran egoitza auetan emen esango ditudan gauza batzuegatik bakar batzuk baiño ez izan. Baiña, ateetara eldu besterik ez ba'da be, erruki betea da Jainkoak egiten diena,

deituak asko bait dira ta gutxi aukeratuak) Ortaz diñot orain, Karmengo jantzi santu au daramakigun guztiok otoitzera ta Jainko-ikustera deituak garean arren, au izan bait zan gure asiera, leiñu ortatik bait gatoz, bakartade aunditan eta mundua saiets utzirik aipatu dugun altxor au, lore-bitxi eder au leiatsu billatzen zuten Karmel Mendiko gure guraso santu aietatik noski, gutxi baizik ez gera gertatzen Jainkoak ager dezaigun orren altxortegi bikaiña. Kanpo aldetik ondo goaz; baiña onbideari dagokionez geiago ta geiago bear dugu oraindik, eta ez dugu zabarkeririk bear, ez gitxi ez asko, eldu bearra daukagun lekura eltzeko. Orixegatik, ene aizpak!, eska Jaunari ozen: nolabait lurrean ere zeruz gozatzea dagokigun ezkerero, ager dakigula onbera geure erruz ortara bank geldi ez gaitezen; erakus dezaigula ortarako bidea, jantzi dezala indarrez gure arima, altxor ezkutatu ori, geuron barne dagoan ezkerero, berori aurkitzeko lain bur aitzurtzeko beste izan gaitezen. Eta nik auxe adierazi nai nuke, nik ezer jakitea Jaunari eder ba'lekio.

3. «Indarrez gure arima» esan dut, jakin deza-zuen, gorputzeko indarrik, Jainko gure Jaunak ematen ez dionak, ez duela bear; orrek ez du iñor ere Aren aberastasunak erosteko ez-gai egiten: bakoitzak daukana emanaz, naikoa zaio. Bedeinkatua izan bedi Jainko orren aundia. Baiña begira, alabak, esku artean darabilgun onetarako, ez du gora ezerekin gelditu zaitezenik; gutxi naiz asko, dana nai du beretzat, eta ematen duzuten arauera emango zaizkizue mesede aundiago edo txikiagoak. Ez dago neurri oberik gure oroitza bateratzera eldu dan ala ez jakiteko. Ez ezazue uste izan gauza amestua danik, aurrekoa legez; amestua diñot, arimea leak artua bezela itxuraz dagoelako; ondo oar ezkerero, ez du ematen lo dagoanik, ezta erne dagoanik ere. Emen guztiok lo egonik munduko gauzai ta geure buruai be-

Mat., XX, 16.

gira , eta ondo loak arturik egon ere, alkartze orrek dirauan une labur orretan bada zentzun gabe lez geratu oi da arimea, eta ezin du, naita ere, gogapenik sort-azi; emen ez da bear, ez, pentsamentua maiñaz geldi-azterik.

4. Maitatzen ba'du ere, ez daki nola; areago, ez daki zer maite duen, ezta zer nai duenik ere: azken batean, Jainkoagan geiago bizi izateko, munduarentzat oso-osorik il danaren antzera. Onan, orraitio, eriotz goxoa da; eriotza, arimea gorputzarekin izan litezkean ar-eman guztietatik aldentzen dalako, eta goxoa, Jainkoagan obeto bizi izan dedin, gorputzetik banantzen dala iruditzen zaiolako; nik ez dakit ontan arnasa artzeko ere bizirik geratzen ete zaion. Une ontan pentsatzen nengoan, eta uste dut atsik artzen duenik ere: artzen ba'du ere, ez du beintzat orla ematen. Bere adi men osoz jakin nai luke zer gertatzen dan beregan, eta ditun indarrak ontara irixten ez diran ezkerok, zurta lur geratzen da, au da, naiz-ta zentzua osorik galdu ez, olakoak ez du mogitzen ez oiñik ez eskurik, aldi-gaiztoz illa bezela dagoela iruditzen zaigun pertsona bategatik emen esan oi dugunez. O Jainkoaren ezkutuak! Ez nintzake iñoiz nekatuko au zuoi adierazten, zertxobaiten bederen berau adieraztea iritxi al izango ba'nu! eta bein bakarrik zerbait esatearren, eta Jainkoa gero ta geiago aintza dezagun, milla buru-gabekeri jalgiko ditut bear bada.

5. Esan dut otoitz au ez dala lo antzekoa; aurreko egoitzetan, izan ere, arimea, oar-ikaspeta aundia duen arte, beti geratzen da ezpaian eukitako gertakariak buruz: lillura izan ote zan, lo tarteko emetsa bear bada; Jainkoak emana, ala deabruak argi-ingeru biurtuta. Milla susmoz txunditua geratzen da, eta ondo daude bildur oiek, esan dudanez bada geure izateak berak iñoizka sar dezaiguke ziria ontan; pizti pozoitsuak emen ez daukate sartzeko ainbeste leku, baiña sugalindara batzuk bai, mee-zorrotzak diralako, edozein lekutan sartu oi dira-ta; ez dute kalte aundirik egiten, esan

nuenez jaramonik ez egin ezkeru, batez be, irudimene-
tik eta esan dudanetik datozen gogapentxoak bait dira,
baiña alan eta guzti ere aspertu eragiten dute sarri
askotan. Egoitz onetan, aldez beste, sugalindarak, txi-
kiak izan arren, ez daukate sartzerik; emen ez dago
irudimenik, ez gomutarik, ez adimenik on ain aundia
gal-erazi dezakenik. Au baieztu dezaket bestera: Jain
koarekiko alkartzte egiazkoa baldin ba'da au, deabruak
ez duela or sartzerik, ezta kalterik ekarri ere; orren
estu bait dago Jauna arimearen izateaz itsatsia ta bildua,
deabrua ezta ausartuko araiño irixten; nire iritziz, gai-
ñera, ezta irixten ezkutu au ulertzeru ere. Eta gauza
argia da; diotenez, ba, ezta ulertzen gure gogapenik,
eta errazoi geiagoz ez ditu ezagutu al izango ezkutu
orren aundia, Jainkoak geure adimenari ere fidatzen ez
dizkionak. Ontasun aundia noski, gaiztetsi onek kalterik
egiten ez digun egoera! Arimea onela irabazi aunditan
geratzen da, Jainkoak bait daragio, iñoren ortopo jar-
tzerik gate, ezta gerorenik ere. Zer ez ote du emango
orren eman-zale danak eta nai duen guztia dezakenak?

6. Naas-maasa sortu dizuedala dirudi, Jainkoagazko
alkarteu baldin ba'da, eta beste alkarte batzuk ba-dirala,
esatean batez ere. Eta bai orixe, ba-dira beste batzuk
ere! Uskerizko gauzetan dalarik ere, asko maite dira
nean, deabruak erabilliko ditu arimak batera ta bestera;
baiña ez Jainkoak bezela poz eta atsegintsu, pake ta
gozamen aunditan. Lurreko poz-atsegin guztien gaiñeti-
koa da Jainkoagandiko au, lurreko gozotasun eta pozkida
guztien gaiñetikoa noski; gaiñera begiratu besterik ez
dago nun ernetzen diran poz-atsegin auk, lenengoak eta
bigarrenak, batzuk goitik besteak lurretik, eta oso be-
rezia da beren jokabidea ere, zuek oar-ikasiz dakizutenez,
ziur asko. Beiñola esana utzi nuen, gorputz zakar onetan
legez zala, edo-ta muin-muiñean, eta ondo adierazi nuen,
zelan obeki esan daikenik ez dakit-eta. 2

7. Nere esanarekin, uste dut, ez zaudetela oraindik zeuon onean; buruz belarri jo eragiteko arriskutik ez zeratela oindio aldendu, irudituko zaizue bear bada, gauza zailla da izan ere gure barrua ongi aztertzea. Eta bide auek urratu dituanarentzat esandakoa naiko dan arren, bion artean aide aundia dago-ta, ezaugarri argi bat adierazi nai dizuet, beronen bitartez atzipetu ez zaitezten, ezta Jainkoagandikoa izan zan ala ez dudarik izan ez dezazuen, Aren Aunditasunak gaur gogora ekarri didana nunbait, eta ene iritziz segurua Jana. Gauza zailletan, naiz-ta gaia ulertzen dudala ta egia diodala begitandu, beti darabilt izkera au, «uste dut» eta abar; zuzenean ez ba'nengoke, bada, gertu, oso gertu nagolako jakintsuak liokeena aintzat artzeko. Izan ere, jakintsuok, bide auek urratu ez ba'dituzte ere, ba-dute berengan alako zer bat jakintsu egiten dituen; Jainkoak jarri zituen bere Elizari argi egiteko, ta fede-egia danean Berak ematen die bere grazia egi ori onartua izan dedin; ariñak ez ba'dira auek, Jainkoaren zerbitzari zintzo baizik, egundo ez dira arritzen Aren egite aundiengatik, buruan sarturik bait daukate Jainkoak ori ta askoz geiago egiteko aalmena duela. Eta, azkenik, gauza batzuk oindio ondo argitu gabe gerta lirake, onakoak ere onartzeko bidea aurkitzen dute idatzietan dagoana ikasiaz.

8. Asko ikasia naiz gai oni buruz; sasi-jakintsu batzuegandik ere naiko ikasi dut, bildurriak noski, nerretzat neketsu diranak egiaz. Nik uste dut beñik-bein, Jainkoak askoz geiago egin dezakela siñisten ez duenak, eta Ark ontzat euki duela ta noizik bein ontzat daukala bere izakiei ere onak banatzea, aintzakotzat artu oi ez duenak, olakoak ondo itxita daukala derizkiot mesedeak artzeko area. Orregatik, ene aizpak, ez bekizue iñoiz olakorik gerta, Jainkoagandik geiago ta geiago siñistu baiño, eta ez ibilli olako mesedeak artzen dituenak zirtzillak ala onak diran jakin nairik, esan dizuedanez, Jainkoak badaki zer dagian eta. Ez daukagu ontan zertan sarturik, biotz zintzo ta apalez Aren Aunditasunaren zerbitzuan

jardun, eta bere egite eder eta miragarriengatik etengabe goretsi baizik.

9. Itzuliaz bada egiazkoa dala esan dudan ezau-garrira, ikus dezagun Jainkoak nola erabat txaldandua daukan arima au, beronen barruan jakituria errotzeko noski; arima onek, onela dagon bitartean, ez du ezer ikusten, ez entzuten, ez ulertzen; une laburrean da izan, eta izan bear duena baiño laburrago, askoz laburrago iruditzen zaio berari. Jainkoa bera tinkatzen da arima aren barnean, eta barne ere barne tinkatu gero, eta ari-meak bere senera itzultzean, bera Jainkoagan eta Jainkoa beregan egon zanaren dudarik ezin du ezertara ere izan. Sendo bait sendo barnean josirik gelditzen zaio egi au, eta Jainkoak urteetan ere olako mesederik egin gabe igaro arren, ezin du aitzu ezta Jainkoarekin nola egon zanezko dudarik izan ere. Utz ditzagun oraingoz arimeari geratzen zaizkion ondorenak aipatzeke, auetzaz gero min tzatuko naiz ta. Ezaugarri au aski da esan dugunari buruz.

10. Baiña, zuek bear bada galdetzen didazute: nola ikusi zuen edo-ta nola ulertu zuen Jainkoarena zala, ezer ez ba'da ez ikusten ez ulertzen? Ez diot orduan ikusi zuenik, gero argi ta garbi ikusten duela baizik; eta ez ikuskizuna dalako, ariman geratzen dan ziurtasuna, Jainkoak bakarrik ezarri ta eman leikeona baiño. Nik ezaguna dut pertsona bat Jainkoa bertan-egotez, aal menez eta izatez gauza gurtietan dagoanik ez zekiena; eta taiu ontako mesede bat Jainkoak egin zionean, ulertu zuen argi ta garbi, ala ere, esan dudan erdi-jakitun oietako bati galdeturik nola dagoen Jainkoa geure baitan —Jainkoak argitua izan zan ante, berak bezin gutxi bait zekien ark—, eskerrez soilki zegoela, erantzun zion; baiña pertsona arek, egi ori orduko guztiz barneratua zeukan-eta, etzion siñistu. Jarraian beste batzui galdetu zien gai ortaz eta auek esan zioen egia, barne-poz-eztitan gelditzen zalarik 3

³ *Bizitza*, XVIII atzal.

11. Ez dituzue zeuron buruak atzipetu bear, ziurtasun ori gorputz-itxuran geratzen dala uste izanik, ikusi ez arren, Sakramentu guztiz santuan Jesukristo geure Jaunaren gorputza dagoan lez, esaterako; emen ez da, ba, orrela geratzen, Jainkotasunaren itxurapean baizik. Eta ikusi gabea, nola geratzen zaigu ziurtasun orrekin? Nik ez dakit. Jainkoaren gauzak dira. Baiña ba-dakit egia diodana. Ziurtasun au gabe geratzen danarena, ez nuke nik esango Jainkoaren eta arimearen arteko alkartzea danik, beste indarren batena baiño, ^{Jain}koak sarri arimeari mesedeak egin oi dizkion beste tan kera batzuena noski. Gauzotan obe zaigu beti ere, nola izan zan ikusteko errazoi billa ez ibiltea; zertarako nekarazi nai dugu, gure adimenak aitu ezin ba-ditu olako gertakariak? Naiko da, ori dagiana guztiz altsua dala jakitea. Eta gu, trebeak gareala ere, iñoiz ez bai gara gai izango ori irixteko, Jainkoa da-ta orretan ari dana, ez gaitezen berori ulertu naiez ibilli.

12. Aipatu dudan aal-eziñari buruz, oraintxe oroi naiz, zeuok ere somatu duzuen bezela, Abestietako Emazteak dioanaz: *Ardandegira eroan nindun erregeke,* ⁴ edo *sartu nindun,* uste dut diola. Ez dio bera ara Joan zala. Ortik-ara bere Maitearen billa ere esaten du. ⁵ Auxe da, nere iritziz, Jaunak gu sar-azi opa gaituen upeltegia, berak nai duenean eta nai duen bezelatsu; baiña gu geure artez, alegiñak alegin eginda ere, ezin gara sartu. Gurtialdunak sar-azi bear gaitu eta Bera sartu gure ^{ari}maren erdian; olan, bere arrigarriak obeki erakusteko, ez du nai guk naimena mende-azi besterik egiterik, ezta erabat lo dauden aalmen eta zentzunen aterik irikitzerik ere, iñungo atetik sartu gabe egokitu nai du bada arimearen barrunbe erdira, Pax *vobis* (pakea zuekin) esanaz, ⁶ bere ikasleengana sartu zan bezela, edo-ta arria

⁴ *Abest., I, 3*

⁵ *Abest., III, 2.*

⁶ *Jo., XX, 19.*

jaso gabe illobitik irten zan legez. Aurrerago ikusiko duzue nola Jaunak nai duen arimeak gozoa ar dezaion beraren erdi-erdian, baiña emen baiño ere geiago azkenengo egoitzean.

13. Zenbat ikusteko gauden, ene alabak!, geuron ezereza ta uskeria besterik ikusi nai ez ba'dugu, eta Jaun ain aundiaren zerbitzari izateko duin ez gerala uste izan, Aren egite arrigarriak ulertzeko gai ez gera-ta! Goratua izan bedi betiren bed. Olantxe.

II IDAZPURU

*Gai berdiñari jarraiturik, alkartze-otoitza
zer dan adierazten du alderakizun samur batekin. — Onek uzten dituen ondorenak ere badakartzi. — Idazpzuru biziro jaramongarria.*

1. Usteko duzue, bear bada, egoitza oni buruz esatekoa, guztia, esana dala onezkero; eta asko geratzen da oraindik, oar-azi nuenez, emen geiago ta gutxiago dugu-ta. Alkartze-otoitzari dagokionez ez dut este geiagotan esan dezakedanik, baiña itz-egin bear naiko geratzen da oraindik arimea Jainkoaren graziak artzeko geratzen danean Onek egin oi dizkion mesedeen ondo-noel buruz. Ortazko zer batzuk azaldu nai ditut, baita arimea nola gelditzen dan zerbait adierazi ere. Berau obeto aitzen emateko, alderakizun edo alegi bat, ontarako egokia danaz baliatu nai dut; baita ikus dezagun ere, nola, Jaunak egin oi duen egintza ontan, Aren Aunditasunak mesede au zertu dezaigun, ezer geiago burutu ezin dezakegun arren, asko egin dezakegu ortarako geure barrua gertatuaz.

2. Entzuna duzue onezkero zeta (seda) -ren sor-tze arrigarria, Jainkoak berak bakarrik asmatu zeza-keana noski. Azi txiki bat da, piper-garau antzekoa; nik ez dut inoiz ikusi, baiña entzun bai: beraz, okerren bat ba'nioke, ez da nire errua. Uda eltzerakoan, eta martzuka-ondoak orriz jantzi, azi au bizitzen asten zaizu. Eta ortik janaritzen dan bitartean, illik lez dago; baiña apurka apurka, bizikai orrekin, martzuka orriz azten da, aundi egin artean; ondoren, adartxu batzuetan katiaturik, ementxe asten dira, beren ao txikiakin, beren barrena irauliz zeta eiote, eta onako kapil-moltzo estu-estu batzuk egiñik bertan sartzen dira. Ar auek aundi ta itsusiak dituzu, barnean ilten diranak; baiña laster irtetzen du txotño bertatik mitxeleta pitin zuri batek, gutziz polit panpoxa. Gauza arrigarri au, geronek ikusi gabe, beste ordukotzat edestu edo kontatuko ba'ligute, nor litzateke berau siñistuko lukena? Ze oiñarrirekin, izan ere, sinistu dezakegu, zentzunik eztun izaki batek, sedar edo erle batek, olako lan arduratsu ta bikaiña egin dezakeanik gure onerako, bere bizia galtzeraiño egin ere, ar gaixoak bere lanean egin oi duen bezela? Zati baterako gogo-iraultza ba-duzue emen, aitzak, geia-go esaten ez ba'dizuet ere; ementxe ausnar ditzakezute, ba, ederki asko gure Jainkoaren jakituria ta Ark egiñiko gauza miresgarriak. Eta zer izango litzateke gauza guztiak beren izatean ezagutuko ba'genitu? Probetxu aundikoa da gauza arrigarriok gogoan erabiltea, Errege ain jakintsu ta aaltsuaren emazteak gareala-ta atsegin artuz.

3. Itzul gaitezen geure arira. Arimea orduan, ar ura bait du irudi, bizia artzen asten da, Espiritu San tuaren berotasunaz Jainkoak guztioi eman oi dizkigun laguntzaz baliaturik, ta bere Elizan utziak ditun sends gaiak —sarriroko aitortza, irakurgai onak eta itzaren otsegitea— aintzat artu ta ekiñaren ekiñez bereganaturik. Onexek dira, izan ere, zabarkeri, pekatu ta arriskueta sarturik dagoen arimak erabil ditzaken sen-

dagairik aukerakoenak. Auen bidez asten da bizitzen, auekin eta gogarte bikaiñez doa aurreratzen, aundi azi arteiño. Eta niretzat orain auxe da garrantzikoena, aur-reko orrek ez bait dit axola geiegi ematen.

4. Sedar au, aundi egin danean, idatzi onen asie-ran ikusi genduanetz, sedagiñan asten da, eta ilko dan etxea jasoten. Etxe au, emen adierazi nai dizuedan be-zela, Kristo da. Nunbait irakurria edo entzuna dut *gure bizia Kristogan*, edo Jainkoagan, gauza bat bera dira-ta, *gorderik dagoela*, edo-ta *gure bizia Kristo dala.* Testua orrela dala nai ez dala, nik dudan asmorako ez du ezer esan nai.

5. Ikus ezazue, ba, ene alabak, zer egin genezaken Jainkoaren laguntasunaz: Aren Aunditasuna bera gerta dedilla gure egoitza, geronek atonduta, alkartze-otoitz onetan izan oi danez! Jainkoa dala gure egoitza ta egoitz au geuk landu dezakegula, geu berton arrotz egoteko, esanaz, geronek Jainkoari zerbait kendu naiz ezarri ge-nezaiokela, esan nai dudala dirudi. Eta, nola al ba'de-zakegu! Baiña ez gero Jainkoari ezer kendu edo ezar-riaz, geuretik kendu ta ipiñiaz baizik, artxo auek egin oi duten antzera; ontan ez dugu al dugun guztia ipiñia izango, erereza dan lan au Jainkoak berak bere aundi-tasunaz giltzatu ta balio bikaiñez jantzirik, Jauna bera beronen sari gertatu daitenean baizik. Eta zatirik aundi-ena ipiñi duena Bera izan dan legez, orrelaxe bildu nai dizkigu gure Iantxoak ere Aren Aunditasunak su-fritu zituen aundiekin, oro gauza bat izan daiten.

6. Ea bada, ene alabak: leia gaitezen lan au egi-ten; eundu dezagun kapil-kusku au, geure buru-maite-keri ta nai-izate larregiak kendu ta lurreko ezertxori ere itsatsi gabe egonik, penitentzizko egintzai lotu, otoitz, buru-ukapen, menpetasun eta dakizkizuen beste zer guz-

Kol., III, 3.

tietan ari izanik. Izan bitez gure egintzak dakizkigun bezela ta egiteko erakutsi zigutenez! Il bedi, il zatar au, sortua izan zanekoa bukatu ondoren egin oi duenez, eta ikusiko duzue nola ikusiko dugun Jainkoa eta nola gauden Aren aunditasunean sarturik, artxo au bere kapil-kuskuan murgil dagoen bezels. Jainkoa ikusiko dugula esatean, esan nai dudala, oar zaiteze, berriz diot, alkartze mota onetan senti-erazten uzten zaigunez.

7. Ikus dezagun orain zertan biurtzen dan artxo au, esan dudan guztiaren jo-muga auxe da-ta. Otoitz onetan sartu danean, diot, munduarentzat ondo illik dagoela, ta mitxeletatxo zuri biurtzen zaigula. O Jainkoaren aunditasuna! Eta nola urten oi dan arimea ontatik, Jainkoaren aunditasunean sarturik eta Berarekin ondo-ondoan apur baten egon ondoren, naizta nire ustez iñoiz ere ordu erdian egon ez! Nik egia diozuet, au gertatu zaion arimak berak ere ez duela bere burua ezagutzen; begira, bada, nolako alde ar itxusi batetik mitxeletatxo zuri batera: berdintsu emen ere. Arimeak ez daki nundik merezi izan zuen ainbesteko ona, nundik etorri zitzaion esan nai izan dut, berak ba-daki ba ez duela olakorik merezi. Jauna goratzeko irrika biziz aurkitzen da, bere burua ezereztu nai luke eta milla eriotz Arengatik eskeiñi. Gero sortzen zaizkio barnean lan neketsuak egiteko gogo gartsua, beste ezer ezin du egin eta; penitentziak egiteko nai bizia, bakar-zaletasuna, Jainkoa orok ezagutu dezaten egarri ezin-asea; eta ondorioz iraindua dala jakiteak dakarkion naigabe aundia. Ondoren datorren egoitzan geiago ta bereziki jor-ratuko dugu gai au; eta, egoitza onetan dagoena ta ondorengoan azaltzen dana gauza bat bera izanik ere, beuron ondorioen indarra ez da berdiña, iñolaz ere. Esan dudan bezela, Jainkoak onaiño iritxi-azi duen ^{ari} mak, aurrera egiten saiatzen baldin ba'da, gauza arri-garriak ikusiko ditu.

8. Oi, mitxeleta txiki onen egon-eziña! Bere bizian, egiaz, ez du egundo izan olako gozotasun eta

pake leunik! Jainkoa goratzekoa da, izan ere, ez bait daki nun kokatu ez nun bere eseri-lekua egin; bai ba, Jainkoagan ain egokia euki duen ezkerro, lurrean ikusten duen guztia iguingarri zaio, batez ere Jainkoak ardao ontarik sarri edarazten dionean; eta bakoitzean, irabazpen berriakin gelditu oi da. Orain ez dauzka ezertan ar zalarik egin oi zituan egintzak, au da, apurka apurka txoto-kuskua eiotzeari buruzkoak. Egoak jaio zaizkio; nola, beraz, egaz egiteko gai dan ezkerro, taka-taka ibilliaz pozik egon? Jainkoagatik egin dezakean guztia gutxi derizkio, bere gurariak ez bait dute azkenik. Ez ditu askotzat joten doatsuak jasan zituzten neke-lanak, Jainkoak nola laguntzen duen eta arimea nola era-aldatzen duen beregan ikusiz; leengo itxura ta antzik ez bait du; leen uste zuen ez zeukala indarrrik penitentzi egiteko, ta orain indartsu aurkitzen da edozertarako. Leen, senide, adiskide ta lurreko ondasunai erantsirik zeukaten lokarriak sendoak ziran-eta, ez bere barne-egintzak, ez bere erabakiak, ez ziran gauza aiengandik askatzeko: bestera, uste zuen, onan batuago zegoela aiekin; orain, ordea, astun egiten zaiola ikusten du, Jainkoaren aurka ez joateko, egin bear dana egitera beartuta ego-tea. Oro zaio nekegarri, benetako atsedena sorkariak ezin dezaioketela eman argi ikusten du ta.

9. Lar luzatzen naizela dirudi; ala ere, askoz geiago esan dezaket. Jainkoak grazi au egin dionak ikusiko du labur geratu naizela. Eta onela ez dago zertan arri-turik mitxeleta txiki au berriz ere eseri-leku billa ba-dabilkigu, lurreko gauzetaz ain berri aurkitzen da-ta. Baiña, nora joango ote zaigu gaixoa? Ezin daiteke itzuli irten zan lekura, au ez dago, ba, esan dugunez, gure eskuetan, al duguna eginda ere, alik eta Jainko Jaunak esker ori berritu dezaigun arte. Oi Jauna!, nolako ^Peke-lan berriak asten zaizkion arima oni! Nork esan onakorik, mesede ain aundien ostean? Geroenean ere, era onetan naiz bestetan, bizi geran bitartean, gurutzea eraman bearra izango. Eta iñork ba'liño egoera

ontara eldu ta atseden gozoz gaiñezka dagoela, nik esango nioke iñoiz ere ez dala iritxi ortara, eta aurreko egoitzera iñoiz eldu ba'litza ere, iraizeko gozo-atsegiñen bat izango zala, eta berezko aulkeriak lagunduta noski, edo bear bada deabruak berak, pake pizkat emonik, gero jarraian gerra gordiña ekarriaz, ziur asko.

10. Ez dut esan nai ona irixten diranak pakerik ez dutenik; ba-dute eta aundia, neke-lanak eurak bait dira bikaiñak, balio aundi ta sustrai onekoak, izugarriak izanda ere, eurotatik erne oi da pake-atsegin beta. Lurreko gauzak dakarten naigabetik jaioten da ariman bertatik irteteko guraria; baiña, gurari au neketsua da-ta, gaixoa, eztidura pizkat eukiteagatik, Jainkoak orain dik erbeste ontan euki nai duelakoan bizi da; au ere, baiña, ez da naikoa, arimea ba, aurrerakada aundiak egin dituen arren, ez dago oindio, aurrerago egon dan bezela, Jainkoaren naiari oso-osoan erantsita, eta menperaturik; ortan ari da, bai, naiz-ta naigabe aundiz eta malko-ixurtze askoz: geiago eman ez zaiolako, ezin du geiago egin. Naigabe au otoitzean jarten dan bakoitzean du; naigabe au, aide batetik Jainkoa munduan gutxi eder-etsia ta aski iraindua dala ikusteak damaiona da, eta bestetik arima asko, bai siñausleak eta bai mai ruak, galduaz dijoazela jakiteak; mingarriena, ala ere, beren erruz galtzen diran kristauena zaio. Ba-daki ^{Jain}koaren errukia aundia dala, eta zoritxarreko auek, bi-*zitz*a gaiztoa eraman arren, on-bideratu ta salbamera iritxi dezaketela; baiña bildur da asko galduko ote diran.

11. 0 Jainko Jaun aundi! Urte gutxi, egun batzuk bear bada lenago, arima onek ez erabilen gogoan bere burua besterik. Nork sartu du orain ardura ain neke tsuetan? Guk, egiaz, naiz-ta urte askotan otoitzean ari, ezingo dugu sumatu arima onek orain sumatzen duen bezela. Eta zer, Jainko Jauna? Ni egun eta urte askoz ari ta ari ba'nabil zeñen gaitz aundia dan Jainkoa iraintzea, eta oiek, galtzen diranok, bere semeak eta

neure anaiak dirala ta nolako galzorietan bizi geran oldoztu ezkeru, egoki ez ote zaigu bizitza ontatik irte-tea opa izatea? Ez, alabak, ez, arima onek nabaitzen duen miña ez da noski lurrekoa lako; au Jainkoak lagunduta pentsetan ari izanez, euki dezakeguna duzue, baiña ez da, emen bezela, erraien muin-muiñeraiño eltzen; arimea emen, ba, zatitu ta eio egiten duela dirudi, berak ortarako ezer ipiñi gabe, eta baita iñoizka berak nai-ezik *ere*. Zer da au, orduan? Nundik ote dator? Neuk esango dizuet.

12. Ez al duzue gogoratzan beste bein, naiz-ta ez asmo onekin, emaztea Jainkoak bere ardandegian sartu ta maitasun utsean murgildu zuela, esan nizuenekoa? ⁸ Emen egokiro datorrena duzue. Onako arimea, izan ere, Jainkoaren eskuetan utzia dago osorik, Ari dion maitasun beroak arras menderatu du; ez daki, beraz, eta ez du nai ere Jainkoak berarekin opa duena egin dezala baizik. Jainkoak ortik ez dio mesede au egingo iñoiz ere bere-beretzat artua duen arimeari ezik: nai du, arimea ortaz konturatu gabe noski, bere ezaugarriaz sillatua andik irten dadin. Arimeak an, egi-egiaz, ez du argizariarena besterik egiten, ots, beste batek seillua irartean dagiona artu; argizariak ez du berak beregan ezer itsasten, gertu dago bakar-bakarrik, bigun egon esan nai dut; eta jarrera ontarako ere ez da bera biguntzen, geldi dagoela dagioena onartu, eztu besterik egiten. Oi Jainko on!, zeure bizkar izan bear duela oro! Geure naia opa duzu bakarrik, eta argizarian ez dedilla ezertariko oztoporik izan.

13. Ikusten duzue, ba, ene aizpak, Jainko gure Jaunak zer dagian arima au beretzat ezaguna izan dadin; daukanetik ematen du, au da, bere Semeak lurrean bizi zalarik euki zuen egoera, eta grazi aundiagorik ezin digu egin. Nork irrirts geiago bizitza ontatik irteteko? Ber-

⁸ *Abest., II, 4*

-berak esan zuen azken Aparian: *Gogo-gogoz nai izan dut.*⁹ Baiña, Jauna, nola ez zitzaizun jarri begi aurean iragan bear zenduan eriotz neketsu, odoltsu ta izugarria? Ez, kabitu eziñik nere barne daukadan gizadi osoaren aldeko maitasunak nai du gizaseme guztiak salba ditezela, eta neurri gabe gainditzen ditu oiñaze oiek; eta munduan nagoenez gero jasan ditudan eta jasaten nagoen aiñaze agitz aundiak naikoa dira oiek aien aldean ezer-eztzat eukiteko.

14. Nik sarri gogoan erabilli dut au, eta egi-egia duzue. Jakiñaren gaiñean nago ni nolako neke-oiñazeak sufritzen ditun, eta sufridu zituan nik ezaguna dudan arima batek gure Jauna irainduta ikusiaz; oiñaze txit jasangaitza noski, jasan baiño il naiago bait luke, ta orren goi-maitasun gutxiko arima batek, Kristorenakin alderatu ezkeru ezer ez dirala esan ditzagun oiñazeengatik, ain gogor ta lazki sentitzen ba'zuen, zer izango ate zan Jesukristo Gure Jaunaren sentipena eta nolako bizitza eramango ate zuen, gauza guztiak bere begi-aurrean zituela bere Aitari egiten zitzaizkion iraiñak ikusten beti egoan eta? Min auek, nere iritzian, bere Nekaldi santuan igaro zituanak baiño garratzagoak ziran; orduan, ba, ikusten zuen neke auen elburua, eta onekin, eta ortik bere eriotza gure salbabide zala, ta bere Aitari zion maitasuna Beragatik ainbat sufriduz erakusten zue. Ia ikusiaz artzen zuen pozarekin, neke-miñak arinduko zitzaizkion nunbait, penitentzi aundiak maitasunaren indarrez egin oi dituztenei emen gertatzen zaien bezela; ez dituzte ort-oztan sentitzen, eta geiago ta geiago egin nai lituzkete, guztia oso gutxi zaie-ta. Zerk eragingo zion, ba, Jaun aundiari, Aitari bere menpekotasuna ta urko lagunari zion maitasuna erakusteko ain ereti ederrean bere burua ikusiaz? 0 atsegin bete, Jainkoaren naia egiñaz sufritzea! Baiña etengabeko zokan Jaunari egiten zaizkion iraiñak ikusi ta onenbeste arima infer-

⁹ Lk., XXII, 15.

nuan amildu, jasan-gaitz egiten zait, eta uste dut, gizona baiño izan ez ba'litz, arelako oiñaze-egun bat naikoa zala, bizitza askorenak egiteko; nola ez batena!

III IDAZPURU

Gai berean ari da. Arimeak, Jainkoaren laguntzaz, lortu dezakean beste batasun-era bat azaltzen du. — Ontan lagun-urkoaganako mai tasuna bear da. — Onura aundiko idatzia.

1. Gatozen orain geure usotxoagana, eta ikus dezagun egoera ontan Jainkoak eman oi duenetik zerbait. Arimeak, ala ere —beuko au burutara emanda—, ez dio iñoiz utzi bear Gure Jaunaren zerbitzuari eta norbere burua ezautzeari; esker au artu ondoren, bada, berau gauza ziurtzat eukirik, bere barne-bizitza ta ze-rurako bidea, ots, Jainkoaren aginduak, saiets uzten ba'ditu, arretik irteten danari bezela gertatuko zaio: azia ereiten du beste batzuk erne ditezen, eta bera bitartean illik geratzen da bein eta betiko. Azia erein egiten duela diot; nik, ba, neuretzat daukat Jainkoak ez duela nai orren mesede aundia alperrikan ematerik; eta arima bera ortaz baliatzen ez dan ezkerero, balia ditezela beste batzuk. Ura, izan ere, onean dirauan bitartean gurari auekin eta birtute esandakoekin geratzen dan ezkerero, beti izan oi da onuragarri beste arimentzat ere, berak duen berotik berotasuna ematen diela; gaiñera, berak dagoneko galdua duen arren, beste batzuk ere ortaz balia ditezeneko irrikaz bizi da, Jainkoak maitale ta zerbitzari zaionari egin oi dizkion mesede ta eskerrak aitzen ematea, eder izanik.

2. Nik ezagutu dut norbait onela jazoten zitzaiona;¹⁰ bera okerrera oso egiñik egonda ere, atsegin zitzaion beste batzuk jaso zezatela Jainkoak berari esker oiekin egin zion saria; onelaxe erakusten zien otoitz-bidea ulertzen ez zutenei, on asko, asko egiñik arimetan. Jaunak gero argia eman zion berriro. Egia esan, oindiño etzan esandako ondorioen jabe. Baiña, zenbat eta zenbat egon bear dute, Jaunak Judas'i lez aposto lutzarako dei egin, eurokin ar-emanen jarririk, eta errege egiteko, Saul'i lez, otsegiñik, ain zuzen ere, ta gero galdu diranak! Nundik aterako dugu, aizpak, gero ta geiago merezi izanaz aurreratu, ta, oien antzera galdu barik, irauteko euki dezakegun segurantza, menpetasuna ta Jainko-legetik ez okertzeko indarra? Grazi auek artzen dituzten arimei bakarrik ez diotset au, baita beste gurtiei ere.

3. Esana gorabera, illun samar geratzen dala uste dut egoitza au. Irabazpide aundikoa bait da bertan sartzea, egoki izango da noski itxarokizun gabe ez ditezela gelditu Jaunak olako izatez-gaiñeko mesede berezirik ematen ez dienak; Gure Jaunaren laguntzaz ederto lortu daitekena egiazko batasuna, ori lortzeko geu saiatzen baldin ba'gera, geure naimena Jainkoanarekin uztartuz. Ai ene!, zenbat ote gera au esaten dugunak, eta beste gauzarik ez dugula nai uste dugunak, baita il ere egingo giñake egi au gordetzearren, beste nunbait ere esan uste dudanez! Nik diotzuet, bada, ta askotan esango, lortua duzuela Jaunaren esker au; eta, esan dizuedanez, beste atsegiñez gaiñezkako batasun urari buruz ez izan bat ere ardurarik. Onen baliotasunik aundiena da orain esanen dudan au duela iturburu; baiña ezin daiteke au iritxi geure naimena Jainkoarenaren mende oso-osorik jartera eldu ante. Oi, au bai alkarte benetan zoragarria! Zorionsua egitan egoera

¹⁰ Teresa bera.

ontara eldu dan arimea, bizitza ontan bait du atsedena izango, eta bestean. Ez du bizitzako ezerk naigabetuko, Jainkoa galtzeko arriskuren baten ez ba'litza beiñik-bein, edo-ta Jainkoa iraindua dala ikusi; ez gaixok, ez ez-ezek, ez eriotzek, Jainkoaren Elizan uts-uneren bat bete bear duenarena ezik, arima onek ba-daki ba, Jaunak, berak opa duena baiño, obeto dakiala zer egiten duen.

4. Oar-eraz bear duzue naigabe guztiak ez dirala ari berdiñekoak. Batzuk, poz-atsegin utsezkoak, berezko izatetik bat-batetan erneak dira, edo-ta goi-maitasunetik, iñoren gaitzak sorturiko errukia, adibidez, Lazaro berbiztu zuenean Gure Jaunak erakutsia lez; auek ez dira eragozpen arimea Jainkoaren naiari itsatsita egoteko, ezta auek ez dute asaldatzen barrua luzaro dirauan griña kezkatu ta egon-eziñez. Azkar igaroten diran naigabeak dituzue; eta, otoitzean euki oi diran esandako poz-atsegiñen antzera, ez dirudi arimearen barreneraño eltzen diranik, zentzun eta aalmen auetaraiño baizik. Or dabilta igarotako egoitzetan gora ta bera, baiña ez dira sartzen esateko dagoen azken-egonlekuan. Alkartzegisa onetan, bada, bearrezko da aalmenak geldialdian jartea. Aaltsua bai dala Jauna, arimak, bide askoz eramantik aberastuteko, eta esan dudan bide-zidorrik gabe bizileku auetara iritxi azteko.

5. Jabetu zaitetzte, ta ondo, alabak, arrak naitaez il bearra duela, eta are geiago, zeuen bizkar il bear duela. Izan ere, an bestean, pozez gaiñezkako batasunean, ilteko asko lagundu oi du bizitza ain berrian ikusteak; emen, ordea, bizitza pozik gabean, berton bizi izanik, naitaezkoa dugu geuk eriotza eman dezaio-gun. Nik berriz aitortzen dizuet au ezin dezakegula burutu salneurri oso aunditan ezik; baiña izango du bere ordaiña, sari aundiagoa noski, garaille irtetzen ba'zerate. Au ez zalantzan jarri, al dana bait duzue, Jainkoaren naiarekin dugun batasuna bene-benetakoa baldin ba'da beintzat. Auxe da, izan ere, nik neure bizitzaldi guztian opa izan dudan batasuna; auxe da

Gure Jaunari une-oro eskatzen diodana, auxe dugu gainera argiena ta ziurrena.

6. Baiña, gaixoak gul, gutxi baizik ez gera-ta, itxuraz, egoera ontara irixten geranok! naiz-ta lekaime izan eta Jauna iraintzetik begiraten danari Jana egiña due-la 't iruditu. Or geratzen dira, ala ere, batzuk ezkutatuak, agertzen ez diranak, Jonas'i untza marraskatu zionak lez, birtuteak ebakitzen dizkigutenak, norberekiko maitez eta iritziz, naiz-ta gauza txikietan izan lagun-urkoagazko uste okerrez, eurei buruzko txera ta maitasun-gabez, geure burua lez aiek ere maite ez ditugulako noski; narrazka baiño ez ba'da ere, beteten ditugu geure eginbearrak, pekatuan ez jaustearren; baiña onela ez gera urreratu ere egiten, Jainkoaren naiarekin osorik alkartuta ego-teak eskatzen digunera.

7. Zer iruditzen zaizue, alabak, dala Aren naia? Ezin obeak izan gaitzela, Berarekin eta Aitarekin bat izateko, Berberak eskatu zion bezela.¹² Begira, baiña, zein urrun aurkitzen geran elburu ortatik! Nik neuk diozuet naigabez nagoela au idazten neure burua ortatik ain urruti ikusiaz, eta neure erruz oro. Ez, Jaunak ez du bear guri ontarako ainbesteko atsegin-sariak egiterik, guri bidea erakutsi egigun bere Semea guri emanaz naikoa egin zuen eta. Ez uste izan gauzea dagoela, aita naiz anai bat iltean, miñik ez sumatzeraiño Jainkoaren naiarekin bat etortzean, edo-ta neke-lanak eta gaixo-aldiak gaiñ ba'letozkit, auek gogo onez eramatean. Ona duzue au, eta ez gutxitan zuertasunaren lana izan oi da, geiägo ezin dugulako, ezbearra onbide egiñik, Zenbat onako egin oi diturten jakintsuak, eta onakoak ez ba'dira ere, beste era batekoak, eta guztia jakituri zabala lortzearren! Emen Jaunak eskatzen dizkigun arlo biotan lan egin bear dugu: Jaun Aundia ta geure

¹¹ Jon., IV, 6 eia 7.

¹² Jo., XVII, 22.

urko-laguna maite izatean. Bi gauza auk osotoro gordetzen ba'ditugu, Aren naia dagigu, ta onela Arekin baturik egongo gera. Baiña, esan dudanez, urrun bai urrun gaude, bi gauza auk, bear bezela, Jainko aundiari egitetik! Eder bekio Jaunari gu egoera ontara irixtea; geure eskuetan dago egon, nai ba'dugu.

8. Agindu bi auk beteten ditugun ala ez jakiteko ezaugarriarik ziurrena da, nire iritziz, urko lagunari buruzkoa nola betetan dugun ikustea. Ezin dezakegu jakin Jainkoa maite dugunik, maite dugula adierazten emateko ezaupideak ditugun arren; baiña urkoarena, bai, jakin dezakegu. Eta, ziur egon, zenbat eta geiago ontan aurrera jo, areago zaudete Jainkoarenean ere; Jaunak guri diguna aundia da-ta, urkoari diogunaren ordaintzat Berari dioguna ere milla eratan azi ta geitu dedilla Berak egingo digu: nik ezin dezaket ontan dudarik izan.

9. Oman ardura aundiz ibilli bearra dugu, osota sunez ba'gabiltza, egiña dugu dana-ta. Ala ere, gure ezer-eza itzala dalako, uste dut ez gerala urko-laguna ganako maitasun betea eukitera iritxiko, maitasun ori Jainkoari diogun maitasun-errotik sor-azia ez baldin bada. Ortik, ba, ene aizpak, zer au garrantzi aundikoa dugu-ta, saia gaitezen gauza kaskarretan ere au ulertzen, jaramonik egiteke noski, otoitzaldian ere noizik-bein etorri oi diran pentsamentu batzui, auk eraginda uste izanik, urkolagunaren maitasunagatik eta baita arima bat bakarra salbatzearren ere, gertu zaudela, gauza oso aundiak asi ta aurrera eramateko; egiñak bat ez ba'datoz ondoren, ez daukagu olan egingo dugunik zertan uste .izan. Berdintsu diot apaltasunari eta beste onoimen (birtute) guztiei buruz ere. Aundiak dira deabruaren maltzurreriak: onoirnen bat, ez daukagula, ba-dakagula guri siñisterazteko, inpernu guztia nastatuko du, eta errazoiz, onekin kalte aundia egiten digu-ta. Gezurrezko birtute auk, izan ere, erro ortatik da-

toztelako, egundo ere ez datoz arroxkeri gabe. Jainkoak ematen ditunak, ordea, ez dute olakorik.

10. Barre-gurea erne oi dit noizean bein arima ba tzui jazoten zaiena ikusteak. Otoitzean ari diranean, iruditzen zaie, Jainkoari dioten maitasunarren, eratxiak eta danen aurrean gutxi-etsiak izatea nai luketela, eta gero, olakorik gerta ba'ledi, akatsik pitiñena ere estalduko lukete! Oi, eta zer egin gabeko uts bat jarriko ba'liete! Jainkoak gorde! ... Beraz, au jasan ezin duenak hegira beza ondo, berak bere kasa bakarrik erabaki duenari kasu egitetik; bere erabakia, bada, borondatearen asmo sendoa izan bearrean, irudikizun utsaren ondorena besterik ez da: egiazko naiarekikoa danean, beste gauza bat da. Deabruak, izan ere, irudimena bide dala, jarri oi ditu bere lakio ta gezur-sareak; guri bereziki, emakumak gera-ta, baita gutxi eskolaturiko beste askori ere, olako asko jarri dezaiguke, ulertzen ez daki-gulako gure aalmen eta irudimenaren arteko diferentziak, eta barne ditugun beste milla gauza. Oi, aizpak, nola ikusten dan argi zuetariko batzuegan nun dagoen egiazki urko-lagunaganako maitasuna, eta zeintzuegan dagoen olako osotasun gaberik! Onoimen au nola dago-kigun ba'zenekie, ez zenukete beste arlorik gogoan ekarriko.

11. Arima batzuk ikusten ditudanean nik, daukaten oitizari oso emanak, eta ortan diarduenean guztiz barne-bilduak, eta euki duten atsegin-eraspena pizkat ere uxa ez dakioen soin-zirkiñik txikiena eta ez gogapen-aldatzerik egiten ere ausartzen ez dirala irudi izanik, etsi oi dut olakoak ez dutela arean ere batasunera biderik ezagutzen. Berak uste dute ortan dagoela irabazi guztia. Ez, aizpak, ez; egite onak nai ditu Jaunak! Ikusi ba'dagizu aizpa gaixo bat, lagun dezakezuna, utz ezazu jaiera ori, ta erruki zakizkio ari; mifiik baldin ba'du, ar ezazu zeuretzat, eta bear ba'litz zuk egizu barau ark jan dezan; ez argatik soilki, zure Jaunak axe nai duela dakizulako baizik. Auxe da Aren naimenarekiko ba-

tasun egiazkoa; eta zure aurrean bat-edo-bat goraltzen dutela ba'dakusazu, poztu ta alaitu zaitez, zeu ba'ziña lez gorai patua. Eta au, apaltasunik baldin ba'dago, gauza erreza izango da, goratua izatea penagarri izango zaio-ta. Aizpen birtuteak jasoteko daukazun alaitasun au, gauza aundia duzu beti, eta gure aizpetan akatsen bat dakusagunean, geureak ba'lira artu ta estaldu bear ditugu.

12. Gai oni buruz, beste leku batzuetan ere jarduna nauzue.¹³ Izan ere, aizpak, onetan etendurarik ba'lego, galduak ginjoazen. Ezpei Jaunak nai izan olako etendurarik! Olako barik jokatu ezkerro, neuk diotzuet, ez dezazutela utzi esaniko batasuna Jainko onagandik ardietsi gabe. Jaiera au barik ikusten dituzutenean zeuon buruak, naiz-ta jaiera ta gozotasunak euki, eta zeuek orraño eldu zareela uste izan, eta atsedeen-otoitzean olako lot-une txikiren bat arrotu (onekin dana egiña dagoela usteko dute batzuk), siñistazue ez zeratela oindio batasunera iritxi; eska .iozue Gure Jaunari eman dezaizuela oso-osorik urko-lagunarekiko maitasun au, eta laga ondoren Jaunari berak nai duena egiten; Berak emango dizue zuek nai izatera dakizuena baiño geiago, zeuek saiatzen ba'zerate ta au lortzeko alegiñak egin; eta zeuon naimena indar-azi guztitan aizpena egiña izan dadin, naiz-ta zeuen eskubidetik zerbait galdu bearra izan; eta aitzu zeuen ona aien onagatik, jatorriak ontan aurka egingo dizuten arren; ar neke-lanak ere, urko-lagunari kentzearren, ortarako ere izan ezkerro. Ez uste izan pizkat neketsu izango ez zaizuenik, ezta egiña aurkituko duzuenik ere. Begira zeñen galesti irten zitzaion gure Senarrari guri zigun maitasuna: gu eriotzatik askatzearren, erio neketsua, gurutzean ilteraiñokoa, eraman bear izan zigun.

¹³ *Onbidea, VII atzal.*

IV IDAZPURU

Gai-berdiñari dakio, otoitz-era au geiago azalduz. — Zuur ibiltea egoki dala diosku, deabruak bada guztiak arrotu oi ditu, arimak urrutiratu ditezten asitako bidetik.

1. Jakin nairik zaudela, uste dut, usoko onek zer dagian eta nun kokatzen dan, adierazorik gelditu bait da gorago, ez dala gogozko atsegiñetan, ezta lurreko pozkarioetan ere, ezartzen: gorago doa aren egazkada. Ezin dezaizueket gura au bete azkenengo egorlekura arte; Jainkoak alan eta guzti nai beza oroi nadilla, edo-ta idazteko beta izan dezadala, ontan asi nintzaneetik ona ia-ia bost illabete igaro dira ba ta burua ez daukadanez idatzia ber-irakurteko, Jana joan bear du antza nastean, eta gauza batzuek birritan esanda. Baiña lan au nere aizpentzat da-ta, ez nau onek ainbeste kezkatzen.

2. Apur bat geiago azaldu nai dizuet oraindik alkartzeko otoitz au, nire ustez, zer dan. Nere aalmenak al duen bestean, alderatze bat jarriko dizuet. Geroxeago adieraziko dizuet txipilotatxo onek zer egiten duen, geratzeka beti bait dabil frutu berriak irabazten bai berretzat eta bai urkoarentzat, ez duelako aurkitzen bereztat benetako atsedetik.

3. Sarri entzuna daukazue Jainkoa arimarekin ezkontzen dala, gogozko ezkontzaz. Onetsia bedi Aren erukia onenbesteraño apaltzen da-ta! Emen adierazi nai dudan alderatze au orren egokia ez dala ere, ez dut obeagorik aurkitzen, ezkontzako sakramentua baiño, nik adierazi gura dudana aitzen emateko. Izan ere, aide aundia dago batetik bestera, ari geran ontan ez bait da aurkitzen iñoiz ere gogozkoa ez danik, eta gorputz aide-

tikoak, ezkonduak euki zitzaketenakin alderatuz gero, milla lekua bai daude batetik bestera. Emen guztiaren ardatza maitasuna da, emen egiteko guztiak garbiak dituzu oso, eta begirune aundikoak, dana duzu bigun gozoa esan-ezin aîñean: Jaunak, alere, ederki sentierazten.

4. Batasuna ez dut uste oraindio ezpirituzko ezkontzara iritxi danik, berez baintzat; munduan bi ezkontzera doazenean gertatzen dana gertatu bai, ordea: biak bat datozen ikusten da, eta alkartzetik nai ote duten; gero, bata-besteaz pozik egon daitezzen, alkar ikusteak egiten diturte. Orrela emen ere: ituna egiña dagoen ezkerre, eman dezagun arimeak ondo dagiala nolako onak datozkion batasun ontatik, eta gauza guztitan bere Senarraren naia egiteko gertu ta prest egonik, ortan bere Senarrari portasuna ematen saia bearra du era ta leku gurtietan. Gure Jaunak, artean, arimea egoera ontan dagoela ikusirik, pozkarioz agertzen zaiola ta ori obeto erakutsi nairik, esan oi dutenez, alkar-ikuste bat eukiteko grazia eman oi dio, gero ortara Berarekin bat-egiteko. Epe labur-laburrean jazoten da-ta, esan dezakegu au onelaxe dala. An ez dago artu-eman geiagorik, arimeak ikustea baizik, txit sekretuki, nor dan artu bear duen Senarra, eta emen aldi laburrean ulertzen duena ezingo luke milla urtetan ere ulertu zentzunen eta aalmenen bidez. Senarrak, ba, dana dalako, ikuste soil arekin, duiñagotu du arimea, eskuak emateraiño, esana danez, duin-erazi ere. Arimea, bere aldetik, guztiz maite-mindua geratu oi da, ta alegiñ guztiak egiten ditu jainkozko ezkontza au lardaskatu ez dadin. Baiña arima onek, bere zabarkeriz edo, Jaunagan ezik, beste zerbaiten jarten baldin ba'du *bere* zaletasuna, guztia galdu oi du; egiñaz dijoakion mesedea aundiago ta galera erabat, esan-eziñeko noski.

5. Orregatik, Jaunak bide autatik ekarri zaituzten arima kristau guztioi eskatzen dizuet, Berarren eskatzen dizuet, ez zaitezela zabar ibilli, gal-zorietatik

aide egin baizik; egoera ontan ere arimea ez dago oraindik sendotua, bildur gabe eurotan sartzeko, onen ostean esango dugun egonlekuan egin oi dan ezkontza ostean dagoan lez. Ar-ermana etzan izan, ba, ikuste bat besterik, esan oi danez, eta deabrua or ibilliko da tartean, arduratsu ibilli ere, ziri to ziri ezkontza au apurtu guraz. Gero, ordea, bere Senarrari osoan menderatua ikusten duen ezkerero, ez da ausartzen ainbeste, bildurra dio-ta: oar-ikasiz daki, iñoiz ortara jo ezkerero, galera aundia izan oi duela berak eta arimeak irabazi itzala bere aldetik.

6. Neuk diotzuet, alabak, ezagutu ditudala pertsona batzuk, goi-goiraño elduak eta bizileku ontan zeudenak, deabruak azpikeriz eta maltzur-jokatze izugarriz ostera ere beretzat irabazi ditunak; ortarako, nire ustez, inpernu guztia batu oi da, sarri aitortu dudanez, ba, ez dute arima bat bakarra galtzen, parrastaka baizik. Arek ba-du experintzik ontan. Arima on baten bidez Jainkoak zenbait arima Bereganatzun ditun begiratzen ba'dugu, egi-egiaz goratzekoa duzu Jauna: millaka Jaunaganatzen zituzten martiriak, Ursula lango doatsu batek, adibidez! Zenbait ostu dizkion deabruari Santo Domingo batek, Frantzisko Deunak eta beste Ordena irasle batzuk! Eta gaur ere zenbait galtzen ditun Jesus'en Lagundia sortu zuen Iñaki Aitagatik! Eta guztiok, jakiña, irakurten dugunez, olako mese-deak artzen zituzten Jainkoagandik! Zer izan zan au, jainkozko ezkontza, ain bikaiña, beren erruz ez galtzeko alegiñak egiten zituztela baizik? A, ene alabak, Jauna gertu dago gaur orduan lez bere graziak guri emateko! Gaur, aitzitik ere, izan geiago dago guk ar ditzagun, gaur gitxiago gera-ta, orduan baiño, Aren izen onaren aide lan dagienak. Beraz, benetan alkar maita dezagun! Zuurtasun geiegi darabilgu geure esku-bideak ez galtzeko. Au bai iruzur aundia! Bemaigu argia Jaunak olako illunpetan ez jausteko, bere errukiz!

7. Galdetu dezaidakezue edo beintzat dudatan

egon bi gauzari: lenen, esana geratu dan bezela, arimea Jainkoaren naiarekin ain bat egiña baldin ba'dago nola izan daiteke orduan atzipetua, berak ez du nai-ta iñolaz erez bere guraria egiterik? Bigarren, zer bide-tatik sar daiteke deabrua zuen arima galtzeraiño, mundutik ain aldenduak eta sakramentuekin ain itsatsiak, eta, esan dezakegu, aingeruen aldran bizi dirala? Guztiak, Jaunari esker, ez dakarre beste guraririk zer guztietan Bera zerbitu ta Berari atsegingarri izatea baiño. Munduko arrisku artean bizi diranai jazoten zaiena ikusita, ez ote da arritzekoa? Nik diot errazoia duzuela ontan, Jainkoak erruki aundia egin digula; baiña esan-berri dudanez, Judas ere Apostoluekin zebillela, Jainko berarekin ar-emanen eta Aren itzak entzunez, guzti au ikustean, ontan ez dagoela ziurtasunik, uste dut.

8. Lenengo galderari erantzunaz, arima au, esan bear dut, Jaunaren naiari beti loturik ba'lego, garbi dagoena da ez litzatekela galduko. Baiña or nun agertzen dan deabrua bere kako-mako ta zorrozkeri aundiekin; on-jantziz apaintzen dizkio gauzak eta apurka-apurka ba-darama okertuz gauzatxo batzuetan, ari meari dagozkion apurño batzuetan alegia, eta ark ez dirala txarrak ulert-erazten dizkion beste batzuetan sarturik, eta ezarian-baiarian, urratsez urrats adimena ilun-azi ta naimena epeldu, ta berarekiko maitasarra bere baitan indar-aziz, andik emendik Jainkoaren naieratik aldentu ta berarenera iritxi-azo oi du azkenik. Onekin geratzen da erantzuna bigarren galdera; ez bait dago itxitu ain itxirik ura sar ezin daitekenik, ezta eremu ain aldendurik ura eldu ezin ditekenik. Beste zer bat ere ba-diotzuet: bear bada Jaunak uzten duela orrelaxe enparauen argitzat jarri nai duen arimeak nola jokatu oi duen ikusteko noski; izan ere, arlote izan bear ba'du, asieran izatea obe da, ta ez askoren kaltegarri gerta ditekenean.

9. Neri ziur-ziur eskeintzen zaidan arreta —
Jainkoari otoitzean bere eskutik euki gaitzala beti eskatu

ta etengabe oldoztu, nola, Ark utzi ezkeru, egia dan lez, leze barnean geran, eta, zorakeria bait litzateke, geugan uste onik **ez** izan ondoren—, ardura bereziz, zuur ta ernai ibiltea dugu, birtute ta onoinenetan nola aurreratzen dugun begiratuaz: obetuz edo gutxituz ote goazen zerbaiten, bata-besteaganako maitasunean batez ere, txikientzat eukia izateko gogoan eta antzeko gauza egunerokoetan; ontan arduratsuak ba'gera, ta argia eman dezaigula Jaunari eskatzen ba'diogu, laster ikusiko dugu irabazia edo galera. Ez duzue uste izan bear, Jainkoak, orren goira jaso duen arima, ain laster uzten duenik bere eskutik, eta deabruari ain errez zaionik olakoaz jabetzea. Jaunak min du egiazki arima ori gal-tzea, eta era askotara milla barne-argitasun eman oi dio. Beraz, ortik datorkion galzoria etzaio ezkutatuko.

10. Guenean, auxe bedi gai ontzako amaiera: saia gaitzen beti aurrera egiten. Aurrerakuntzarik egingo ez ba'gendu, gabiltzen bildur aunditan, deabruak ezpairik gabe eraso gogorren bat eman nai digu-ta. Aurrera ez egi-tea zantzu oso txarra da, maitasuna ez bait dago inoiz ere geldirik, eta eziña da onaiño eldu danak maitasunean are geiago azteari urtea. Izan ere, Jainko berberaren emazte izatea erabaki ta Gure Jaunaren artu-emanen dabillen eta esandako lenengo mailletaraiño iri-txia dan arimak ez du lo apatzean gelditu bear. Eta ikus dezazuten, alabak, zer egiten duen Ark beretzakotzat dauzkan emazteekin, asi gaitzen seigarren egoitzetaz; eta ikusiko duzue nola gutxi dan guk Aren otseintzan egin dezakegun guztia, eta berdin mesede ain aundiak artzeko gertakizunetan egin eta jasan genezakena. han zitekena da, nik au idatzi nezala gure Jaunaren manuz niri agintzea, begiak sarian jarri eta zein neurri gabea dan Aren errukia ikusirik, artxo batzukin onela ar-emanak euki ta agertu nai bait du, guk, lurtar atseginpozak aiztu ta Aren aunditasunean geure begiak ipiñirik, Aren maitasunean ixiotuta, bidean aurrera jo dezaguntzat.

11. Jaunak nai beza gauza ain zailletatik nik zerbait azaldu al izatea. Baldin Jaun Aaltsuak eta Ezpiritu Santuak nire lumari ez ba'daragiotte, ondo dakit eziña litzakela. Eta zuen onerako ez ba'litza ere, ez dezala eskatzen diot here gogoa argitu, Aren Aunditasunak ba-daki, ba, nire guraria ez dala besterik, neregan dagoanez, Aren izena goretsia izan dadilla baizik; eta saia gaitezela, lur onetan bertan ere olan ordaindu oi duen olako Jaunaren zerbitzari izaten; ortik jakin genezake, gaiñera, zeruan emango digunaren apur bat, itxaro ekaizti ontan dauzkagun bezelako ar-ta-utzi eta lan eta arrisku gabetanik. Jainkoa iraindu ta galtzeko arriskurik ez ba'lego, izan ere, atsedeen-aldi emea izango litzakigu noski, bizi ta lan egiteko munduaren azkenneraiño, geure Jaun eta Jainko ta Senarraren aide. Eder bekio Aren Aunditasunari guk Berari zerbitzuren bat egitea merezi izan dezagun, egite onetan ere beti dauzkagun ainbat utsegite gabe. Olantxe.

SEIGARREN EGOITZAK

Amaika Idazpuru daude

I IDAZPURU

Gai au darabil: Jauna, arimeari mesede aundiagoak egiten asi, neke-lanak ere aundiagoak izan oi dira. — Onako batzuk aipatzen ditu. — Eta nola jardun bearra duten egonleku ontan sartuta daudenak. — Ona da oso, barne-atsakabez oiñazeturik bizi diran arimentzat.

1. Gatozen orain, Ezpiritu Santuak lagunduta, seigarren egoitzetaz mintzatzera. Arimea emen Senarraren maitasunak zauriturik geratzen da; leku geiago nai du bakarrik egoteko ta, lortu duen egoera orren arabera, bakartade ori galazi dezaioken gutzia urruntzeko alegiñak egiten ditu. Senarrarekin izan duen ikustea josi bait zaio guztiz barren, orren gozotasuna berriz izatea da arimearen irrika. Esan dut, leen ere, otoitz onetan ikustea dala esan daiteken ezer ez dala ikusten, ezta irudimenez ere; *ikustea* diñot jarri nuen `adibide edo alderatzeagatik. Arimea onezkero beste senarrik ez artzeko ondo erabakia geratzen da; Senarrak, baiña, ez dio geiegi begiraten emazteak ezkontzeko duen gurari aundiari: irrika dezala are geiago, eta, on guztien gaiñetikoa dan ezkeru, ondo irabazia izan dakiola. Irabazi ain aundiaren truke gutzia gutxi dalarik ere, nik diozuet, ene alabak, bearrezko dirala erakuste eta ezau-

^t Bostgarren egoitzetako IV idazpuruan.

garriak arimarentzat, ondoren datozen probak eraman al izateko. Oi, lagun bekit Jainkoa! Aundiak bai dirala sufritzen dituen barrutiko ta kanpotiko neke-miñak, zazpigarren egoitzean sartu arteiño!

2. Egiazki bildur naiz iñoizka au ausnartzean, zera aurretiaz jakingo ez ba'litzateke, guztiz neketsu litza kiola berezko auleriari au eramatera erabakitzea, ezta ortik igarotzea ere, aurrean jarten zaizkion onak aundi ta bikaiñak izanik ere, zazpigarren egoitzera iritxi ezik beintzat; egoitza ontan ez da ezeren bildurrik, eta ^{ari} mea erabakirik dago zearoan Jainkoagatik edozer ja sateko. Au geien bat, arimea, sendotasuna datorkion Jainkoari, ia unero, baturik dagoelako duzue. Egoki izango dala derizkiot sufritzen diran eta nik naiko ondo ezagutzen ditudan neke-lor batzuk zuei kontatzea. Ari-ma guztiak ez dira bear bada bide ontatik eramanak; otezkoan nago, ala ere, eta benetan, alan edo onan, lurreko neke-lan gabe bizi omen diran, noizik noizera zeruko gauzak egiazki gozatzen dituzten arimak.

3. Etzan nere asmoa gauzok aipatzea; baiña egian, ontan dagoen arimaren bat laguntza bearrean aurkitu litekela, ta pozgarri izango zaiola olakoari, Jainkoak olako mesedeak egiten dien arimen artean zer gertatzen dan jakitea, orduan izan ere dana galdua dala dirudi-ta. Ez dut aria gauzak jazo oi diranez eramango, gomutametak eman-ala baizik. Eta txikienetatik asi gura dut, au da, marmarketatik, naiz artu-emanak ditugun personetatik etorri naiz iñoiz euki ez dugunengandikoak izan; ots batez, geure bizitzan gure gauzaen ardurarik izan lezaketenik ere egundo uste izan ez genuenengandik. Onela diote: «Santa legez agertu nai dul»; «munduari ziria sartzeko egin oi ditu olako geiegikeriak, eta besteak doillorrago egin nairik: olako zeli-moni bage kristau obeak dirata!» Berak ala ere ez du ezer egiten, oar ondo, bere bizikerak eskatzen diona zeatz-meatz bete besterik. Urrunduz dijoaz adiskidetzat zeuzkanak ere, eta beurok dira aginkadarik ederrena

eman oi diotenak, eta onek egiazki mintzen: «Arima ura galduaz doa ta zipotza sartua guztiz»; «deabruaren gauzak dituzue»; «galdu zan urlia ta sandia lakoa noski, ta birtutearen arriskugarri»; «atzipetuak dakazki aitor-entzuleak ere»; egoki litzake oso aiengana joan eta zer gertatzen dan esatea, emendik galdu ziran batzuekin jazotakoa adierazten emanik: onako beste milla ixekata esames.

4. Bildur zan oso nik ezagutzen nuen pertsona bat, gauzak zijoazen bezela, etzuela nork aitorturik izango ta.² Ez noa geiago zeztutera, olako asko diralako. Eta okerrena da, burruka auek ez dirala beingoan igaroten, bizitza osokoak izan oi dira-ta; berdin olakoekin artu-emanetan ibilteaz kontua artzeko bata besteari esondatzea ere, betiko da. Ba-daudela auetaz ondo esaten dutenak ere, esango didazue. Baiña, ene alabak, gutxi dira benetan on ortan siñisten dutenak, belztu oi dutenen aldean! Are geiago, ori esandakoak baiño aski neketsuagoa da-ta! Arimeak argi ere argi ikusten du ezer onik ba'du Jaungoikoak emana duela, ta iñolaz ere ez berak lortua, arestian beartsu oso ta pekatu aundietan murgil aurkitzen zalako; txaloak, beraz, leenengotan eraman ezindako oiñaze bizi zaizkio. Gero, ez ainbeste, errazoi batzuegatik: leenengo, biziz ikasiak buruan sartzen bait dio, gizasemeok naiz ondo naiz gaizki esateko beti prest gaudela, ta olaxe ez dio kasurik egiten ez onen ez aren esanari; bigarren, Jainkoak oroz-gaiñ ezagutu-azi diolako ez duela ezer bere gandiko onik, Jainkoagandikoa baizik; eta, beraz, iñorena dalakoa egiñik, berak an daukan zatia aitzu, ta Jainkoa bir-goresten alegindu oi da. Irugarren, arima batzuek, Jainkoak berari egiten dizkion mesedeak ikusiz, aurrera doaztela konturaturik, Jainkoak uste du bide au artu duela, ona izan gabe ontzat zeukelakoa

² Teresa bera, *Biziizako XXVIII* idazpuruan ikusi daitekenez.

noski, aiei ere ona etor zekien. Eta laugarren, bere buruarekin baiño Jainkoaren ospe ta aintzarekin geiago bait dauko, aske nabaitzen da asi-berriak batez ere senti oi duten bildurretik, au da, kaltegarfi izan ditezkelat beretzat, ezagutzen dituen arima batzuentzat izan ziran bezela; eta ez dio ardurarik itxustua izan arren, orren ordez bein beintzat Jainkoa goretsia ba'da, bere birtartez; gerta bedi ondoren gerta bear duena.

5. Argibide auek, eta beste batzuk, ezti-azten dute gorespenok sortzen duten naigabea, Pizkat, ala ere, ia beti sentitzen da, ez asko ez gutxi jaramonik egin ezirik beintzat. Baiña askozaz astunagoa da, esandakoak baiño ere, oiñazetsuagoa, agirian errazoi pitsik gabe ontzat eukia dala ikustea. Arima irixten danean bildur ori galtzera, askoz gutxiago izango du kritikarenik; jolasa zaio, ostera, musika ezta bezelatsu. Au, egia aundia da; eta arimea koldartu bearrean, indartsu egiten, bizi-ilcasiak erakutsi dio, ba, bide ontatik datorkion irabazi bikaiña, eta bertotik dabiltzanak, uste du, ez dutela Jainkoa iraintzen; bestera, Jaun aundiak orixe nai duela, bere irabazi aunditzat; eta, argi ere argi nabaitzen duen ezkerero, maitasun berezi samurra artzen die, aiek adiskideagoak diralakoan, eta ondo dioenak baiño irabazpide aundiago ematen dioelakoan.

6. Jaunak eman oi ditu gaitzaldi aundiak ere. Eta azterketa au esanak baiño gogorragoa da, miñak batez ere zorrotzak diranean: uste dut, izan ere, lur gaiñean ez dagoela kanpotiko oiñazerik latzenakin berdintzekorik, gorputz-aldekoak esan nai dut. Oiñaze oiek osoan irauli oi dute barrua ta kanpoa: arimeak, asaldaturik, ez daki zer egin bere buruarekin, eta oiñaze artatik askatzearren, laster artuko lituzke, ta gogo onez artu ere, martini baten neke-miñak. Neke-miñok, ordea, ez dute beti berdín irauten, au da, ez dira beti latz eta jasan-eziñak, Jainkoak ez bait du eman oi eraman al dana baiño geiago, ta orduan ere eraman al izateko egonarría eman oi du lendabizi. Baiña oi bezela ta eskuarki

askotariko gaitz astunak eta anitz muetako gaixotasunak bialdu oi ditu.

7. Ezagutzen dut pertsona bat,³ esanik geratzen dan mesede au Jaunak egiten asi zitzaionetik, berrogei bat urte diranetik, esan dezake egunik ez duela izan min gabekorik, egiazki gurutze ta arako edo onako gaitzik gabe; gorputz-osasun ezez diot, eta beste neke-lan aundi askotaz. Egia da oso ziztriña izan zala, ta merezi zuen inpernuaren orde z oro uste du gutxi. Beste batzuk, Gure Jauna ainbeste iraindu izan ez dutenak alegia, beste bide batetik eramango ditu, baiña nik beti aukeratuko nuke gurutz-bidea, auxe dalako onena Jesukristo Gure Jaunaren antzeko izateko: orrela egingo nuke nik, baita, ortik doazen geienen artean egotea baiña beste irabazirik ez ba'lego ere. Ol, eta zer esan gero barne nekeetaz? Auek diran bezela adierazi al ba'lirake, aiek, gorputz-aldekoak noski, ariñak iruditu-ko! Baiña eziña da igaroten diran legez ulertzen ematea.

8. Asi gaitzen nolako oiñazea dan adierazten, aitor-entzule bae xeeko ta trebe-ez, ezer ziurtzat artzen ez duen batekin aurkitzea: edozerk sartzen dio latz-ikara, edozertan jarten du duda-muda, egunerokotik kanpo zerbait ba'dakus, eta oro deabruaren edo geure aulkeriaren ondorentzat jotzen du, batez ere olakoak artu dituen arimarengan akats edo utsegiteren bat atzematen ba'du, olako graziak Jaunagandik artzen dituenak, ba, uste du aingeruak izan bear dutela, ta au, jakiña, gorputz ontan bizi garean bitartean, eziña zaigu. Bestetik ez naiz bat ere arritzen; auleriz beterik daukagu gaur mundua, eta deabruak makiña bat gaitz ekarri oi ditu bide ontatik; aitor-entzuleak, beraz, berean laude ta ongi egiten dute arduratsu begiratuaz. Ala ere, bildur berdiñak joa dabillen arimak, aitor-entzulegana au epaikari ba'litz bezela jo ta onek gai-

³ Santa Teresa bera.

tzesten baldin ba'du, ezin dezake naigabe ta naste ikaragarria artu gabe utzi, ortik igaro danak bakar-bakarrrik nolako neke-miña dan jakingo duena noski. Auxe baita arima auek jasan oi dituzten neke-miñetatik beste bat, maizkar-petralak izan ba'dira, batez ere, Jainkoak beren pekatuengatik bide ematen diela olako iruzurrei, pentsatzea. Egia da, Jaunak onako mesedeak egiten dizkienean ziur daude ta ezin ditezke ezpaian egon Arengandik datozkienari buruz; baiña mesede oiek azkar bait dira igaroten, eta pekatuen oroipena luzatu ta luzatu, laster asten da berriz ere beren naigabea, ainbat utsegite berengan ikusiaz bereziki, auek egundo ez bait dim falta. Aitor-entzuleak suspertzen duenean, otzantzzen da pizkat; baiña aitor-entzuleak bildur-azten duenean, eraman ezin alako miñetan jarten da, eta au batez ere, miñ auen ostean idor-bolararen bat datorkionean izan oi da: Jainkoaz ez dala iñoiz oroitu, uste du arimeak, ezta oroituko ere; eta Aretzaz mintzatzen aditzean ere, aspaldi esaten entzun zion norbaiti aditzen dagoela uste du.

9. Au danau ez da ezer; onez gaiñ begitanduko ez ba'litzakio arimeari, ez dakiala gauzak diran bezela aitor-entzuleai adierazten, eta iruzur egiñik dauzkala auek! Naiz-ta bere burua aztertu ta aiei esan gabeko len-zirkiñik ere ez duela ikusi, alperrik du. Adimena illun-illun bait dago, ez da gai egia ikusteko, ta bai irudimenak eskeintzen diona siñisteko, orduan au da-ta etxeoandre, eta deabruak aurrezaur ipiñi nai dizkion txorakeri guztiak: Gure Jaunak oni ematen dio, antza, baimena aztertu dezan, eta baita oraindio Jainkoak gaitz-etsia dagoela ulertu-azteko ere. Ainbat gauza dira arimea estu-estu egiten dutenak barne, min garratz eta eraman-eziñez ain zuzen ere, nik ez dakit zerekin berdindu, inpernuan sufritzen diranekin ezik: ekaitz onen erdian ez dago poztasunik. Gogo-aitarengana ba'zoaz la saitasun billa, uste du deabruak arengana jo dutela bera naigabetzen are geiago. Oiñaze ta alamenpean bizi zan

arima bat zuzentzen zuen aitor-entzule batek esan zion zuzenduari, azterketa igaroa zalarik, orrela aurkitzen zanean berari emateko orren albiste, izularri ta atsekabe ura, ainbat gauzetik sortua, arriskutsua zerizkiola-ta; baiña sendagai augatik gaitza gaitzago zijoan ezkerro, igarri zuen azkenik etzala bere eskuko. Arima ark eskuetan artzen baldin ba'zuen edozein orri-izkerazko irakurgai bat, irakurten jakin arren, letra bat bera ere ez ba'zekin bezela gertatzen zitzaion, ez zuen ezer ulertzen, aren adimena motel-moteldua bait zegoen.

10. Azkenen buruan, ez dago sendagairik ekaitz-aldi ontan, Jainkoaren errukiari zai-zai egon baiño; onek, izan ere, ez-orduan bere itz bakar batekin edo-ta bear bada jazotako gertakari batekin, beingoan uxatutzen du dana, gutxien uste danean, arimea egundo ezer euki ez ba'lu bezela gelditurik, poztasun aunditan eta eguzkiz gaiñezka noski, iñundiko odeitzaren antzik gabe. Eta guda-eraso arriskutsu batetik garaille iges egin duenaren antzera, gure Jauna goraltzen geratzen da, Beronek bait zuen gudukatu arimea garaille irten zedin. Onek ba-daki ondo ere bera etzala izan burukatu zuena, bere burua zaindu ta gorde zezakean izkillu (arma) guztiak etsaiaren eskuetan ikusten zituela iruditzen zaio-ta. Olan argi-argi ezagutzen du bere eze-reza, eta zein gutxi geran Jaunaren laguntza gabe.

11. Egi au ulertzeko, uste du, ez duela geiago gogarketa bearrik, izan duen experientziak eta idoro izan dan ezin osoak erakutsi eragin die gure izatearen eze-rez utsarekin batera gure uskeriaren laburra. Bera egiazki grazian egon bear du, ekaitz-aldi guzti onetan ez bait du Jainkoa iraindu, ezta irainduko ere lureko ezertxugatik; baiña grazi au oso ezkutuan dago, ta ari mean iruditzen zaio Jainkoarekiko maitasunik duen edo-ta iñoiz izan ote duen txingartxorik ere ez duela ikusten. Egintza onen bat egin ba'du eta Jaunak graziren bat eman ba'dio, dana ametsa edo irudikizuna

izan dala uste du. Argi ikusten ditunak bere pekatuak dira soil-soilki.

12. 0, Jesus! Zer dan arima bat onela bertanbeera utzirik ikusteal! Esan dudanez, onik gutxi ateraten du gaixoak lurreko atsegiñetatik! Beraz, aizpak, ez uste izan egunen baten egoera ontan ikusten ba'duzue zeuron burua, aberatsak eta aske bizi diranak, zuok baiño sendabide ohea aurkitzeko moduan dagozanik. Ez, ez. Nire ustez, au eriotzara epaitutakoei munduan diran atsegin guztiak begi aurrean jartea legez izango litza teke, eta auek ez lirake izango aski aiek poz-erazteko, eta bai aien oiñazea aziagotzeko; orrela emen ere, nik uste, goitik jaitsia da naigabea, ta lurreko gauzak emen ez dute ezertarako balio. Erregetzat ezagutu dezagula nai du Jainko aundi onek, eta geure ezereza, au guztiz garrantzi aundikoa izanik gain datorrenerako.

13. Zer egingo ote du, ba, arima gaixo onek egun luzeetan olan jarrai ezker? Errezatzen ba'du, erreza-tuko ez ba'lu bezela zaio, bere pozerako, diot; barruak ez dio onartzen, errezzatzen duenik ere ez du ulertzen, naiz-eta aozko otoitza izan; gogarteari dagokionez, guztiz du au egoki-eza, aldi onetan aalmenak ortarako ez daude-ta. Bestetik bakartadeak naigabetsuago egiten dio barrua; eta, ala eta guzti ere, ezin du eraman lagun-ar-tea, ezta ñork itz egiterik ere, naigabe bizi berri bat sumatu gaberikan. Eta olantxe, asko ta asko saiatu arren, ezin du bere azaleko soin-itxuran ere errez igarten zaion barruko garraztasuna ta umore txarra estaldu. Ba ote daki berak zer duen esaten? Esan eziña da; gogozko naigabe ta estuasunak dira, izenez esaten ez di kizkigunak. Sendagairik onena, ez diot kentzeko, ez bait dut aurkitzen, eraman al izan dezan baizik, goima tasunezko egintzetan, edo-ta beste kanpotiko gauza bartzuetan jardutea da, eta Jainkoaren errukian itxarotea, Onek ez bait du Beregan uste ona duenik bertanbeera lagatzen. Onetsia izan bedi betitasun guztian. Olantxe.

14. Deabruak eman oi diturten beste neke-lan batzuk, kanpo-aldekoak noski, ez dira itxura danez ain noiznaikoak, eta ez dago beraz oietaz zertan mintzatu, ez dira gaiñera orren neketsuak ere; deabruak, nik uste, asko eginda ere, ez dira iñoiz eltzen aalmenak eragotzi ta ezgaitzera, ezta esan dudan legez arimea artegatu ta kezkaraztera ere. Errazoia daukagu beti Jainkoak ematen dien baimenaz gaiñ ezin dutela ezer egin pentsatzeko. Eta au galdua ez danean, guztia da gutxi esana geratu danaren aldean.

15. Seigarren bizileku auetako otoitz-erak eta Jaunak egin oi dituen mesedeak azaltzerakoan, adierazoko ditugu barne aldetiko beste neke-lor batzuk ere. Auetatik batzuk, iraganean, esanak baiño ere latzagoak izan arren, gorputza era larrian uzten bait dute, ez dira ala ere aipagarri neke ta naigabeen artean, ez dute sail ortan jarterik merezi, Jaunaren mesede ain izugarriak diralako, eta arimeak esker oien erdian berak merezi ez bezelakoak dirala ulertzen duelako. Zazpigarren egoitzean sartzeko dator neke-min aundi au, beste asko lagunduta; batzuk esango ditut nola diran, beste batzuk ezingo ditut adierazi, guztiak eziña da-ta. Esan dakoetatik ez baiña, beste sorburu goragoko batetik datoz etorri ere, eta aietan, ari beeragokoak izanda esana baiño geiago argitu al izan ez ba'dut, gutxiago al izango dut aietan. Jaunak bemaigu guztirako bere ba bespea, bere Semearen irabaziengatik. Olantxe.

II IDAZPURU

Jainkoak era askotara eragiten dio arimeari, esna dadin. — Mesede aundi ta bikaiñetaz ari da. — Eurotan, agiri danez, ez dago ikaratzeko ezer.

1. Aztu dugula dirudi gure use txikia; baiña ez da orrela, neke-lan aukerak izan ere goragoko egazkada eragiten diotenak eta. Asi gaitezen orain, ba, ikusten nolako jokabidea duen Senarrak berarekin. Emaztetzat osoan artu aurretik, irrikaz nai izan erazten dio biziki, arimeak berak ere ulertzen ez dituen bide guztiz samur batzuen bitartez, eta nik ez dut uste adierazi al izango dudarik berau bide auetatik ibilli diranei ezik. Alako gorakada ezti-meiak arimearen barren-barrenetik datoztenak, eta nik ez dut aurkitzen emen ondo lertorken alderakizun edo antzik.

2. Geurez eskura-erazi genitzaken sentimentuak baiño askoz bestelakoagoak dira, baita esan ditugun gozoko poz-atsegiñak baiño ere. Maiz samar, pertsona bera zabartua dagoelarik eta Jainkoaren oroitzarik ere eduki gabe, Jaunak berak esnatzen du arimea trumoi-kolpe batekin legez edo-ta azkar igaroten dan izar buzandun batek dardaratua bezela. Ez da entzuten zaratarik, baiña arimeak ederki ulertzen du Jainkoak dei egin diola, bizi-bizi ulertu ere, ta batzuetan, lenengoz danean batez ere, dardarazteraiño gero ta, miñik ematen ez Bion arren, intzirika egon oi da. Txit gustukor zauritua izan dala sentitzen du, baiña ezin du igarri nola ta nork zauritu duen; ba-daki, ala ere, gauza bikaiña dana, ta ez luke iñoiz ere zauri artatik sendatua izan nai. Maitasun itzez intziri dagi, baita kanpotikoekin ere, bere Senarrari, beste ezer egin ezinda; ba-daki, ba, bere ondoan dagoena, baiña gozatzen utzirik ez du gogo arimeari agerterazi. Eta au atsekabe bizia da, naiz-ta

gozo ezta; onakorik ez eukitea nai izanda ere, ezin du. Bestetik, au ez luke gurako iñolaz ere, atsekabe au gozatsuago bait zaio, naigaberik ez duen atsedeen-otoitzeko xoraldi eztiak baiño.

3. Austen aurkitzen naiz, ene aizpak, maitasunezko jardun au zuoi aitzen eman nairik, baiña ez dakit nola. Maitatuak argi ta garbi derakus arimearekin dagoela eta ala ere, antza danez, del egiten diola ezpai guztia uxatzen duen ezaugarri ziur-ziurrez, berak entzuten duen eta ez entzutea eziña zaion txistu sarkorrez noski: aurka dauden bi gauza dirala dirudi. Ala ere, zazpi-garren bizilekuan dagoen Senar onak sumaazten duela dirudi bere abotsa, eta orduan, naiz-ta itzik eratu ez, beste egoitzetako jende guztiak —zentzuak, irudimenak eta aalmenak— zirkiñik egiten ere ez dira ausartzen. O!, ene Jainko aaltsu! Zure ezkutuak bai aundiak! Eta bestelakoak bai noski ezpirituaeren gauzak, emen ikusi ta ulertu al ditezkenetik; emen ez dago, ba, gertakari au argi-azi lezaken gauzarik, ain txikia benetan Zuk arimetan egin oi dituzun aundi oien aldean!

4. Alako eragin aundia dagi egin ere ariman, au gurariz gaiñezka dago, ta ez daki zer eskatu, argi iruditzen bait zaio Jainkoa berarekin dagoela. Orain esango didazue: au ulertzen ba'du, beraz, zer gora du, edo zerk naigabetzen du? Zer ondasun aundiago nai du? Nik ez dakit; naigabe au erraietaraiño irixten bide zaiona, ba-dakit, eta zauritu zuenak gezi-eztana andik ateratzen duenean, egiaz esan dezakegu erraiak ere berarekin daramazkila, sumatzen duen maitezko sendimentuaren arauera. Ona zer datorkidan oraintxe burura: ez ote litzaken, bear bada, ene Jainkoa bera dan txinar ontzi pizturiko su ontatik txinar batek jauzi egin eta arimea ikutu duela, su irazeki aren beroa sumatzen utzirik? Ez ote gero, txinar ura gozoa izanik eta erretzeko indargabea oraindik, eta egiaz atsegingarria berau, naigabe arekin geratzen dala arimea, ta ikutzean egiten duela urratze ori? Auxe dala, uste dut, diñodana

adierazteko antzirudirik bikaiñena. Oiñaze zoragarri au, oiñaze ez dana, izan ere, ezta beti sumatzen era berdiñean; min orrek batzutan luzaro iraun oi du, beste batzutan bizkor igaroten, Jaunak arimari ematea nai duenez, au ez bait du gizonak bere trebetasunez eskuratzen. Batzutan, luzaro samar iraunik ere, joan eta etorri egin oi du; ez, iñoiz be ez dago bere artan, ots, dagoela, ta orixegatik ez da arimea osorik kiskal-azten: piztera doan unean ilten da txiñarra, eta bera geratzen da txiñar ura sort-azten duenagandiko oiñaze maitatia berriz ere sufritzeko irrika bizitan.

5. Emen ez dugu begiratu bear guregan gertatzen dan au jatorrizko zera, auleritik sortua, deabruaren iruzurra edo-ta kasketaldia danik; laster ulertzen dana bait da eragin au beti bera dan Jaunagandik datorrena dala, eta emengo jardunak ere ez dira beste jaiarak bezelakoak, auetan bada gozamenaren zoraldi geiegia ezpaia ekarri dezaiguke. Emen zentzun eta aalmen guztiak zoradura barik daude, zer izan daiteken begira, ezeri ere ozpotorik jarri gabe, naigabe atsegarri ura ez geitu ez kentzeko almenik gabe, nik uste. Gure Jaunak mesede au egin izan dionak, berau irakurriaz ulertuko du, eman bezaio esker beroa etengabe, ta ez bei bildurrik izan iruzurrarenik; bestera, bildur izan bei ez ote dan esker txarreko izango jaso duen mesede orri buruz, eta alegindu bedi almen guztiz Jainkoa zerbitzen eta bere bizitza zer guztitan obetzen, eta ikusiko du zertara joten duen eta nola artzen duen geiigo ta geiigo. Grazi au artu zuen pertsona batek urte batzuk igaro zituen orrekin, eta poz-pezik aurkitzen zan doai arekin; urte askotan neke-min aundiz zerbitu bait zuen ere Jauna, ondo ordaindua geratzen zan mesede uraren bider. Betiren beti bedeinkatua izan bedi Bera. Olantxe.

6. Izan daiteke zuok galdetzea zergatik doai au besteak baiño seguruagoa dan. Nere iritziz, errazoi auengatik: lenengo, deabruak uste dudalako ez duela iñoiz ere au bezelako min gozorik ematen; eman di-

tzake, bai, gogozko diruditen txastapenak eta gozotasunak, baiña sufrimentuaz —eta alako sufrimentuaz— arimearen poza ta atsedena, ez dago aren eskuetan; aren indar eta al-izate guztiak kanpokoak dira, eta aren nairgabeak ere, berak eman oi ditunak, ez dira, nire iritziz, ez dira egundo ere atsegarriak eta baketsuak, kexa-larriz eta eraso biziz beteak baizik. Bigarrena, ekaitz goxo au deabruak aginpiderik ez daukon lekutik datorrelako. Irugarrena, ariman geratzen diran obari ta probetxu ugariengatik, eta auetatik arruntenak dira, beste batzuen artean, Jainkoagatik jasateko erabakia ta neke-lan ugari eukiteko gogoa, lurreko pozetatik eta artu-emanetatik, eta antzeko gauzetatik iges egiteko erabaki sendo-sendoa.

7. Kasketaldia ez dana, argi ere argi dago; ezin bait du desegin ura, beste batzuetan ere aleginduagatik. Eta gauza argia danez gero, ezin daiteke ezelan ere lillura izan ez izanik ba-dala iruditu diot, ezta danik ere; beraz, dudarik geratuko ba'litz, jakin bezate aukerak ez dirala benetako bultz-zardaiak: dudarik diot, euki duen ala ez duen euki, aukerak ondo sumatzen dira-ta, gure belarrietan abots sendo bat bezela, edo. Gogomurriña izateak ere ez darama iñora, murriñak ez ditulako irudimenean ezik bere apetak sort-antolatzen: ^{ari} mearen barrenetik datorrena da beste au. Gerta ditekena da ni zuzen ez egotea, baiña au ulertzen duenaren errazoi oboak entzun arte, iritzi ontatik ez naiz saiestuko. Ezagutzen dut arima bat [^] iruzurpean bizi ote zanaren bildur zana, baiña otoitz onen bildurrik ez zuten egundo ere euki al izan.

8. Gure Jaunak ba-ditu beste era batzuk ere ^{ari} mak ernarazteko. Noizka, esate baterako, aozko ototzean jardunik eta barruko gauzetaz gogorik eman gabe, itzetik ortzera datorrela dirudi olako su-isiodura atsegingarri bat, uste gabe jalgi oi dan usain-bafa aundi

⁴ Teresa bera.

legez zentzun guztietara zabaltzen dana. Ez diot usaiña sentitzen danik, ezta beste olako ezer ere: iduri au ba'darabilgu, Senarra an dagoela ulertzen emateko da bakar-bakarrik; naikuntza gozoa datorkio arimeari, Artaz goza naia noski, eta olan gertu geratzen da egintza aundiak burutzeko ta Gure Jauna biotzez goresteke. Grazi onen jatorria —arimearentzat auxe bait da geie nekoa— esan dugunarena berbera da; baiña emen ez dago penagarri danik ezertxo ere, Jainkoa ikusteko gurariak berak ere ez bait dira neketsuak. Esandako erra zoi batzuk dirala bide, ez dut uste emen bildurtzeko ezer dagoenik, mesede au esker onez artu ta aurrera jo baiño.

III IDAzPuRu

*Gai berdiñari darraikio, Jainkoak, nai due-
nean, nola itz-egiten dion arimeari esanaz.
— Onakoetan ez da egoki norbere iritzari lotu-
rik ibiltea. — Ezaugarri batzuk jarten ditu noiz
dan iruzurra ta noiz ez dan jakin dezagun. —
Onek ba-du gunik.*

1. Ona emen, Jainkoak arimea zentzatzeko daukan beste era bat; nolarebait ba-dirudi esanak baiño grazi aundiago dala, baiña baita arriskutsuagoa ere, ta orixegatik berau azaltzen luzatuko naiz pizkat. Berak arimarekin dauzkan era askotariko izketa batzuk dira: batzuk kanpotik datozela dirudi, beste batzuk gogoaren barren-barrenetik, batzuk beronen gaiñaldetik, beste batzuk at-atetik belarriekin entzuteko moduan, abots era-tua dala esan diteke-ta. Aldiz esan diteke, ta ez gu

txitan, apeta dala, batez ere irudimen aula naiz biotz-illa duten pertsonetan: biotz-il edo tristura nabarmenaz ari naiz.

2. Bi eratako pertsona aueri ez da egoki, nik uste, jaramon egitea, ikusi, entzun eta ulertzen dutela esan arren; ezta kezkarazi ere, deabruaren mende daudela esanik. Bai, ordea, entzun pertsona gaixotiei bezela, lekaime-nausiak edo aitor--entzuleak —nori dioten—, ortaz ez kezkatzeko, ez dala ori bein-beiñekoa Jainkoaren zerbitzari on izateko, bear bada bera ez baiña, deabruak ortik askotxo atzipetu ditula, ta olakoak esanaz. Bere gaizgiro ta saputz-aldiarekin naiko du-ta, gei-ago ez atsekabetzearren au; murrña ta illun-aldia dala esan ezkeru, bada, ez du iñoiz amaituko, baietz ikusten duela ta entzuten duela zin-egingo du, orrelaxe iduritzen zaiola-ta.

3. Onelako arimari, egia esan, otoitza kendu bear zaio eta, al dalarik, ez dezaiola orreri jaramonik egin, buruan sartu; deabruak, ain zuzen ere, arima gaixo auen kalterako izan ezik ere, beste batzuen ondamendirako lan egin dezake poliki; beraz, naiz gaixoak naiz osasuntsuak izan, beti da bildurrez ibiltekoa gaiotan, gauzea nundik datorren jakin ante beiñik-bein. Bizkitartean diot beti dala obeki lenengotan gogor egitea; Jainkoarena baldin ba'da, izan ere, azi-azteko izango da az terketa ori, ta arnasa berri ere ta gei-ago aurrerantza joteko. Au egia da; baiña ez da arimea asko estutu bear, ezta larri-erazi ere, berak egiatzki ezin bait du gei-ago.

4. Orain, ba, Jainko ta arimearen arteko izketei buruz esaten nuenera itzulirik, ala naiz onela jazo, danak izan ditezke Jainkoarenak, deabruarenak edo-ta norberaren idurimenarenak. Antzeman al ba'nu, adierazi nai nuke, Jaunak lagunduta, zeintzuk diran auek ezagutu al izateko igarbideak eta noiz izan ditezken beurok arriskutsu. Otoitzari emaniko arima asko bait

dira onakoak artzen dituztenak, orixegatik nai nuke, aizpak, zuok jakin dezazuen ez duzuela gaizki egiten beurai federik ez ezarriaz, ezta ezarriaz ere, zeuontzat bakarrik diranean, gozotasunezkoak naiz zeuon utsegiteen zentza-dei bezela, aregandik naiz onegandik datoztela, edo-ta kasketaldi bat izan, gutxi doa orretan. Gauza bat jakin-erazi nai dizuet: Jainkoagandikoak izanda ere, ez uste izan, obeago izango zarenik ori dalata. Ez ate zien aski itzegin fariseutarrari? On guztia ortan dago, nola baliatzen geran itz oien mamiaz. Ez ezazute jaramonik egin bat-berari ere, Liburu Santuekin bat ez baldin ba'datoz, deabru ber-berari entzun ba'zenezaizkiote aña ez noski. Zeuon idurimen auletik erneak izanda ere, fedearen kontrako tentaldi bezela artu bear dira ta gogor egin egundo ere aspertzake, kenduz dijoazten, eta kenduko dira ziur asko, ez bait daukate indar aundirik.

5. Asieran esanera biurtuz, alako itzak ez dute inportantzi aundirik, naiz barru-barrutik, naiz gainekaldetik, naiz kanpotik sortuak izan, Jainkoagandikoak diran ezkerok. Nire ustez, gai oni buruz euki litezkean ezaugarriak seguruenak, ondorengo aukerak dira: lenengo ta egiatzkoena da itz aukerak berekin dakarten jaun-ndar gurena, esana ta egiña batera noski. Geiago argituko naiz. Arima bat esan dudan barruko naigabe ta naspillean murgildua dago, idor, eta adimen aldetik illunpetan; baiña onako itz batzuk entzunaz bakarrik: «etzaitz naigabetu!», goxo ta nare gelditzen da, naigabe guztitik aienatua, argiz beterik eta barne-min artatik aske: eta uste zuen mundu guztiak eta jakitunak oro alkaturik, baretu zedilla-ta ainbat eta ainbat errazoi emanaz alegiñak egin arren, ezingo ziotela atsekabe ura kendu. Beste bat naigabetua dago: bere aitor-entzuleak, eta beste batzuk, deabruaren ezpiritua daramala barne sartua, esan diote, ta izu-ikarak joa dabil; baiña onako itz bat esanaz: «Neu naiz, ez izan bildurrik!», arimea bildur gabe ta oso pozik geratzen zaizu, eta ez

dagoela iñor munduan iruditzen zaio beste gauzarik siñist-eraziko dionik. Iñoizka artu-eman batzuk kezka tzen dute, garatz astunak, ez daki nola irtengo duten; baiña barruak esaten dio ez estutzeko, onez aterako dala oro; orren ziurtasunaz geratzen da, ta naigaberik gabe. Onelaxe beste jazoera askotan ere.

6. Bigarren ezaugarria dugu ariman geratzen dan atsedean lasaia, barnera biltze samur baketsua, ta Jainkoa goratzeko naiera bizia. Oi Jauna! Zeure zerbitzari batekin esatera bialdutako itz batek olako indarra ba'du —egonleku onetan, diotenez, ez zara Zu itz dagizuna, aingeruren bat baizik—, zer ez ote du jakingo zuri buruz arimeak, maitasunez Zurekin lotua ta Zu bera rekin lotua egonik?

7. Irugarren ezaugarria da, itzok ez dirala joaten oroimenetik luzaro-luzaroan, eta batzuk egundo ere ez, ez dira aaztuten, emen sumatzen ditugunak bezela: gizonengandik entzun oi ditugunak, diot; auenak, bada, naiz-ta sen aundiko ta jakintsuenak izan, ez zaizkigu besteok legez oroimenean irartzen, ezta ez ditugu auek bezela siñisten, geroari buruzkoak baldin ba'dira. Auek, izan ere, segurantza aundi-aundiarekin uzten gaituzte; naiz-ta banaketan, oso eziñezko dirudien gauzetan, bai izango ez izango, duda-muda batzuk sortu ta adimena bera ere ezpai-laiñoz egon, arimeak ain segurantza aundia du-ta, ez dago amore egiteko, dana aitu zuenez bestera doala begitandu izanagatik. Urteak igaroko dira erabat, baiña berak beti uste du Jainkoak, azkenez, gizonak ulertzen ez diturten beste bide batzuk billatuko ditula; egingo dala, ta olantxe egin oi da. Egiteari oztopo asko jarten ikusteak, jakiña, min ematen dio; itz aiek aspaldi aditu zituen, ba, eta orduan zuen Jainkoarenak ziralako segurantza ta ondorenak igaroak diran ezkerero, ortik datoz duda ta zalantza auek, deabrua izan ote zan edo-ta irudimenaren jukutria, azpi-jokoa izan ote zan. Orain ez zaio olako dudarik geratzen, egia urari lekukotasuna ematearren ilko litzatekela baiño.

Baiña, diodan legez, irudi ta zalantza guztiok deabruak ipiñiak dira itxuraz arimeari naigabea emon eta kikil-erazteko asmoz: batez ere, aditutako itzak betetzetik arima askori on aundia ba'letorkioe, edo-ta Jainkoaren ospe ta zerbitzu aundirako egiteen sorburu ba'lirake. Zer ez du orain egingo, eragozpen astunak aurkitzen ba'ditu batez ere? Fedea beintzat makaldu egingo zaio. Eta, izan ere, gure adimenak ulertzen ez dituzten egintzak egiteko aaltsu dala Jainkoa, au ez siñistutea naiko kalte da egiazki.

8. Eraso-aldi auen erdian, norbait egonda ere gauza oiek zentzun-gabekeriak dirala arima gaixoari esango diona —bere aitor-entzuleak adierazi nai ditut, gai auek oiekin erabiltzen diralako—, eta ori ezin daitekela bete ez jazo aitzen ematen duten beste gertakari aurkako batzuk egon, beti geratzen zaio —ez dakit nun ziurta sunezko onako txiñar bizi bat, baietz diona, beste itxa ropide guztiak ilda egonik ere, ezingo lukeana, naita ere, ditziratsu ez egon segurantzazko txiñar ura. Eta, gerocnean ere, esan dudanez, betetzen da Jaunak esana, eta arimea geratzen zaigu alaia ta poz-eztitan; eta ez luke nai Jaun aundia etengabe gorestea besterik, eta au egin dionagatik baiño geiago esan dionagatik: esana beteta dakusalako, nai-ta beretzat egiña ere zer-ikusi aundikoa izan.

9. Ez dakit zein dan, arimak, itzok egia irtetzea nai duenaren errazoia. Ala ere, pertsona bera atzeman-go ba'lu norbaitek gezur-sarean, ez dut uste ainbeste pairatuko lukeanik, berak ez du ba besterik egiten esan diotena adierazi baizik. Iñorbat onako abagune ta egokieretan sarri gogoratu oi zan Jonas igarleaz, Ninibe ez zala galduko-ta bildur zanean batez ere.⁵ Gerokoan ere, Jainkoaren ezpiritua da-ta, egoki da arimeak era kutsi dezaiola bere zintzotasuna, gezurrean ez dezatela

Jon., IV.

atzeman opa izanik, egia utsa bera bait da. Orregatik aundia da artzen duen portasuna, milla aruntz-onuntz, eta gauza oso zailletan, egin ondoren, esana betea dala ikustean; arima ber-berari ortik neke-lan aundiak etorriko zaizkion arren, naiago ditu oiek sufritu Jaunak esan ziona ziurtzat daukana bete gabe geratzea baiño. Nor-tzu danak, bear bada, ez dute auleri au izango, auleria baldin ba'da, nik ezin bait dut txartzat ezetsi.

10. Olako itzak irudimenetik datozanean, ez dute auetariko ezaugarririk, ez ziurtasunik, ez pakerik eta ez barne-gozotasunik; arimea, atsedeen-otoitzean edo-ta gogozko loan sakonki murgildua egotea jazo ditekena da ta nik ezagun ditut ori jazo zaien pertsona batzuk, olakoe-tan izan ezik diot. Batzuk, izan ere, erkin-makalak dira izatez, edo irudimenez, edo ez dakit zergatik, eta bein barruratze ziñez sakon onetan santu ezkeru, berengandik irtenak egon oi dira, kanpotiko ezer ere sentitzen ez dutela egon ere, beren zentzunak daude osorik lokar-eraziak, lotan dagoen pertsona baten antzera, eta bear bada orrelaxe da, lokartuak daudela. Lo-min antzeko ontan, ba, iduri izan oi zaie, ametsetan bezela, norbait itz-egiten diela; gauzak ere ikusten dituzte, ta uste dute Jainkoagandikoak dirala; baiña, azken batean, ez dira geratzen loaren antzeko ondorioz baizik. Baita ere Berta diteke Jaunari biotz samurrez gauza bat eskatu ta nai dutena esaten dioela iruditu ere: au gertatzen da noizik bein. Baiña Jainkoaren izketaz oar-ikasiaz danari ez da errez izango, nik uste, irudimenaren auzi onetan ziria sartzea.

11. Deabruaren aldetik zer bildur izan geiago daukagu. Emen jarritako ezaugarriak ba'daude, orraitio, Jainkoagandik etorriak bezela jo ditezke ziur aski. Ala eta guzti ere, esaten zaiona gauza astuna baldin ba'da, berak edo irugarren pertsona bat tarteko dala egiteko ba'da, ez beza egundo ezer egin, ezta gogotan erabilli ere, aitorrentzule jakintsu, zuur eta Jainko-zalearen baimenik gabe, naiz berak argi ta garbi ikusi Jainkoaren

gauza dala; auxe bait da Aren Aunditasunak gura duena. Au ez da Arek agindua ez egitea, aitor-entzulea Bere lekuko dala diosku-ta: ^b itzok Aregandik datozenik ezin dezakegu ezpaian ipiñi, eta kemen aundia ekarten digute auek, agindua zailla danean bereziki. Gure Jaunak argituko du aitor-entzulea eta Bere ezpiritua dala siñist-eraziko dio, Berak nai lukeanean, eta ezezkoan, ez daude areago beartuak. Bestela egitea ta ontan norberak bere iritziari jarraitzea, gauza guztiz arriskutsutzat daukat nik. Onela, ene aizpak, gure Jaunaren izenean dei dagizuet ez dakizuela inoiz olakorik gerta.

12. Ba-da beste tankera bat nola Jaunak itz-egiten dion arimari, nik nereko oso ziurtzat joten dudana, nola dan aurrerago adieraziko dudan adimenaren alde-tiko ikusgarri pitin batekin nunbait. Ain bait da arimaren barrenean, eta argiro iruditzen bait zaio Jaunari berari entzuten dizkiola itz aiek barne-entzumenez, eta ain ixillikan, aiek entzuteko ereak berak, ikusgarriak berak egiten ditun egiñekin sendotzen du ta ziurtasuna ematen, an ezin dezakela deabruak eskurik sartu. Ortik datozen ondorenak daragiskue ori siñistera; segurantzta dago beintzat irudimenetik ez datorrenarena, eta segurantzta, ain zuzen ere, ardura pizkat baldin ba'dago, beti euki dezake ontaz, errazoi auengatik: lenengo, berezia bait da mintzoaren garbitasuna, argia oso, aitu zuenetik itz-atal bat falta ezkerro, gogoratzen da, baita artara edo ontara esana izan zala ere, gogoratzen du, esaldi osoa izanda ere bai; irudimenaren apeta ba'llitz, ordea, ez litzateke mintzo ain garbia izango, ezta itzak ere orren bereziak, erdi-amesetan entzuna lakoxea baizik.

13. Bigarrena, emen sarritan —Jainkoaren itzai buruz— ez dalako pentsetan deusik ere; ez-orduz datozela esan nai dut, eta batzutan autuan gaudelarik. Egia esan, sarri samar, erantzuten zaio burutik azkar igaro-

⁶ Lk., X, 16.

ten danari, edo-ta aurretik buruan euki danari; baiña askotan iñoiz izango etziran edo-ta iñoiz siñisgarri ere izango etziran gauzai buruzkoak zitzaizkizun, Irudimenak, beraz, ezin iñolaz ere olakorik matazatu, arimea atzipetu zedin ez irrika, ez gura, ez ezagutu ez nuena siñisgarri bihurturik.

14. Irugarrena da, arimea Jainkoaren itzetan en tzuten duen pertsona legez dalako, eta irudimenarenean ordea, apurka apurka, esan naiko lukeena berberak eratu tuko ba'lu bezela duzue.

15. Laugarrena, itzak oso bestelakoak diralako; itz oietako batekin gure adimenak une ain laburrean eratu lezakean baiña askoz geiago ulertzen da.

16. Bostgarrena, itzakin batera sarri, nik nola azaldu ez dakidan moduan, eurak itz gabe ots dagien baiña naikoa geiago ulert-erazten datelako. Ulert-era onetzaz beste toki batean ari izango naiz are geiago, gauza oso samurra ta gure Jauna goratzekoa da-ta. Ulertzeko era berezi aueri buruz, ba-dira pertsona guztiz zalan-tzazkoak, batez ere ortik igaro diranen arteko bat: eta orrela izango dira beste batzuk erc, adiz artzera eldu ez diranak. Pertsona ark ba-dakit arreta aundiz aztertu duena gauzea, asko-askotan artu bait du Jaunagandik mesede au, eta berak zeukan dudarik aundiena, lenengotan batez ere, irudimenaren jokoren bat ote zan, besterik etzan. Deabrua izan ezkerro, azkarrago ulertzen da, naiz-ta mee-zorrotz jokatzuz oso ederki jakin argiaren ezpiritua antzeratzen; baiña au, nire ustez, itzetan bakarririk izango, argi-argi esanaz, egiaren ezpirituan bezela ulertu ziran ala ezko dudarik geratu ez dadin. Ala ere, ezingo ditu eguno gorago esandako ondorenak antzeratu; eta ez du arimea pakez ta argiz jantziko, naspildu ta kezkarazi baizik. Arimea apala baldin ba'da, ordea, maltzuraren iskamilla ta zirikada aiek ez diote kalte aundirik egingo, edo-ta bat ere ez; esan dudanez, ari meak ez beza, ulertzen duen ezergatik, bere kabuz ezer egitera jo.

17. Jaunaren mesede ta graziak ba'dira, begira beza arimeak zur ta zoli orregatik ohea dan ala ez; eta entzuten ditun itzak maitagarriagoak, lotsatuago gertzen ez ba'da, uste izan beza ez dala Jainkoaren ezpiritua. Izan ere, ziur-ziurra bait da, Arengandiko ezpiritua danean, mesedea aundiagoa ta arimeak berak gutxiagotzat daukala bere burua, geiago gogoratu oi ditu bere pekatuak, aaztuago dabil bere gauzez, bere naimena ta oroimena zoliago Jainkoaren aintza ta ospea bakar-bakarrik gura izatean, saiets uzten ditu berekiko irabaziak, ezertan ere bere naimena ez okertzeko ardura geiagoz ari da, eta mesede aiek, infernua baiño, sekulan etzitula merezi izanda, segunrantza aundiagoaz doa aurrera. Otoitz-aldian izango zituzken doai ta mesede guztiak ondoren aukerri ezkerro, ezpei arimea izuan sartua ibilli, Jaunaren errukian uste ona ipiñita baizik; Jauna zintzoa bait da, ez dio deabruari arimeari zirria sartzen utziko, nunnai ta beti bildurrez ibiltea ona badank ere.

18. Jaunak bide ontatik ez daramazkien arimak pentsa dezakete, bearbada, doaitutako oiek beren eskuan daukatela esaten dizkien itz aukerri ez entzutea, eta barnekoak ba'dira, gogo besteratu onartu ez ditezken neurrian, eta taiu ontan olako arrisku gabe ibilli dira ziur asko. Oni erantzungo diot, eziña dala. Ez naiz emen mintzatzen kasketaldi batetik sortu ta, jaramonik ez egiñez eta gurari gogorregirik ez eukiz, sendatzen diranei buruz. Baiña besteai dagokienez, ez da orrela, ^{min}tzatzen dan ezpiritua bada gogoeta guztiak geldi-azten ditu, esaten danari adi-adi ipiñirik; erabat uste dut, eta orrelaxe dala siñisten, errezago litzakela ondo entzuten duen pertsona bati beste batek abots zoli itz-egiñaz ez entzutea baiño; onakoak, be, alderatu dezake adiera ta beste gauza baten jarri gogapena ta adimena. Baiña ari geran ontan eziñezkoa da ori, emen ez bait dago belarririk estaltzeko, ezta indarrik ere pentsatzeko, esaten zaionean ezik. Eguzkia geratu zuenak, Josue'ren es-

karira uste dut,' geldi-azi ditzake gure aalmenak eta gure barru osoa. Emendik ezagutzen du arimeak bera baiño beste Jaun aundiago batek jaurri ta zuzentzen duela gaztelu ura: apaltasunez eta biotz-garrez plen-plen jarten du onek. Ez dago, ba, ez ulertzeko atxakirik. Bemaigu Jaun aundiak grazia Beta bakarrik pozterazi dezagun, eta, esan dudanez, geuron buruz aaztu gaite zen. Olantxe. Eder bekio Berari nik ontan nai izan dudana alik ondoen adierazia izatea, eta bedi nolabait ulerbide grazi onen jabe danarentzat.

IV IDAZPURU

Gaza: Jaïnkook nola jarten duen arimea etenaldian, zentzun-galtze, gaiñezkaldi ta zora-bioen bitartez: nire ustez, dana da bat. — Jau-nagandiko mesede aundiak artzeko, adore ta kemena bear dala.

1. Lan auekin eta esan ditudan beste gauzakin, ze pake ta egoarri izan ote dezake mitxeleta gaixoak? Da na zaio bere Senarra gozatzea gero ta biziago nai izan dezan; eta Jaunak, gure makaltasuna ezaguturik, gauza auekin eta beste askokin arimea gai egiñaz doa, Berarekin allcartzeko adoretu dadin, bere Senartzat arturik.

2. Zuok bear bada parre egingo duzue ni onela mintzatzen naizelako ta zentzun-gabekeriak esaten ari naizela irudituko zaizue; zuotariko edozeiñi, izan ere, irudituko zaio ez dala berarizko kemenik bear, emakumezko bat-bateri ere, ba, zirtzilla izan arren, etzaio

faltako guraria errege batekin ezkontzeko. Lurreko errege batekin baldin ba'da, nik ere orrela uste dut, baiña zeruetakoarekin, nik diotzuet, zuek uste baiño adore geiago bear dala; doai ta mesede ain aundien aurrean, gure izatea guztiz bildurtia ta matxarra bait da. Eta ziurtzat dut, Jainkoak kemenez adoretu ezik, au eziña izango litzatekela, zeuek ikusi zenitzaketen on-bikaintasunak ikusita ere. Ikus orain nola burutzen duen gure Jaunak ezkontza. Au jazo oi da, nik uste, arimea otoitzean, zentzunetatik aterata, birloratua jarten duenean; arimeari, ba, zentzunak erabilliz, Jaun aundiaren ain urbil ikustean, ez litzakio aal izango noski bizitan irautea. Baiña benetako zentzun-galtzeak izan daitezela gero, eta ez emakumezkoen auleriak, emen dauzkagun lakoak, au ta bestea korde-galtze, gainezkaldi ta olakotzat arturik. Eta, leen esanda utzi dudanez, ba-daude gure artean izate ain aulekoak, otoitz geldi batekin ilten diranak. Jende barne-zale askorekin artu-emanan izan dudan ezker, emen adierazi nai ditut nik ezagutzen ditudan zentzugaltze ta birloratze era batzuk. Ez dakit au beste toki batean idatzi nuen bezin argi azaltzera irritxiko naizen; ⁸ auek eta emen doazen beste gauza batzuek egoki derizkiot berriro ere emen aipatzea, besterik ezpada ere, egoitzak emen alkarrekin joan ditezten.

3. Beste birlora-era bat auxe da. Arimea, otoitzean egon ezta ere, gogora datorkion edo entzuten duen Jainkoagandiko itz batek ikutua sentitzen da; Jainko Jaunak, itxuraz, arimeak Beragatik eraman dituen neke-lanekin kupiturik, barrunean piztu-azten diola dirudi in̄piz aipatu dugun su-txingar bizia; olan, su goritan geratzen da eta berriztatua osorik, Fenix egaztia bezela, eta kupi-bera siñistu dezakegunez, barkatuak bere erru guztiak, bear diran egokiera ta tartekoekin beti ere, ta Elizak onartuta dauzkan zer-nolak beteaz noski. Orrela garbitua, Jaunak beregana bildu ta atxikitzen du, beste

⁸ *Bizitza*, XX aizal.

iñork ere, beurak biak ezik, nola ez dakitela. Arimeak berak ere ez daki, gero adierazoteko moduan beintzat, barruzentzun gabe egon ez arren; emen ez da, norbait zoraioan edo sumiñean erorita, gauzarik bat pitsik ez barrukorik ez landakorik ulertzen ez duenaren antzera.

4. Nik aditzen dudanez, arimea etzan egon iñoiz ere orren ernai Jainkoaren gauzetarako, ezta ainbeste argi ta Aleri buruzko ezaugeraz jantzia, kasu onetan aiña diot. Au eziñezkoa irudituko zaizue bear bada, zentzunak eta aalmenak izan ere orrela lilluraturik ba' laude, ilda lez esan dezakegu, nola jakin daiteke arimeak ezkutu ori ulertzen duenik? Nik ez dakit, ezta agian beste izakik ere, Egilleak berak baizik, egoera ontan gerta oi diran beste ainbat gauza bezela, bi azken egoitzotan esan nai dut; onen eta azkenengoaren artean ate itxirik ez bait dago, ederki alkartu litezke. Biok banantzea ondo derizkiot, azkenengoan ba-daude-lako oraindikan araiño eldu ez diranci adierazi ez zaizkien gauzak.

5. Jaunari on derizkio, arimea etenaldi ontan da-goelarik, oni ezkutu batzuk erakustea, adibidez, zerutiar gauzak eta irudimenezko ikuskariak, auek gero ederki daki adierazten; auek, izan ere, egundo ez aaztutzeko eran geratzen zaizkio oroimenean josita. Baiña adimen-ikuskariak diranean, arimeak ez daki nola aitzen eman: garai ontan gauza arrigarriak jazo oi dira, itxura danez, lur gaiñean bizi diranak esateko moduan eurak ulertzea egoki ez zaienak. Ala ere, arimea bere senera danean, onako adimen ikuskari asko iragarri dittezenak dira. Ba' liteke zuotatik batzuk ikuskaria zer dan ez ulertzea, adimenezkoak batez ere. Garai ez esango dizuet, ortarako eskubidea duenak agindu bait dit; eta gauza ez-ordukoa dala iruditu izan arren, arima batzuntzat onik askokoa izango da bear bada.

6. Esango didazue, bada: Jainkoak or arimari egi-ten dizkion mesede auetaz gero gomutarik ere izango ezpada, ze probetxu ote dakarkioe? O, ene alabak!

Aundia da-ta, ezin daiteke gorai patu; mesede auek, beste aldetik, esaten jakin ez arren, ondo idatzita geratzen dira arimearen barren-barrenean, eta ez dira egundo ere aaztutzen. Baiña irudirik ez ba'dute, ta aalmenak ere ulertzen ez ba'diturte, nola ekarri litezke gogora? Au ere ez zait buruan sartzen; baiña ulertzen dut, Jainkoaren aunditasunari buruzko egia batzuk ariman ondo errotuak geratzen dirala, eta fedea esango ez ba'lío ere nor dan eta Jainkoari siñistuteko beartua dagoela, orrelakotzat gur-egingo lioke une artatik, zu rubia ikusiaz Jakob'ek egin zuen bezela.⁹ Berarekin ulertu zitun apika beste ezkuu batzuk, esaten jakin ez zitunak; aingeruak gora ta beera zebiltzan zurubi bat ikusteaz bakarrik, barne-argitasun geiagoz argitua izan ez ba'litza, ez zitun iñolaz misterio ain aundiak ulertu al izango.

7. Ez dakit ondo noan diodanarekin, au entzuna dudanagatik ba ez dakit ondo gogoratzen zaidan. Moises'ek ere ez zuen jakin sasia ikusi zuen guztia esaten, esan zezala Jainkoak gogo izan zuena baizik:¹⁰ Jainkoak agertu ez ba'lío bere arimari ezkutuki aundiak, segurantz aunditan, Jainkoa zala ikusi ta siñistu zezan, etzan jarriko ainbat eta ain lan aundietan; baiña erreten zegoen lar-sasi aren barnean ain gauza izugarriak ulertu bait zituen, auek bizkortu zuten Israel erriaren aide burutu zizkigun egitsari bikaiñak egitera. Onela bada, ene aizpak, ez gaitezen geiegi leiatu Jainkoaren gauza ezkutua ulertzeko errazoi billa, baizik-eta altsua dana dakigunez, argi dago ez dugula uste izan bear gu lako aal-izate gutxiko arrak ez ditula ulertu bear Aren aunditasunak. Gores dezagun etengabe, batzuk beintzat guk ere jakitea opa duen ezkeru.

8. Aurkitu gogo dut, irrikaz ala ere, adibide edo

A.s., XXVIII, 12.

¹⁰ *Irr.*, DTI, 2.

antzeko bat, esanaz noan ontatik zerbait aitzen emateko egoki litzakena, baiña ez dut uste aiutu ta erazkorik dagoenik; ala ere dasagun au. Errege edo aundizki baten gelan —aldagela uste dut deritzatela-sartzen zerate; leiarrezko konta-ezin ala gauza dauzkate berton, burtin-ontzi ta beste tresna asko, ai n eratsu ta egoki ipiñirik dauden ezkerok, ia danak sartuaz bakarrik ikusten dirala. Bein onako gela batera eraman ninduten Alba'ko dukandarearen etxean: bidez nentorrela, nausiak agindu zidan, deika zegoela-ta, joan nendilla aren etxera. Sartu besterik ez, zurturik geratu nintzan, eta pentsatzen zertako balio ote zuten naas-maas aiek: aibat eta ainbat eratako gauzak ikusiaz Jauna gores zitekela ikusten nuen, eta orain eder jausi zait ontarako nola datorkidan bera ikusiz. Denbora zati batean an egon nintzan arren, ainbeste bait zan an ikustekoa, bertatik aaztu zitzaidan guztia; gauzaki aietatik ez zitzaidan ezertxo ere gogoan geratu, iñoiz ikusi ez ba'nitu bezela, ez nuke jakingo ze egikerakoak ziranik ere, esateko moduan beinik-bein. Goibel-ixurian, ikusi nitula bakar-bakarrik gogoratzen naiz. Orrelaxe emen ere. Arimea Jainkoarekin zer bat-bakarra egiña egonik, eta geure arimen muiñean euki bear dugun zeru goitiko gela ontan sarturik noski, Jainkoa geure baitan dagoen ezkerok, argi dago egoitza auetatik bateren bat daukala. Naiz-ta arimea onela zentzun gabetua aurkitzean Jaunak ez Bion antza berari beti erakustera ematerik nai —Jaunaren beraren goxotasun ez-tian murgildua bait dago, ta ondasun ai n aundiaz naiko duelako—, batzutan nai izaten du zorabio ortatik irten dedin, eta azkarki ikusi dezan bizileku artan zer dagoen. Eta orrela gero, bere senera biurturik, ikusi zituen aunditasunen arritze ta zauzkadak aurrean ditula geratzen da, baiña aietatik ezer esateko gai ez dala, ta bere izatea, Jainkoak ikustea nai izan duen baiño geiagora, izatez gaiñetik nunbait, irixten ez dala.

9. Orduan ikusi izan zala aitortzen dut, eta irudi-

menezko ikuskaria dala? Ez dut au esan nai, alegia, au ez bait da esku artean darabildan arazoa, adimen-ikus-kariari buruzkoa baizik; nola naizen eskola gabea, nire lotutasuna ez da geiagorako: otoitz oni buruz orain arte esan dudana, argi dakust, ondo ba'doa, ni ez naitzela esan dudana. Nik neretzat dut, Jainkoak eman oi ditun zentzun-galtzeetan, arimeak noizik bein ulertzen ez baldin ba'ditu ezkutu auetatik banaka batzuk, oiek ez dirala benetako zentzun-galtzeak, gu emakumeok lez izate argalekoai etorri oi zaien berezko auleriaren ondorenak baizik; onakoak, ba, atsedenezko otoitzean esan nuela uste dudana bezela, ezpirituak indar pizkatekin berezkoari geiago egin orduko, bilbil eginda geratu oi dira. Baiña agerkari aiek ez dute zer-ikusirik zentzun-galtzeekin; auek daudenean, bada, siñist ezazue, Jainkoak arima osoa bere baitaratzen du, ta gauza bere-berea ta orezkero bere emaztea, bere ondasuna da lako, irabazi duen erreñu aren zatitxo bat erakusten dio. Zati ura, txikia izanik ere, beti da aundia, Jainko onengan aurkitzen dan guztia aundi dugun bezela. Berak bitartean ez du nai nasterik ez iñoren iskanbillik, ez aalmenetan, ez zentzunetan; Laster agintzen du egoitza auetako ateak oro ixteko, ta zabalik Bera dagoena geratzen da bakar-bakarrik, bertan sar gaitzen. Donetsia bedi erruki ain neurri gabea! Baita bidez dirake gaiztetsiak, orrez baliatu nai ezta, Jaun au galdu zutenak.

10. 0, ene aizpak! Ez da, ez, ezer utzi genuna, ezta egiten duguna ere, eta egin al duguna berdin, ar batekin orrela artu-emanen bizi nai duen olako Jainkoagatik! Eta bizitza ontan ere ainbesteko ontasunaz gozatzeko itxaron dezakegun ezkerro, zer egiten dugu? Zerk gauzka? Zer daiteke aski, guri Jaun au billatzea, unetxo baten ere, utzi-azo ligukenik, emazteak kale ta plazetan zear" ibilli zan bezela gu ibiltetik noski? A!

¹ *Abest., III, 2.*

munduan dagoen oro bai dala irri-karkara, ontaraiño eldu-azteko ta laguntzeko ezpalitza! Bertako atsegiñak, aberastasunak eta goxoak, iruditu genitzaken bezin ugarriak izan eta beti-beti iraun, azken barik gozatuko diranekin alderatu ezkerero, ez dira besterik gogaindura ta satsa baiño! Ez auk ere ez dira ezer altxor guztien Jainko Jauna, geuretzat eukitea berdiñean jarri ezkerokoan.

11. Oi, giza-itsukeri! Noiz kenduko, noiz kenduko ote au gure begietatik? Naiz-eta gure artean uste ez izan lur onek guztiz itsutzen gaituanik, nik ikusten ditut samar batzuk, arri-izpi batzuk, azten utzi ezkerero, kalte aundia egiteko naiko diranak. Jainkoaren maitasunaren, aizpak, bide ditzagun akats auk geure ezereza ezagutzeko, eta beurak bemaigute ikusmen ohea gure Senarrak ¹² sendatu zuen loiak itsuari eman zionez. Olan, guk ain ez oso ta guztia bearreko geure buruak ikusirik, geitu dakigun geure ezerezetik Arek ona atera dezala geiago eskatzeko gogoia, guztitan poza eman dezaiogun Aren Aundisunari.

12. Koniuratu barik askotxo zeartu naiz. Barka ene aizpak; siñistazue, ba, Jainkoaren aunditasun autarra iritxiz gero —beurotaz mintzatzera diot—, nik utzi ezin dezakedana da, asko-asko mindu gabe, guk geuron erruz galtzen duguna. Izan ere, naiz egia izan Jaunak berak nai dionari egiten dizkiola gauzok, guk maite ba'genu Jainkoa Berak maite gaituen neurrian, guztioi egingo iizkiguke. Ez du beste ametsik, nori emana eukitea baiño: origatik ez dira gutxiagotzen Aren aberastasunak.

13. Arestian esan nuenera itzuliaz orain, Senarrak agintzen du egoitzetako atek itxi ditzatela, eta baita gatzeluko ta inguretakoak ere. Alaxe, arima au

¹² Jo., IX, 6 ta 7.

beregandik atera nai izatean, arnasea galdu oi du onek eta, naiz-ta beste zentzunak batzutan geitxoago iraun, ezin da inñolaz ere mintzatu. Beste batzutan, ostera, berealakoan galtzen du zentzun oro: gorputza ta eskuak otzitu egiten dira, arimarik ez daukala esateko moduan, eta bein edo bein arnasarik daukanik ere ez zaio igar ten. Onek gutxi iraun oi du, beti mailla berdiñean, esan nai dut; konorte galtze au apur bat kendu ezker o, ba, gorputza bere senera datorrela zerbait dirudi, eta arnasa artzen duela, baiña berriro ere itzali ta arimari bizi aundiagoa ezartzeko. Alan eta guzti ere, onako lilluratze aundiak ez du luzaro irauten.

14. Baiña gerta oi dana duzue, lillurapen ori joan arren, naimena geratzen dala guztiz txikortua, eta adi mena ere sorgortua oso. Arimeak olantxe jarraitzen du egun batean, edo egunetan, eta ez da gai, itxura danez, ezer ulertzeko, naimenari maitatzera eragin-azteko ezik; bera, berriz, ernai dago asko-ainbat ortarako, ta lo-zorro tua izaki bat-bakarri lot-azten uzteko.

15. Oi!, nastua bai geratzen dala arimea, zentzun galtze ostean, osorik bere seneratzen danean! Nolako gurari biziak Jainkoaren zerbitzuan ari izateko, Jaun onak, berak zerbitzea nai lukean era guzti-guztietan! Leengo otoitzetatik azaldu ditudan olako ondorioak geratzen baldin ba'dira, nolakoak ez dira izango au lako mesede orren aundiarenak? Milla bizitza nai lituzke danak Jainkoaren aintzan urra ditzan, eta lurrean dau den gauza guztiak ere mingaiñ izan ditezela berarekin batera Jainkoa goretsi dezaten. Baita penitentzi egiteko naikari bizi-biziak ere; eta ez du asko sufritzen aurok burutzean, barne daraman maitasun-indarrez, ba, dagian oro sentitzen du, eta martiriak berak jasaten zituzten oiñazeekin ez zutela askorik egin oi, argi ikusten du, gure Jaunak ontan ematen duen laguntasunaz, errezak dira-ta. Onako arimak, beraz, Jainko Jaunagana illeta-ka joan of dira, zertan jasan, sufridu ez dutenean.

16. Esker aukeratu izan diren, mesede aunditzat dauzkate arimak; norbaitzuen aurrean diranean, aldiz, lotsa-gorria ta aalkea geratzen zaie, eta onek nolerebait gozau zuenetik bereganatu oi du arimea, ikusi dutenak zer uste izango duten pentsatzeak dakarkion naigabe ta arduratan. Ezagutzen dute bai munduaren gaiztoa, eta ba-dakite ez dutela ausaz mundutarrak gauzea dan bezela epaituko, baizik-eta, Jauna goresteko bide zitzaiena, gezur-iritziak eioteko era ona izango dutela bear bada. Naigabe-lotsa au nolabait apaltasunik ezaren frutua dala deritzait; baiña ez dago bere eskuan. Izan ere, beztua izan nai badu pertsona onek, zer dio axolik? Naigabe onetan aurkitzen zan bati gure Jaunak onela esan zion: *Ez zaitetz samindu, edo eurak, ba, goretzi bear naute, edo-ta zutzaiz gaizkei esan; eta gauza biotatik edozein dala, zeuk irabazten duzul.* " Gero jakin nuenez, pertsona au asko poztu to bizkortu zan itzokin, eta zuetatik bat-edo-batek ikusiko ba'lu ere bere burua onako naigabea, jarten dizkizuet emen. Agi danez gure Jaunak nai du guztiak uler dezatela arima ura onezkero berea duela, eta iñork ere ez diola ikuturik egin bear. Bere gorputzari, entzute onari, ondasunai bejondaiola!, guztitik aterako da dedua Aren Aunditasunarentzat; baiña ariman, ori ez! Berak, ausardi ta erru aundiz, uzten ezpadu bere Senarra, Onak ez; mundu guztitik soil-soilki gerizatuko, baita infernu guztitik ere babestuko du.

17. Ez dakit zentzun galtzeari buruz ezer argitu gabe geratu ote dan; esker au oso-osorik, esana dut, eziña da; berari buruz mintzatzeaz ere ez dut uste ezer galdu danik, zer dan egiazki ulertua izan dadin, ondoren oso bestelakoak bait daude gezurrezko zentzun-galtzetan. **Ez** diot gezurrezkoak, dauzkanak ez bait du atzipetu nai, bera okerrean dagoelako baizik. Eta orren

¹³ *Bizitza*, XXXI atzal.

ezaugarriak eta ondorenak mesede ain aundiarekin bat ez datozelako, guztiz beztua geratu da, ta errazoiz ez zaio siñisten gero Jainkoak egin dionari ere. Bedeinkatua ta goretsia izan bedi Bera betieren betierean.

V IDAZPURU

Gai berdiñean diardu, ta beste zentzu-galtze bateri buruz mintzatzen da: leen esan danaren eran ez baiña, ezpirituaren egazkadaz Jainkoak arimea jasoten duenekoa noski. — Kementa bear dala dio, onakoetan. — Jaunak guztiz egiten duen mesede ontaz zerbait. — Onuratsua da oso.

1. Ba-dugu beste zentzun-galtze bat ere, nik espirituairen egazkada deritzaiodana: mamiz dana berdiña izanik ere, gure barnean ez da iñolaz berdin nabaitzen. Bat-batean, noizik-bein, arimaren bultzada bizi-bizia sentitzen da, ezpiritua arrapaka kendua izan dala esan daiteke, eta onek, lenengotan batez, azkar ere azkar bait da, bildurra sartzen du ta ez gutxi. Augatik esaten nizuen, Jainkoak esker au egin bear dionak biotz adoretua bear duela, baita fede ta uste on osoa ere, eta eraman aundia Jaunaren besoetan, Berak gogo duena egin dezan arimarekin. Nasmen txikia dala uste duzue bere zentzunean dagoen pertsona batentzat, arimea arrapatzen diotela ikustea? Eta batzutan gorputza bera ere bai, norbaitzuei jazo zitzaiera irakurri dugunez, nora doan, nork eta nola daraman ez dakila, bat-bateko bultzada onen asieran ez bait dago Jainkoarena danaren ziurtasun geiegirik.

2. Eta ba ote dago oni arpegia eman dezaioken indarririk? Ezta, iñolaz ere; txarrago zenuke: nik badakit norbaiti zer gertatu zitzaion. Izan ere, ainbat bider eta orren apalki Jainkoaren eskuetan jarri izan dan arimea, eta orain gogo guztiarekin Ari osorik eskeiñia dagoena, Jainkoak ezaguterazi nai diola dirudi onezkero ez dala bere buruaren jabe, eta beraz arrapatua da dudarik gabe bat-bateko indarrez. Arimeak, geroztik, erabaki zuen ezer ez egitea, atxabitxik jaso dan lastoak —iñoiz ikusi ba'duzue— egin oi duena besterik: ain altsua dan Aren eskuetan bere burua utzi gauzarik onena bearretik birtutea egitea dala iruditzen zaio-ta. Lastoa esan nuen ezkerro, orrelaxe da izan ere: gizatxar batek lasto-izpia gora dezaken bezin aisa, gure erraldoi aundi-aaltsu onek gogoia erauzi oi digu.

3. Esan genduan ur-aska ura —laugarren egoi tzean uste dut, ez bait naiz ondo gogoratzen—, " guztiz leun flare, zirkin bagerik diot, beteten da; emen askatu zitun Jainko aundi onek, ur-sorburuak geldiazi ta itxasori bere ertz-mugetatik irtetzen uzten ez dionak, alegia, aska ontara ura zetorren iturbegi guztiak, eta ortik ur-tirain izugarria sortzen da oldartsu, eta gorantza jasoten da gure arimearen ontzixka. Ontzia ez da gauza, naiz-ta lemari ta ontzia zaintzen duten guztiak indartsuak izan, indarrez datozen olatuak nai duen lekuan eutsi ta neurria emateko; orrelaxe arima-barruak ere eziñia du nai duen lekuan geldiazi ta bere zentzun-aalmenak aginduta daukatena baiño geiago egitea. Gorputzari dagokionez, emen etzaio jaramonik egiten.

4. Aitortzen dizuet, ene aizpak, au idaztearekin bakarrik, arri ta zur egiñik nagoela Errege ta Agintari aundi onen aal-izatea nola agertzen dan ikusiaz. Zer izango ate du ortik igaroten danak? Nik neretzat dut, munduan guztiz galduta dabiltzanai gure Jainko Jauna

arima aueri bezela agertuko ba'litzaie, maitasunez ez baiña bildurrez ez litzaizkioke irain gaiztoz bezten ausartuko. Askoz beartuago daude, ba, Jaun oni ezertan ere gogait ez eragiteko alegiñak alegin ditzatela mirresgarriro jakin-aziak izan diranak. Beragatik, eskatzen dizuet, aizpak, gure jainko Jaunak onako edo antzeko mesedeak eginda zaudetenoi, ez dezazuela, arren, artu besterik. Begira, asko zor duenak, asko ordaindu bear du. is

5. Onetarako ere bearrezko da adorez agertzea, latz-ikara eman oi duen egia da-ta. Jaunak biotz sendoa emango ez ba'lio, beraz, naigabe aunditan ibilliko litzateke beti. Berak, Jainko Jaunak berarekin egiten duena gogoemanetz, eta bere baitara itzuli ta egin bear lukeanari buruz ain gutxi, ta egiten duen gutxi ori ere akatsez, etenez eta lazokeriz egiten duela ikusirik, lotsa aunditan geratu oi da. Eta olantxe, egintza onen bat baldin ba'dagi, ain txarto egin oi ditula ez gogortzearren, obetzat dauka ta alegiñak egiten ditu bera aaztuteko, bere pekatuak gogoan ekarriaz eta Jainkoaren errukiaren gain bere burua utzirik. Ez bait dauka zerekin ordaindu, egin bezate ordezkoa Aren ontasun eta errukiak, pekatariekin beti izan zuelako.

6. Jainko Jaunak emango dio bear dada, auxe be-
raugatik guztiz naigabetuta, Kristo gurutzean josiaren aurrean nola egundo ez zuela Jainkoari zer emanik euki, ezta Beragatik zer utzirik ere, buruan irauliz zegoen arako bati eman zion erantzuna. Kristo gurutz-iltzatuak berak esan zion, naigabez zegoena poztu nairik, Berak ematen zizkiola Berak bere Nekaldian izan zituan atsekabe ta neke-oiñaze guztiak, ar zitzala bereztzat, bere Aitari zezaizkion eskeiñi. Arima ura guztiz portua ta aberats geratu zan, beregandik jakin dudanez, artu zuen mesedea iñoiz ere ez aiztutzeko eran; bestera, bere burua orren zirtzil eta ezerez ikusten duen bakoi

^{is} Luk., XII, 48.

tzean, ura gogora ekarririk, bizkor eta alai biurtzen da. Onako gauza batzuk adieraziko nituzke emen, pertsona on otoizlari askorekin artu-emanak eukitakoa naizen ezkerero, ari ortako asko dakizkit-eta. Baiña nere buruaz nabillenik uste izan ez dezazuen, ez dizkizuet kontatuko. Esandako jazoera probetxu aundikoa iruditzen zait, batez ere jakin dezazuen noraiñoko poza artu oi duen gure Jaunak gu geure buruak ezagutzen leia oi generala ikustearekin; au da, geure bearra ta ezereza etengabe begi aurrean ekarriz, geurez ez dugula ezer artua ez dugunik. Ortik, ba, ene aizpak, ontarako ta Jaunak mailla onetan jarri duen arimeari aurrean ipinten zaizkion beste gauza askotarako, kemena bear da naitaez; eta azken ontarako, nere ustez, ezertarako baiño geiago, apaltasunik baldin ba'dago. Bemaigu Jauanak dana delako.

7. Natorren orain aipatu dudan ezpiritu jasotze bat-batekora. Ezpiritua, izan ere, gorputzetik urten egiten dala dirudi. Beste aldetik argi dago pertsona ez dala ilten; lipar batzuetan, baiña, berak ezin dezake esan beintzat bere arimea gorputzean aurkitzen dan ala ez dan aurkitzen. Oso-osorik noski, beste toki batera aldatua izan dala ta bizi garean lur-gaiñ ontan barik, bestelakoan egon dala iruditzen zaio; emen agertzen zaio bertokoaz bestelakoa dan beste argi bat, berak bizitza guztia egingo ba'lu ere beste gauza batzuekin batera uraxe eskuratzeko egiñalak egiten, eziña izango litzaio olakorik lortu al izatea. Unetxo baten ainbat gauza erakusten bait zaizkio danak batera, bere irudimen eta pentsamentuz eurak ganoraz jarten urte luzeetan ari izango ba'litza ere, milla zatitik bat ez luke bear bezela jarriko. Au ez da adimen ikuskaria, irudizkoa baizik, emen gorputz-begiekin ikusten dugun baiño askoz obeki arimakoekin ikusten dana, eta itzik gabe adierazten zaizkio gauza batzuk: santu batzuk ikusten diran bezela diot, ondo ezagutzen ditu, eurakin sarri egon ba'litza legez artu-emanen.

8. Beste batzuetan, arimaren begiekin ikusten diran beste gauza batzuekin batera, adimen ikuskariz beste batzuk agertu oi zaizkio aurrean, aingeru-taldeak batez ere, beren Jaun eta Jabeak lagunduta. Auek eta beste gauza arrigarri asko esateko ez diranak agertzen dira aurrean nik adierazten ez dakidan ezaugera miress-garritan, gorputzeko ez arimako begiekin ezertxo ere ikusi gabe. Oietatik ibilli danak eta nik baiño trebeago danak, jakingo du bear bada nola diran azaltzen, zailla iruditzen zaidan arren. Au gurti au jazotean, arimea gorputzean dagoen ala ez, nik ez dut jakingo esaten; ez nuke beintzat ziñik egingo gorputzean dagoela esanaz, ezta gorputza arima barik dagoenik ere, ez nuke esango.

9. Ona sarri gogoan izan dudana: eguzkiak, zeru goian egonik, bere erraiñuak, aldatu gabe, bat-batean lurrerañño bialtzeko indarra ba'du, arimeak ere —gauza berdiña, eguzkia ta bere erraiñuak bezela, ezpirituz egiten duenak—, ezin ote dezake bear bada, Zuzenezko Eguzki egiazkoagandik datorkion indarrez, goikaldeko zatiren bat bederen bere gaiñ altxatu, augatik bere oiko lekua utzi gaberik? Nolanai ere, nik ez dakit zer diodan. Egia auxe dugu: su-ematen diotenean, pirloa txispatik irten oi dan bezin azkarki, egaldi bat jaikitzen dala barnean —nik ez dakit izenik oni jarten—, eta zaratarik ez-ta ere, iñolaz kasketaldi izan ezin diteken mugimentua egiten du argi ta garbi; eta arimeari, ulertu dezaken guztitik kanpo dabillega, gauza aundiak agertezazten zaizkio; baiña, bere senera itzulirik, obari ta jaiotasun itzelakin aurkitu oi da, eta ikusi ditunakin alderatuz satsa ta simaurra iruditzen zaizkio lurreko gauza guztiak; eta geroztik miñez bizi da lur-gaiñean, eta leen onak iruditzen zitzaizkion gauzetatik ez du ezer aurkitzen interesgarri zaionik. Jaunak, antza danez, joan bearra duen lurreko zerbait erakutsi nai izan dio, Israel errikoak ¹⁶ eskeiñitako lurraldera bialdutakoak

¹⁶ Zen., XIII, 18-24.

ere ezaugarriak eraman zituzten antzera edo, bide neketsu ontako naigabe ta lorrak, atsedeen-billa nora doan jakiñik, igaro ditzan nunbait. Ain, azkar igaroten dana probetxu aundikoa zuoi iruditu ez arren, guztiz aundiak dira ariman uzten ditunak: ortik ibilli ez danak ezik, ezta errez ulertzekoa oien balioa.

10. Ondo ikusten da emendik ez dala deabruaren gauza. Eziña da irudimenaren frutua izatea. Deabruaren itxurapenak ere ez dira gauza ondoren ain garbiak ekar-teko, ezta arimea aserik nabari dan pake, eragin, poz-tasun eta onura ezar-azteko ere. Are gutxiago utziko lizkio iru zer auek mailla orren goian: leenen, Jaungoi-koaren aunditasuna ezagutzea, zenbat eta bada bertan zer geiago ikusi, geiago adierazten zaigu; bigarren, apal-tasuna ta geuron buruak ezagutzea, izaki orren zirtzi-lla gauza ain aundien Egillea iraintzen ausartu dala gogo emanik, Ari begiratzeko ere ez du kopetarik; iru-garren, lureko gauza guztien nardakeri ta destaiña, Jainko ain aundiaren zerbitzurako egoki-onak ez lira-kenak.

11. Auek dira Senarrak bere emazteari ematen asten dan pitxi-sailla. Eta pitxiok balio aundikoak bait dira, emazteak ez ditu iñoiz ere galtzeko moduan utzi-ko; ikusi duen ura, ba, josirik oso geratzen zaizkio oroimenean, eta nik uste dut eziña zaiola bera aaztutea, beti-betikoaz ortaz gozatzera iritxi arte. Kalte izugarria litzakio, izan ere, ortaz aaztutea. Baiña olako dpez jantzi duen Senarrak ba-du al-izatea galdu ez dezan grazia emateko ere.

12. Orain, bada, egoera ontan eskatzen dan ado-rera itzuliaz, gauza arin bat dala uste al duzue? Ariña ta funts gabea ote da, arimeak gorputza uzten duela ikustea, zentzunak galtzen dira-ta, egiazki galdu ere, eta zergatik dan ez jakitea? Betor bai adorea, kemena gaiñerakoak eman oi ditunagandik. Zuek, baiña, esan-go didazute bildur au ondo ordaindua dala; orixe diot

nik ere. Betiko goratzarrea ainbeste eman aal due-nari. Eder bekio gure Jaun aundiari guri ere ematea, Beronen zerbitzuan ari izatea merezi izan dezakegun. Alabiz.

VI IDAZPURU

Aurreko idazpuruan esanda geratu dan otoitzaren ondorio bat. — Zertan ezagutuko dan egiazkoa ala gezurrezkoa danentz. — Beste mesede bat, Jaunak bera goresten ari dan arimeari egin oi diona.

1. Grazi ain aundion jarraian, oiñazez naizta goxoz bizi da-ta, doaiok egin dizkiona gozatzeko irrika zoliak astindua daukagu arimea. Iltea nai du intzirika, ta olaxe, malko bete-ugariz eskatzen dio Jaungoikoari eraman dezala erbeste ontatik, berton dakusan guztiak nazka ematen dio-ta. Bakartadean du arinbide pizkat, baiña laster datorkio berriz ere oiñazearen eztena, eta izan ere, berau barik, arimea ezin da bizi, au da, ez daki mitxeletatxoak atsedean iraunkorrik aurkitzen; aitzitik, maite-miñak samurkiro zauritua bait dabil, su au ixiotuago egiteko dan edozein atxakik egaz eragin oi dio. Egoitza ontan, beraz, zentzun-galtze ta xorraldiok jarraikoak dira guztiz, eta ez dago ezer egiterik berauek aldentzeko, jendaurrean etorrita ere. Emendik gero marmarrak eta jardunak. Arimeak bildur gabe bizi nai izanik ere, ez diote uzten, pertsona asko bait dira bildurra sartzen diotenak, aitor-entzuleak batez ere.

2. Naiz aide batetik arimeak segurantza aundia daukala, bere barrunbean, iruditu izan, Jainkoaz bakar-

rik dagoenean bereziki, beste aldetik atsekabetua ibilli oi da osoro; deabru maltzurak ziriren bat sartuko ote dion, ainbeste maite duena naigabetuko ote duen bildur da-ta; gaiñetikoen marmarrak ez diote koskarik egiten, aitor-entzuleak, berak arimeak geiago al ba'lu bezela, estutzen duenean ezik. Danei otoitzak eskatu ez du besterik egiten, eskatu baita gure Jaunari ere eraman dezala beste bide batetik, daramana diotenez oso arriskutsua bait du. Baiña berak ortik atera ditun ezkeru protxu ta atarramendu aundiak, eta auxe dala irakurri, entzun eta Jainkoaren aginduetatik dakian ezkeru zerura daraman bidea, naita ere, ezin du ortan pentsatzerik utzi, ta Jaunaren eskuetan lagatzen du Jana. Ezin pentsatze onek ere naigabea eman oi dio, aitor-entzuleak diona ez duela egiten uste du-ta. Bere osabide bakarra, lakioan ez erortzeko, esaten diotena egin eta Jainkoa ez iraintzean dagoela, uste du. Olaxe, milla zati egingo ba'lute ere, ez lukela pekatu arin bat-egingo deritzaio, jakiñaren gaiñean beintzat; eta beraz atsekabe aunditan bizi da konturatu gabe olako asko egiten ditulako.

3. Arima aueri Jainkoak Bera ez naigabetzeko gurari ta ardura izugarria ematen die, ezertan ere ez iraintzekoa noski, ezta pitiñenetan ere; al dalarik, utsegite kaskarrenik ere ez; eta auxegatik, bakar-bakarririk, jendartea utzi ta urrutira aide egin nai luke, ta basamortuetan bizi diranak ta bizi izan ziranak irrikatzen ditu. Bestalde, munduaren erdian sartu nai luke, arima batek soilki Jainkoa zerbait geiago goratu dezan pane izan naiean nunbait. Emakume baldin bada, berezkoak lotuta daukalako miñez bizi da, ta ots-egiteko askatasuna dutenen bekaitzez, Zaldizko gudarozteen Jainko aundi au nor dan iragarten ari diranen bekaitzez noski.

4. Oi mitxeleta gaixo!, nai zenduken aiña egaz egiten uzten ez dizuten ainbeste katez lotus! Erruki zakizkio, ene Jainko; eratu, arren, gauzak, erdizka bein-

tzat, berak nai ditun erara, bere gurariak bete ditzan, zeure ospe ta aintzarako. Ez begiratu aren merezi txiki, ezta aren jatorri ezer-ezari ere. Aaltsu zara Zu, Jauna, itxaso zabala bazter dadin, eta Jordan aundia, Israel'go semei bidea lau laga dezaioten." Ez eiezu kupidarik izan, zure indar-laguntzaz ba neke-lor ugari eraman ditzake; bera erabakita daukazu ortarako, ta jasan nai ditu. Luza, Jauna, zerorren beso aaltsua, ez bezaio bizia igaro gauza ziztriñetan. Dirdai beza zure aunditasunak gauza ain emakumezko ta ezerezean, munduak, berez arimak ezin dezala ezer egin jakinaz, goretsi zaitzan Zu. Edozer kostata ere, ez du ark besterik gura: milla biziraiño emango lituzke, ba'leuzka, arima bat bakarrak, bere bitartez, apur bat geiago zu gorestea jaristearren, eta biziok ondo emanak lerizkiok. Baiña ezagutzen du argi ta garbi ez duela Zugatik jasatea merezi neke-lor arintxo bat ere, askoz gutxiago eriotzea.

5. Ez dakit, aizpak, zergatik esan dudan au, ezta zertarako ere: oartzeka legez bai niarduan. Uler dezagun, beraz, auetxek dirala dudarik gabe zentzun galte ta xoraldiok arimari dakarzkioen ondorenak; ez dira onezkero igaroz doazen gurariak, izaki baten daudenak baiño, eta zerbaiten erakutsi al izateko erea eskeintzen danean, argi ikusi oi da etzirala gezurrezkoak. Baiña, zergatik ote diot izaki baten daudela, ots, iraunkor dirala? Arimea batzutan guztiz koldar sentitzen da, baita gauzarik ariñenetan ere; eta orren jausi ta gogorik gabe dagoelarik, ez duela uste du ezertarako kemenik. Jaunak uzten ba'du bere berezkoan, izan bear du, nere iritzian, bere on aundiago baterako; orduan dakus, ba, kemenik izan baldin ba'du, Aren Jauntasunak emana izan dala, eta onek eratsia uzten duen argitasun izugarria ematen dio, Jainkoaren errukia ta aunditasuna —gauza ain zirtzillean erakutsi nai izan bait

¹⁷ *Irr.*, XIV, 21-22; eta *Jos.*, III, 13.

ditu—, obeki ezagutuaz. Arimearen egoera geienetakoa, orraitio, leen esana dugu.

6. Gure Jauna ikustezko gurari bizi auetan, aiz-pak, ar ezazue gauza bat gogoan: zera, batzuetan, asko ere asko estutzen dutela barrua ta orduan naitaezko da aueri sua ez piztea, al ba'da beiñik-bein, beste gauza batera gogoa aldatu baizik; al ba'da diot, beste batzuetan, geroago esango dudanez eta zuek ikusiko, ezelan ere ezin daiteke. Aurreneko auetan, batzuetan, bai al izango dute, errazoi osoa bait dago Jainkoaren naiarekin bat etortzeko, eta Martin Deunak ziona esateko; '\$ baiña oraindik ere asko estutuko ba'luteke, alda daiteke adipena, gurariok ba, itxura danez, izanik asko aurretuta bide dauden arimenak, izan ditezke, nik uste, deabruak eragiñak, gu ere oien artekoak gerala siñist-azorrik; beti da ona, beraz, bildurretan ibiltea. Nik neuretzat daukat, ala ere, maltzur ori ez dala gai naigabe onek ariman ipiñi oi duen pake ta atsedena ipinteko. Ark egin dezakena ezta besterik griñaren baten zirkiña ezik, munduko zer-edo-zergatik atsekabetuta gaudenean sentitzen danaren antzekoa noski. Bai bata ta bai bestea beregan izan ez ditunak, ez du au ulertuko; eta gurari oiek gauza aundi dirala uste izanaz, orri laguntzen saiatuko da alegiñez, osasunari ere kalte izugarria egiñik, naigabe au etengabea da-ta, edo beintzat maizekoa oso.

7. Oar zaitzeze baita, onako naigabe batzuk norbere izate auletik ere etorri litezkela, edozer gauzatxogatik negar egiten duten pertsona biozbera batzuegan bereziki; onelakoak milla bider uste izango dute Jainkoarren negar egiten dutela, ta ez da olan. Olako une batzuetan, Jainkoaz pentsatutako edo entzundako itz-erdi bakoitzean negar-malko ugari jarion oi dira, ezin eutsirik jarion ere, eta au ba'liteke gertatzea biotz-inguruan moltzotu diran umore batzuen

..* Deun onek esandako itzak: «Jauna, zure erriak oraindik bear ba'nau, egin bedi zure na a».

gatik eta ez Jainkoari dion maitasunagatik: dirudienez, urtu bear dute negar-apulutan. Eta aiek, entzuna dutenez gero onak dirala malkoak, aueri koska jarten alegindu bearrean, laguntzen saia oi dira, besterik ez bait dute nai. Deabruak opa du onekin olakoen buruak aulazi ditzala, gero otoitz egiteko ta beuren Araudia betetzeko gauza izan ez ditezen.

8. Begira nagoela deritzait nola esaten duzuten gurtian arriskua jarten dudala, ta zer egin bear duzuten, beraz; malkoak bezin gauza on batean, izan ere, iruzurra kabitu ditekela uste baldin ba'dut, neu naizela iruzurrean jausi naizena. Eta daitekena da, baiña siñistazue au nortzu batzutan izan daitekela, naiz-ta neregán, ikusi gabe ez diodala; ez bait naiz bat ere biotz-samur, bai osterá biotz-sendo, batzutan min emateraiño izan ere. Barruko sua aundia danean, orraitio, biotz-azkar izanik ere, jario-untzi batek lez ixuri oi du. Eta ondo ulertuko duzue malkoak emendik datozenean, piztugarriagoak izaten diralako, eta ez naastzailleak; auek pakea dakarte, ta gutxitan zaizkizu kaltegarri. Iru-zurtze onen ona auxe da, benetan danean, gorputzari kalte dagiola bakarrik, eta ez arimeari, apaltasunak dizdiz dagianean, diot; eta iruzur-bldurrik ez ba'da ere, egoki izango da susmotan sartzea.

9. Malko ugari ixurtzearekin ez dezagun uste izan dana egiñik dagoenik; ez, neka ditzagun eskuak egintza onetan eta birtuteak jorratzen, auek bait dira guri geien dagozkigunak. Malkoak betoz Jainkoak bialtzen dizkigunean, guk geronen aldetik beurak ekartzeko nekerik arm gabe nunbait. Auek utziko dute lur elkor au, ureztatua, ta frutua ekartzeko ere laguntza ederra dute: zenbat eta jaramon gutxiago beraieri egin, obe ta geiágo noski, ur zerutik jaitsia dira-ta; ateratzeko zulatzen nekatuaz ateratzen dugunak ez du zer-ikusirik onekin, sarritan bada atxurtu ta abaildurik geratu arren, ez dugu ur-istil edo potxingorik ere aurkituko, askoz gutxiágo ur-sorbururik. Origatik, aizpak, obetzat daukat,

Jaunaren aurrean egokitu ta onen erruki ta aunditasuna bezela geure ezereztasuna ere begira ditzagula, eta be- moigula Berak naiien lukeana, dala ura, dala legortasuna: Berak daki ondoen zer dagokigun. Eta onela pake aundiagoz ibilliko gara; deabruak, berriz, ez du ainbes- teko lekurik izango bere lillura-jokuak guri egiteko.

10. Gauza neketsu ta gozo auen erdian, gure Jau- nak batzuetan arimeari eman oi dizkio arimeak berak ere ulertzen ez ditun pozaldiak eta otoitz-gogaketa pi- txiak. Emen jarten dizuet au, onako mesederik iñoiz artuko ba'zenute, Bera egiazki gora dezazuen, eta baita irazeko gauzea dala jakin dezazuen ere. Nere ustez, aalmenen alkartze aundi bat da; aueri, ala ere, zen- tzunei bezela, gure Jaunak askatasuna eman oi die ber- en pozean gozatzeko, baiña ulertu gabe zer gozaten duten eta nola gozaten duten. Arabieraz ari naizela dirudi, baiña orrela da egiazki; arimearentzat gozotasun izugarria bait da, ez luke nai berak bakarrik gozatea, enparau guztiai ere iragarrea baizik, gure Jauna goratzen lagun zekizkion; auxe bait da bere mogimentu guztia- ren xedea. Oi, nolako jaiak egingo lituzken eta, al ba'lu, nolako erakutsiak, bere oztasuna ulertzeko gai danak izan daitezen! Bere zera aurkitu duela derizkio, eta seme xautzaillearen aitag bezela gizaki guztiak bildu ta jai aundi bat egin nai luke,¹⁹ bere arimea, ordukoz beintzat, segurantza osoan dagoena ezpaian jarri ezin daiteken maillan aurkitzen dala ikusten duelako. Eta nik neretzat dut, errazoizkoa dala au; deabruak ezin du, ba, sortu arimearen muin-muiñean barn-poz ain aundirik, pake izugarriarekin; eta Jainkoa gorestera bultz-daragiona gutxiago.

11. Poz aundi onen zirkinpean dagoelarik, naiko dagi arimak, neketsu zaion arren, ixillazi ta zorion ori estaltzearekin. Auxe berau senti bear izan zuen Fran-

¹⁹ Luk., XV, 10-32.

tzisko Deunak, landan zear otsegille lapurak idoro ta Errege aundiaren oiulari zala esan zienen; eta berdintsu beste santu batzuk, basamurtura dijoazenak, Frantzisko Deunarena aldarrikatu al izateko, au da, beren Jainkoaren goratzarre ta ederkadurak. Nik bat ezagutu nuen, Alkantara'ko Aita Pedro zeritzana, au egin oi zuena, zeraman biziari begiratzuz, santua ain zuzen ere, eta zorotzat zeukaten iñoizkoren baten entzun ziotenak. Au bai zorakeri eder, aizpak! Jainkoak guztioi emango ba'ligu! Eta nolako mesedea ez dizue Ark egin toki onetan eukiaz! Onako doiak Jaunak egin eta zuok oien era kutsiak emanda ere, zuoi laguntza izango zaizkizue ta ez marmar-bide; munduan izanik, ordea, marmartuak izango ziñaken; otsegite au an ezta oitua-ta, origatik ez da miresgarria kalakari jardutea.

12. Oi, zori txarreko denborak eta bizi geran bizi-tzaldi kaskarrak! Eta zoriontsu arima aiek, erbeste ontatik kanpo eramanak izan diranak! Noizka poztasun berezia zait aizpa auk, alkarrekin gaudenean batez ere, orren gogo aundiko, geien al duenak, komentuan dagoelako noski, gure Jauna are geiago goersten duela ikusirik; laster konturatzekoa da, gorespen aiek, argi ere argi, arima barne-barnenetik irtenak dirala. Zuek egitea sarri nai nukena auxe da, aizpak: asten danak esna ditzala besteak ere. Zertan obeki erabil zenezakete zeuron mingaiña, alkarrekin zaudetenean, Jainkoa goratzen ezik, ainbat zergati ditugu-ta Ari goralpenak kantatzeko?

13. Jainkoari nai dakiola otoitz au guri askotan ematea, ziurra ta onura aundikoa baita; geure indarrez ezingo dugu eskuratu, oso goitikoa da-ta. Noizik beñenean, egun osoz iraun oi du onek, eta arimea orduan asko edandako baten antzera dabil, baiña ez zentzunak galdu ba'litu bezela, edo-ta murriz, Sena osorik galdu ez duenaren antzera, baiña irudimenean jarri zaion zeretik irteten ez duela, ezta ez da iñor andik aterako duenak ere. Aski zakarrak dira alderatze auk gauza ain

bikaiñarentzat, baiña nere burn laburrak ez du besterik aurkitzen; ala ere ori orrelaxe da: poztasun onek bere buruaz eta beste gauza guztietaz aaztu-aaztu egiña dauka arimea, mintzatzen ere motel eta total, bere pozetik datorrena ezik, au da, Jainkoa goratzen dabilkigu azkar. Lagun gakizkion arima oni, ene alaba guztiok. Zerta rako nai dugu muin geiago euki? Zerk eman al digu atsegin aundiagorik? Eta lagun bekigute izakiak oro, gizaldien gizaldietan! Olantxe, olantxe, olantxe.

VII IDAZPURU

Nolako dan, esandako mesedeak Jainkoak egin oi dizkioten arimak, beuren pekatuengatik sentitzen duten naigabea. — Oker aundia dala dio guztiz, oso barru-zaleak izanik ere, Jesukristo gure Jaun eta Salbatzailearen Gizatasuna, beronen Nekaldi ta Bizitza, bere Ama aintzaltsu ta Santuak, gogoan josita, ez erabiltea. — Onura aundia du onek.

1. Irudituko zaizue, aizpak, ain barne-muinki Jaunarekin artuemanan izan duten arima auek onezkero ziur daudela betikoz gozatuko dutelakoan, eta ez dutela jadanik ezeren bildur izan bearrik, ezta beren pekatuengatik negar-egin bearrik ere. Baiña au oker aundia litzake. Au uste izan dezakete baitipat olako mesedetara oindio iritxi ez diranak; gozatu dituztenak eta Jainkoak emanak ba'dira oiek, ulertuko dute orain esango dudana. Gure Jainko Jaunagandik mesedeak artzen diran neurrian geitu of pekatuen atsekabea; eta nik neuretzat daukat, atsekabe emate ori ez dala ater-

tzen ezerk ere miñik eman ezin dezaken lekura eldu gaitezen arteño.

2. Emen ba-da, egia esan, geiago ta gutxiago, mi ñean, eta bestelakoa ere izan oi da, sentitzean; arimeak, izan ere, egiñiko pekatuak merezi izan dioten zigorra gogorazi bearrean, nola izan zan esker txarrekoa ainbat zor dionarekin eta zerbitua izatea egiz merezi duena rekin, darabil gogotan; egiten dizkion doaietatik obeki ulertzen ditu arimeak Jainkoaren aunditasunak; eta izuan sartua geratzen da orren ausarta izan dala ikusiaz, negartzen du bere lotsarik eza, zentzun gabea derizkio izan duen kopeta, eta Aren Jauntasun aundia olako zirtzilkeri bategatik utzi duela gogoraturik, ai-eika ari da etengabe. Gai ontaz geiago oartu oi da artzen ditun mesedeakin baiño; esandako auek eta oraindik esango ditudanak orren aundiak izanagatik, aldiz-aldi gertatzen diran gauzak dirala uste du, ibai urez ugari batek daramazkinak alegia; bere utsegite ta obenen oroipena, ordea, beti du gogoan bizi-bizi, loidi zakar pareko: eta ementxe datza bere egiazko gurutzea.

3. Nik ezaguna dut pertsona bat, iltea nai zuena, ez Jainkoa ikustearren bakarrik, baita ainbat zor zion eta zor izango zion Arekin ain esker txarreko izan zalako etengaberik sentitzen zuen naigabeagatik ere. Bere gaiztakeriak beste iñorenekin alderatu eziñak zirala, uste zuen; ez zitzaion human sartzen, ba, beste iñor izan zitekenik Jainkoak berari aiña mesede egin eta sufritu zionik. Inpernuko bildurrari buruz, arima auek ez dute bat ere. Jainkoa galduko ote duten kezkek batzutan asko estuazten ditu; baiña au ez da iñoizka baizik. Beren bildur guztia da ez ditzala Jainkoak bere eskutik utzi iraiñik egin dezaioten, eta beren buruak iñoiz ikusi zituzten bezela egoera ain larrian ikusi ez ditzaten; ez dute axolik, beren naigabez ez aintzaz; eta garbitokian luzaro egon nai ez ba'dute ere, an igaro bear dituzten oiñaze-miñengatik baiño, an legozken bi-

tartean Jainkoagandik urrunduta egongo diralako geiago da.

4. Naiz-ta Jainkoak doai askoz jantzia izan arima bat, nik ez nuke segurutzat joko olakoa aldikada baten egoera errukarrian bizi izan zala aaztuko lukeana; gomuta onek, be, neketsua dalarik ere, gauza askotarako Jagundu oi du. Bear bada ni amn kaskarra izan naizenez, orixegatik daramat beti gogoan orren kutsua; onak izan diranak ez dute ausaz olakorik izango, naiz-ta beti daude atzera-aurrerak gorputz ilkor ontan bizi geran bitartean. Naigebe ontarako ez da aringarri gure Jaunak aaztuak dauzkala onezkero gure pekatuak gogora ekartea; geitu bai egin oi du miña Aren ontasun betea ta inpernua besterik merezi ez duenari egiten zaizkiola mesedetik ikusiaz. San Pedro ta Madalena 'rentzat pentsamentu au, nik uste, oiñaze izugarria izan zen; auek, ba, biotza sugarretan zeukaten eta ainbat doai artuak zituzten, Jainko gurenaren aunditasuna sakonki ulertzen zuten. Beren naigabea, beraz, naiko latza izango zan, sentipen bigun-samurrez lagunduta.

5. Baita irudituko zaizue olako doai aundiak ditun arima ezin ditekela ari izan Jesukristo gure Jaunaren Gizatasun guren-gurenaren gertaerak gogoan iraultzen, bere egiteko guztia maitasunean izango duela-ta. Beste nunbait ²⁰ luze idatzi nuen ontaz, eta bestera esan dutenak ba'dira ere, ta nik ez dudala buruz ondo artzen aien esana, gure Jaunak bakoitza bere bidetik eramaten baitu, obe dala, aurrenetatik igaro ezkerro Jainkotasuna gai dala jardutea, gorpuzki-gauzak aide batera utzirik... Neri ez didate aitortu-aziko bide ori one danik. Ba'li teke ni oker egotea, ta guk guztiok gauza bat bera esatea; baiña nik ikusi nuen deabruak ortik ziria sartu gura zidala. Ori dalata nago txit zentzatu, ta uste dut, beste geiagotan ere esanda euki arren, ²¹ egoki dala zuoi

²⁰ Bizitz-liburuan, XXII Idazp.

²¹ Bizitza, XXII, XXIII ta XXIV Idazpuruetan.

emen berriro ere esatea, ontan kontu aundiz ibil zaite zen, eta ez siñets iñolaz ere —begira zer diozuedan beste gauzarik esango lizuekenei. Beste artan egin nuen baiño geiago gauzea adierazten saiatuko natzaizue. Idatziz ariko zala agindu zuena zerbait geiago ari izan balitz, obeki egingo zuen bear bada; ainbat ulertzen ez dugunoi ainbat gauza batera esateak gaitz aundia ekarri dezaiguke.

6. Irudituko ere zaie beste arima batzueri, Pasioa ezin erabilli dutela gogoan; are gutxiago Ama Birjiña ta Santuen bizitzak ere, aien oroipena ain probetxuzko ta arnas-emoille zaigun arren. Nik ezin dezaket asmatu zer pentsatzen ari diran; gorpuzki dan guztitik aide eginda maitez suturik egotea aingeruei dagokie, ez gorputz eriozkor ontan bizi geranoi. Gu langoak izanik, Jainkoagatik olako egiteko garaietan ari izan ziranekin artu-emana euki, aiek gogorazi ta aien laguntasuna bear ba'dugu, errazoi geiagoz, geurez beintzat, ez dugu saiets utzi bear Jesukristo gure Jaunaren Gizatasun santu-santua, gure on ta salbabide bakarra duguna. Ezin dut nik olakorik siñistu, ez dutela alkar ulertzen baizik, eta orrela beren buruei ta besteei kalte egingo die. Nik, beintzat, biribil aitortzen diet ez dirala azkeneko bi egoitzotan sartuko, bide erakusle dan Jesus ona galtzen ba'dute, ez bait dute biderik igarriko. Naiko izango da besteetan seguru ba'daude. Jaunak berak dio, ba, bide dala, eta argi, eta iñor ezin dijoakela Aitagana, Bera bide izan ezik,²² eta beste itz auk: «Ni ikusten naunak Aita ere ikusten du».²³ Itzoi beste zentzun bat ematen zaiela, esango dute. Nik ez ditut ezagutzen beste zentzun oiek; onekin, nere arimak egia dala beti somaw duen onekin, joan zait ederki.

7. Ba- daude arima batzuk, eta asko dira nerekin

Jo., XIV, 6.

Jo., XIV, 6.

gai au erabili dutenak, gure Jaunak ikustaldi bikai-
ñera jaso ditunak noski, beti ortan egon gurako luke
tenak; baiña eziña dute au. Jaunaren mesede onekin
alako sorgortasun berezian geratzen dira, ta gero ezin
dute, leen bezela, Kristo'ren bizitza to Pasioko gertae-
rak gogoan irauli. Ez dakit zergatik dan, baiña maiz
samar gertatzen dana bai: gogoetarako gai ez dala ge-
rata oi adimena. Nere iritziz, augatik duzue: gogaketan
dana da Jainkoa billatzea, eta bein aurkitu ezkeru,
arimea oitua geratzen da berriro ere, naimenaren egi-
tez, Ura billatzera itzultzeko, eta ez du nekatu nai
adimenarekin. Uste dut, gaiñera, naimena pizturik dago-
ta, ez dio aalmen esku-zabal onek onurarik atera nai,
al duela beintzat, beste urari; ez du gaizki egiten,
baiña eziña zaio, batez ere azkeneko egoitza auetara
iritxi arte; beraz, denbora galduko du, askotan ezin
bestezko izango du-ta, naimena pizteko, adimenaren
laguntza.

8. Oar zaitezte, aizpak, puntu ontaz, garrantzizkoa
bait da; beraz, argiago jarri nai dut. Arimea irrikaz
dago maitasunean osorik jarduteko, eta ez luke beste
ezertxo egin nai, baiña naita ere ezingo du: naimena
ez dago ilda, ala ere erdi-illik dago erre-eragiten dion
sua, eta norbait bear du putt-egiteko beroa bota dezan
bere baitatik. Orain, egoki ote litzake elkortasunean
irautea, Elias gure Aitak egin zuen bezela, zerutiko
suari begira, Jaungoikoari berekiko egiten ari dan opa-
kuntza au erre dezan? ²⁴ Ez, noski; ez da ona mirariak
itxoitea. Jainkoak onako arimearen aide, esan dugunez
eta geroago ere esango dugunez, noizbait, Berari eder
dakionean, egin oi ditu; ala ere guk geure buruak
ziztrintzat eukitea nai du, ez dugula olakorik merezi
uste izanik, eta al dugun giñoan guztiok zernaitan
alkarri lagun egin dezaigula. Au, nere ustez, beti ta

²⁴ Erregen III Lib., XVIII, 30-39.

beti egin bear dugun gauzea da, it arte gurtian, naiz-ta goi-maillako otoitzean murgilduak egon.

9. Jaunak zazpigarren egoitzean sartu duen ^{ari} mak, egia da, gutxitan edo-ta ia iñoiz ere ez duela olako arduraren bearrik izaten, oartzen ba'naiz, bertan aipatuko dudan errazoiagatik. Baiña aldiro dabil ^{ari} mea Jesukristo gure Jaunagandik alde-egin gabe, arrigarrizko eran, Jainko ta Gizon dana beti lagun duela. Beraz, arestian aipatu dugun sua piztua ez ba'da naimeanean, eta Jainkoaren begiera nabaitzen ez baldin ba'dugu aurrean, bear-bearrezko da billa dezagun; auxe adierazi nai du Jainko Jaunak Abesti Ederreko emazteak egiten zuenez, eta galde dezaiegula izakiei nork egiñak diran, Agustin Deunak dioanez, bere *Gogarte* edo *Aitor-kizunetan* uste dut; eta ez gaitezen mutur aundi antzera aldia alperrik galtzen egon, bein eman izan zitzaigunaren zain. Asieran ba'liteke Jaunak ez ematea urte betean edo geiagoan; Bere Aunditasunak daki zergatik; guk ez dugu jakin nai izan bear, ez daukagu zergatik eta. Ba-dakigu Jainkoa pozik eukiteko bidea, Aren aginduak eta kontsejuak bete ezker; onetan bai zoli ibil gaitezten, Aren bizitza ta eriotza, eta zenbat zor diogun, gogoan irauli ta ausnartuz. Gaiñerakoa betor Jaunak gura lukeanean.

10. Emen dator gauza auetan pertsona batzuk ezin dirala geldi-azi diotenen erantzuna; eta esan dugunetik, ba'liteke bear bada, nolabait, errazoia eukitea. Ba-dakizue gauza bat dala adimenaz gogoketan ari izatea ta beste bat oroimenak adimenari egiak aurrean jartea. Bear bada diozue, ez didazutela ulertzea, eta egiazki ba'daiteke nik ere ez ulertzea esaten jakiteko moduan; ala ere, dakidan bezela esango dizuet. Nik gogoketa esaten diot, gogoz edo adimenez ari ta ari onela ausnartu ta buruan erabilteari: Jainkoak bere Seme bakarra

▮ Abest., III, 3.

emanaz egin zigun mesedea pentsatzen asten gara, eta ez gara orretan geratzen, baizik-eta aurrera goazi Aren bizi aintzatsu gurtiko gertaeretara; edo-ta Baratzeke otoi-tzean asirik, adimena irauli ta irauli ari da gurutzean josia izan zan arterako guztian; edo-ta Pasioko pausu bat artzen dugu, lotu zutenekoa adibidez, eta gertaera ontan gabiltza, sarri-sarri buruan erabilliz bertan pentsatu ta nabaitu bearrekoak, Judas'en saldukeria, adibidez, Apostoluen iges-egitea ta gaiñerakoak. Egundokoa duzue otoitz au, eta irabaziduna oso.

11. Auxe da, beraz, otoitz-era bat, Jainkoak izatez goitiko egoerara eta begiztatze osora jaso ditun arimak ez dakitela, eta errazoi gaberik ez, ez dakitela burutzen diotena. Nik, esan dudan legez, ez dakit zergatik dan olan, baiña maizenik orrelaxe da. Baiña ez du izango, errazoirik diot, gertaera auetan ez dala murgiltzen esan ba'dagi, eta sarri dakartza aurrean, Eliza Katolikuak ospatzen ditunean batez ere; oker dabil, bai, eziñezkoa da-ta arima bat, Jainkoagandik ainbeste grazia artu ostean, gure Jaunaganako maitasunean gero ta geiago txinpart bizi legez diran barne-su-erakutsi bikaiñetaz aaztutea; bestela ulert-eziña da, gertaera auek arimeak modu osoagoan ulertzen ditu-ta. Adimenak bizi-bizi aurkezten ditu gertaerok, oroimenean josirik bero-bero, ta arimeari, Jauna jausita Baratzean izerdi izugarritan ikusiaz bakar-bakarrik, ura naiko otoitz-gai zaio ez ordu beterako soilki, baita egun askotarako ere, begi samurrez ikaskaturik nor dan olan dagoena, ta naigabe aundi aren aurrean zein esker txarrekoak izan garean gogoe-manik. Ondoren dator naimena, naiz-ta ez samur, mesede ain aundiari zerbaiten beintzat lagundu naiean; baita ainbat sufridu zuenagatik —eta beste antzeko gauza batzuegatik— zerbait jasan nai izatera, oroi-mena ta adimena lanean ipiñirik. Eta auxe dala-ta, uste dut, arimea ez doala aurrera Pasioa'ri buruz geiago pentsatzera, eta onek naigabe aundia eman oi dio, ortan ezin duela oldoztu derizkiolako.

12. Eta au ezin ba'du ere egiazki, ona da alegiñak alegin egitea, nik ba-dakit-eta jardunketa onek ez diola zoztorrik ipiñiko otoitzik garaienari ere; eta ez daukat ontzat ontan bein eta berriz ez jardutea. Ontan ari dala Jaunak lilluraziko ba'lu, bejoindaiola, nai ez duela ere, dagoenean utzi-eraziko dio-ta. Ziurtzat dut, gaiñera, ez dala eragozpen jokabide au, on guztirako laguntza aundia baizik; eragozpen litzateke, berriz, asieran esan nuen iraulketa ari ta arikoan lan geiegi ba'legi; baiña au, nik uste, ezingo luke egin aurrerago iritxi danak. Ba'liteke, bear bada, anitz bide dira Jainkoak arimak eraman oi ditunak eta. Alan eta guzti ere, ez gaiztetsi iñoiz ortik ibilli ezin dutenak, eta gaizki epaitu ere gure ona dan Jesukristo'ren ezkutapenetan banean dauden ondasun ain aundiak gozatzeko gai ez diranak. Baiña iñok ez dit ulert-eraziko, nai aiña barukoi izanik ere, emendik ondo ez doanik.

13. Ona zer gertatzen zaien arima batzuei asieran, eta baita aurreratuz doaztela ere. Atsedeno-otoitzera eldu diraneko, ta Jaunak bertan eskeiñi oi ditun atsegin eta gozotasunak zerbait txastatu, gauza aundia dala derizkiote antxe goza ta irautea beti. Siñist bezaidate, ba, eta ez beitez orrenbeste birlora ta xur-azi, beste nunnabait adierazo dudanez; bizia luzea baita, eta neke-lan ugari bertan, ezinbestezko dugu Kristo geure eredia begi-aurrean ekartea, neke-lanok nola eraman zituen ikusteko, eta erabat bere Apostolu ta Santuak ere, oietan osotasun betez jokatzeko. Lagun guztiz zintzoa dugu Jesus ona Beregandik ez aldegeteko, eta onen Ama txit gurena; eder zaio guk bere naigabez min ar dezagun, noizik-bein geure poz-atsegiñai muzin egin bearra bait dugu ere. Are geiago, ene aizpak, otoitzaldiko gozotasun oiek ez bait dira etengabeak, danerako astirik ez uzteko. Eta norbaitek esango ba'lit erabateko izatean dala ori, susmo txarra artuko nioke olakoari, ots, esan du-dana ezin duela egin liokenari. Euki zuek olakotzat, eta Baia zaitezte gezur-sare ortatik irtetzen, lillura-mintz

oiek etenik. Au naiko ez ba'itz, esan ama nagusiari, ardura askoko zeregin bat eman dezaizuen, eta olan arrisku ortatik urrutiratu zaitez: egoera ori luzatuko ba'itz, guztiz kaltegarri izan liteke bai buruarentzat eta bai errazoimenarentzat.

14. Onenbestez adierazia geratzen dala uste dut, oso jainkozaleak izanik ere, ez clutela igesik egin bear gorpuzki-gauzetatik, Kristoren Gizatasun sagaratuak ere kalte egiten diotela uste izateraiñoan. Jaunak bere ikas leei esan ziena aipatzen dute, au da, egoki zala Bera joatea.²⁶ Nik ezin dut au jasan. Ezin esan, noski, olakorik bere Ama txit Santuari, siñismenean sendo zegoe-lako; bai, bai zekian Jainko ta Gizon zala. Eta aiek baiño berezko maitez maiteago izanik ere, Gizatasunak lagundu besterik ez zion egiten Jainko-bizieran ain bikaindurik zegoenari. Apostoluak, ordea, ez zeuden orduan gero egon ziran bezin sendo siñismenean; gure fedea ere orrelaxe izan bear luke orain, sendo ta indartsua. Nik diozuet, aizpak, arriskutsutzat daukadala bide au, eta deabruak egin dezakela azkenik guk geure arteko Sakrameniu txit gurgarriari diogun jaiera otzitu ta galaztea.

15. Oker nenbillela uste izatea etzan ainbesteraiño eldu, baizikan ez zitzaidan gogoko egiten Jesukristo gure Jaunagan onenbeste gogoratzea, eta bai, gozotasun aren zain, nere barne sentitzen nuen xorabio goxo aretan mozkor ibiliea. Baiña argi ikusi nuen galbidearen barna nenbillena. Zergatik? Ez bait nuen Bera etengabe gozatzerik, nere pentsamentua emendik ara ebillen, eta arimea, dirudit, egaz eta egaz nun gelditu aurkitzen ez duen txoriaren pareko, denbora asko alperrik galduz, on-egiteetan indartu ta otoitzean aurrera jo gabe. Eta ez nekian zergatik, eta ez nuen jakingo ere, ura iruditzen bait zitzaidan oso zuzena zala; bein, ala ere, neraman

²⁶ Jo., XVI, 7.

otoitz-era Jainkoaren zerbitzari aundia zan pertsona bati azaldu nion, eta onek aolku eman zidan. Gero ikusi nuen zein oker ninjoan; eta orain azkenik gabe damn tzen naiz aldikada baten ulertu eziña izan zitzaidalako galtze ain aundi batekin ezin daitekela gorde gaitz asko tik. Ez, orain ez dut nai, al ba'nu ere, onik bat ere, on guztiak etorri zitzaizkigun Arengandik eskuratuak izan ezik. Bedi menderen mende goratua. Olantxe.

VIII IDAZPURU

Jainkoa nola agertzen zaion arimeari, adi meneko ikuskariz. — Argibide batzuk dakartzkio. — ikuskari au egiazkoa danean, nolako ondorioak ditun. — Olako doai ta mesedeak ixillik euki bear dira.

1. Argiago ezagutu dezazuen, aizpak, esan dizuedana egia dala, eta arima bat aurrerago ta Jesus on onek geiago laguntzen diola jakin dezazuen, egoki izango da noski, Aren Jauntasunak nai duenean, guk ezin dezagula besterik egin Arekin beti ibilli baizik. Au argi ikusten da Bera gurekin artu-emanean sartu ta ari izateko dauzkan modu ta tankeretatik; gureganako maitasuna erakusten digu gaiñera agerpen eta ikuskari arri-garri batzuekin. Iñoiz esker autakoren bat jasotzeko gai ba'zerate ere, izuak jota ibil ez zaitezen, zerbait esan nai dizuet, Jauna lagun ba'dut noski, gauza auetaz zerbait, guri olakorik egin ezta ere, gorets dezagun egiaz, ain aundi ta aaltsu izanik, izaki batekin olako artu-emana euki nai duelako.

2. Iñoiz gertatzen da, arimeak, olako mesederik

egino dionik ez merezi duenik pentsatu gabe, bere alboan sentitzen duela Jesukristo gure Jauna; ez du ikusten ez gorputzeko ez arimako begiekin, baiña ur-ur sumatzen. Ez dakit zergatik, adimeneko ikuskaria esaten diote oni. Jainkoak doai au egin zion pertsona ikusi nuen —baita aurrerago aipatuko ditudan beste batzuek ere—, lenengotan beintzat naiko kezka-mindua, ez bait zekin zer zan ura; ez zuen ezer ikusten, ala ere berak ondo ezagutzen zuen Jesukristo gure Jauna zala gisa aretan agertzen zaiona; ez, ez zezakean ez-pairik izan, ikuskari bat zala diot; Jaingkoagandikoa zan ala ez, olakoa zala ulertzeko ondoren bikaiñak zekarzkin arren, bildurrez zebillen oindio; ark ez zuen aurretik adimen-ikuskaria zer zanik egundo entzun, ezta olakorik egoanik ere, baiña ulertzen zuen oso argi Jaun au zala, esana dugunez, sarri itz-egiten ziona. Diodan azken mesede au artu arte, itzak aditu arren, ez zekian nork itz-egiten zion.

3. Buruzko ikuskizun auek ez dira irudimenezkoak bezela, arin desegiten diranak, egun asko ta batzutan urte bete baiño geiago iraun oi dutenak baizik. Onako ikuskaria zala-ta, bildur-ikaraz ezagutu nuen pertsona bat bere aitor-entzuleagana joan zan, bioztua oso. Ark esan zion, ezer ikusten ez ba'zuen, nola zekien gure Jauna zala?; esan zezaiola nolako aurpegia zeukan. Berak erantzun zion ez zekiala, ez zuela arpegirik ikusten, eta esanez gain ez zezakeala geiago ezer esan; berak zekiana zala, Bera zala mintzatzan zitzaiona: ez zala illargi-aldia. Eta asko izutzen zuten arren, berak ez zeukan zalantzarik, au esaten zionean batez ere: «Ez izan bildurrik, Neu naiz-eta». Itzok indar aundia bait zuten, orduan beintzat ezin zezakean dudarik izan, eta bizkortua ta pozik geratzen zan alako laguntzarekin. Jainkoa etengabe gogotan erabiltzeko bikain bikaiña zitzaiola, ikusten zuen argi ta garbi, eta emendik sortzen zitzaion atsekabe izan lekikeon ezer ere ez egiteko lotsa ta gogo bizia, beti aurrean zeukala-ta. Onan, otoiizean

naiz bestela, Jainko Jaunarekin ur-ur zegoela zerizkion eta ezin zuela Ari entzuteke egon, ez utzi; itzak entzutea, ala ere, etzan berak nai zuenean, ez-orduz baik, bear zanean. Eskui-aldean zebilela sentitzen zuen, baiña ez pertsona bat geure ondoan dagoela sentitzen dugun zentzun auekin; beste bide samurrago batetik da, esan eziña bide danetik, baiña oso ziurra da, bestea bezin ziurra noski, edo-ta askoz ziurrago oraindik; zentzunez jausi liteke iruzurrean, baiña gure kasu ontan ez. Larri tristuraren ondorena ba'litz, arimeak ez lituzke izango inólaz ere ditun irabazi aundiak, ezta dakartzan barne-ondorioak ere; bestalde, ainbeste on ez litezke etorri deabruagandik, arimea ez litzateke-ta orren pake-eztitan lotaziko, ezta olan Jainkoari etenbako poza emateko irrikaz, eta Arengana ez daraman guztia ezetsi ta arbuiaitzeko gogoz ibilliko ere. Pertsona ura, argiagotu ta ulertuagotuz joan zan, eta azkenez argi ikusi zuen ez zala deabrua ortan zebillena.

4. Alan eta guzti ere, nik ba-dakit, noizik noizera naiko bildurtua ibilli oi zan; eta beste batzutan naste aundiarekin, on orren aundia nundik etorri zitzaion ez zekiela. Beta ta ni guztiz gauza bat bait giñan, aren arimatik igaroten zanaren berri ba-nuen nik; lekuko edo testigu ona nauzue, beraz, eta ontaz dioakedan guztia egia dala siñistu dezaidakezute.²⁷ Jaunaren mesedea da, ta berarekin dakar nastea ta apaltasuna, ez gutxi. Deabruarena ba'litz, bestera egingo luke osoan. Giza-egintzarik ezin daiteke olakoaren sorburu izan; eta, jakina, Jainkoarengandikoa izan bear, arimeak ez dezake, ba, orrela doaitutakoak diot, ezin dezake esan ezelan ere berak eskuratutakoa danik, Jainkoaren eskutik datorkiola baiño. Eta, nere iritziz, gorago aipaturiko grazien artean batzuk garaiagoak izanda ere, onek berekin dakar Jainkoari buruzko ezaugera berezi bat, eta atertu gabeko laguntza ontatik erneten da Aren Aunditasuna-

²⁷ Bizitzliburua, XXVII atala.

ganako maitasun txit samurra, eta gurari bizi-bizi batzuk, esandakoak baiño ere aundiagoak, oso-osorik Aren zerbitzuan jardutekoak nunbait, barne-garbirik ibilteko irrits aundi batekin batera, alboko dakarren Arek oro oar-azten dio-ta. Ba-dakigu Jainkoa egiten dugun guztira daukagula, baiña orrelakoxeak gara-ta, ez dugu ori pentsatzen. Emen ezin daiteke olakorik gerta, arimea alboan daukan Jainkoak berak esnatu oi duelarik. Emen, aizpak, esandako doaiak ere sarriagoak dira, arimea bait doa ia etengabe bere alboan ikusi edo sumatzen duen Arenganako maite-egintzetan sutuagotzen eta aurrerago egiten.

5. Labur, ariman uzten ditun obariatatik ikusten da argi, grazi au bikaiña dala, ta estimagarria. Arimeak eskertzen dio Jainkoari, berak merezi gabe, orrela Ia-guntzen diolako, eta ez lake aldatuko olako grazirik lurreko altxorrez, ez ezelango atsegiñez. Onela Jaunak kendu opa dionean ere, bakartade aunditan geratzen da bera, eta leen zuen laguntasunez berriro jabetzeko egiñalak eginik ere, gutxi baizik ez du lortuko: Jaunak berak nai duenean egiten duen grazia da, erosi eziña noski. Bein edo berriz Santuren batek egiña izan oi da, eta probetxu aundikoa au ere.

6. Baiña zuek esango didazue: ezer ikusten ez ba'da, zelan jakin leiteke Kristo danik, edo-ta noiz dan Ama aintzagarria, naiz beste Santuren bat? Ez daki ^{ari} meak ori esaten, ezta ez dezake ulertu nola ulertzen duen, eta ala ere ziurtasun bete-bete batekin daki. Jauna danean, itz baldin ba'dagi, gauzea errezago dala dirudi; baiña mintzatzen ez dan santua danean, Jaunak antxe arimeari lagun izan dakion jarten duenean, gauza arrigarriagoa duzue. Erabat daude beste gogozko gauza batzuk ere, azaltzen ez dakizkigunak, baiña beren bitartez ezagutu oi da obeki gure berezkoaren ezezeza Jainkoaren aunditasun aundiak ulertu al izateko; auek ezagutzeko ere ez gara gai. Beurok artzen ditun arimeak, txundio ta arrimenez gaiñezka, Aren Aunditasuna go-

resten du, eta esker bero bereziak eman oi dizkio artutako doai oiengatik; edozeiñi egiten ez zaion grazia dan ezkeru, oso aintzakotzat artu oi du, Jainkoari beragatik zerbitzu ardurazkoeagoak egiten saiatuz, Ark ainbat erataru laguntzen diola-ta. Arimeak emendik, besteak baiño geiagotzat bere burua euki bearrean, lurrean daudenen artetik Jainkoa gutxien mirabetzen duena bera dala uste du, beste iñor baiño ortara beartuago da goela derizkiota, eta edozein uts-egitek aldetik aldera zulatzen dizkio erraiak, eta ez errazoi gabe.

7. Zuetatik edozeiñek, Jaunak bide ontatik dara manak, esanda geratu diran ondorioetatik ezagutu de zake, ortatik dabillen arimeak ain zuzen ere, gezurpean ala-ta txakur-ametsetan dabillen. Deabruari begira, berriz diot, ez dut uste izan daitekeanik, orren luzaro batez ere, arimeari ainbat on egiñik, eta barne-pake ain oparotan utzirik. Ezta au ark egin oi duena: ura bezelako izaki donge batek ezin du iñolaz ere ainbeste on ekarri. Orrela ba'llitz, arimea laster agertuko litzateke bere buruarekiko on-irizizko ke-lurrunetan, besteak baiño obertzat bera jorik. Eta, gaiñera, arimea nainun eta noiznai Jainkoari itsatsia ta beronengan pen tsamentua duela ibilteak aserre bizitan ipiñiko luke, eta nai izanik ere, ez litzateke sarri lenera itzuliko. Eta Jainkoak berak ere, zintzoa bait da, Aren Aunditasunari poz-eman eta bere bizia ere Aren dedu ta aintzagatik Aren eskuetan jarteko gertu dagoenarengan ez lioke orrenbeste eskubide emango: alderantziz, egingo du alegiña olakoari begiak idekitzeko.

8. Nere gaia au da, ta beti izango: arimea, Jainko-graziari dagozkien ondoren auekin, esan dudanez, aurkitzen dan unetik, Jainko altsuak utzi dezakeo deabruari iñoizkoren oaten arimea zirikatzen, baiña au irabazi aunditan aterako du aurrera ta gaizto maltzurra lotsa gorritz beterik geratuko da. Origatik, berriz diot, aizpak, zuetatik norbait bide ontatik ba'lebil, ez bedi geratu arritua. On da, ala ere, bildur izatea ta arreta

apur batekin ibiltea. Ez ibil inoiz ere, doaituak zarela-ta, ardura gitxiagoz; auxe litzakizue ezaugarri bat, Jau-nagandikoak ez dirala oiek siñist-azteko, esandako on-dorioekin lotzen ezpa-zerate. Egoki da, lenengoetan ba-tez ere, jakintsu on batekin, aitortzapean noski, ar-ema-na izatea, auek bait dira argia eman bear digutenak, edo-ta, ba'lego, gogozko gauzetan aitua litzaken per-sona batekin orobat; eta gogo-zale ezpalitz, obeki ja-kitun batekin, eta bata naiz bestea litzakenen bat ba'lego, uraxekin. Apeta edo kasketaldia dala esango ba'lizue, ez izan ardura zuoi, apetak ez bait du zuen arimai ez txarrik ez onik egiteko kemenik; eman zai-tezte Jainko gure Jaunaren esku, inaltzurkeri saretan jausi ez zaitetzen. Deabrua dala esango ba'lizue, for eta ausiabar geiagokoa izango da; ez du ala ere olakorik esango, ondo eskolatua bada, ta esandako ondorenik ageri baldin bada; baiña esango ba'lu ere, Jaunak be-rak ba-dakit nik, zuekin dabillena noski, poztu ta ziur-aziko zaituzte, eta Onek emango dio berdin zuzen-dariari argia, zuek argitu zaitzazten.

9. Gogo-aita, naiz otoitz gizona izan, Jaunak bide ontatik eraman ez duena ba'dadi, laster izutuko da, eta pikutara botako du oro. Orixegatik, nere aolkua auxe duzue, zera, jakintsua izan dedilla ta era berean, aurkitu al ba'da, arimako gauzei emana; eta ama nagusiak eman bei baimena ortarako, arimea bada, daraman bizitzatik ikusi oi danez, seguru joan arren, beartua dago orain-dik nai duenari iritzia eskatzeko baimena ematera, biak bide ziurretik ibil ditezzen. Arimea bere aldetik, olako pertsonakin artu-emana euki ondoren, pakera bei, ortaz geiago nekarazi gabe onu ta kontseju billa, deabruak ba batzuetan, bildur-ikaratzeko errazoi gabe, izugarriz ko kezkek sortu oi ditu, arimea larritasunik estuenean jarten dutenak. Aitor-entzulea bereziki experientzi gu txikoa izanik, bildurkoi ikusten ba'du, ta berak ba-diotsa barruko zerak adierazteko, oso ixillikan euki bear zana ere iragarri egin oi da azkenik; eta arimea,

berriz, aurrean erabilia ta miñaren miñez akitua Y Uste zuen bere graziak ixillik zeudela, eta argiratuak ikusten ditu; eta ortik sortu oi dira arima onentzako ainbat gauza neketsu, eta gaur-eguneko egoera larriari begiratu ezkeru, gure Ordeneari buruz ere sor litezke. Arre ta aundia bear da, beraz, gauza auetan, eta nik lekaime-buruei benetan eskatzen diet ortan ardura ditezela.

10. Eta lekaime-buruak ez beza uste izan aizpa onako gauzak euki arren, besteak baiño obea danik: Jaunak bakoitza darama egokien derizkion bidetik. Mesede oiek egiaz, erantzunak diranean, asko laguntzen diote arimeari Jainkoaren mirabe aundi gerta dadin; baiña, bein edo beste, argalenak eraman oi ditu ^{Jain}koak bide ontatik. Onetan, bada, ez dago zertan baitsirik ez ezetsirik, on-egiteei begiratu baizik; onena ta santuena izango da ilduraz, apaltasunez eta barru-garbitasunez gure Jauna ondoen eta arduratsuen zerbidutzen duena. Benetako segurantzarik, ala ere, ezin dezakegu izan, egiazko Epaikariak bakoitzari merezi izan duena eman arte. Orduan sor ta for geratuko gara an, Aren iritzia zein bestelakoa dan ikusirik emen guk izaten dugunaren aldean. Goretsia bedi betikotasun guztian. Olantxe.

IX IDAZPURU

Jauna nola ar-emanean dabillen arimearekin iduripenezko ikuskariz. — Bein eta berriz kontseju ona ematen du, edo aolkatzen, bide orren irrikaz ez ibilteko. — Errazoiak jarten ditu. — Probetxu aundiko idazpurua.

1. Gatozen orain irudipenezko ikuskarietara. Auetan, diotenez, aurrerago esandakoetan baiño geiago es-

²⁸ *Bizitza*, XXIII aiala.

kua sar dezake deabruak; eta orrela izan bear du. Jaunarenak diranean, ostera, ondorio obeagokoak derizkiot nolabait, gure berezkoarekin egokiago bait datoz: azkenengo egoitzean Jaunak aditzen eman oi ditunak kendu ezkeru, diot, auekin berdintzekorik ez bait dago.

2. Ikus dezagun orain nola aurkeztu oi dan Jauna aurreko idazpuruan esan dudan ikuskizunean. Egin dezagun urrezko kutxa batean balio ta doai guztiz aundiko arri pitxia daukagula. Ez dugu egundo ikusi, baiña ba-dakigu ziur antxe dagoena, eta geurekin eramani bera, ez ditugu orren doaiak nabaitzen²⁹ Bera iñoiz ikuskatu ez arren, ez dugu origatik eder-etsi gabe uzten, experientziz ikusi bait dugu geixo batzuk sendatzeko indar berezia duela. Ez gara, ala ere, berari so-egiten ausartzen, ezta erliki-ontzia irikitzen ere; bestalde ezin dezakegu iriki, nola iriki pitxiaren jabeak bait daki bakar-bakarrik, eta ortaz baliatzeko eman zigun arren, bera geratu zan giltzarekin; bere gauzea duen ezkeru, berak irikiko du guri erakuts nai ligukenean, eta artu ere, egin oi duenez, berari ondo derizkionean artuko du.

3. Esan dezagun orain, ba, noizik-bein egundoko baten iriki nai izaten duela, eman dionari on egitearren. Argi dago, au egiten dionarentzat gero, poz aundiagoa izango dala, arri-pitxiaren ditziraz gogoratzean noski, ta olan errotuago geratuko da aren gomutamenean. Berdintsu gerta oi da emen: Gure Jaunari eder zaionean arima oni atsegingarri geiago ematea, argi ta erabat erakutsi oi dio bere Gizatasun txit gurena Berak nai duen bezela, naiz munduan zebilela legez, naiz berbiztu ondoan. Eta tximista bezain usu ta bizkor doan arren begi aurretik, ain bizi ezarritik gelditzen da Beraren irudi txit eder au irudimenean, alegia, andik ken-

²⁹ Santa Teresa'ren garaian, sarritakoa zan arri-pitxi batzuri, aldean eraman ezkeru, senda-doai bereziak ezartea.

tzea eziña begitantzen zait neri, dan bezela zeruan ikusi ta gozatu dezagun arte.

4. Irudia diodan arren, ez uste izan au ikusi dagianaren aldeko edo buruerara margoztua danik, egiaz eta benetan bizi-bizi baiño; eta noizik beinka arimarekin mintzo da, baita ixilpeko gauza arrigarriak adierazten ere. Jakin bear duzue, ikuskari onek pizka bat irauten ba'du ere, ez ditekela orri hegira egon eguzkiari baiño geiagoan, eta orrela usu ta bizkor igaro oi da ikuskizun au. Eta ez aren dirdaiak neke ematen diolako, eguzkiarenak bezela, barreneko begiari, auxe bait da au guzti au ikusten duena. Kanpoko begiarekin danean, ezin dezaket ezer esan; arestian aipatu dudan pertsona au, nik berariz ezagutzen dudana noski, etzan ortik igarotakoa, eta oar-ikasiz ez dakigunari buruz gaitz izango zaigu errazoi ziuerra ematea. Aren dirdaia, beraz, argi ixuri bezelakoa da, gauza me-me batez estaldutako eguzkiarena lakotxea, edo-ta, leuntzekoa ba'llitz, arri-ikatz (diamante) baten parekoa. Olanda-zapia dirudi jantziak, eta arimea, Jainkoak mesede au egiten dion guztietan, ia beti, lilluratua gelditu oi da, bere ezerezak ezin bait du jasan alako ikustaldi izugarririk.

5. Izugarria diot, ederrenetarikoa bait da, ta goxagarrigena, pertsona batek, naiz-ta milla urte bizi ta bere burua olakoak pentsatzen nekatu —gure irudimenean eta adimenean sartzekoak baiño aurrerago bait doa—, iruditu lezakeana baiño geiago nunbait; Aren aunditasuna benetan aundia da-ta, Aren aurrean arimea guztiz izuturik geratzen da. Ziuarki ere, emen ez daukagu zertan galdetu nola dakian nor dan iñork esan gaberikan, Bera dala ikusten dana, zeru-lurretako Jauna dana argirik askoz aitzen ematen da-ta; mundu onetako erregeak ez dira gai ori egiteko: auek, ondo ixillik eta konturatu gabe dijoazke, jarraigorik, edo-ta ots-egillerik, ez ba'daramate.

6. Oi Jauna!, kristauok bai gaizki ezagutzen zai-

tugula! Zer izango ote azken egun artan, gu epaitzera etorriko zeranean, orain bada emen, zeure emaztearekin artu-emanean sartzeraikoan Zuri begiratzek bakarrik ainbesteko ikara ematen ba'digu? Oi aizpak!, zer izango ote Ark bere abots garratzez esaterakoan: «Zoazte nigandik nere Aitaren madarikatuok?»^o

7. Gera bekigu orain oroimenean ondo josita ^{Jain} koak arimeari egiten dion mesede ontatik, on gitxikoa ez zaigu izango-ta; Jeronimo deunak, bada, santua zala ere, ez zuen saiesten berarenetik, eta olan ezereztat eukiko dugu gordetzen dugun lekaime-ordenaren laztasuna dala-ta emen jasango gendukean guztia; egiaz, asko iraunik ere, unetxo bat besterik ez da, betiraun arekin berdiñean eman ezkeru. Egi-egiaz diozuet, nik, benetan kaskarra izanik ere, iñoiz ez dut izan inpernuko oiña-zeen bildurrik, baiña ez dut uste berdintzekorik dagoenik inpernuratuta dauden arimak Jaunaren begi orren eder, ezti ta onberak aserre bizitan ikustea langorik; ez dirudi nere biotzak eramango lukenik: auxe da nik bizitza guztian sumatu dudana. Nolako bildurra ez du izango, orrelaxe zorrotz agertu izan zaionak, ortik artzen duen penak zentzunik gabe uzten du-ta? Auxegatik, itxura danez, geratzen da arimea zintzilika bezela. Baiña Jaunak lagundu oi dio aren jausi-aldiari, bere aunditasunari itsatsi dakion orren garaia dan jainkozko artu-eman onetan.

8. Arimea Jaunari hegira luzaroan egon ba'diteke, ez dut uste ikuskaria izango danik; irudimenak asmatutakoren bat izan daiteke, ikuskaria bizia bear ba'da, baiña illagoa aren aldean, noski.

9. Ba-dira pertsona batzuk, eta ba-dakit egia dana, nerekin artu-emana euki dutenak, eta ez iru edo lau, asko baizik, irudimena guztiz aula dutenak, edo-ta adimena oso azkarra, ala ez dakit zer dan, alegia, asmatzen

³⁰ Mat. XXV, 41.

duten guztia ikusten dutela iruditzen zaienak; egiazko ikuskari bat izan ba'lute ere, antz-emango liokete oker daudela; berak asmatzen dute beren irudimenez, eta ez die ondoren onik ekarten, eta leen baiño otzago geratzen dira, irudi elizkoi bat ikusi ba'lute bezela. Ez da buru eman bear zaion gauzea, eta amestutako zera bezain arin aaztu oi da.

10. Emen adierazten ari geran ontan ez da berdin gertatzen. Arimea ezer ikustetik, ez pentsazetik, urruti ere urruti dagoela, itzetik ortzera aurkezten zaio, gauzaki osoa, aalmenak eta zentzunak oro bildur eta naspil aunditan iraulirik, gero beurok pake doatsu artan ipiñiaz. Paulo Deuna lurrera eratxia izan zanean ekaitz eta zalaparta sortu zan zeruan, orrelaxe emen ere, barne-mundu onetan ere ikara aundia jazoten da, eta unetxo baten, esan dudanez, oro geratzen da ezti ta bare; arima au, berriz, egia garaietan oso eskolatua, beste irakasleren premiña barik; egiazko jakituriak, bere indarrik gabe, kendu egin dio zeukan moldegaiztasuna. Arimeak, gaiñera, ontan irauten du aldikada baten, doai au Jainkoagandikoa izan dalako ziurtasun osoaz, eta orduan, bestera esango ba'liote ere, ez liokete ortan iruzurra egon litekean bildurrik sar-azi. Baiña bertatik, aitor-entzulea tarteraturik bildur-azi naiez, Jainkoak uzten dio zalantzan ibil dadin, bear bada bere pekatuen zigorra dala uste izanikan. Ez du siñisten, ala ere. Bera orduan, beste batzuetan ere esan dudanez, fedearen aurkako zirikal dietan legez aurkitzen da: deabruak kezkarazi lezake, baiña arimeak ez du origatik berean ermo egoterik utziko. Areago: zenbat eta deabru maltzurak geiago zirikatu, orduan tinkoago lotu oi da tinkoago bere siñismenari, gaiztoak ezin dezaiokela eman onenbesteko ondasunik gogora ekarriaz; eta orrela da, izan ere. Deabruak ezin dezake zer aundirik ari mearen barrunbean. Itxurakizunak-eta, antzeztu ditza ke, baiña egundo ere ez orrenbesteko egiaz, aunditasunaz eta ondorioekin.

11. Au, aitor-entzuleak ikusi ezin dezaketen gauza dan legez, eta bear bada, Jainkoak doai au egin dionak berak ere ez daki gauzea nola azaldu, bildur dira aiek, eta errazoi aundiz izan ere. Zuur ta zentzunez jokatu bear da, beraz; eta itxaron aldiak ager-azi ditzala agerkari auen frutua, begiratuaz noski ariman uzten duten apaltasuna eta onoinenaren tinkotasuna; deabruak, berea baldin ba'da, Laster dakartza ezaugarriak, eta milla gezur-saretan atz-emango diote. Aitor-entzuleak, experi-entziduna ta onako gauzak txasta dituna baldin ba'da, denbora gutxi bear izango du ori ezagutzeko; esango dietetik azkar ikusiko du Jainkoarena, irudimenarena edo-ta deabruaren egintza dan, batez ere arimak ezagutzeko doaz gure Jaunak jantzi ba'du. Doai au ba'du, ta irakatsiz ornitua, oar-ikasi aundikoa izan ezta ere, agitz ondo ezagutuko du.

12. Emen bear-bearrezko Jana da, aizpak, gogo-aitarekin garbi ta argi, ta egitan ibiltea; ez diot pekatuak adierazten, ori argi dago-ta, otoitzeko gauzak kontatzean baizik. Au egiten ez ba'duzue, bada, nik ez dizuet ziurtzen ondo zoaztenik, ezta Jainkoa danik ere zuek eskolatzen zaituena; Onek nai du biziro bere lekuko diranekin, Berarekin bezelako egiaz eta argitasunaz joka dezagula, dauzkagun pentsamentuak oro ulertu ditzala nai izanik, eta batez ere gure egintzak, naiz-ta txikerrak izan! Gisa ontan jokatu ezkerro, ez zaiteze ibilli kezka ta asalaturik. Ikuskari oiek Jainkoagandikoak izan ezta ere, apaltasunaren jabe ba'zerate, eta barrunbe garbia, ez duzue kalterik izango; Jainko Jaunak ba-daki txarretik ona ateratzen, eta deabruak galdu nai zindurten bidetik geiago irabaziko duzue. Grazi ain aundiekin lagutzen zaituztela ikusirik, geiago saiatuko zerate Ari poz ugariago ematen, eta Aren iduria beti oroimenean erabilten. Jainkolari ikastun aundi batek zioanez, deabruak, margolari errimea danez, berari aurkeztuko ba'lio Jaunaren iduri bat bizi ere bizi, berak ez lukeala penarik artuko, berarekin jaiera piztu-azi ta

deabruari ber-berak darabilzkin belzkeriekin gerra egin baizik; margolari bat oso txarra izanik ere, origatik ez dala ezetsi bear egiten duen iduria, gure On bakarrena danean batez ere.

13. Oso gaizki iruditzen zitzaion jakintsu ari, batzuk, ikuskari aietaz eman oi zituzten kontsejuak, olakoren bat ikustean ixekaz adarrak ipiñi, adibidez. Ark esaten zuen, ikusten dugun lekuan ikusten dugula gure Erregearen irudia margoztuta, begiramen aundiz artu bear dugula. Eta errazoia du ikusten dudanez. Emen berton ere olaxe gerta oi da-ta: gure artean ere, beste bat maite duen pertsona batek ba'leki, ark bere argazkiari olako iraiñak egin dizkiola, ez luke ori ontzat artuko. Ez ote da, ba, bidezkoago guk beti ta nun-nai begiramen aundiz geure. Errege aundiaren gurutzea naiz beste edozein iduri artu ta erabiltea? Gai ontaz mintzatu nintzan arren beste toki batean, pozik jarri nuen emen ere, pertsona bat ikusia bait naiz naigabetua ibilten, osabide au artzeko agintzen ziotelako. Ez dakit nork asmatua izan zan ori, esana egiteko baiño gauza ez zana orrela mintzeko; aitor-entzeleak eman ba'dagio olako kontsejua ta ark esana egin ez, galduta zebillela uste zuena kezkarazteko nunbait. Nere kontsejua da, zuoi olako onurik emango ba'lizue, zuok ez dezazuela artu, nere iritzia apaltasun aundiz berari aditzen emanaz. Neri dagokidanez, kasu berdiñean nerekin ar-ema-na izan zuenak eman zizkidan errazoi bikaiñak oso-osorik zuritu ninduten.

14. Irabazi aundia ateratzen du arimeak Jaunaren doai au artzean; gero Beragan pentsatzean batez ere, Aren bizian eta Pasioan, Aren arpegi otzan eta txit eder artaz gogoratzen da atsegin aundi-aundiz; ez bait luke alako atsegiñik emango, beiñere ikusi ez dugun eta ondasunak eman dizkigun norbait ustekabean ikusiko ba'genu. Nik esaten dizuet, poz aundia emanik, probetxu onekoa dala gisa ortako gomuta atsegingarria. Onek ba-dakazki berekin beste on aundi batzuk ere,

baiña gauza auk dakazten ondorioz naikoa esanik utzi dugunez, eta geiago ere esan bearko dugun, orain ez dut geiago nere burua nekatu nai, ezta zuek nekarazi ere. Bein ta berriz, ala ere, zaipean jarri nai zaituztet, Jainkoak onako mesedeak egin oi dizkiela arimai jakin naiz entzun dagizuenean, ez dezazutela iñoiz eskatu ez opa izan zuok ere bide ortatik eraman zaitzatenik. Naiz-ta zuoi txit ona iruditu, eta aintzakotzat artu ta begirune aunditan eduki, ez da egoki errazoi batzuen-gatik.

15. Errazoiotatik leenengo da: apaltasunik eza bait dugu, egundo merezi izan ez duguna eman dezagula gura izatea: eta uste dut ori opa lukeanak ez duela aundirik izango. Ala nola beserritar nekazari bat errege izatea gura izatetik urruti dagoen, merezi ez duelako eziña iruditzen zaio-ta, apala dana ere orrelaxe dago gauza oiei buruz; eta nik uste dut auk izan ere apalak diranei bakarrik ematen zaizkiela, Jaunak bada oien aurretik, norbere buruaren ezaugera sakona barrendu oi du. Onako pentsamentuekin, izan ere, nola ezda egongo arimea barne-barnetik zuritua, inperuan ez eukiaz mesede aundia egiten diola uste ba'du? Bigarrena, atzipetua edo arrisku aundian dagoela uste duelako: deabruak ez du bear ate txiki bat zabalik ikustea besterik, milla azpi-joku ta lillurakeri guri egiteko. Iru-garrena, gurari bizia danean, irudimenak esku artu oi du, ta norberak ere, nai duena ikusten duela uste du, baita entzun ere, egunez gauza baten gurariz eta pentsamentuz ibillirik, gero gauean ortaz amets-egin oi duenaren antzera. Laugarrena, nabarmenkeri aundia dalako nik neurez bidea aukeratu nai izatea, egokien zein zaidan ez dakidala, Jaunaren eskuetan gauzea utzi bear-rean, Onak bait narama, ni ondo ezagutuz, niri dago-kidanetik, edozertan Bere naia osatu dezadan. Bostgarrena, uste duzue bear bada neke-lor ariñak dirala Jaunak mesede auk egin oi dizkienak jasaten dituzte-nak? Seigarrena, ba'litekelako zeuen galera aurkitzen

irabazia idoroko duzuela uste duzuen lekuan, errege izatearren Saul'i gertatu zitzaion bezelaxe.

16. Auetaz gain, aizpak, ba-dira beste errazoi batzuk ere. Baiña, siñistazue, seguruena duzuela Jainkoak nai duena besterik ez nai izatea, Onek ezagutzen bait gaitu geronek geure buruak baiño obeto, ta maitatzen. Jar gaitezen bere eskuetan, guregan bere nai santua egiña izan dadin; onela ezin dezakegu utsik egin, naimen erabakitsuz ontan bait gaude beti. Jakin bear duzue, gainera, auetariko grazi ugari artu arren, ez dugula aintza geiago merezi: asko artzen duena, geiagora bear tua geratzen. Geiago merezi izatekorik ez digu Jaunak kentzen, geure eskuetan dagoena da-ta. Ba-ditugu pertsona santu asko mesede auek artzea zer zanik inoiz ere jakin ez zutenak, eta beste batzuk artzen dituztenak, baiña santuak ez diranak. Ezta, ez uste izan doai auek jarraian egiñak diranik: alderantziz, bein bakarrik olakoak Jaunak ematen dituenagatik, kopuru aundian dira artu oi diran neke-lorrek; baiña arimeak, doai oiek berriz ere artuko ote ditunentz jakin gurarik nekarazi bearrean, berai nola erantzun pentsatzen du bakar-bakarrak.

17. Egia da, onek biziro laguntzen duela birtuterik oso beteenak edukiteko; baiña norbere alegiñez ardietsitako onoinena, birtutea askoz ere merezigarriago izango. Nik ezagutzen dut pertsona bat, baita bi ere —bata gizonezkoa—, Jaunak onako mesede batzuk egin zizkiona. Biak zebiltzan Jaun aundia otseindu nairik irrika bizitan, beren pentzutan onako mesede aundirik gabe; biak zeuden sufritu nairik, eta alamenez urbildu oi ziran Jaunarengana ematen zizkielako, eta olakorik ez artu al izan ba'lute, eragotzi ta gogor egingo ere. Jainkoak otoitz bikaiñean egin oi ditun gozotasunei buruz diot, eta ez ikuskari auei buruz: emen azken baten, ikusten da irabazi aundia, ta begirune aundia merezi duten graziak dira.

18. Nire eritziz, gurari auek ere izatez goitikoak dira eta arima guztiz maite minduenak; auek Jaunari adierazi nai lioke ez dirala aloger-zerbitzariak. Egundo ez dira oroitzen, esan dudanez, ezerगतिक sarituak izan bear dutenik, ori dala-ta zerbitzuan geiago saiatzeko: maitasunari atsegiña nai diote, orixe bait da beti beren eginkizun beren-beregia, milla eratan burutua. Arimeak, al ba'lu, milla ta milla era billatu nai lituzke Laztarenaren maite-sutan ur dadin; eta Jainkoaren aintza be-teagoko betikoz ezeztatua geratzea bearrezko ba'litza-teke ere, pozarren legoke ortarako. Beti-beti goratua bedi, olantxe; bere aunditasuna erakutsi nai du-ta, izaki ain ziztriñekin artuemana eukiteraiño eratziaz!

X IDAZPURU

Beste mesede batzuk, Jainkoak arimeari esandako bideetatik gabe egiñak. — Eurok arimeari dakartsoen probeixu aundia.

1. Agerketa auekin, era askotara gurutzetu oi da Jainkoa arimearekin: batzutan naigabeturik aurkitzen danean; beste batzutan, lan aundiren bat gaiñ etorri bear zaionean, eta beste batzuetan Aren Aunditasunak berarekin atsegin artu ta on-egin nai dionean. Ez dago zertarako gauza bakoitza geiago zeaztu; nire asmoa ezta, ba, bide onetan dauden aide ta diferentziak, bakoizka, nik ulertzen ditudan eran ta neurrian, ulertezte besterik; alert ditzazuen, aizpak, nolakoak diran eta nolako ondorenak utzi oi dituzten, uste izan ez dezagun itxurapen edo begitaziño bakoitza ikuskari bat danik. Eta egiaz ikuskari danean, daitekena dala jakiñik,

asaldaturik zaratea ateraten eta atsekabe aunditan ibilli etzaitzen. Asko irabazi oi du deabruak olakoetan, eta atsegingarri zaio bene-benetan arima bat kezka eta naigabez ikustea, ba-daki ba au oztopo zaiola Jainkoa goresten eta maitatzen oso-osorik jardun al izateko. Beste era batzuk ere erabilli oi ditu gure Jaunak, igoa-goak eta ez ain arriskutsuak, arimekin ar-emanen ari izateako; baiña oietan, uste dut nik, deabruak ez daukala zer-ikusirik; eta gauza txit ezkutuak diralako, esatea ere zailla da: irudimenezko ikuskariak, ordea, errezago aitzen eman ditzakegu.

2. Inoiz gertatzen da, Jaunak alan gurarik, arimea bere zentzun guztien jabe dala otoitzean aurkitzean, alako eten-aldi bat etortea bat-batetan, eta Jaunak egoera ortan agertzen dizkio ainbat ixilleko gauza, arimeak Jainkoagan berarengan ikusten ditula uste ditunak. Auek ez dira Kristo'ren Gizatasun santu-santuaren ikustaldiak, eta ikusten ditula diodan arren, ez du ezer ikusten; ezta au irudimenezko ikuskaria, oso adimenezkoa baizik; emen agertzen zaio animari nola Jainkoan ikusten diran gauza guztiak, eta nola dauzkan guztiak berberagan. Ondorio onekoa da au arimarentzat, naiz Jesus batekoa izan, gure barne-barnean errotua geratzen bait da, dardara aundia emanez. Ortaz ikusi ere argiago ikusten da pekatuaren gaiztakeria, Jainkoagan, ots, Jainko berberaren barruan egonik, gaiztakeri itzelak egiten ditugu-ta. Alegi bat jarri nai dizuet —egokia ba'litz—, ulertu dezazuten, naiz-ta au orrela izan eta guk sarritan entzun, ala ere edo ez gera konturatzen, edo ez dugu ulertu nai; nola diteke, izan ere, gauzea dan bezela ulertu ezkeru, orren ausartak izatea.

3. Jabetu gaitezen orain, Jaungoikoa egoitza edo jauregi aundi ta eder bat bezela dala, eta jauregi au, diodan bezela, Jainkoa bera dala. Pekataria bere txar-keriak egiteko, aldendu ate liteke bear bada, jauregi ontatik? Ez orixe, beintzat; baizik-eta, Jainkoa bera dan jauregi barruan gertatzen dira iguinker, lotsaga-

bekeri ta belzkeri guztiak, pekatariok egiten ditugunak. Oi, gauza ikaragarria, ondo ausnartu bearrekoa, ta gutxi dakigunontzat txit probetxugarria! Gauza auek ba'ge nekizki, izan ere eziña litzateke ausarkeri ain zoro ta zentzunik-eza eukitea! Gogora dezagun, aizpak, Jaunaren errukia ta eramanpena, une artan bertan amiltzen ez ba'gaitu. Eman dezaiegun eskerrak berari, eta lotsa izan gaitezten geure aurka egin edo esan oi danagatik sentitzen dugulako. Ez ote da munduko gaitzik aun diena, gu suminduak ikustea noiz-edo-noiz gu aurrean ez geundela eta, bear bada, asmo txar gabe esaniko itz batgatik, Gure Jainko Egilleak bere izakiai ainbat iguin garri bere Barruan sofritzen dieten bitartean?

4. O, giza-uskeria! Noiz arte, aizpak, zer-edo-zeran beintzat, ez ote diogu antz-emango Jainko guren oni? Ea, bada, ez gaitzala bildurtu iraiñak sufritzeak, baizik-eta egaz egin dezagun guztien gaiñetik, eta maite izan ditzagun gogo onez iraiñak egiten digutenak ere. Jainko aundi onek ez gaitu gu maitatu gabe utzi guk Bera sarri ta asko iraindu dugun arren; errazoiz gura du, beraz, guk guztiok barka dezaigula alkarri, iraiñik zorrotzenak artuak izanda ere! Nik diotzuet, aizpak, ikuskizun au laster doana izan arren, Jainkoak egiten duen, egiten dionarentzat, esker aundia dala, eta ondorio onak ekarri oi dituna, sarri-sarri gogoan erabilli ezkeru.

5. Baita gertatzen da, olaxe tupustean eta esan ezin daiteken erara, Jainkoak erakustea egia bat ber-beregan, izakietan dauden guztiak itxuraz beintzat illun uzten dituna, argi ta garbi ulert-erazirik Bera bakarrik dala gezurrik esan ezin dezaken egia. Ondo ematen du aitzen Dabid'ek eresi baten dioana, au da, gezurti dala gizaseme oro; " esaldi au ez litzateke orrela ulertuko, sarritan entzunda ere. Jainkoa uts egiterik ez duen egia dugu. Pilato datorkit gogora, zenbaten galdetu zion

Gure Jaunari, aren Nekaldian egia zer zan galdetu zio-
nean,³² eta zein gutxi sartzen dan Egia aundi au gure
buruan.

6. Nik kasu onetan zuoi geiago adieraztea nai
nuke, baiña ezin daiteke esan. Emendik atera dezagun,
aizpak, geure Jainko ta Senarrarekin zer-edo-zertan bat
etorri gaitezen, beti ta asko egia ontan ibiltan alegindu
gaitezela. Ez diot gezurrik ez dezagula esan bakar-baka
rrik, onetan bada, aintza Jainkoari, ba-dakit eta ikus-
ten dut ardura aundiz zabiltzatela etxe auetan ezerga
tik ere gezurrik ez esateko; nik esan nai dudana da,
ibil gaitezela beti egi-bidean Jainkoaren eta jentean
aurrean, alik eta zintzoen; ez dugu nai izan bear bere-
ziki geran baiña obetzat inork euki gaitzanik, eta geure
egintzetan eman dezaiegula bakoitzari berea, Jainkoari
berea eta geure burueri geurea dana, gurtitik egia ate-
ratzen saiaturik; eta olan gutxitzat eukiko dugu lur au,
guztia gezur to iduri besterik ez, beraz iraunkor ez dan
mundu au.

7. Bein gogoratzen nengoen nere baita, zergatik
ote zan Gure Jauna apalta-sunaren ain maitale, eta
ontan, nik ezer gogo eman gabe, bela-belakoan jarri
zitzaidan begi aurrean, onako au: Jainkoa egi utsa dala-
ko, eta apaltasuna egitan ibiltea bait da. Apaltasun
aundia duzu geurez ezer onik ez dugula, mixeri ta eze-
reza besterik, ez gareala uste izatea; eta au ulertu ez
dagiana, gezur-bidetik dabil. Au obetoago ulertu ta go-
gokoago zaio Egi gurenari, berarekin bat datorrelako.
Eder bekio Jainkoari, aizpak, gu geure ezaugera ontatik
bere laguntzaz inoiz ere ez irtetzea! Olantxe.

8. Mesede auek egin oi dizkio Gure Jaunak ari
meari, bere emazte egiazkotzat artua bait dauka onez-
kero, bere naia guztitan egiteko erabakirik dagoen ^{ari}
mea, ta bere gauza arrigarriak iragarri nai dizkio ta

³² Jo., XVIII, 38.

nolako gauzetan bete bear duen Bere naia adierazi. Ez dago zertan geiago azaldurik. Gauza bi auek aipatu ditut, probetxu aundiko iruditu zaizkidalako. Auetan ez dut nik aurkitzen bildur izatekorik, ematen dizkigun Jauna goratu baizik. Nere eritziz, deabruak eta irudime-nak ez dute emen zer-ikusi aundirik, eta arimea atse-gin aunditan geratu oi da.

XI IDAZPURU

Emen ari da Jainkoak arimeari Bera goza tzeke eman oi dizkion gurari bizi to oldar aundiko, bizia galtzeko arriskuan arrimea jarten duten batzuk azaltzen. — Onuragarri dala dio ar marentzat Jainkoak egiten dion esker au.

1. Askí izan ote dira Jaun Senarrak arimari egin dizkion esker auek usotxoa edo mitxeleta ase gera-tzeko (ez ezazue aaztua daukadanik uste izan), eta ja-rrí dezan il bearra duen kabia? Ez, orixe; bestetara, gaizkiago aurkitzen da. Naiz-ta urte asko izan doai auek jasoten ari dala, beti dabil intzirika ta negarrari emana. Auetariko mesede bakoitzak geitu egiten dio barne-oiñazea. Auxegatik da: bere Jainkoaren aundita-sunak ezagutuago ta gozatzetik urrutiago ta baztertuago ikusten du bere burua, ta onek bizi-bizi jarten dio gogoá; maitasuna ere berdintsu aziaz doa, Jainko ta Jaun aundi onek maitatua izatea merezi duela agertuaz doakion gisa berean. Eta gurariok apurka apurka geiturik di-joaz, urteak joan eta urteak etorri, oraintxe esango dudán neke-miñeraiño eldu artean. Urteak esan dut, emen esan dudán pertsonarekin gertatu dana aintzat

arturik; Jainkoari, ba, etzaio mugarik ipiñi bear; Arek lipar oaten arimea jaso dezake-ta emen esaten dan maillarik gorengoenera. Altsu da Jauna nai lukean guztia egiteko, eta asko egin nai du gugatik.

2. Batzutan, ba, gurari, malko, intziri ta oldar aundi aipatu ditugunak gerta oi dira: guzti auek, ageri danez, geure maitasunetik datozenak, noski, sen tipen biziakin ornituak. Eta auek, nai-ta atsekabez, eraman litezkenak dira, eta ez dituzu ezertan ere esan nai dudan auekin bat datozenak, ketan dagoen sua dirudita. Arimea onela erretan dagoela, sarri gertatu oi da, pentsamentu arin bategatik, edo-ta iltea luzatuz doalako, itz bat entzun dalako, kolpe bat datorkio (ez daki nundik ez nola), suzko gezi batek erasoko ba'lu bezela. Ez diot gezia danik, baiña dana dalakoa, argi ikusten da ezin daikela izan gure berezkotik irtena. Ezta kolpea ere, kolpea diodanarren; baiña sakon-sakonki zauritu oi du. Eta ez da, nik uste, lurreko naigabeak sentitzean baiño, eta izpi guztiz igeskor onek auts biurtzen du gure berezkoaren lur ontan idorotako guztia. Eta onela eziña da, orrek dirauan bitartean, gu geure izatez gogoratzea: aalmenak berealako batean geratzen dira loturik, ezertariko gauza ez dirala, oiñaze au geituzaziko dioten gugazetarako izan ezik.

3. Ez nuke nai geiegizkoa iruditu zaizuenik, dakustanez motz geratzen naz, ba, onetan, esan ezin daitekena da-ta. Zentzunen eta aalmenen gaiñezkaldi bat duzue au, barriri diot, naigabe au geiago senti-azteko ez dan gurtiarentzat. Adimena bizi-bizi dago, baiña ^{ari} mea Jainkogandik urrun dagoelako naigabetua izan bear duenaren errazoia ulertzen duelako batez ere; eta oneri Jaunak berak lagundu oi dio une orretan Beretzazko albiste bizi bat emanik, eta onek oiñazea aundiagotu egin oi du noski, berau daukanak lekaio-garrai zoliak eman-azteraiño aundiagotu ere. Ez luke besterik egin ere egingo, naiz-ta eramanpen aundikoa ta gorriak ira-

gana izan, oiñaze au ez bait da gorputzekoa, esan dudanez, arimearen barren-barrenekoa baizik. Emendik atera zuen pertsona onek gorputzekoa baiño latzagoak dirala arimako oiñazeak, eta uste du onakoxeak dirala Garbitokian dauzkatena ere; an ez dute zoztor gorputzik ez eukitea, emen, gorputzean bizirik, sufritzen dituzten guztiak baiño askotaz geiago, ziñak eta miñak ez ikusteko.

4. Nik ikusia dut egoera ontan pertsona bat, eta uste izan nuen egi-egiaz ilten zala. Ezta arritzekoa, eriotz-arrisku gorrian aurkitu oi da-ta. Orrelaxe, gertakari au iraupen laburrekoa izanik ere, soiña uzten du erabat erbaildua; idikiak dira biotz-taupadak oso, arimetk esan diteke irten nai duela jadanik Jainkoari emateko, ez bait da gutxigotako; alde batetik ez du gorputz-berorik eta bestetik kiskaltzen dago, beste apur batekin beraz Jainkoak beteak zitun arima onen gura riak. Ez gorputzean, esan dudan lez, ernaltzen dan arren, samintasunik ez asko ez gutxi sumatzen dalako; ondoren, bi edo iru egunez, idazteko ere indarrrik euki eziñik geratzen da, eta min ikaragarriekin; nik uste dut, beti geratzen zaiola gorputza ere leen baiño kemen gutxiagokin. Berau ez sentitzea, izan bear du arimearen barne-sentipena aundia izanik, gorputzari ezerk ere kasurik egiten ez diolako: bizitzan ere, soin-atal batean min zorrotz bat ba'daukagu, beste naigabe ta min asko izan arren, auek ez dira sentitzen; nik ikusita daukat au, eta ez gutxitan. Emen, ez asko ez gutxi, zati-zati egingo ba'lute ere, ez dut uste sentiduko lukenik.

5. Utsegitea dala esango didazue; orren esaneko dagokion ezkerro zergatik ez datorren bat Jainkoaren naiarekin. Onaiño egin lezakean ori, ta orrekin eman oi zuen bizia. Orain ez, bere errazoia beraren jaun ta jabe ez dala bait dago, ezta pentsatzeko gai ere, naigabetzeko errazoia duela ezik; bere maiteagandik urruti dagoen ezkerro, zertako nai du bizia. Bakartade bere moduko sumatzen du, lur osoko izakik ez dio-ta lagun

egiten, ezta zeruak ere ez liokete egingo, nik uste, maite duenak izan ezik; eta, jakiña, oro du mingarri. Zintzilik dagoen pertsona oaten antzera ikusi oi du bere burua, oiñak ez ditu lurreko ezertan jarten, eta ezin du zerura igo; egarri bizitan dago, ta eziña zaio uretara irixtea. Ezin eramandako egarria, ainbesteraiñokoa noski, ezerk ere kenduko ez diona, ezta berak kentzerik opa ere, Gure Jaunak Samaritarrari esan zionarekin ezik, eta ori ez diote ematen.

6. O, lagun nazala Jainkoak! Jauna, nola estutzen dituzun zeure maitaleak! Baiña, ala ta guzti ere, dana da gutxi ematen diezun sariaren ondoan. Ondo dago, bai, askoa asko kostatzea. Are geiago, izan ere, arima au zazpigarren egoitzean sartzeko garbiketeta baldin bada, zeruan sartzeko diranak garbitokian txautzen diran legez, guztiz gutxi da naigabetze au, ur-tanta bat itxasoan gutxi litzateken bezela; naiz-ta, nik uste, lur gainean diran oiñaze ta miñetatik aundienetarikoa izan. Oneri buruz, esan dudan pertsona onek olako asko sufritu zituan, bai gorputzezkoak eta bai gogozkoak; baiña aipatzen dudan neke-min onekin berdindu ezker, ezereza iruditzen zaio. Arimeak, ala ere, estimagarritzat dauka naigabe au, beronen duin etzala ezaguturik. Baiña sentimentu onek ez dio batere laguntzen bere miñak sendatzeko, baizik onekin biotz onez sufritzen du guztia, eta sufrituko luke bere bizitza guztian, ^{Jain}koak olan nai ba'lu: kasu ortan, baiña, ez litzateke bein ilko, beti il-urren egon baiño, egiazki gutxiago ez litzakena.

7. Gogora ditzagun, aizpak, infernua dauden aiek. Ez dute Jainkoaren naiarekin batera etortzerik, ezta Jaunak arimeari eman oi dion onako poztasun eta aintzaririk, ezta sufritzen dituzten oiñaze aiek irabazirik ekarriko diotenik ikusi ere, gero ta geiago ta geiago

Jo., IV,7-13.

Is

sufritzen dutela beti sumatu baiño: geiago ta geiago sufritzen dutela diot, ez bere2ko nekeai buruz. Eta arimearen neke-miñak gorputzarenak baiño askoz izugarriagoak izanik, eta aiek dauzkaten oiñaze-miñak esan dugun au baiño askotaz aundiagoak izanik eta eurok betiere-betierekoak izango dirala ikusiaz, zer izango ote da arima doakabe aietaz? Nik diotzuet eziña izango dala aditzen ematea, zein zentikorra dan arimearen sufritzea, eta zein bestelakoa gorputzarena, ortik ibillia izan ezik. Jaunak aitzen eman ba'digu, obeki eza-gutu dezagun da, zenbat zor diogun, bere erruki aun diz, toki ontara ekarri gaitulako, ta beraz itxaron ge nezake askatuko gaitula gaitzetik, geure pekatuak barkatuaz.

8. Geure jardun-arira itzuliaz orain, ikus dezagun nolako naigabez utzi genuen arima au. Oldar-mailla aretan ez du luzaroan irauten: geien ere, iru-lau ordu, nik uste; asko iraungo ba'lu, mirariz ezik, giza-makal tasunak ezingo luke jasan. Pertsona urari gertatu zitzaion bein, ordu laurden baiño iraun ezta ere, zati-zati eginda gelditza. Egia esan, oraingoan zentzuna galdu zuen oso-osorik, indartsu ere indartsu bait zan. Berbizkunde Pazko azken eguna zan, Pazko aldi guztia, egun oiek ziranik ere ulertzen ez nuela idortasun itzalean igaro ondoren, bizia amaitzen ez zalako itz bat bakar-bakarrik entzunaz, beingo-beingoan konorte gabe gelditu nintzan. Ezta pentsatu ere gogor egin lezakenik!... Norbaitek, sutan sartuta, su-lamari erre ez dezan berorik ez dezala euki agintzea bezela litzateke ori. Ez da ixillean jasan ditekene biotz-beratasuna, inguruan daudenak nolako arriskuan dagoen konturatu gabe igarrotekoa noski, naiz-ta barnean gertatzen zaionaren testigu ezin izan. Egia da, lagun zaizkiola nolerebait, itzal antzo agiaz. Eta onela dirala uste du lurreko gauzak oro.

9. Iñoizkoren baten zuek ere egoera ontan aurkitzea jazobo ba'litzateke, jakizue ontan sar daitekela

gure giza-makaltasuna. Batzutan gerta oi da, ikusi du-
zuenez, arimea ilteko irrika biziz dagoela, estu ta larri
aurkitzen danean batez ere; eta une larri-larrian dago-
-ta, gorputzetik irteteko ozt-oztan dala, iruditzen zaio,
ta orduan bildur da egi-egiaz, ta ez iltearren, naigabea
arintzea gura luke. ,Arin ulertzekoa zaizu bildur au be-
reko makaltasunetikoa dala; bestalde, ez da kentzen
arimeak daukon guraria, ezta samintasun au kentzeko
biderik ere ez dago, Jaunak berak kendu arte. Gei-ene-
tan au jazo oi da gainezkaldi aundi edo ikuskari bate-
ren bitartez, ontan Pozkille egiatzkoak poztazi ta indartu
oi du arimea, bizi izan nai dezan Aren naia dan artean.

10. Nekegarria da au, baiña ondoren aundiekin
geratzen da arimea, eta gain letozkion lan guztietarako
bildurrak galduta, barnean sentitu zuen atsakabe bizi
latzaren aldean, ezer ez dirala uste bait du. Onela ete-
kin eta probetxuz beterik geratzen da, beste askotan
ere olako miñak jasan naiez. Baiña ori ere eziña du
iñongo aldetik berri au izateko ez dago biderik, Jaunak
nai izan arte, datorrenean ez gogor egiteko ez kentzeko
biderik ez dagoen bezela. Leen baiña nazkagarriago du
mundua, ikusten du-ta bertako ezerk ere ez ziola lagun-
du une artan; eta izaki guztietatik askeago, ikusten
bait du Egilleak bakarrik poztu ta betetzen duela bere
arimea; baita Jauna ez iraintzeko begirune ta ardura
aundiagoz indarturik ere, ikusten bait du poztu bezela
min eman ere dezaiokela.

11. Gogozko bide onetan bi gauza daude, nire
ustez, eriotz-arrisku diranak. Bata au, arriskugarri Ja-
na, ta ez txikia; bestea, poztasun eta atsegin geiegizko
bat da, ainbestekoa izan ere, ta esan ditek arimea
iltera dijoala, zertxo baten zai dago gorputzetik irte-
teko: eta au egia esan, ez litzakio zoriontasun txikia
izango. Ebatzi orain, aizpak, errazoirik euki dudan ala
ez biotz ona bear dala esatean, eta Jaunak ere errazoia
izango duela, zuek gauzok eskatzean, Zebedeo'ren se-

meai erantzuna zuoi ere erantzuteko: kaliza edateko gai al ziran. ³⁴

12. Baietz uste dut erantzungo dugula guztiok, eta errazoi aundiarekin, Jaunak, bada, indarra ta kementa ematen dio bear duela uste duenari, arima auek gurtitan babesten ditu, eta euren aide irteten du jarririketa ta mamar-al dietan, Madalena'ren aide ³⁵ irten zuen bezela, itzez ezpada, egitez. Eta azkenez, azkenez... il aurretik, orain ikusiko duzuten legez, dana ordaintzen die batera. Bedeinkatua izan bedi beti-betikoz, eta gorets bezate izaki guztiak. Olantxe.

Mat., XX, 22.

³⁵ Luk., VII, 44.

ZAZPIGARREN EGOITZAK

Lau Idazpuru daude

1 IDAZPURU

Jainkoak, zazpigarren egoitzetara sarizera eltzen diran arimai egiten dizkien doai aund etaz ari da. — Arima to ezpirituaeren artean, dana bat izan arren, ba-dala dio bere ustez alako berdineztasun pizkat. Gauza oargarriak daude.

1. Gogozko bide onetan, aizpak, guztia esanda dagoela usteko duzue, ta ez dagoela geiago zer esanik. Burugabekeri polita litzateke au; Jainkoaren aunditasunak ez dauka, ba, mugarik, ezta Aren egintzak ere ez dute izango. Nork kontatuko ditu diran bestean Aren errukitasunak eta aunditasunak? Eziña da; orixegatik etzaiteze ikaratu esan danarekin, ezta esango danarekin ere, Jainkoaz esan daiteken asko-askotik izpitzo bat besterik au ez da-ta. Naiko erruki da gureztat, gauza auek guri iragarri zezaizkigun pertsona bati jakin-azi dizkiolako; orrela, ba, obeto ezaguturik Arek izakiekien daukan artu-emana, obeto goretsi dezagun Aren aunditasuna, Jaunarentzat ain atsegingarri diran arimak gutxian ez eukitzen saiaturik. Bakoitzak daukagu arima bat, baiña ez ditugu bere ezkutuak, bere barruan dau den ixil aundiak ondo ezagutzen, ezta aintzakotzat artu ere merezi duen bezela Jainkoak bere irudiko egin zuen izakia. Jainkoari nai dakiola —eder ba'zaionere luma zuzen-aztea, eta irakas dezadala nik nola aitzen eman bear dizuedan, zerbait beintzat, oraindiño

esateko dagoen askotik, eta Jainkoak berak egoitza ontan sartzen duenari ulertu-azten dionetik. Asko eskatu diot Aren Aunditasunari onezkero; nire asmoa, Arek ba-daki, Aren errukiak argitan jartea, Aren izena gero ta geiago goratua ta aintzatua izan dadin.

2. Jaunak entzungo didanaren itxaropenez nago, aizpak, ez neugatik, zeuengatik baiño, jakin dezazuten zenbat dagokizuen zeuen erruz ez dadilla gera zuen Se narak zuen arimekin gogozko ezkontza au, ikusiko duzuenez ainbat on dakartzin gogozko ezkontza au os patu gabe. Jainko aundi! Ni lako izaki kaxkar bat dardaraz dagoela dirudi ulertzerik ere merezi ez dudan gai onetan ari izatean. Eta nire ezbai ta naasmena aundiak izan dira, eta gogoak eman dit, egi-egiaz, egonleku au itz gutxitan bukatzea obe ez ote litzaken. Nik oar-ikasiz, experientziz dakidala uste izango dutela deritzait, eta au, nor naizen ba-dakit-eta, lotsakizun izugarri ta kezka-rnataza eroan-eziña litzakit. Beste aldetik, ez egitea derizkiot ziltzaldia ta aulkeria litzakela. Amor dagit, beraz, zuen uste ta esanak gorabera. Bedi Jauna goratua eta zertxobait geiagoa ulertua, eta oi u egin bezait mundu guztiak!... Ni, bear bada, illa nindeke idatzi onek argia ikusi aurretik. Bedeinkatua bedi beti-betikoz bizi dana eta biziko dana! Olantxe.

3. Gure Jaunari ondo datorkionean Beragatik ainbat jasan izan eta jasaten duen arima ontaz, onezkero gogoz beintzat emaztetzat artu duen ontaz errukitzen danean, gogozko ezkontza asotu aurretik, bere egonlekuan sartu oi du, mintzoz gauden zazpigarren egoitza ontan noski. Jainkoak bere egoitza zeruan daukan bezela, orrelaxe euki bear du ariman ere egoitz bat, Jainkoa bakarrik bizi izateko, esan oi dan legez, beste zeru bat. Garrantzi aundikoa da, aizpak, gure arimea gauza illuna danik ez uste izatea. Geure begiekin ikusten duguna baiño beste argirik geienetan ez dakusagunez, uste dugu ez dagoela beste barne-argirik, eta gure arima barruan ba-dala nolarebaiteko illuntasuna. Olaxe da

—nik aitortzen dizuet— grazian ez dauden arimentzat; baiña au ez da Zuzentasunaren Eguzkiak argitzen ez ditulako, eurengan dago ba oraindik izatea emanaz, arimea bera argia artzeko gauza ez dalako baizik, lenengo egoitzean uste dut esan nuenez, pertsona batek ulertu zuela adieraztean: arima doakabe auk orrelaxe daude espetxe goibel baten bezela, oin ta esku loturik merezi izatekorik ezertxo ere egin ezinda, itsu ta mutu. Egitan erruki gaitzke euretaz, eta gu ere noizbait orrela egonak gerala ikusi, eta Jaunak aietaz ere errukia izan dezakela.

4. Ar dezagun, aizpak, arreta bizia ta ez gaitzen iñoiz ere aaztu Jainkoari arima oien aide eskatzeko. Limosna txit aundia duzue pekatu astunean daudena-gatik eskatzea, urrengo kasukoa bera baiño ere naiko aundiagoa. Egin dezagun kristau bat eskuak atzean kate lodi batekin loturik begi aurrean daukagula, eta berau zut-abe bati dagola katigu ta goseak illik, eta ez jatekorik ez daukalako, jaki oso ugari gozoak ditu bere ondoan-eta, agoraiño eramateko artu ezin ditulako baizik, eta orrez gaiñera gora-larritan dago. Eta iltera doala dakus, eta ez aldiko eriotzaz, betikoz baiño. Ez litzateke izango, ba, ankerkeri aundia hegira egonik, agoan jateko apurren bat ez sartzea? Eta zer esango, zeuen otoitz bitartez, kateak kenduko ba' zenizkiote? Ikusten duzue... Gomuta zaitze, beraz, aldi-oro, ^{Jain}koari diozuten maitasunarren, zeuen otoitzetan arima errukarri oietaz!

5. Baiña orain ez dugu aieri buruz itz-egiteko asmonk, dagoneko beren pekatuengatik, Jainkoaren errukiari esker, penitentzia egin eta orain grazian aurkitzen diranai buruz baizik. Onako arima bat gogo-eman dezakegu, ez onezkero gauza baztertu ta mugatu bat legez, barne-mundu eder baten antzera baiño, ikusi dozuenez ainbat egoitza ta ain bikaiñak dauzkana. Eta zuzen eta bidezkoa da orrela izan dadin, arima onen barnean Jainkoarentzat egoitza dago-ta. Aren Aunditasunari eder

zaionean, bada, arima bati jainkozko ezkontza onen grazia egitea, lenengo bere egoitzean sartu oi du. Baiña eztu nai au besteetan bezela izatea, ots, zentzu-galtzeetan sartu zuenetan bezela. Jaunak, nik uste dut, orduantxe alkartzen du Berarekin, zentzu-galtzez, eta esanda geratu dan batasunezko otoitzaldian. Arimeak uste du ez dala bere erdian sartzeko deitua, egoitza onetan dan bezela, goi-aldera igoteko bakar-bakarrik baiño. Ontan gutxi doa: onela izan nai bestera, Jaunak berarekin alkartzen du, itsu ta mutu egiñik, Paul deuna lez Jainkoagana biurtu zan uanean,¹ gozaten duen grazia ta nola gozaten duen jakitea galaziaz. Arimeak orduan sentitzen duen gozotasuna, Jainkogandik urbil-urbil nabaitzetik datorkiona du. Baiña Jaunak berarekin alkartzen duenean, aalmenak galdu egiten zaizkio oso, ta ez du zertxo ere ulertzen.

6. Emen bestera da gauzea. Gure Jainko onak da goneko begietako ezkatak kendu nai dizkio; egiten dion mesedetik zerbait beñik-bein ikusi ta ulertu dezan; au ala ere gerta oi da modu naiko arrigarrian. Egoitza ontan sartu dan ezkeru, irudimenezko ikustez agertzen zaizkio Irutasun txit Santuko iru Pertsonak, egiaren itxurapenean bezela, diztiratze aundi bat bai litzan, bere ezpiritura datorken odei distiranta iduri. Iru Pertsonak bereziz ikusten dira, ta arimeak, emoten zaion albiste arrigarri baten bitartez, ziurtasun osoaz ezagutzen du iru Notiñak dirala izate bat, eta indar bat, eta jakite bat eta Jainko bakar bat. Olan fedez siñisten duguna, esan diteke ikustez ezagutzen dugula, naizta gorputz eta arimako begiekin ez izan, ez bait da irudimenezko ikuskaria. Iru Pertsonak osoan egiten zaizkio emen arimeari erdikide, eta mintzatzen zaizkio Jaunak esan zitula Ebanjelioak dioskun itz aiek aitzen ernanik; au da: Bera etorriko zala, Aitarekin eta Espi-

¹ *Apost. Egiñak, IX, 8.*

² *Idem., IX, 8.*

ritu Santuerekin batera, maite duen eta Aren aginduak beteten dituen arimeaz bizi izatera.'

7. Oi, lagun bekit Jainkoa! Bestelakoa bai dala itzok entzun eta siñistutzea, eta esan dudan bezela, noraiño diran egiazkoak! Eta arima onen izu-ikara egunetik egunera doa geituaz, iru Pertsona aiek beregandik ez dirala geiago aldendu deritzaio-ta. Argi ta garbi ikusten du, gorago esan danez, bere barnean daudela egotez; bere barne-barnean, toki oso sakon batean —ez daki zelakoa dan, eskolarik ez dauka-ta— bere baitan sentitzen du jainkozko lagungo au.

8. Au onela, zuek usteko duzue, arimea ez dala lasai ibilliko, birloratua ta ezer ulertu eziñik baiño. Bestera, Jainkoaren zerbitzurako dan guztian, leen baiño askotaz zoliago; eta zeregiñik ez ba'du, lagungo atsegingarri arekin geratzen da; arimeak, bada, Jainkoari utsik egin ezik, Berak ere ez dio iñoiz utsik egingo, nik uste; agirian ezagun-azoko dio bere begiera. Arimeak ortaz ba-du uste onik Jainkoak ez duela bertanbera utziko, grazi au egin dionez gero, ez diola berau galtzen utziko. Eta orrelaxe uste izan dezakegu egiazki. Berak ala ere alegin guztiak egin oi ditu, Ari ezertan ere gogait ez izateko.

9. Jakin bear duzue jainkozko begiera (presentzi) onek ez duela beti ain osorik jarraitzen —era ain argian diot— bere lenengo agerpen-unean lez, edo-ta Jainkoak arimeari mesede au egin nai liokenetan bezela. Orrela ba'litza, eziña litzakio beste ezertan jardutea, ezta gizartean bizi izateko ere ez litzateke gauza. Ala eta guzti, argi ain beteaz izan ezta ere, beti sumatzen du lagun-arte ontan aurkitzen dala. Pentsa dezagun au: pertsona bat beste askorekin aurkitzen da argiz beteriko areto batean; leioak itxi ezker, illunetan geratuko

³ Jo., XIV, 23.

litzateke. Pertsona arek, beraz, ikusi al izateko argia joan dalako eta berriz ikusteko argia etorri bear duela jakin arren, ez dio uzten antxe daudelako usteari. Orain galdetu dezakegu argia datorkenean, eta pertsonak ikusi nai izan, ikusi al ditun ala ez. Ez: au bere eskuan ez dagoena duzue; Gure Jaunak nai duenean iriki oi du adimenaren leioa. Erruki aundi-aundia egiten dio beregandik ez joanaz, eta arimeak orrela ulert dezala nai izanik.

10. Esan diteke Jainko gurenak emen nai duela gauza aundiagoetarako gertatu, laguntza miresgarri onekin. *Argi* dago, bai, ondo lagundua izango dala onbidetako ezertan aurrera jo dezan, Jaunak egin oi zizkion beste mesede batzuentatik noizik-bein zekarren beldurikara galduaz, gora aitortu dugunez. Pertsona ura, izan ere, obetua aurkitu zan gauza guztitan eta uste zuen euki litezken lan-neke ta zeregiñengatik, bere arimaren izate beiñena etzala iñoiz ere urrutiratzen egon-leku artatik. Onela, bere ariman zatiketa zegoela iruditzen zitzaion, eta Jainkoak mesede au egin eta gerotxoago, ^Peke-min aundiekin zebillelarik, artaz illeta joka ari izan zan Marta Maria'z larritu zan bezela,' eta batzutan esaten zion ura beti zegoela bere gogora atsedean artaz gozutzen, eta bera uzten zuela lanez eta zeregiñez betea, lagun-artean atsedetik ezin eukita.

11. Au irudituko zaizue, alabak, zentzun-gabeberia dala; baiña orrelaxe duzue. Arimea bat da, eta ba-dakigu; esan dudana, baiña, ezta zentzun-gabekeria, sarritan gertatzen dana bait da. Eta orixegatik esaten nuen nik barneko ondorio batzutatik argi ezagutu litekela arimearen eta ezpirituaren artean ba-dala diferentziarik. Izatez biak gauza berdiña izan arren, sentidu oi da batzutan bien arteko banaketa txit mee-zorro tza noizik bein batak onela ta besteak ala diarduela

⁴ *Luk, X, 40.*

dirudiana, Jaunak mesede egiterakoan eman nai dien jakera edo aokeraren arauera. Baita iruditzen zait ari mea ta beronen aalmenak ez dirala berdiñak, eta ez dala guztia gauza bat bera. Ots batez, gure barruan ainbat misteri ta ain me-bikaiñak daude-ta, ausarkeria litzake ni eurak azaltzen jartea. Beste bizitzan ikusiko dugu, Jaunak, bere erruki aundiz, ezkutu auek ulertuko ditugun toki artara Berekin artzeko grazia egiten baldin ba'digu.

II IDAZPURU

Gai beTean jarraitzen du. — Gogozko batasunaren eta gogozko ezkontzaren artean dagoen aldea. — Alderakizun bikaiñekin azaltzen du.

1. Gatozen orain, ba, Jainkoaren eta arimearen arteko ezkontzara. Meseda aundi au ez da beteten, egia da, oso-osorik beintzat, lur-gaiñean bizi garen bitartean; Jaunagandik urrunduko ba'giña, izan ere, on aundi au galduko genuke. Jainkoak lenengoz grazi au egin oi duanean, Aren Aunditasuna arimeari agertu nai zaio bere Gizatasun txit deuna irudimenezko ikuskariz erakutsiaz, ondo ulertu dezan eta doai ain gurena artzen duenetik ez-jakiñean egon ez dadin. Beste pertsona batzuei beste era batera agertuko zaie, baiña aipatu dugun pertsona ari jaunartu ondoren, disditsu, eder eta aundi, berbiztu zanean legez, itxuratu zitzaion Jauna, eta au esan zion: sasoia zala onezkero Bere gauzak arek beretzat ar zitzala eta arenen ardura Berak izango zuela, ta beste itz batzuk, esateko baiño sentitzeko geiago diranak.

2. Au ez dala gauza berria dirudi, beste batzuetan ere Jauna onelaxe arima oni itxuratu zaiola-ta. Baiña emen guztiz bestera izan zan, eta bere senetik aterata, bildur-ikaraz utzi bait zuen: lenengo, indar aunditan izan zalako ikuskari au, ta bigarren, esan zizkion itza kaitik; eta baita arimearen barru-barruan, Jauna itxuratu zitzaion lekuan, ez bait zuen iñoiz ikusi olako ikuskaririk, esan dudana baizik. Jakin bear duzue jakin ere, aide aundia dagoela aurreko ikusgaien eta bizitoki on takoen artean. Gogoz jakiña, ezkontz-itza ematetik be netako ezkontzara aide aundi duzue noski, bi ezgaitu ta onezkero banatu ezin ditezkenen artean dagoena bezela.

3. Leen ere esana utzi dut adibide auetara jo dugula beste egokiagorik aurkitzen ez dalako. Baiña aurrean euki bear dugu beti emen ez dagoela gorputz-gomutarik, arimea onegandik aldendurik daukagula baiño, ta espiritu uts ba'litz bezela; gogozko ezkontzan askotaz gutxiago, orraitio, batasun ezkutu au arimearen barren-barren erdian egin oi dalako, au da, Jainkoa bera dagoen lekuan antza danez, eta onek ez du aterik sartzeko bear, nere iritziz. Ez dala aterik bear diot, oraiñarte esandako guztian bada zentzunak eta aalmenak ziran itxura danez bitarteko, eta Jaunaren Gizatasunaren agertzea ere orrela edo izan zan; baiña oso bestelkoa da gogozko ezkontzako batasunean gertatzen dana. Arimearen erdian agertzen da Jauna —ez gero irudimenezko ikustaldiz, adimenezko baizik— esandakoetan baiño aski goxo-samurrago, Apostoluei agertu zitzaizen bezela, atetik sartu gabe, au esanaz: «*Pax vobis*». ⁵ Ain bait da ezkutua ta doai aren goikoa Jainkoak an ari meari unetxo baten eman oi diona, eta ai n ^{ari} bizia meak nebaizen duen atsegiña, nik ez dakit zerez berdinkatu, Jaunak zeruan dagoen aintza bera une artantxe iragarri ta agertu nai diola izan ezik, eta au ere beste

⁵ Jo., XX, 21.

ikuskari ta barne-gozotasun guztiak baiño bizi ta samurragoko eran. Auxe baiño ezin liteke esan emen: uler daitekenez, arimea, arima onen ezpiritua diot, ^{Jain} koaz bat-egiñik oso; Bera ere espiritua da-ta, Aren Aunditasunak, agert-azi nai izan digu guri digun maitasuna, berau norañokoa dan pertsona batzuei aditzen emanik, Aren aundi-izatea goretsi dezagun. Izan ere, estu bai estu alkartu gura izan du izakiarekin, eta ezkontzaz lotuak onezkero banandu ezin ditezken lez, Jaunak ez du arimagandik aldendu gura.

4. Bakuntza edo gogozko itz-ematean ez da orrela; alkarrri itz-eman dioten oiek, ba, sarri bananduten dira, zeukaten batasuna ausirik; izan ere, batasuna gauza bi batean alkartzea dan arren, banandu litezke ta gauza bakoitza berean geratu. Geien baten ikusi oi dugunez, azkar doa Jaunaren doai au, eta arimea, gero, bere lagun barik geratzen da: sumatzeko era barik beintzat. Baiña gogozko ezkontza ontan ez da orrela; emen beti geratzen da arimea, erdi-une aretan, bere Jainkoa-ekin. Esan dezagun batasuna izan daitekela, bi argizagi puntetan bete-betean alkarturik, bien argia argi bat besterik egingo ez ba'lute bezela, edo-ta tunda-metxea ta argia ta argizaia dena ba'lira; baiña gero errez berezitu daitezke argizagi bata bastetik, eta bi argizagi geratzen dira, edo argizagiaren tunda-metxea. Emen, orde, ura zerutik erreka edo iturri baten jausi ta dena ur egiñik geratzen zaiguna bezela da; onezkero ezingo da banandu ez jakin zein dan erreka ura eta zein zerutik jausi zana; edo-ta itxasoan sartzen dan erreka-txo txiki bat lez, ezingo dira biok alkarregandik bereizi; edo-ta gizategi baten bi leio ba'leude bezela, argi-par-rasta aundia ixurtzen dana: zatiturik sartu arren, argi bat egiten da guztia.

5. Auxe da bear bada Paul deunak dioskuna: *Jau-narekin biltzen dana, berriz, A rekin espiritu bat egiten*

da; ⁶ goitiko ezkontza oni buruz dio itxura danez, Aren Aunditasuna alkartez arimara etorri dala dirudi-ta. Beste au *be baño: mibi vivere Christus est, mori lucrum.* Kristo da neretzat bizia, eta irabazia eriotza.' Onela esan dezakela emen arimeak nik uste; ementxe ilten da, ba, esan dugun mitxeletatxoa, eta pozik il ere, onez-kero bere bizia Kristo da-ta.

6. Au obeto ulertzen da denbora joanez uzten dituen ondorioetatik; argi aditzen da orduan, ats-gora ixil batzuen bitartez, Jainkoa bera dala gure arimeari bizia ematen diona; ats-gora oiek sarritan bizi-biziak dira, ta ezin daiteke inolaz ere dudamudan ipiñi oiek, arimeak ondo ere ondo sentitzen bait ditu, naiz-ta nola adierazi ez jakin; eta sentimentu onek eraginda, batzuetan, ezin eutsita noski, onako itz goxo samurrak ebaki oi dira: «Oi, nere biziaren bizi! Oi, lagun zaitudan eusgai!» ta olako gauzak. Jainkoa, ba, itxura danez, beti arimeari jaten ematen dagoen jainkozko bular aietatik gazteluko jende guztia azkartzen duen esnezko izpi batzuk irtetzen dira; Jaunak nai duela dirudi zelan edo alan auek ere arimeak duen gozotasuna izan dezatela, eta iturritxo txiki au murgildu zan erreka urtsu artatik jalgi ditezela noizik-bein ur artatiko kolpe batzuk, bi ezkondu auei gorputzetiko zerbitzua egin bear dietenak janaritzeko noski. Eta onik onenean uretan sartutako pertsona batek, naizta konturatu barik izan, uraren eragiña laister sentituko luken bezela, era berean, eta ziuertasun geiagoz oraindiñokarren, ulertu oi dira aipatu ditudan eragikun auek. Eta ur kolpe aundi bat, esan dudan bezela, asierarik euki ezik, ezin etorri leikigun legez, era barean argi ulertzen da ba-dala barrenean norbait gezi auek jaurtitzen dituna ta bizi oni bizia ematen diona, eta ba-dala eguzki bat, arimaren barrenetik, aalmenetara argi indartsua bialtzen duena. Arimea, esan

I Kor., VI, 17.
Filip., I, 21.

geure burua ez dugu ikusten geure irudia itsatsita dagoen eta begira gauden izpillu ontan.

9. Esaten genduanera itzulirik, ba, Jaunak ^{ari} mea bere bizileku ontan sartzan du, au da, arima bera-
ren erdi-erdian. Eta, Gure Jauna dagoen zero-zeroak
zirkiñik egiten ez omen duen bezela besteen antzera, era
berean aurkitzen da arimea ere, bein bizitoki ontan
sartu ezker, ovent aalmenak eta irudimenak ez dute
zirkiñik: zirkirn edo mogimentuok, besterik ezpada, ez
zaizkio kaltegarri, ez diote pakerik kentzen. Esan nai
dudala dirudi, Jainkoak mesede au egin dion arimeak
ziur uste duela zeruratzea, ta ez dala geiago pekatuan
eroriko. Ez diot olakorik; nik or-emen arimea ziurtasun-
ean dagoela, itxura danez, esaten dudanean, Jainkoak
bere eskutik leukaken eta arimeak Ura iraintzen ez duen
bitartean, ulertu bear da. Ziur dakit beintzat, egoera
ontan aurkitu eta urteetan onela irauan arren be, ez dala
ziurtasun bete-betea aurkitzen; bestera, leen baiño ar
Jura ta beldur geiagor ibilli oi da gauzarik txikienean
ere Jainkoa ez iraintzeko, eta, aurrerago esango dugu-
nez, eta Aren zerbitzuak leial eta zeatzago egin naiez,
eta egin al dezaken gutxia eta egin bear lukean askoa
ikusiaz, miñetan eta nastua. Ezta, izan ere, gurutze
pitiña, penitentzi asko aundia baizik, onako arimeari,
ba, penitentzi egitea, zenbat eta aundiagoa atsegingar-
riago zaio erabat. Benetako penitentzia zaio Jainkoak
osasuna ta indarrak kentzen dizkionean, nekeak artu
ta buru-ukapenak egin izateko noski; beste toki batean
esan dudanez, onek min aundia ematen baldin ba'du
ere, emen askotaz ere aundiagoa da, ta bera itsatsita
dagokion sustraitik datorkio guztia, urrean. Zugaitz bat,
ur-korronta alboan landatua dagoena, ezeago irauten
duen bezela eta frutu ugariago ekarri, zer dala-ta mi-
retsi arima onek leuzkaken gurariengatik, beronen egi-
azko espiritua orain bat-eginda baldin ba'dago esan gen-
duan zerutar ur arekin?

10. Esaten genuenera biurtuz, bada, ez dago zer-

tan aitorturik aalmenak, zentzunak eta griñak beti pake orretan iraungo dutenik; arimea, bai, paketan dago. Baiña bere barrengo bizitokietan ez dira falta, noizka bein bein, gerrak eta lanak eta nekeak; eurok, ala ere, geienetan ez dira gauza dagoen tokitik aldendu ta pakea kendu-azteko. Gure arimearen edo espirituaren erdi-unea esaten guztiz zailla da, eta zaillago siñisteko, eta uste dut, aizpak, berau adierazten ez dakidalako, esaten dudana ere zuek ez siñistuzeko tentaldiren bat zuoi emateko arriskuan nabillela; izan ere, arilanak eta naigabeak daudela ta arimea pakean datzala esatea, korapillotsua duzue. Adibide bat edo bi jarri nai dizkitzuet: Jainkoari eder bekio euron zerbait diranak izatea. Baiña orrela ezpalitza, nik ba-dakit esan dudanean egia diodala.

11. Erregea bere jauregian dago eta bere erreinuan gerrak eta gauza gogaikarri asko egon arren, eztu origatik bere errege-aulkia uzten; orrelaxe emen ere: beste egonleketan pizti pozoitsuak ibilli ta zarata ta iskanbil ikaragarriak entzun, iñor ez da sartzen an arimea dagoen lekutik, ateraten. Entzuten dituen zurmur eta uxubilloak ere, penagarri zaizkion arren, ez dute kezkatzen, ezta duen paketik asalderazi ere. Griñak onezkero gaindituak dira, eta beldur dira an sartzen, askoz apaletsiago urtengo lirake ta. Gorputz guztia daukate miñetan, burua osasuntsu dagoela. Gorputza miñez egon arren, buruak ez dauka zertan kexarazi... Irribarrez nago adibide auetaz, ez bait zaizkit atsegin, baiña ez dakit besterik. Erabil buruan nai duzuen; esan dudana egia da.

Azaldu dugun otoitzak dakartzin ondorio aundietaz diardu. — Arretaz gogo eman bear zaie, zoli ta kontuz begiratu, aide ta di f erentzi arrigarria bait dago leen esandakoetatik auetara.

1. Esan genduan, ba, mitxeletatxo au illa zala, poz aunditan il ere, bere atsedena idoro zuela-ta; orain Kristo bizi da beregan. Ikus dezagun ze bizimodu daraman, eta nolako aldea dagoen leen egiten zuenetik oraingora; ondorenetatik ikusiko dugu, ba, esanda geratu dana egiazkoa dan ala ez. Nik ulertu ta etsi neza-kenetik, esango ditudan auek, dira.

2. Lenengoa, bere buruaz aaztutzea da, bera zin-zinëz ez dala esan diteke-ta, adierazi dugunez; aldatua sentitzen da arimea oso-osorik, eta ez du bere burua ezagutzen, ezta oroitzen ere beretzat zerurik dagoenik, ez bizitzarik ez izen onik, Jainkoaren aintza bait da bere ardura ta alegin bete-betea. Jaun altsuak esan zizkion itzak, itxura baten, ondorio onak dakarzte egin-tzetan, au da, hegira zezala Jaunaren gauzetan, Berak begiratuko zuela arenetan eta. Onela, ez du axolik Berta ditezken gauzetan, alako aazmen bat baizik, eta onela, esan dudanez, ez dala geiago dirudi. Ezta ez luke izaterik ere nai ezertan ezer, Jainkoaren aintza ta ospea zerbaiten geitu-azia izango dala bere bitartez uste duenean ezik: augatik, bai, gogo onez eskaiñiko luke bere bizia.

3. Orraitio ez uste izan, aizpak, arimea au dala-ta jan gabe ta lorik egin gabe dabillenik, berau oiñaze aundi dakion arren; ezta ez du uzten betetzeka bere bizimodu legeak aginduetatik ezertxo ere: barruko gau-zetzaz ari gera emen. Kanpotiko eginzei buruz ez dau-

kagu emen zer esan aundirik; onek bait dakarkio, izan ere, duen naigabea; ezer ez dala ikustea bere indarrak orain al dutena. Baiña bere esku dagoen edozertan eta orrekin Gure Jaunari zerbitzu egin daikeola ikusi ez-kero, ez Luke munduko ezerगतik ere burutu gabe utziko.

4. Bigarren, ondorena neke-lorrek igaro ta erama-teko gurari bizia, baiña ez bere senetik aterateko mo dukoa, leen izan oi zanez; onelako arimetan Jainkoaten naia eurengean egin dedillaren irrika bizia geratzen bait da, Aren Aunditasunak egin dagian oro, ontzat eman oi dute: nekepean bizi izatea nai baldin ba'lu, bedi zorionez; nai ez ba'lu, ez dira kezkarazten leen bezela.

5. Arima auek, aurrean erabilliak diranetan eta, poz aundia sentitzen dute beren barrunbean, adierazi duguna baiña pozkario aundiagoa noski, eta gaitz egin edo-ta egin nai diotenenganako gorroto izpirik ere gabe; areago, maitasun berezi batekin inguratzen diturte, eta lanpetuak ba'dakusate, bigunki sentitzen dute barne ta edozer egingo luteke arazo ortatik aiek azkatzarren; eta Jainkoaren eskuetan uzten dituzte gogotik, eta Aren Aunditasunak egin oi dizkieten doaietatik ere gertu le gozke galtzeko, aieri egiteगतik, Gure Jauna naigabetu ez dezaten.

6. Baiña ona ni guzti ontatik geien arritzen naue-na. Ikusiak dituzue arima auen oiñaze ta neke-miñak il eta Jainkoa gozatzera joatearren. Orain, ordea, irrikatzen daude bizi-bizi Ura serbitzeko, Ura aintzatzeko eta, al ba'luteke, arimaren bati on egiteko, orain ez bait dute iltzerik gura, bestera neke-lan artean urte asko ta luzez bizi izatea baiña, gauza kaskarrean izanik ere, Jauna euren bitartez goratua izango ba'litza ere. Eta ziur ba'lekie ere, arimea gorputzetik irten ordukoxe Jainkoaz gozatzera dijoala, ez die axolik, ezta santuak duten zoriontasuna gogoz eman ere: ez dute orduan beintzat an egoterik opa. Beren poza onetan dago: Gu-

rutziltzatuati lagun egin zer-edo-zertan, al ba'da beintzat, batez ere orren iraindua ikusten dutenean, eta orren gutxi dirala, gaiñerakoak albora utzirik, Aren ospea egi-egiaz billatu oi dutenak.

7. Noizik bein, egia da, guzti au aazturik, itzuli oi zaizkio samurki erbeste ontatik irten eta Jainkoarekin gozatzeko naikuntza ta gogoak, ain gutxi serbitzen dutela ikusiaz batez ere; baiña gero, bere egoerara azkar itzulirik, eta berarekin daukala jarraiki ikusirik, orrekin pozarren, Jaunari eskeintzen dio bizi nai izatea, berak egin dezaioeken eskaintzarik neketsuena bezela. Eriotzak ez dio beldurrik ematen, zentzu-galtze goxo batek ba'letorkio baiño geiago. Gauza arrigarria au da: ain eroan-eziñeko oiñazeakin gurari aiek ematen zituen Jauna bera dala orain beste auek ematen dituna. Bedi betieren beti goratua ta donetsial!

8. Arima auen azken xedea ez da erregalu ta goxotasunetan ibiltzea Jauna bera bait daukate berengan, eta Aren Aunditasuna da orain aiengan bizi dena. Argi dago Kristoren bizitza etengabeko oiñazea ta saminta suna besterik etzala izan, eta gurea ere orrelakoa izatea nai du, gurariz beintzat; ala ta guzti ere, ba-daki gure aultasuna bere laguntzarekin indar-azten, bear dugula ikusten duenean. Alako arimak oso-osoaan dute lureko gauzen axolik eza, bakar-bakarrik bizi nai dute beti, edo-ta arimaren baten aide lan egiteari loturik. Ez dute idortasunik, ez barne-miñik, eta ez luteke, Gure Jauna goretsi besterik nai izango, Aren gomuta samurkiro gogoan erabillirik, eten gabe. eta zabartzen diranean Jaunak berak esnatzen ditu esan dugun eran; onela ikusten da argi ta garbi arimearen barren-barrenetik datorrela bultzada ura, edo ez dakit nola aitzen eman, bultzadari buruz esan genuenez. Ezti-eztia da emen gertatzen dan au, baiña ez dator ez pentsamentutik, ez oroime netik, ezta arimeak berez ezer egin zuela ulertu dai-teken gauzatik. Au geienez eta sarri gertatzen dana dalako, arduraz ikusi **ta** aztertua izan **da**. Suak ez du

bere garra berantza bialtzen, naiz-ta aundia izan, gorantza baizik, era berean gure kasu onetan ere: barruko aruntzonuntz au arimearen erdi-erditik sort-arazi ta aal menak esnaraztera dator.

9. Egiazki, otoitz-bide onetan beste irabazirik ez ba'lego ere, Jainkoak nolako arduraz nai duen gurekin artu-emana izatea, ta nola guri erreguka dabillen —*ez* dut uste beste ezer danik— Berarekin gaudela eskatuz noski, neke-lan guztiak, beti ta luzaro, ongi eramanak dirala derizkiot, Aren maitasunaren ikutu gozo sarkor auen gozamenaren ordaintzat. Ontaz, aizpak, oartuko ziñaten; nik, alkar-otoitzera eldu ezketiño, Jauna ardura onekin dabillega, uste dut, gu Bere aginduak gordetan zabar ez ba'gabiltza. Onakorik gerta litzakizuenean, bi zileku oven barrutik datorrena dala gogora zaiteze, geure ariman Jainkoa dagonetikoa, eta ez aspertu Ura goratuz; zur egon, berea da mezu au, maitasun beroz idatziriko txartel au, eta zeuok bakar-bakarrik aditu dezazuten nai du izki ura eta beronen bidez eskatzen dizuena. Zeuen aldeti, berriz, eguneroko gauzetan ari izan arren, edo-ta jenderen batzuekin mintzoz, ez utzi Aren Aunditasunari erantzuna eman gabe; sarritan jazoko bait da Gure Jaunak grazi ixil au zuoi askoren aurrean ematea, ta erreza zaizue, barne-erantzuna izango da-ta, diodana egitea, maitasunezko egintza bat osotuz, edo Paul deunak zioana esanaz: *Zer nai duzu, Jauna, nik egin dezadan?* " Berak orduan, era askotara erakutsiko dizue an, nola Berari atsegina izan; eta ura aldi egokia izango zaizue, ortan Jauna entzuten daukagula dirudi-ta. Gaiñerakoan, ikutu samur onek gertatzen du ia beti esan dudana egiteko, alako asmoarekin.

10. Emen, egonleku ontan dagoen alde ta diferentzia, esandakoa duzue: emen ez dagoela, ia egundo ere, idortasunik, ezta gaiñerako beste guztietan noiztik

¹³ *Apost. Egiñak, IX, 6.*

noizera zeuden aietako driska ta zalapartarik. Arimea emen, ia beti, nare ta patxara aundian dago, ta oso seguru mesede gorenengo ori Jainkoagandik datorkiola ta, deabrua tartean sartu daitekenaren dudarik izatea eziña litzatekela-ta, zentzunak eta aalmenak ez bait dau kate emen, esan dudanez, ezertariko zer-egiñik. Jaun Altsua agertu zitzaion arimeari, eta Berarekin sar-azi zuen deabrua, nere ustez, sartzan ausartuko ez dan, eta Jaunak berak ere utziko ez Bion, lekuan. Labur, emen artzen diran grazietan, arimeak, esan dudanez, ezertxo ere berak egin gabe, Jainkoari bere burua oso-osorik ematea izan ezik, artuak ditu.

11. Jaunak otoitz ontan arimea bitxitu ta eskolatzan duen emengo era osorik paketsu ta arrabotsik gabea da, ta Salomon'en jauretxea eraikitzerakoan bezela dala deritzait: an etzan zaratarik entzun bear, eta ^{Jain}koaren eliza onetan ere, berdintsu, bere egonleku ontan, Bera ta arimea bakarrik gozatzen dira ixiltasun izugarrian. Adimenak ez du iraulirik, ezta zer billaturik ere. Sortu duen Jaunak ementxe euki nai du atsedentsu, eta ikus dezala zirritu batetik legez gerta oi dana. Noizean beinka au ere kendua izango zaio, ta ez diote begiratzen utziko, baiña tarte labur-laburrean bakarrik; emen ez dira, ba, nik uste, aalmenak galtzen, ezta ezer egin ere, ikarak jota bezela daudelako.

12. Ona, neu ere izitua nago. Arimea, une ontara iritxi ezkeru, ez dago geiago zentzu-galtzeren bati lotua, zentzunen jokia galtzeraño, esan nai dut. Inoiz gertatu oi ba'dira ere, ez dituzue leen esanda utzi ditugun zorabio ta espirituaren egazkada aiek bezelakoa; gutxitan izan oi dira ta orduan ere ia beti ez leen bezela agirian leen izan oi zanez; ezta ez diote laguntzen deboziorako jaiera edo beste momentu batzuk ikusteak, leen jazo oi zan bezela, irudi eiaspentsu bat ikusi edo itzaldi bat entzun —ort-oztan entzuten zana—, edo-ta eresi-nota batzuk. Mitxeletatxu gaizoa antziz eta irrikaz betea zebillelako, edozer gauzak izukatzen zuen, eta egazari eman oi zion.

Orain, ordea, nai bere atsedena aurkitu duelako, nai arimeak ainbat ikusi duelako bizileku ontan, ezta bat ere ikaritzen; olako laguna aurkitu duelako edo, ezta bizi leen lako bakartadean. Itz batean, aizpak, nik ez dakit zergatik, Jaunak egoitza ontako aberastasunak erakutsi ta berau bertan sartu dagianean, lenagoko aultasun guztiak suntsitzen zaizkio, neke-min askoren iturri zitzaizkionak eta leen kentzen ez zitzaizkionak, noski. Agian Jaunak sendotu, zabalagotu ta trebeago egin duelako da; edo-ta agirian adierazi nai izan zuen bear bada arima auekin ixillean egiten zuena, Aren Aunditasunaren erabakien arauera; Aren burubideak, izan ere, guk emen iruditu genezaken zer guztien gainetikoa dira.

13. Auek, eta aurreko otoitz-mailetan, an eta emen, onak dirala esanaz adierazi ditugun beste guztiak, ^{Jain}koak arimea Berarekin biltzen duenean eman oi ditun ondorenak dira, Emazteak eskatzen zuen muxu onekin nunbait; nik uste dut emen beteten zaiola arimeari opa nuena. Emen ematen zaio zaurituta doan orein-emeari ura, ta oparo eman ere. Emen zoragarritua da Jainkoaren txabolan.¹⁴ Noe'k ugoldea bukatua zanentz ikustera bialdu zuen usoak ementxe aurkitzen du oliba kimua, mundu ontako ekaitz eta uren erdian lurmena, ots, nun oiña jarri idoro zuenaren ezaugarria.¹⁵ O Jesus! Eta nork lekizkin Liburu Santuetako milla gauza, arimearen pake au adierazi al izateko an datozenak noski! Ene Jainko, nolako ardurea guri doakigun ba-dakizu-ta, eiguзу kristauak ori nai izan dezatela billatu, eta eman diezutenai ez ori kendu, zeure erruki aundiz; izan ere, zuk egiazko pakea eman ante ta berori galdu ezin daiteken tokira eldu arte, beti bizi bearko dugu bildur-ikarez. Egiazko pakea diot, ez diodan au orrelako ez dala uste dudalako, gu Jainkoagandik urrutiratuko ba'

¹⁴ Apok., XXI, 3.

¹⁵ As., VIII, 8-9.

giña, lendabiziko guda (gerra) erasora biur gindezkela-ko baizik.

14. Baiña, zer min samiña ez luteke izango arima auek ondasun ain aundi gabe geratu litezkela ikustean? Ardura geiagoz erabil-azten ditu onek, eta euren makaltasunetik indarra aterarik, leiatsu ibilli oi dira, euren erruz beintzat, Jainkoaren gogoko danik ezertxo ere gera ez dadin egin gabe. Arimok, izan ere, Jainkoak mesedez ugarituago ta koldar-bildurtiago ibilli oi dira beren buruaz. Eta Aren aunditasun auetan beren mi-xeri-ezerezak obeto ikusi dituzten ezkerok, eta beren pe-katuak ere astunagotzen, sarri Ebanjelioko zerga-gizona legez dabiltz,¹⁶ begiak lurretik jasoten ausartzen ez di-rala; beste batzuetan, betiko zorionaren ziurtasunean, beren bizia bukatuko ba'litza opa luteke, naiz-ta gero berriro itzuli leenera, esan dugunez, Jauna maite-maite dute-ta, Ura zerbitzeko oraindik bizi naiean, Aren erru-kian jarririk itxaropen osoa. Aldizka, kilkilduak dabil-tza ainbeste grazi zerutar artu dituztela-ta; bildur dira, geiegi zamatua doan itxas-ontziaren antzera, eurak ere ez ote diran ondatuko.

15. Arima aueri, aizpak, etzaie gurutzerik pal-ta, nik diotzuet. Onek baiña, ez ditu kezkarazten, ezta pakerik kendu ere; azkar igarotzen da olatu baten an-tzera, edo-ta ondoren ezialdia darraikion ekaitza be-zela. Jauna bai dakarte begi aurrean eta onek laster aaztu-erazten die oro. Beti-beti bedeinka ta gora bezate Bere izaki guztiak. Olantxe.

¹⁶ Luk., XVIII, 13.

Amaitzen da, Jaunak bere ir tziz arimeari orren mesede aundiak egiñaz zer nai duen adieraziaz; guztiz bearrezkoa dala Marta ta Maria beti alkarrekin ibiltea. — Probetxu aundikoa da.

1. Ez duzue uste izan bear, aizpak, esandako ondore auek beti mailla berberean daudenik onako arime-tan. Orixegatik, gogoratzen naizenez, geinetan dala diot, batzuetan gure Jaunak beren arira uzten bait ditu, ta orduan inguruko ta gaztelu ontako bizitokietako gauza pozoitsu guztiak alkartzen dirala dirudi, beren eskuetan euki ezin diturten artean gaitzez erantzun nairik.

2. Egoera onek, egia, ez du luzaro irauten: egun bat geienik, edo zerbait geitxoago. Eguneroko gertakizunen bat izan oi da geienetan arrabots aundi onen sorpurua, eta emen argi ikusten da arimeak daukan lagun onarekin zenbat irabazten duen, kemen bizi-bizia ematen bait dio Jaunak bere zerbitzuan ezertan ere ez okertzeko ta erabaki sendoak artzeko, eta auek dirudienez beti doaz azitzen; arimea, beraz, ezta ezertan ere bere erabakitik okertzen, ezta leen-zirkin txikiene-tan ere. Kezka ori, berriz diot, gutxitan baizik ezta, eta onela Jaunak nai du arimeak ez dezala galdu bere izaeraren gomuta, apaltasunean bizi dadin bed, aide batetik, eta bestetik, Aren Aunditasunari zenbat zor dion obeki jakin dezan, baita artzen duen mesedearen aunditasuna gogozartu ta Jainkoa geiago goresten alegindu dadin.

3. Ez bekizue burutik igaro ere egin, arima auek lurreko ezergatik uts bat ez egiteko gurari biziak eta erabaki sendoa euki arren, uts asko, eta pekatuak ere bai,

ez diturtela egiten. Jakiñaren gaiñean ez, Jaunak onakoai laguntza berezia ematen edo die-ta, ontarako. Pekatu ariñak esan nai dut, astunetatik, ba, beren ustez diranetatik beintzat, aske daude, naiz-ta ez seguru; eza-gutzen ez dituztenen batzuk eukiko diturte, ta onek naigabetuko ditu ez gutxi. Beste naigabe-bide bat zaie galtzen diran arimak ikustea, naiz berak ez dirala izango-ta, itxaropen aundiz beteak egon. Alan eta gurti, Idazti Deunak norbaitzuei buruz esaten duenaz oroiturik, Aren Aunditasunaz ainbat ar-eman izan zuen Salomon'ek legez Jainkoz lagunduak zirudienak noski, ezin diote utzi beldur izateari, gorago esan dudanez." Zuen artean norbait ba'lego ziurtasun aundiz bere baitan, olakoa bedi beldurtien, Dabid erregeak, bait dio: *Zorionekoa Jaunaren beldur dan gizona.*¹⁸ Babes gaitzala beti Jaun altsuak; ez dezagula egundo naigabetu, auxe da guretzat izan genezaken ziurtasunik aundiena. Beti ta beti goretsia bedi. Olantxe.

4. Onezkero, aizpak, egoki izango da zuoi esatea zergatik Jaunak mundu onetan egiten dien arimai onako mesedeak. Euren ondorioetan sumatuko zenuten bear bada, konturatu ba'ziñien beintzat, baiña berriro esan nai dizuet emen, iñork uste izan ez dezan arima aukeratzeko bakarrik diranik, au oker aundia litzateke-ta. Aren Aunditasunak ezin dezaguke on aundiagorik egin, bere Seme maite-maiteak eraman zuen lakoxe bizia guk ere egiteko guri bizia emanez baiño. Orregatik, nik nere kolkorako daukat esker auker gure aultasuna sendotzeko dirala, emen iñoiz esan dudana bezela, Aren antz ereduaz joka dezagun naigabe ta miñetan.

5. Beti ikusi duguna da, Kristo gure Jaunarengandik urbillago ibilli ziranak, onetxe izan zirala, nekerik aundienak jasan ziturtenak. Begira nolakoak ikusi zituen

¹⁷ *III Erreg., XI.*

¹⁸ *Eres., CXI, 1.*

bere Ama gurenak, eta Apostolu aintzatsuak. Nola, uste duzue, Paul doatsuak peke-min orren aundiak? Aren bidez jakin dezakegu nolako ondorioak uzten dituzten egiazko ikuskariak eta aurrez-aurrezko begiztatzeak, Gure Jaunagandik datozenak diranean, eta ez irudimenak eioak edo-ta deabruaren iruzurrezkoak. Eurakin ezkutatatu zan bear bada atsegin-sari aiekin gozar dezan, beste ezertan ere esku artu ez nairik? Ba-dakusazue, ulertu dezakegunez, ez zuen euki atsedeen-egunik bat bera ere; ezta gaurik ere, zer-jana gauzez irabazten zuen-ta.¹⁹ Eder egiten zait oso giltzapetik igesi zoaneko Pedro doatsua-ren jokaera, Gure Jaunak bidean aurkitu ta berriz gurutz-iltzatua izateko Erroma'ra zijoala esan zionekoa. Au dagoen jaia iñork ere ez dugu egiten, nik bereziki, berarizko poztasuna artu gabe. Nola geratu ote zan Pedro doatsua, edo-ta zer egin ote zuen? Eriotzara joan bertatik; eta ez da Jaunaren erruki txikia emango dion norbait aurkitzea.

6. O, ene aizpak, Jauna onen berariz barnean duen arimeak, aaztua euki bear du noski baiño noskiago bere atsedena, eta lurreko dedu guztiak ere ez diote axola aundirik ematen, eta urrun dago zerbait ba-dala uste izatetik ere! Arima onek, izan ere, bidezko danez, Jaunarekin etengabe baldin ba'dago, ez dauka zertan bere buruaz ani izanik; gomuta guztia bait doakio nola Ura gero ta pozago euki, eta zertan, edo-ta nundik nora dion maitasuna Ari erakutsiko. Onetarako da otoitza, ene alabak; ontarako da gogozko ezkontza au, beti erne ditezen egintzak, egintzak.

7. Esan dizuet leen ere, auxa da egiazko ezau-garria gauzok Jainkoak egiñak eta mesedeak dirala jakiteko; ekarri ere onura gutxi ekarriko dit oso-osonere kautan bildurik bakarrean egotek, Gure Jaunarekin egintzak egiten egoteak nunbait, Aren zerbitzuaga-

¹⁹ I Tes., II, 9.

tik mirarizko gauzak burutuko ditudala adierazi ta itze-
manez ain zuzen ere, otoitz ortatik irtenik, bitartea
dudanean, dana bestera egin ba'dagit. Gaizki esan dut
onura (protxu) gutxi ekarriko duela, Jainkoaz egonik
egiten dana oso bait zaigu probetxugarri; eta eraba-
kiok, naiz gero aulak izan beuron betetzeko, Jaunak
berak emango digu noizik bein grazia eurok betetzeko,
baita sarri geuk nai izan ezta ere. Izan ere, Jaunak
ba'dakus arima bat kikildua, naiz-ta beronek gura ez,
lan eta neke aundiak bialdu oi dizkio; arimak onela
irabazi ez txikia ateratzen du, gartzen da gaiñera ontaz
eta bildurrak galdurik, Ari eskeintzen dio bere burua
uste ta indar aundiagoarekin. Gutxi zala esan nai nuen,
ots, askoz obe dala orren aldean egintza onak asmo
ta itzekin bat etortzea. Baiña dana batera egin ezin
duenak, egin dezala apurka apurka. Otoitzetik ezer-onik
atera nai duenak, saia bedi bere nairnena ezten; agian
gure komentu bazterretan izango duzue naiko aukera,
ortarako.

8. Gogora ezazue, onek, nik esan daikedan baiño
garrantzi askoz aundiagoa duela. Jar zeuen begiak Kris-
to gurutz-iltzatuarengan, eta guztia gutxi egingo zaizue.
Aren Aunditasunak egite ain izugarri ta oiñaze bizi-
ekin erakutsi ba'zigun bere maitasuna, nola nai duzue Ura
itzakin bakar-bakarrik pozteraztea? Ba ote dakizue zer
dan bene-benetan Jainko-tale izatea? Jainkoaren jopu
egitea, Bere burniaz, au da, Bere gurutz-burniaz ezau-
garriturik, arima jopu oiek beren askatasuna eman dio-
ten ezkerok, Berak saldu al izan ditzan mundu gurtiaren
jopu ta zerbitzaritzat, Berak bere buruarekin egin zuen
bezela; eta olan egiñikere, ez die iraiñik egiten, eta
bai mesede ez txikia. Eta ontara erabakitzen ez diran
arimak ez dezatela uste izan on aundirik aterako dute-
nik. Esan dudan bezela, apaltasuna da etxe aundi onen
oiñarri, eta bene-benetan apaltasunik ez ba'dago, Jau-
nak ez du naiko, zuen onerako ere, olako arimea
goregi jasoterik, dana lurrera ez dadin. Orrela, ba,

aizpak, etxe onek oiñarri onak eraman ditzan, guztietan txikiena izaten alegindu zaiteze, eta Aren zerbitzari ta mirabe, nola edo nondik Ari atsegin izan eta ondoen zerbitu zenezaioketen kontuan izanik; ontan burutu zenezakena, aiengatik baiño geiago zeuen onerako dagizute, oiñarritzat arri sendoak ipiñiaz lurrera ez dezazuten gaztelua.

9. Berriz diotzuet, ontarako ez ezazue otoitzean eta begiztatzean bakarrik ipiñi oiñarria; birtuteak zeurenganaten ez ba'dituzue, ba, ta euretan jardun, txiki geratuko zerate beti; eta Jainkoak nai izan dezala ez aztea bakarrik, aunditzen ez dana txikitzen doana bada-kizue-ta; nik ezintzat daukat euki ere, maitasunik baldin ba'dago, au ez dala iñoiz ere izaera berdiñean egoten.

10. Usteko duzue bide au asi-berri diranekin ari naizela, eta gero, zati batean ibillitakoan, atsedena at dezaketela. Esan dizuet arima auek barrutik daukaten pake ta bare-aldia, kanpotik askoz gutxiago eukiko, edo-ta kanpotik eukiterik ere nai ez izateko dala. Zertarako dirala uste duzue esan ditudan goi-argitzeak, edo obeto esateko arnas-artzeak, eta arimeak bere izate-erdi-erditik, bai gazteluaren gaiñekaldeko jenteari eta bai bera aurkitzen dan lekutik kanpora dauden egoitzetara bialtzen zitun mezu edo mandatu aiek? Lotaratu ditezen bear bada? Ez, ez, ez. Andik, leen eurekin jasan eta jasan ebillenean baiño gerra geiago egin oi bait die, zabar egon ez ditezen aalmenak eta zentzunak eta gorpuzki dan oro; orduan ez zuen, bada, ulertzen nolako irabazia dakarren neke-lanak, Jainkoak bear bada arimea ara ekarteko bide izan diranak, eta nola daukan lagunak egundo baiño indar aundi-aundiagoak ematen dizkion. Dabid'ek emen ba'dio santuekin santu izango gerala,²⁰ ez dago zertan ezpaian egonik, baizik-eta, sen-

²⁰ Eres., XVII, 26.

do danarekin, espiritua espirituaz gurenki alkarturta gauza bat bera egiña egonik, sendotasuna itsatsiko zaio, eta orrela ikusi al izango dugu santuak jasan eta ilteko euki izan dutena.

11. Ziur-ziurra da, arimeak, ortik datorkion indararekin gazteluko biztanle guztiak egiten ditula erdikide, baita gorputza bera ere. Sarritan dirudi gorputzak ez duela obaririk sumatzen; baiña arimeak, bere Senarrak ekarri duen —eta bertatik irteten lagatzen ez dion upaltegiko ardoarekin kemendurik, gorputzari ere naiz-ta argala egon, indarra ematen dio, gure artean ere urdailleratzen dan janariak buruari ta gorputz osoari adores ezarri oi dien bezela. Arima gaixoak one-ta zoritxar aundia du bizi dan bitartean; alegiñalak egin, ba, askoz aundiago zaio barrutik datorkion indarra ta egiten zaion guda, ta oro iruditzen zaio ezereza. Ontatik zetozen, antza, santu askok, eta batez ere Madalen aintzatsuak, beti guritasun aundian azitakoak, egin zituzten penitentzi izugarriak; ortik baita gure aita Elias' ek bere Jainkoaren deduzko gose ura, eta Domingo doatsuak eta Frantzisko deunak arimak Jainkoratzeko amets bizia, arima aiek Jauna goratu zezaten. Beren buruaz aazturik, ziñak eta miñak ikusi bearko zituztela, diozuet.

12. Auxe opa dut nik, ene aizpak, guk saiatuz ardiets dezagun. Nai izan dezagun eta egin dezagun otoitz, ez gero gozatzeko, Jauna zerbitzeko indarrak eskuratu ditzagun baizik. Urrun guregandik ibilli gabeko bidez ibilli nai izatea! Gitxien usterik galduko giñake! Bitxia izango Iitzateke egi-egiaz Jainkoaren mesedeak, Bere ta bere santu guztiak ere ibilli ziran bidetik kanpo iritxi nai izatea. Ezpei olakorik gure burutik igaro! Sines nazazue: Marta ta Maria alkarrekin ibilli bear dute Jaunari ostatu emateko, beren aterpean beti eukiteko, ta ostalari izan ez ditezen Arekin, mai txarra ipiñiaz. Nola eman liokean Maria'k eten gabe Jaunaren oiñetan jarriak, bere aizpak lagundu ezik? Jaten ematen zaio

Jaunari, geure aletin guztiz arimak Beraganatzen saiatzen geranean, zeruraturik, betiren beti gorts dezaten Bera.

13. Bi gauza esango didazue: bata, Gure Jaunak esana, Maria'k aukeratu zuela zatirik onena **2'** Baiña arek aurretik egin zuen Marta'ren zeregiña, Jaunari oiñak garbitu ta bere ille-xirgillez igurtzirik?²¹ Uste al duzue neke ta naigabe txikia izango zala Mari bezelako andre batentzat kaleak zear eta agian bakarrik, ez bait zeukan garrik nola zijoan jakiteko, eta egundo sartu etzan lekuan sarturik, fariseotarraren marmar ta gaizki-esateak entzun, eta ortik gaiñera jasan bear izan zuen guztia? Aren neurriko emakumean alako aldaketa errian ikustean, eta dakigun legez ainbat jende txar artean, naikoa zan Jaunarengan zeukan begiramena ikustea, Jauna ikusi ezin zuen jende arek marmarrean ekiteko; naikoa zan, bai, ordurarte berak eraman zuen bizi-modu ariña gogorazi ta orain doatsu maillara igo nairik zebillela jakitea! Ezin-uka danez, igarrian eta bertatik aldatu bear zuen arek jantzia, eta berdin oiturak; gaur-egunean ere, pertsona ain aundiak ez diranengatik, galantak esan oi bai dituzte, zer izango zan orduan? Nik diozuet, ene aizpak, zatirik onena etorri zitzaiola ainbeste lanen salneurri eta azkenik gabeko buru-ukapenen ordaintzat. Bere Maixua orren iguindua ikustea bakarrik ere, oiñaze eraman-eziña zitzaion noski. Eta gero, Jaunaren eriotzaldian sufritu bear izan zitunak! Nik neretzat daukat, martiritzarik jasan ez ba' zuen, Jauna iltzen ikustean jasan zuelako izan zala; eta ondorenean, bizi izatu zan bitartean, oiñaze izugarria izango zitzaion Arengandik urrun bizi izatea. Emendik dakusagu beti ez zegoela begiztandiko goxotasunakin, Jaunaren oiñetan.

14. Bestea, da, zuek ezin dezakezuela, zuek ez dau-

²¹ Luk., X, 42.

²² Luk., VII, 37-38.

kazuela arimak Jaunari nola ekarri; gogo biziz egingo zenuteke, baiña Apostoluak egin oi zuten bezela ezin dezakezue irakatsi ez Berri Ona otsegin, ez dakizue-ta. Oni iñoiz erantzun nion idatziz, eta ez dakit Gaztelu ontan bertan izan ez dan. Baiña au, Jaunak eman oi dizkizuen naierakin, gogotan erabiltzen duzuen gauzea dala begitanduten zaidan ezkerro, ez dut emen ipiñi gabe utziko. Esan nizuten beste nunbait, deabruak noizka gurari biziak jarten ditula gure baitan, esku artean ditugun eta Gure Jauna zerbitzeko errezak diran gauzak albora utzi ta iritxi ezin ditugunak nai izanik poz-bitsetan geratzen gerala. Baiña, otoitzean laguntza aundia iritxi dezakezuela saiets utzita ere, ez ezazue mundu guztiari uztiatu nai izan, emen zuen lagun diranei baizik, eta orrela zuen egintza aundiagoa izango da, beuren aide ori egitera beartuago zaudete-ta. Txikia al dala uste duzue zuen irabazia, zuen apaltasuna ta burukapena ain aundiak izatea, ta aizpa guztiak goi-maitasun benetakoz serbitu, Jaunaren maitasunarren, eta maitasun-su onek piztu-azi ditzala guztiak, eta beste birtuteekin alkar ernarazten beti jardutea? Zerbitzu aundi to oparoa izango da, bai, eta oso atsegingarria Jaunari; eta egintzaz jarten duzuen onekin Aren Goitasunak igarriko du, noski, ori baiño geitxoago ere burutzeko gai zeratela, eta olan, berein arima irabazi ba'zenizkiote bezela, izango da emango dizuen saria.

15. Au ez dala onbideratzea, esango duzue, guztiok onak zeratela-ta. Nork sartzen zaituzte ortan? Obe ta artezagoak, gogokoago izango zaizkio Jaunari aien goralpenak, eta onurakorrago izango urko-lagunai ere beren otoitza. Labur, ene aizpak, eta onekin amaitzen dut: ez dezagun torrerik eraiki oiñarri gabe. Egindako aunditasunari baiño geiago begiratzen dio Jaunak egiten dan maitasunari; eta al deguna egin ba'dagigu, Aren

²³ *Onbidea, I eta III kapituluetan.*

Audditasunak egingo du, egunetik egunera geiago ta geiago al dezagula, eta ibilliz ibilliz nekatzen ez baldin ba'gera, bizialdi onek dirauan bitartean, bakoitzak uste duen baiño laburragoa izango da bear bada, harm ta kanpo eskeiñi dezaiogun Jaunari al dugun buru-ukapena, eta Aren Aunditasunak alkartuko du Berak gure aide Aitari gurutzean egin zuenarekin, gure naimenak merezi duenaren balioa euki dezan, naiz-ta egingtzak txikiak izan.

16. Nai dakiola Bere Goitasunari, ene aizpa ta alabak, alkar ikusi dezagula beti Bera aintzatuko dugun leku aretan! Eta egin bezait niri, erakutsi dizuenaretik zerbait neronek ere egin dezadan, bere Semearen irabazien bitartez, betiren beti Errege bizi da-ta. Olantxe. Dudan gorri-aldia, berriz diozuet, ezta txikia; eta orixegatik, Jaun berarren eskatzen dizuet, ez dezazutela gaixo errukarri au zeuen otoitz eta erreguetan aaztu.

J.H.S.

J. x. s.

1. Naiz-ta orrialde auek idazten asi nintzanean, asieran esan nuen narda ta saporez izan, bukatu ondoren poz aundi batek inguratu nau, eta egin dudan lana ontzat ematen dut, oso urria dala aitortzen dudan arren. Barruan bizi zeraten ezkerro ta atsegin artzeko gauza gutxi daukazutela ikusirik eta zeuen komentu batzuetan pizkat jolastutzeko ere ain toki gutxi, edo egoki litzaken aiña ez beintzat, uste dut, ene aizpak, gogozko izango zaitzutela barruko gaztelu ontan jostaraztea; zuen nagusi-arnaren baimenik gabe ere sar zaitzekete bertan eta bertako egurats-tokietan ibilli edozein ordutan.

2. Egia da, egoitza guztietan ezin sartu zaitzekete zeuon indarrakin, naiz-ta indartsu zeratela zuek uste izan, gazteluaren Jaunak berak sartzen ez ba'zaituzte. Orregatik egiten dizuet oar au: indarrik ez egin zuek, edonolako jarkipenik idoroko ba'zenuteke; bertako Jaunak, ba, oztoporen bat aurkituko ba'lu, zapuzturik utziko zenitukete ta egundo geiago ez lizueke euretan sartzen lagako. Apaltasunaren adiskide da. Irugarren egoi..

tzetan sartzeko baiño gai ez zeratela etsirik ba'zaudete, ariñago irabaziko diozute naimena botsgarrenetariño eltzeko; eta gero, ortan sartu-irten asko egiñik, irabazi al izango duzue, Bera aurkitzen dan bizilekuraiño eraman zaitzaten; ortik ez zerate geiago irtengo, nausi-amak deituta ezik: onen naia, ba, Jaun aundi onek opa du berea ba'litza bezela bete dezazuten. Bere aginduz luzaro kanpotik ibilli bearra ba'duzue ere, beti eukiko duzue, itzultzerakoan, atea zabalik. Gaztelu onek duen poz-atsegiña txastatzera ezkeru, poz-atsegin ori iñork ez diola kenduko ba'daki-ta, gauza guztiak zaizkio, baita neka-garrienak ere, atsedean bete.

3. Zazpi egoitza baiño ez diran arren, auetako ba-koitzean beste asko daude: bean, goian eta alboetan, lorategi ta iturri politekin, eta beste gauza atsegingarri askorekin, eta gurako zenukete bere antz-irudira sortu zinduen Jainko aundiaren gorlpenetan ler-egitea. Ari buruz zuoi nere ikasbidea ematean zerbait onik aurkitu ba'duzue, siñis dezazue Aren Goitasunak eman dizuela egi-egiazki, zuek poztutzearren; eta bertan aurkituko duzuten txar guztia, ordea, neronek esana dala.

4. Zuok ere, nere Jainko ta Jaun onen mirabe izaten laguntzen erdikide izateko gurari bizitan nagoen ezketiño, au irakurri dagizuen bakoitzean, Aren Aunditasuna goretsi dezazutela, nere izenean, asko ere asko, ta eska dezaiozuela Aren Elizaren ugaritzea, eta argia lutertarrentzat; niretzat, berriz, eska ezaiozue parka dizkidala nere pekatuak, eta atera nakiala garbitokitik; an egongo bait naiz bear bada, Jainkoaren errukiari esker, idatzi au zuen eskuetara zuek irakurteko bezela iritxiko zaizuenean, gizaseme jakitunak aurretik ikusita, zuok ere ikusteko moduan legokenean. Zerbait oker baldin ba'lego, nik geiago ulertu ez dudalako litzateke. Guztian Eliz Ama Katoliku Erromatarrak irakasten digunera jarten naiz. Onetxek dira nik gaur dauzkadan sentikizunak, eta auetan bizi ta il nai dudala zin dagit

eta baiezen. Jainko Gure Jauna bedi beti-betiko
goretsia ta bedeinkatua. Alabiz. Alaxen.

5. Idatzi au Avila'ko San Josef lekaimetxean
amaitu zan, 1577'garren urtean, Ander Deunaren
bezperan, Jainkoaren aintzarik aundienerako,
betiraun guztian Errege bizi da-ta! Olantxe.

AURKIBIDEA

Oarra	7
Sarrera	9
Egoitzak	27
Lenengo egoitzak	31
Bigarren egoitzak	49
Irugarren egoitzak	59
Laugarren egoitzak	73
Bostgarren egoitzak	97
Seigarren egoitzak	125
Zazpigarren egoitzak	205
J. x. S.	235

